

2011

**NAFARROAKO MENDI ALDEKO
EUSKALDUNEN ALFABETATZE JARRERAK,
JOERAK ETA HAUTEMATEAK. 2011**





AURKIBIDEA

SARRERA	6
METODOLOGIAZKO OHARRAK	7
1 EUSKARA HIZKUNTZA	11
1.1 ZER DA EUSKARA ZURETZAT?	11
1.2 EUSKARA ERABILTZEAREN ZIOAK	13
1.3 ESPARRU BATZUETAN, EUSKARA EZ DA BEHARREZKOA	13
1.4 INGURUKO JENDEAK BERDIN IKUSTEN DU?	14
2 HIZKUNTZA ERABILERAK. EUSKARA ETA ERDARA KONTSUMOAK	16
2.1 EUSKARA KONTSUMOA	16
2.1.1 Zer irakurri	17
2.1.2 Zer ikusi	19
2.1.3 Zer entzun	19
2.1.4 Zer idatzi	20
2.1.5 Zerbait sumatzen al da faltan?	20
2.2 ERDARA KONTSUMOA	22
2.2.1 Non eta norekin hitz egin	22
2.2.2 Zer irakurri	23
2.2.3 Zer ikusi	23
2.2.4 Zer idatzi	23
2.3 EUSKARA ETA GAZTELANIA KONTSUMOA KONPARAKETA, ARLOZ ARLO	24
3 EUSKARAZ ALFABETATZEA	25
3.1 ALFABETATU GABEAK	25
3.1.1 Euskarari lotutako gabeziak	25
3.1.2 Alfabetatu gabe egoteak, hainbat kalte sortzen ditu herritarren artean.	26
3.1.3 Alfabetatzea beharrezkoa al da?	27
3.1.4 Zergatik ez dira alfabetatu?	28
3.2 ALFABETATUAK ETA BIDEAN DAUDENAK	31
3.2.1 Zergatik aukeratu zuten alfabetatzea?	31
3.2.2 Oro har, aurreikuspen hauek bete egin dira	34
3.2.3 Izandako esperientzia	35
3.2.4 Nabaritutako onurak	37
3.2.5 Alfabetatzea, gomendagarria da	38
4 KANPAINAK ETA MEZUAK	39
4.1 KANPAINEN BALIOA	40
4.2 KANPAINEN ERAGINA	40

4.3	EUSKARRIAK/BITARTEKOAK -----	42
4.4	KARTELAK -----	43
4.5	KANPAINEN BIDEZ JASOTZEN DIREN MEZUAK: -----	45
5	EUSKALTEGIAK -----	46
5.1	EUSKALTEGIEN FUNTZIO GARRANTZITSUA-----	46
5.2	EUSKALTEGIEN ESKAINTZA: EZAGUTZA -----	47
5.3	BALORAZIOA, POSITIBOA-----	47
5.4	ERREALITERA EGOKITZEN AL DA ESKAINTZA? -----	48
5.5	INTERESEKO PROIEKTUA -----	49
5.6	ZER GEHITU EDO ALDATU? -----	49
I.	ERANSKINA: GIDOIAK -----	52
II.	ERANSKINA: TRANSKRIBAPENAK -----	64

**NAFARROAKO MENDI ALDEKO
EUSKALDUNEN ALFABETATZE
JARRERAK, JOERAK ETA
HAUTEMATEAK. 2011**

-IKERKETA KUALITATIBOA-

[SARRERA]

Orriotan **Nafarroako mendialdeko euskaldunen alfabetatze jarrerak, joerak eta hautemateei buruzko ikerketa kualitatiboaren** emaitzak aurkezten ditugu. **Aztikerrek** egin duen lan honen helburua izan da, euskara eta zehazki alfabetatze prozesuaren gainean dauden diskurtso, motibazio eta esperientzia pertsonal ezberdinak mahai gaineratzea.



Ahalegin horretan, aipatu eskualdeetan zehar sakabanatutako elkarrizketak burutu ditugu, eta eztabaida-taldeak ere antolatu ditugu. 3 elkarrizketa egin ditugu eta 4 eztabaida-talde bat. Erabilitako metodologiaren aurkezpena biltzen duen atalean ikus daitekeenez, adin, alfabetatze maila eta eskualde ezberdinetako herritarrek parte hartu dute elkarrizketetan eta taldean. Ondorioz, elkarrizketa eta talde ezberdinak egin ditugulako batetik, eta topatu ditugun herritarrak askotarikoak izan direlako bestetik, informazio ugaria eta oparoa bildu dugu: baliagarria eta aberatsa. Lan horren guztiaren emaitza da aurkezten ari garen txosten hau.

Txostena bost zati nagusitan banatu dugu. Lehen atalean, herritarrentzat euskara hizkuntza zer den azalduko dugu; bigarren atalean, hizkuntza erabileraren inguruan jardungo dugu, zehazki euskara eta gaztelaniaren kontsumoaren gainean; hirugarren atalean, euskaraz alfabetatzearen gaineko diskurtsoak aztertuko ditugu, beraz, hemen kokatzen da atal nagusia; azken aurreko atalean, eskualdeetan egiten diren kanpaina eta mezuen inguruko hautemateak landuko dira; azken atala, berriz, euskaltegiei eskainiko zaie.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu elkarrizketatuak izan diren herritarrei eta eztabaida-taldeetan parte hartu duten guztiei. Guk proposatutako gaiak buruz hitz egiterakoan benetako ardura hartu dutelako, eta eman diguten informazioa benetan oso baliagarria izan delako. Haiek dira lan honen benetako bihotza, haien ekarpenik gabe ezinezkoa litzateke horrelako lanak egitea eta. Beraz, eta bihotz-bihotzez, mila esker guztiei.

[METODOLOGIAZKO OHARRAK]

LANDA LANAREN LABURPEN TAULA

Unibertsoa: Nafarroako mendialdeko herritar euskaradunak.

Elkarrizketak: 3 herritar

- Euskaraz alfabetatu gabea
- Alfabetatze bidea burutzen ari dena
- Alfabetatua dena

Eztabaida-taldeak: 4 talde

- Guztira, 21 partaide (10 emakume eta 11 gizon).
- Guztiak, Nafarroan bizi diren biztanleak.

Ikerketan parte hartu duten pertsonak guztira:

- 24 herritar.
- 12 emakume eta 12 gizon.

Data: landa-lana 2011. urteko martxoaren 28 eta apirilaren 14a bitartean egin dugu.

Ikerketa kualitatibo hau egiteko, honako teknikak erabili ditugu: **sakoneko elkarrizketak eta eztabaida taldeak**. Orain jarraian, egindako eztabaida eta elkarrizketen ezaugarri zehatzak zein izan diren aurkeztuko dugu, baina azal dezagun lehenago zein gogoeta egon den gure diseinuaren oinarrian.

❖ HERRITARRAK SAILKATZEKO ERABILI DITUGUN HONAKO HIRU ARDATZ HAUEN ARABERA DISEINATU DUGU IKERKETA KUALITATIBO HAU.

- **Batetik, euskararen alfabetatze-mailan duten kokapena (alfabetatu gabea/alfabetatzen ari direnak/alfabetatuak)**
- **Bestetik, adina: 30-55 urte bitarteko herritar nafarrak**
- **Azkenik, eskualdea.**



Hiru ardatz horiek abiapuntu izanda, jarraian zehazten dugu nola banatu ditugun egindako elkarrizketa eta eztabaida-taldeak.

❖ ALFABETATZEAREN GAINEKO ARDATZAREN BAITAN, HORRELA BANATZEN DIRA EGINDAKO 3 ELKARRIZKETA ETA 4 EZTABAIDA-TALDEAK

- **Alfabetatu gabeko herritarrak:**

- o Elkarrizketa sakon bat
- o Hiru eztabaida talde

Elkarrizketa hauen bidez, alfabetatua ez egoteak sortzen dituen bizipen eta gabeziak jasotzeaz gain, alfabetatzea ez burutzeko arrazoiak eta era berean, alfabetatze prozesuari ekiteko aukeren inguruan sakonduko da.

- **Alfabetatze bidean dauden herritarrak**

- o Elkarrizketa sakon bat
- o Eztabaida talde bat (alfabetatuekin batera)

Alfabetatze prozesua hasteko eragina izan duten faktore eta arrazoiak mahai gainean jartzeko aukera emango digute herritar hauek.

- **Alfabetatze prozesua burutu duten herritarrak**

- o Elkarrizketa sakon bat
- o Eztabaida talde bat (alfabetatze bidean daudenekin batera)

Herritar alfabetatuek, alfabetatze prozesua burutzeko izan zituzten arrazoietan sakontzeaz gain, prozesua beraren balorazioa landuko da.

❖ ELKARRIZKETAK ZEIN TALDEAK EGITERAKOAN, AINTZAT HARTU DITUGU BESTE ALDAGAI HAUEK ERE:

- **Sexua.** Elkarrizketen erdiak emakumezkoei egiten eta beste erdiak gizonezkoei egiten ahalegindu gara. Eztabaida talde guztietan, halaber, gizonezko eta emakumezkoen pisu orekatua bilatu dugu.
- **Eskualdea.** Elkarrizketak zein taldeak egiterakoan, Araba, Bizkaia eta Nafarroako herrialdeen arteko banaketa egin dugu. Zehazki, honakoa burutu dugu:
 - o **Bortzirriak, elkarrizketa sakon bat.**
 - o **Leitzaldea, bi elkarrizketa sakon.**

Eztabaida taldeak, Lekunberri, Bera (bi talde) eta Donezteben burutu dira. Partaideei dagokionez, honako eskualdeetako herritarrak bildu dira:

- o **Bortzirriak, 11 herritar**
- o **Leitzaldea, 5 herritar**
- o **Malerreka, 4 herritar**
- o **Ultzama, herritar bat**

❖ 4 EZTABAIDA TALDE EGIN DITUGU. TALDEAK, 4-7 KIDE BITARTEAN OSATUAK IZAN DIRA. EZTABAIDA-TALDEAK, ORDU BAT ETA LAURDEN IRAUN DUTE BATAZBESTE.

- **Eztabaida-taldeak: 4 eztabaida talde** burutu dira guztira.

Talde hauen diseinurako irizpideak honakoak dira:

- Eskualdea
- Alfabetatze maila
- Euskararekin gertutasun maila
- Adina

Zehazki, horrela banatu dugu talde hori:

	Taldearen barne-osaera, aldagaiz aldagai:		
	Adina	Herria	Alfabetatze maila
1. TALDEA	36-49	Bera	Alfabetatu gabeak
2. TALDEA	40-47	Lekunberri	Alfabetatu gabeak
3. TALDEA	40-50	Doneztebe	Alfabetatu gabeak
4. TALDEA	28-49	Bera	Alfabetatze bidean eta alfabetatuak daudenak

Eztabaida talde bakoitzeko partaideen ezaugarriak honakoak dira:

ET1	Sexua	Adina	Herri
P1	Gizonezkoa	40	Lesaka
P2	Gizonezkoa	36	Igantzi
P3	Gizonezkoa	38	Lesaka
P4	Emakumezkoa	40	Bera
P5	Emakumezkoa	47	Lesaka
P6	Gizonezkoa	49	Bera

ET2	Sexua	Adina	Herri
P1	Gizonezkoa	47	Leitza
P2	Gizonezkoa	40	Leitza
P3	Gizonezkoa	43	Baraibar
P4	Emakumezkoa	47	Uitzi

ET3	Sexua	Adina	Herri
P1	Gizonezkoa	40-50	Malerreka
P2	Gizonezkoa	45-50	Zubieta
P3	Gizonezkoa	45-50	Donamaria
P4	Emakumezkoa	40-50	Ezkurra

ET4	Sexua	Adina	Herri
P1	Emakumezkoa	31	Bortzirak
P2	Gizonezkoa	28	Bera
P3	Emakumezkoa	32	
P4	Emakumezkoa	36	Bera
P5	Emakumezkoa	42	Lesaka
P6	Emakumezkoa	46	Lesaka
P7	Emakumezkoa	49	Areso

❖ LANDA-LANA

Landa-lana 2011ko martxoaren 28 eta apirilaren 14a bitartean egin dugu, Nafarroako mendialdeko eskualde desberdinetan zehar (ikus ondoko taula udalerrien zerrenda zehatza jakin nahi izanez gero).

❖ ELKARRIZKETEN ETA TALDEEN EZAUGARRI ZEHATZAK BILTZEN DITUEN TAULA

Ondoren ageri diren bi tauletan laburbildu ditugu elkarrizketatu ditugun herritarren eta eztabaida-taldeen oinarrizko ezaugarriak zein diren. Jarraitu aurretik, argi utzi nahi dugu honako hau: ezaugarri horien zehaztasun maila parte hartu duten herritarren anonimotasuna ziurtatzeraino iristen da, ez gehiago.


Txostenean elkarrizketatuen eta taldeetako partaideen hitzak erabili ditugu gure baieztapenen euskarri. Iritzi bakoitzaren alboan ipini dugu zein elkarrizketaturi edo talderi dagozkion hitzak. Aipamen hori egiteko garaian, hiru datu ematen ditugu: elkarrizketa edo talde zenbakia, elkarrizketatuaren izaera eta udalerria. Informazio hori osatzeko beharra izanez gero, jarraian aurkezten ditugun bi tauletara jo dezake irakurleak. Hortxe bilatu ahal izango du elkarrizketa edo talde zenbakia eta bakoitzaren ezaugarriak.

• Eztabaida taldeak

ZK.	EGUNA	HERRIA	PARTAIDE KOPURUA	IZAERA	ADINA
ET1	2011/4/4	Bera	6	Alfabetatu gabeak	36-49
ET2	2011/4/7	Larraun	4	Alfabetatu gabeak	40-47
ET3	2011/4/12	Doneztebe	4	Alfabetatu gabeak	40-50
ET4	2011/4/14	Bera	7	Alfabetatze bidean daudenak eta alfabetatuak	28-49

• Elkarrizketa sakonak

ZK.	EGUNA	HERRIA	SEXUA	IZAERA	ADINA
ES1	2011/3/28	Bera	Emakumea	Alfabetatua	37
ES2	2011/3/29	Lekunberri	Gizona	Alfabetatu gabea	43
ES3	2011/3/30	Leitza	Emakumea	Alfabetatze bidean	53




[1 EUSKARA HIZKUNTZA]

1.1 ZER DA EUSKARA ZURETZAT?

Jasotako erantzunak hiru multzotan banatu daitezke. Eremu pertsonalari lotutako erantzunak; eremu geografiko bati lotuta, izaera kolektibo batean oinarritzen diren erantzunak; eta hirugarrenik, hizkuntzaren errealitate eta osasunari lotutakoak.

Eremu pertsonalari lotzen zaizkion erantzunak gailentzen dira.



➤ Norbanakoari lotutakoak

- Abizen ezberdinak jartzen zaizkion hizkuntza da euskara.
 - o Etxeko hizkuntza
 - o Berezkoa duten hizkuntza
 - o Norbere hizkuntza. Norbere hizkuntza nagusia
 - o Hizkuntza berezia.
 - o Ama hizkuntza.
 - o Bizi osoan erabilitako hizkuntza.
 - o Betirako nahi den hizkuntza.
 - o Euskaldunon altxorra.
 - o Gure herriaren, Euskal Herriaren hizkuntza.
 - o Komunikatzeko gehien erabiltzen duen hizkuntza

"Bizitzeko manera eta... betitikan ezautu degun gauz bat ez, etxetikan eta"
(ET1, alfabetatu gabeak, Bera)

"niretzat nere etxen emandako altxorra ez, eta bueno kalen seitutakoa, eskolan ba zoritxarrez ezkenun izan holako aukeraik edo."
(ET2, alfabetatu gabeak, Lekunberri)

"Euskara neretzako e pues...hizkuntza bat, ez? E... betitikan izautu dutena eta mantenttu nahi dutena, ez? (...) Ta horregatik joan nintzen euskaltegia."
(ES1, Alfabetatua, 37 urte)

- Bizimodu bati lotzen diote batzuek euskararen erabilera.
 - o Euskara dena da: bizitza, ezagutza, egunerokoa...
 - o Kultura bat duen hizkuntza. Honek bizimodu bat ematen du

"Bai hizkuntza, baño badu kultura ere aldi beren ez, kultura eta ohiturak eta...bertze bizimodu bat izateko modua ere bai".
(ET4, alfabetatuak eta bidean daudenak, Bera)

- Ama hizkuntza izan, gerora galdutako hizkuntza bat izatera pasa eta egun errekuuperatutako hizkuntza da euskara.

"Zailla iten zait ez, zer den niretako euskara. Izan nahi dut, bueno igual hasieratikan, txikitatikan jasotako hizkuntza bat da, baña galdutako hizkuntza bat izandu da nere kasuan. Eta gero gaztaron berreskuratu dudana hizkuntza da ez. Ordun ba bai, nere hizkuntza da eta munduan kokatzeko modu bat da, eta gañera ikusirik hizkuntza minorizatua denez eta galtze prozesuan kokatua dagoenez, nere bizian beti borrokarako izandu den akullua."
(ET1, alfabetatu gabeak, Bera)

- Garrantzia hartzen joan den hizkuntza bere bizitzan.
- Identitate sortzailea da.

➤ Herri edo eremu geografiko bati lotuta

- Nortasun eta identitate iturri.
- Hizkuntza da euskaldun bezala identifikatu arazten diona. Herriari identitatea ematen diona.

"Neretzako... hizkuntza da... e... gure den, euskaldunan altxorra, altxor haundi bat, altxor preziatu bat. E... behar bada garai baten... ohartzea kostatu zitzaiguna ezin zittekelako, gure gazte garaien eta... e... egoera politikoa hemen Euskal herrian aldatu zenen esnatu eta iraultza bat izandu genunak, nere garaiekoea... hizkuntzakin eta Euskal kulturakin oso identifikatuta sentitu ginenak eta... altxorra sentitu askotan bai kultura ta, baño hizkuntza da neretzako e... identifikatzen naona euskaldun bezala. Noranahi noala euskalduna naiz eta nik usteot gainera euskalduna... izatea dela nolabatte... bizi zan lurralde horrei Euskal euskalduna dena ematen diona... Alegie, hizkuntzak ematen diola lurrari, ez? Eta Euskal Herrin, Leitza, Leitza biztanlegoa da gehiena euskalduna, ordun Leitza euskalduna da, hori adierazi nahi dot, eztakit."
(ES3, Alfabetatze bidean, 45 urte)

"gure herriaren hizkuntza da. Euskal Herriaren hizkuntza"
(ET4, alfabetatuak eta bidean daudenak, Bera)

➤ **Hizkuntzaren errealitate eta osasunari lotuta**

- Egoera kezkarriarekin lotzen den hizkuntza. Gaztelaniarekin alderatuz gero, ezagutza eta erabilera baxuagoak dauzka euskarak, batez ere Nafarroan, hainbat zonaldetan.
- Azken hamarkadatan asko hobetu da euskararen egoera, baina era berean, asko galdu da, lasaitu egin direlako herritarrak.

1.2 EUSKARA ERABILTZEAREN ZIOAK

- Euskara, **komunikatzeko hizkuntza** da. Komunikazioa esaten denean, gehien bat **ahozko komunikazioaz** ari dira herritarrak. Euskara ahozko komunikazioarekin lotzen eta zehazten da beraz. Erantzun hau, alfabetatu gabeen artean ohikoa da.

"nire hizkuntza da, bueno. Nire hizkuntza dan bezela, komunikatzeko."
(ES2, Alfabetatu gabea, 43 urte)

- Euskara **ezinbestekotzat** daukate batzuek. Hau da, bizi diren inguruetan ezinbestekoa da euskara jakitea. Ezinbestekotasun hau, herri euskaldunetan ematen dela zehazten da, esaterako, Lesakan.
 - o Badira, ordea, baieztapen honekin desadostasuna adierazi dutenak. Azken hauen hitzetan, ezinbestekoa dena gaztelera da, ez euskara.
- Euskararen erabilera, etxearekin eta **eremu pribatuarekin** lotzen dute gehienek. Batzuek, lan esparruarekin ere jartzen dute harremanetan. Azkenik, beharrezkoa izan ez, baina euskararen presentziak ezinbestekoa behar lukeen esparru bat aipatzen da: **administrazioa**. Beraz, eremu pribatutik publikorako jauzia eman beharra aipatzen da.
- Euskarak, **identitatea egituratzen** laguntzen du. Honela, kultura bat, euskal kultura, birsortzeko beharrezkoa da. Baieztapen hau, alfabetatuen artean ematen da.

1.3 ESPARRU BATZUETAN, EUSKARA EZ DA BEHARREZKOA

Euskararen beharrezkotasunaz galdetuta, elkarrizketatuen artean, etengabe sortzen da erreala eta idealaren arteko gatazka. Hots, benetan dena eta izan beharko lukeenaren arteko aldea mahai gainean jartzen da.

Honela, "Euskara beharrezkoa al da? Zertarako?" galdetuta, honako erantzuna errepikatzen da behin eta berriro: euskarak, beharrezkoa izan beharko luke, baina zoritxarrez ez da hala". Baieztapen honen inguruan, hainbat zehaztapen jaso dira:

- Euskara ez da ezinbesteko, gaztelania bai.

"ez dut uste ezinbestekoa denik, hala beharko luke, ados nago horrekin, baño gero eta guttigo. Ikusten dut nik, erran nahi dut, ezinbestekoa dena da gaztelera da. Orain edozein esparrutara joaten zarela eee osea erdaraz eee da hizkuntza mundu guztiak dakiena eta alrebes ez, eta berdin zait persona heldua izan edo ez izan."
(ET1, alfabetatu gabeak, Bera)

- Lanerako da ezinbestekoa, lanpostuaren arabera. Esate baterako administrazioan eta hirugarren adineko pertsonekin harremana duten lanpostuetan.

"Pentsatzen dut lanerako, hemen lanen ibiltzeko euskara behar dela ez, edozein...gehienbat adiñeko personakin, hoiek euskeraz egiten dute eta ordun eurekin ulertzeko, euskara pixkat naturalagoa ez. Nere ustez, medikukin eta...Lesakan pasatzen ari da ez, adiñeko jendia igual joaten zaizu medikura eta igual Iruñeko edo bueno kanpoko jendia etortzen da erdalduna eta ezta sortzen harremana hola (...) segun ze kasutan nik uste dut behar dala, beharrezkoa dela (...) Eozin gauza esplikatzeke eta, beti euskaraz, nik uste dut obekigo inteintzen dela eta."
(ET1, alfabetatu gabeak, Bera)

- Herrietan bizitzeko garrantzitsua da euskara jakitea, baina ez da ezinbestekoa.
- Familia eremuan beharrezkoa da.
- Lagunen artean beharrezkoa behar luke, baina kasu honetan ere ez da hala.
- Beharrezkoa ez izatea, kontzientziazio faltarekin lotuta dago.
- Teknologia berrien erabileran ez da beharrezkoa, mundu honetan gaztelania baita nagusi.
- Euskara ez da ezinbestekoa izango euskaldunak erdal hiztunen beharretara egokitzen garen artean.

"Ezin bestekoa izan beharko luke, baño normalin amoldatzen gara, erdaldune sartzen da bat eta denak aldatzen gara erdarara"
(ET1, alfabetatu gabeak, Bera)

1.4 INGURUKO JENDEAK BERDIN IKUSTEN DU?



Euskara, beharrezkotasuna, kontzientziazioa... elkarriketatuen arabera, herritarren artean gai hauen inguruan iritzi oso desberdinak bil daitezke. Iritzi desberdintasuna, hainbat faktoreren arabera baldintzatua dagoela aipatzen da:

- **Adinaren arabera banatua dago euskararekiko interes eta iritzia:** adinean gora egin ahala, interesak gora egiten duela uste da. Emakume helduak, kasu batzuetan, salbuespenak dira, erdararako joera adierazten baitute. 32-42 urte bitartekoen artean interes baxua dagoela aipatzen da, are baxuagoa gazteagoen artean. Elkarrizketatu askok, adinaren arabera, euskararekiko interes maila desberdina izan dutela aipatu dute.
- **Interes eta kontzientziazio maila:** orokorrean, herritarren artean euskararekiko kontzientziazio gutxi dagoela aipatzen da. Euskaltegietan dagoen eskari falta ere, kontzientziazio falta honi lotzen diote batzuek. Euskara ikasi edo alfabetatu beharrean aurkitzen diren herritar ugari egonda, euskaltegietan ez luke taldeak osatzeko arazorik egon behar.
- Batzuk **euskarari balio gutxi** ematen diotela aipatzen da.
- **Gizartearen erlaxapena:** urteen poderioz, euskararen egoera aldatu egin da eta gauza askotan hobera egin dutenaren ustea zabaldua dago. Honela, euskararen gaineko mehatxu, premia eta gabeziak ez dira hain agerikoak eta herritarra lasaitu egin da euskararen aferari dagokionez.

2 HIZKUNTZA ERABILERAK. EUSKARA ETA ERDARA KONTSUMOAK

2.1 EUSKARA KONTSUMOA

Euskara kontsumoa, honako eremu hauetan ematen da batez ere:



- **Familia eremua** aipatzen da batik bat. Eremu honetan, hizkuntza jakitea edo ez jakiteaz gain, hizkuntza ohiturak garrantzia handia dauka:
 - o Familia eremuaren barruan ere, **banaketak** (nori zein hizkuntzatan hitz egin) egotea oso ohikoa da, hots, batzuekin beti euskaraz hitz egitea eta besteekin gazteleraz (euskaraz alde biek jakinda ere).
 - o **Eboluzioak** ere aipatu dira. Hau da, senitartekoren batekin lehen gazteleraz hitz egitea, eta gerora euskararako jauzia ematea, bai modu naturalean nahiz kontzienteki (nork bere burua euskaraz hitz egitera behartu, kontzientziagatik).
- **Lan eremuan.** Batzuek beti euskaraz aritu izana aipatu dute. Beste kasu batzuetan ordea, lehen erdararako joera zutela aipatzen da.

"Lanean eztaikit, ni hasi nintzenikan lanin aritzen giñen, denak euskaldunak giñen baño airtzen giñen erderaz, eztaikit zergatik eta gero aldatu genun txipa eta orain dena euskeraz, lo que pasa que bueno, sei zazpi lagun gara eta badira gauzak itten dittunak erderaz. Baño gehienbat euskeraz. Laneko hizkuntza euskera"
(ET1, alfabetatu gabeak, Bera)
- **Lagunartean.** Bakoitzaren errealitatea desberdina da eremu honetan. Bi hizkuntzek daukate presentzia handia. Lagunartean, familia eremuan bezala, banaketa eta hizkuntza erabileran aldaketak aipatzen dira:

- o Euskararako joeran eboluzioak nabari dira, lagunartean ere. Normalean, gainera, euskalduntze aldera izaten da: gaztetan taldean erdaraz hitz egiteko ohitu izan eta egun euskaraz hitz egiten duten koadrilen kasua aipatu da esate baterako.

"Orduan, gure aittekin eta erderaz hitz egiten... eta ni nire arrebeekin, lau arreba dauzkat, eta lehen erderaz hitz egiten non, bueno, ttikitan euskaraz hitz egiten genun baina gero ya erderaz hitz egiten nun eta orain berriz euskaraz (...) nire lagunekin Baraibaren erderaz hitz egiten genun, osea, %100. Eta orain %100 euskaraz (...) Aldaketa... Izandu da naturala zergatik askotan aritu naiz pentsatzen, ez, lehen 18-20 urtekin relazionatzen zea, ba parranda, kuadrilla eta ez dakit zer. Baina gero ya relazionatzen zea, ba juntatzen zea auzo lanen 50 urtekoa, 18koa... eta nola euskaraz zen hizkuntza, ba pixka-pixka bat, geun arten ere hori euskera, erdera... eskolakin hasi ginen erderaz, eta berriz bueltatu ginen euskerara."
(ES2, Alfabetatu gabea, 43 urte)

"Non hitz egin euskaraz?" Ez dago banaketa argirik. Hau da, momentuaren, leku zehatzaren eta zuzentzen zaren pertsona zehatzaren arabera da erabiltzen den hizkuntza. Euskara, familia, lagun eta lan eremuan hitz egiten direla aipatu dugu, elkarrizketatuek hiru eremu hauek zehaztu baitituzte. Hala ere, ezin da banaketa argi bat egin. Euskararen erabilera eremuak, norbanakoaren arabera oso aldakorak dira.

2.1.1 Zer irakurri

Irakurtzeko ohitura falta aipatzen da sarri. Ohitura falta hau, bai alfabetatu gabeak direnek, alfabetatze prozesua burutzen ari direnek nahiz burutu dutenek aipatzen dute. Beraz, euskaraz irakurtzeko ohiturak aztertzerakoan oso kontutan hartu behar da, orokorrean, gutxi irakurtzeko joera dagoela.

Gutxi irakurtzen bada ere, guztiek aipatzen dute gehiago edo gutxiago, euskaraz zer edo zer irakurtzea. Zehazki, honakoak irakurtzen dira euskaraz:



- **Egunkari eta aldizkariak: Berria, Hitza eta Ttipi-ttapa** aipatu dira zehazki.
 - o Alfabetatu gabe eta alfabetatuak, batez ere aldizkari eta egunkariak irakurtzen dituzte. Zehazki, Berria eta Ttipi-ttapa aipatu dira. Berria irakurtzeko zailtasun handiak dituztela azpimarratu da. Alfabetatu gabeek egunkari honen irakurketan dituzten zailtasunak gehiago azpimarratu badituzte ere, alfabetatuak daudenei ere Berria irakurtzea batzuetan nekeza egiten zaiela onartu dute. Hiztegia, oso teknikoa izatea aipatzen da eta gainera, batuan irakurtzeak zailtasun handiak sortzen ditu herritar batzuen artean.
 - o Ttipi-ttaparen irakurketa berriz, errazagoa eta arinagoa da. Testuak laburragoak eta irakurketarako errazagoa den modu batean daude idatzita. Erabiltzen den euskara gertuagokoa zaie.
 - o Ttipi-ttapa, bestalde, oso baloratua da. Esan bezala, irakurterraza eta arina dela uste da, gainera, euskalkia mantentzen du.
 - o Hitza: Ttipi-ttaparen modura, irakurterraza, gertukoa eta arina da.

"Han Gipuzkoan dago Hitza. Eta Hitza pentsatuta dago herriko jendiak irakurtzen dunian ulertzea ez, dago idatzita Ttipi Ttapa bezala. Klaro hori errexago da irakurtzeko baño jartzen zea Berriakin eta...ekonomia testuak, eo politika, eo segun ze gaiak...uff! Bai gu etxekoak gara, eta guk erraten dugu..."
(ET4, alfabetatuak eta bidean daudenak, Bera)

" Bai guk ere Hitza hartzen dugu eta ariñagoa da. Bueno gaiek ere motxagoak die...eztakit, beste modu batera, eztaikit."
(ET4, alfabetatuak eta bidean daudenak, Bera)

- **Eleberriak:**

- o Batez ere, alfabetatuak irakurtzen dituzte, baina bada alfabetatu gabe egon eta eleberriak euskaraz irakurri izana aipatu duenik ere.
- o Batzuek euskaraz irakurtzeko gaitasuna mantentzeko edo euskaltegian ikasitakoa ez galtzeko irakurtzen dituzte eleberriak, batez ere uda partean.

"eleberriak gehiena (...) eleberriak gustatzen zait (...) ordun saiatzen naiz e udan n nola euskaraz eztut solasten gehiena pues saiatzen naiz (...) eleberriak behinik behin euskaraz (...) itia, ordun bai... ordun itten dut hiru hilabete hoiek horretarako..."
(ES1, Alfabetatua, 37 urte)

- o "Euskaltegian behartzen dietelako" irakurtzen dituztela diote alfabetatze bidean daudenak.
- o Eleberriak euskaraz irakurtzeko ezintasuna nabarmendu da. Nahia eta ezina da kasu batzuetan; beste batzuei ordea, ez zaie gehiegi axola eleberriak euskaraz irakurtzeko gaitasun handirik ez izatea. Eleberrien irakurketak ez dituzte oso gogoko. Bestalde, batzuek eleberriak beti erdaraz irakurtzea aitortzen dute, baita alfabetatuak direnek ere. Are gehiago, alfabetatuak nobelak irakurtzeko zailtasunak aipatu dituzte.
- o Eleberriak euskaraz irakurri nahi, baina horretarako denbora falta aipatzen da.

- **Bestelako irakurgaiak:**

- o Elizako irakurgaiak, euskaraz irakurtzea aipatu da.
- o Herrian dauden kartelak eta jasotzen diren euskarazko panfletoak irakurtzen dira.
- o Ohar desberdinak (lanean, etxean, ikastolakoak...)

"Berria, harpidedun gera eta ordun derrigortuta zaude, irakurri behar baduzu, naiz gutxi. Ttipi ttapa, bueno gauz nahiko...udaleko ohar ttikik edo, edo illobak etortzen badie eskolatik "begira zer eman dien eskolan!" bueno pues panfleto txiki hoik edo. Edo herrin jartzen dien ohar txiki batzuk ez, berdin du gazteak "gaur afaria eztaikit non" edo holako gauzak."

(ET4, alfabetatuak eta bidean daudenak, Bera)

Euskaraz irakurtzeari lotuta honako zehaztapenak ere jaso dira:

- Alferrak gara euskaraz irakurtzeko kontuarekin: irakurketa landu egin behar dela dio alfabetatu gabe batek.
- Euskalkiak, irakurtzeko garaian, arazo bezala planteatu dira.

2.1.2 Zer ikusi

Telebista, zinema eta antzerkia aipatu dira. Zalantzarik gabe, **telebista** izan da gehienen ahotan.



- **Telebistan:**

- o Telebistan euskarazko kateen aukera gutxi dago baina ETB ikusteko ohitura badago.
- o ETB ikustea ohitura edo tradizio kontua da familia eta etxe askotan.
- o Euskal Telebistan ikusten dituzten programen artean, Goenkale, Anitzele, albistegiak, Mihiluze, kirolak (pilota, estropadak, bizikleta...) aipatu dira.
- o Ahal den lekuetan, seme-alaba txikiak dituztenek batez ere, ETB3 ikusteko ohitura nabarmendu dute.
- o Seme-alabak dituztenek ere marrazki bizidunak, Pirritx eta Porrotx... zerrendatu dituzte.
- o Ttipi-ttapa telebista: egun ez dago eskaintzarik baina lehen ikustea aipatu dute herritarrek. Kendu dutenetik, galera sumatzen da.

- **Zinea eta antzerkia euskaraz:** eskaintza gutxi dago, baina dagoen apurra sustatu behar da. Batez ere, ikuskizun ezagunak direnean joateko ohitura aipatu da.

Euskaraz ikus daitekeen eskaintzari lotuta, kezka handia azaldu da digitalizazio prozesuaren inguruan. Honek, euskarari kalte egin diola eta etorkizun hurbilean kalte hauek handituz joango direla aipatzen da. Erdarako eskaintza handituz doan heinean euskarakoa txiki geratzen da, beste guztiekin lehiatu ezinean. Are gehiago, Nafarroan euskarazko eskaintza urriagoa dela aipatu da, esate baterako, telebistan ezin da ETB3 ikusi.

"Nik uste dut digitalizazio prozesu hontan euskera ere galtzen da eta nere etxean nabaritzen dut pilla bat. Leno baziren lau kanal, euskal telebistakoak bi eta gaztelera, berriak ikusten ziren euskal telebistan, baño orain nola ematen dizuen aukera ba joaten zara pum, pum, pum...eta nik uste nun nere etxean zela bakarrik, baña Bob Esponjana ta hori, globalizacion total!"
(ET1, alfabetatu gabeak, Bera)

2.1.3 Zer entzun

- **Irratia** aipatu da soilik. Euskadi Irratia, Ttipi-Ttapa eta Karrape irratiak aipatu dira zehatzean.

"Irratia bai. Telebista etzait batere erakargarria iten minon irratia bai. Beti ni bakarrik baldin banao irratia. Euskadi irratia beti. (...) Gainera eztugu ohiturik beste gauza bat jartzeko. Noizen behin... e kotxean ere euskadi irratia eotten delako... jarria. Noizean behin e... gazte... ai nola da? beño oso gutxitan..."
(ES3, Alfabetatze bidean, 45 urte)

2.1.4 Zer idatzi

- Irakurketaren kasuan bezala, **gutxi idazten da euskaraz.**
 - o Alfabetatu gabeak dira, oro har, gutxien idazten dutenak. Ohar laburrak, mezuak... aipatzen dira.
 - o Alfabetatuek ere lanerako behar ez bada gutxi idaztea aipatu dute: soilik oharak, sms-ak... hauek ere. Idazkera informala eta laburra nagusitzen da, beraz.
- Alfabetatu gabeen artean, gutxi idazten dute, baina gutxi hori ahal dela euskaraz egiten dute, akats handiekin (batek dio erdaraz idazteko joera hartzen ari dela)
 - o Seme-alaba edo bikoteak (alfabetatua bada) erakutsi izana aipatzen da.

"bai ni saiatzen naiz baita euneroko zean bai, euskaraz idazten ...eta gero bistakin, umekin da asko geatzen zaizu. Aunque alabak "ama hori h-kin da!". Hola idatzi kartak eta ba, lehen idazten nittun euskeraz, baño oaiñ erderaz lenago pasatzen zaiola ta erderaz egiten diot. Baño bai, bestela bizitza eunerokoan."
(ET2, alfabetatu gabeak, Lekunberri)

- o Autodidaktak izatea aipatzen da.

"nik euskeraz egiten det baño pixkat autodidakta (...)seguro kriston akats pilla eukitzen dittutela baño bueno nola iñork dun irakurtzen, neretzako dan ez."
(ET2, alfabetatu gabeak, Lekunberri)

- Eduki eta gai teknikoen inguruan idazteko zailtasun handiagoa nabarmentzen da.
- Lan esparruan, euskaraz idazteko ahalegina eta beharrezana aipatzen dira. Batzuek, borondatez idazten dute euskaraz eta administrazioan lan egiten dutenek, euskaraz funtzionatu behar dutela nahitaez aipatu dute.

"hortan ezto iñor eskatzen euskeraz ez, sobera gutxi. Zuk izan behar duzu pixkat hor sartzen duzuna. Nik eaman nion batei aurre kontu bat eta presentatu behartzun Nafarroako gobernun eta berare pixkat nere antzekoa da eta nion euskeraz, eta esan nion "sentitzeiat esatea baño nahi baldin badek erderaz e jarrikoiat e, subentziaoa errexago lortzeko". Baña esan nahi dut, behartu in behar da."
(ET2, alfabetatu gabeak, Lekunberri)

- Elkarriketatu gazteenak dira euskaraz idazteko ohitura handiagoa azaldu dutenak.

2.1.5 Zerbait sumatzen al da faltan?

Euskara kontsumoari lotuta, honako produktuak sumatzen dira faltan:



- **Telebistan:**

- o ETBn bestelako programak: dokumentalak, gaurkotasun-programak... Helduentzat eskaintza hobea iluntzetan.
- o ETB3 ikusteko Nafarroako herri askotan dagoen ezintasunari lotuta, telebistan marrazki bizidunak euskaraz egotea faltan sumatzen dute askok. Behar oso aipatua izan da eta garrantzitsutzat jotzen da gainera.
- o Ttipi-ttapa telebistaren falta sumatzen da.
- o Produktu faltari baino, produktuaren kalitatearen beherakadari erreferentzia eginez, euskal telebistako teleberriek okerrera egin dutela esaten da (eduki, ematen diren albisteak...)

"nik gehienbat bestak eta hola ikusteko faltan botatzen dut, bakillak eta hola...igual iñauteriko karrozak eta...leno igual batzutan ikusten nun telebistan, Ttipi-Ttapan."
(ET1, alfabetatu gabeak, Bera)

- **Egunkarietan:**

- o Eskaintza zabalagoa euskaraz, egunkari gehiago euskaraz.
- o Herrietako kronikak euskaraz (Diario de Noticias-eri erreferentzia)
- o Hitzan: Leitzako berri gehiago egotea.
- o Herri aldizkariak baloreen jartzen dira zentzu honetan: edukiagatik eta erabiltzen duten euskaragatik.

- **Teknologia berriak:**

- o Teknologia berriak euskaldundu behar dira. Hizkuntza eta teknologia berriak uztartzeko pausuak ematea garrantzitsua da.

"nolabaitte teknologia berri hok ekarri due ... informazioa azkarra, ingelesezko komunikatzeko gauzek, o sea, dena oso azkar joan da eta modan jarri da, modan edo asko erabiltzen da... ni ez noa horren kontra, e? Behar da, baino gehiegi okupatu digu, o sea (...) ahaztu ditugu... hori, eztaikit euskaraz izan balitz hori dena 'oohh!!' ze ongi, bino beti hizkuntza ta nolabaitte iten do(...) talka...hau gutxitu (...) Lekua jan, Interesa hori... Nik badakit eztela errexa erabat hor.. goien eukitzea, baño neri pena ematen dit horrek."
(ES3, Alfabetatze bidean, 45 urte)

- **Liburuak:**

- o Ume eta gaztetxoei zuzendutako liburuen eskaintza zabaltzea eskatzen da.

"Gazteentzako liburuak edo umeentzako. Anitz mugatua dago. Aber nik ez daukat haurrak baño nik lanean dauzkat jendea haurrak dauzkana eta hori erraten diate, gazteleraz badagola milaka aukera, baño euskeraz anitz mugatuta dagola. Pirritx eta Porrotx, badirela klase batzuk baño mugatuta dagola, beraiek erraten dutena ez, haurren kasuan eta gazteentzako hor ikusten dutela. Eta bidioak, haurrentzako bidioak eta...gasteleraz badirela pillak bat baño gero eztirela euskaratzen edo. Ordun bukatzen dute igual haurrei bideoak erderaz edo, hori nahi badute ikusi erderaz jartzen edo erderaz irakurtzen."
(ET4, alfabetatuak eta bidean daudenak, Bera)

- **Batzuek, faltan ezer ez sumatzea aipatu dute.** Egun dagoena ez da behar bezala ustiatzen eta erabiltzen. Dagoenari probetxu hobea ateratzean, gauza berriak eskatzen hasteko aukera egongo da.

2.2 ERDARA KONTSUMOA

Euskaraz gain, gaztelera da elkarriketatuen artean erabiltzen den hizkuntza nagusia eta ia bakarra. Kasu isolatu bezala frantsesa aipatzen da (tarteka erabiltzen den hizkuntza lan eta aisialdiaren esparruan). Batek ere, ingelesa jakitea aipatzen du. Beraz, euskaraz gain gaztelania da egunerokotasunean erabiltzen den hizkuntza bakarra.

2.2.1 Non eta norekin hitz egin

- Gazteleraren erabilera, eremu desberdinei lotzen zaio. Erantzunak, pertsonaren arabera aldakorrak dira, euskararen kasuan bezala. Erabilerari dagokionez, honako erantzunak jaso dira:
 - o Euskaraz hitz egin ezin daitekeen eremuetan erabiltzen da gaztelera (hainbat denda, lantegi, zerbitzu, bilera...)
 - o Herritik kanpo: herri handiak aipatzen dira batik bat: Iruñea, Irun... Herri handiak, gazteleraren erabilerarekin lotzen dira zuzenean.
 - o Familiako kide batzuekin, kasuan kasu. Anai-arrebak, amaginarreba, bikotea...
 - o Kasu batzuetan, familia eremutik kanpoko hizkuntza bezala definitzen da gaztelera. Hauek dira, euskara "etxeko hizkuntzatzat" daukatenak. Lagunartean, kalean... gehiago erabiltzen dute gaztelera. Lagunartean gaztelera erabiltzen dutela aipatu dutenak, elkarriketatu gazteenak izan dira kasu gehienetan.
 - o Gai tekniko batzuen inguruan hitz egiteko erdararen erabilera beharra aipatzen da. Esate baterako, lanbideari lotutako elkarriketak ezin dira euskaraz burutu, hitzegi guzti hori gazteleraz ikasia izan zelako.

"E: Nik berez ikasi non mekanika. Eta orduan, neretzat imposiblea da mekanikaz hitz egitea euskaraz.

G: Hitz teknikoak...

E: Karo, gainea, fabriken aritzen ginenen denak erdaldunak eta etorri zen bat euskalduna. Raro egiten zitzaiten han, maila hortan, bueno gauz hoitan erderaz aritzea. Baina faltan bota det"

(ES2, Alfabetatu gabea, 43 urte)

Beste pertsona batzuekin erdaraz hitz egiten dutenetatik, askok bi aldeek euskaraz jakitea onartzen dute (anai-arreben artean, lagunartean, bikotearekin...). Gaztelera, **"ohituragatik"** erabiltzen dutela diote. Are gehiago, noiz edo noiz elkarriketa euskaraz egiten saiatu baina oso artifiziala suertatzen zelako, gaztelerara itzultzea onartzen da.

"kuadrilan ez, kuadrilan euskaldunak gara gehienak bat ez... ezkerro, minon... eztugu itten euskaraz. Erdaraz ein dugu ikasi denak (...) eta ordun erdaraz eitten dugu."

(ES1, Alfabetatua, 37 urte)

Familia eremuan ere, bada hizkuntza bat edo beste erabiltzera bultzatzen duen faktore bat: **elkarriketa gaia eta tonua**. Hau da, gai eta une goxoak euskararekin lotzen diren bitartean, haserre eta liskarrak gazteleraz izaten dira.

"Eta etxin gehienbat euskeraz bañon esaten die gauzak erderaz. Bronka denikan pasatzen gea denok erdarara. Hasertzean...goxotasunean euskeraz aritzen gea baño zakarkeritan ez, nik eztakit...nik goxotasuna ikusi dut euskeraz."

(ET1, alfabetatu gabeak, Bera)

2.2.2 Zer irakurri

Euskaraz bezala, gazteleraz ere gutxi irakurtzen dela aipatzen da. Beraz, **irakurzaletasun baxua** izatea hizkuntzatik harago doan errealitatea da elkarrizketatuen artean.

Zer irakurtzen dute, ordea, gazteleraz?



- Batez ere, **liburu eta nobelak**

"Nik erderaz dena irakurtzen dut, liburuak pilla bat eta euskeraz ezin dut irakurri liburu bat, zuk erraten dezuna ez. Eta gero pasatzen zait lanean irakurri behar informeak edo zerbait teknikoak, hori lenbizikotan pilla bat kontatzen zian, irakurtzea eta ulertzea zer erran nahi zuen horrekin ez, gero nahiz erderaz, erderaz jartzen badiazu bost minututan irakurriko det, baño euskeraz jartzen dezunian gehiago, esfortzu handiagoa, zergatik igual hitza batzuk eztittuzu ulertzen edo sentidua, eztakizu nola, pixkanaka pixkanaka hasi naiz ohitutzen, edo periodikoak edo Berria, Ttipi Ttapa, pixkanaka pixkanaka ohitutzen ez"

(ET4, alfabetatuak eta bidean daudenak, Bera)

- **Internet:** tresna hau asko erabiltzea aipatzen da, eta Interneten eduki gehiena gazteleraz egonik, hizkuntza honetan irakurri behar da.

"Gutxi irakurtzen dut. Gehiena interneten, eta interneten nola gehiena erderaz den, baino bai, irakurri igual bai"

(ES2, Alfabetatu gabea, 43 urte)

- **Egunkaria:**

- o Euskarazkoa irakurtzeko ezintasunagatik
- o Herrietako kronikarik ez dagoelako Berrian
- o Euskarazko egunkari bakarria egonik, beste egunkariak gazteleraz irakurri behar dira nahitaez.

2.2.3 Zer ikusi

Telebista, gehienbat gazteleraz kontsumitzea onartzen da, eskaintza bera ere hala dela argudiatuz. Baten batek, telesailak frantsesez ikusten dituela aipatu du, emisio ordutegia egokia deritzolako.

2.2.4 Zer idatzi

Irakurketaren kasuan bezala, **gazteleraz gutxi idaztea** aipatu da. Gutxi idaztearen atzean, **arrazoi desberdinak** eman eta errepikatu dira:

- Gazteleraz idaztea kosta egitea.
- Gazteleraz idazten ahaztu izana.
- Idazteko behar gutxi izatea.

Zer da, beraz, gazteleraz idazten duten hori?


- **Eguneroko oharrak:** lehen euskaraz idatzi baina, egunez egun erdaraz idazteko joera handiagoa izatea aipatu da. Hizkuntza aldaketa honetarako arrazoi nagusia, gazteleraz idazten denbora gutxiago pasatzea aipatu da.
- **Lanerako paperak**

2.3 EUSKARA ETA GAZTELANIA KONTSUMOA KONPARAKETA, ARLOZ ARLO

	EUSKARA	ERDERA
Hitz egin	✓ Familia eremuan batik bat ✓ Seme-alabekin beti ✓ Lanean, lagunartean... bakoitzaren errealitatea desberdina da. ✓ Euskararen ahozko erabilpenean, ez dago banaketa argirik. Hau da, momentuaren, leku zehatzaren eta zuzentzen zaren pertsonaren arabera da.	✓ Euskara hitz egin ezin daitekeen eremuetan ✓ Herririk kanpo (herri handiak asko aipatzen dira: Iruñea, Irun...) ✓ Familiako kide batzuekin ✓ Koadrilan (batez ere gazteenek diote)
Zer irakurri	✓ Irakurtzeko ohitura falta aipatzen da sarri ✓ Egunkari eta aldizkariak: Berria, Leitzaldeko Hitza eta Ttipi-ttapa ✓ Eleberriak (alfabetatuek batez ere, gabe dauden batzuk ere) ✓ Bestelako irakurgaiak: Hitza, Ttipi-ttaparen antzerako balorazioa (positiboa) ▪ Elizako irakurgaiak ▪ Panfletoak eta kartelak ▪ Ohar desberdinak	✓ Gutxi irakurri ✓ Interneten ✓ Egunkaria (euskarazkoa irakurtzeko ezintasunagatik) ✓ Liburu eta nobelak (errepikatuen)
Zer ikusi	✓ Telebistan, aukera gutxi baina etb ikusteko ohitura badago ▪ Goenkale, Anitzele, albistegiak, Mihiluze, kirolak (pilota, estropadak, bizikleta) aipatu dira. ▪ Ahal den lekuetan, seme-alaba txikiak dituztenek batez ere, etb3 ▪ Umeak dituztenek ere marrazki bizidunak, Pirritx eta Porrotx... ✓ Ttipi-ttapa telebista lehen.... ✓ Zinea eta antzerkia euskaraz	✓ Telebista gehiena erdaraz, eskaintza ere hala da.
Zer entzun	✓ Irratia.: Euskadi irratia ✓ Ttipi-ttapa irratia	✓ Ez da ezer aipatu. Honek ez du esan nahi ez dela irratarik entzuten gazteleraz.
Zer idatzi	✓ Gutxi idatzi, alfabetatuek ere lanerako behar ez bada gutxi idatzi: oharrak, sms-ak... ▪ Gauza teknikoak idazteko zailtasun handiagoa ▪ Lanerako guztia askok euskaraz ▪ Alfabetatu gabeak, gutxi idatzi baina gutxi hori ahal dela euskaraz, akats handiekin.	✓ Gutxi idatzi. ✓ Gaztelera idaztea kosta edo ahaztu ✓ Eguneroko oharrak geroz eta + erdaraz, denbora gutxiago behar delako. ✓ Lanerako paperak

3 EUSKARAZ ALFABETATZEA

Alfabetatzearen gaineko diskurtsoak, lehenik eta behin, bi multzotan landuko ditugu. Batetik, alfabetatu gabeen iritzietan sakonduko dugu; bigarrenik, alfabetatze bidea burutzen ari direnak eta jada alfabetatuak daudenek esandakoetan murgilduko gara.



3.1 ALFABETATU GABEAK

3.1.1 Euskarari lotutako gabeziak

Argi eta garbi **irakurketa eta idazketa** dira euskarari lotuta, alfabetatu gabeek mahai gainean jarritako gabezia nagusiak. Ezintasun hauek, maila desberdinetan ematen dira multzo honen barruan, izan ere, alfabetatu gabe guztiek ez daukate euskara maila bera eta beraz, idatzi eta irakurtzeko gaitasuna ere aldakorra da batetik bestera. Gainera, aipagarria da, alfabetatu gabekoen multzoan batzuek aurretik euskaltegian ibili izana aipatu dutela. Alfabetatu batetik bestera, beraz, euskarari lotutako gabezia eta iritzia aldakorrak dira gai batzuetan eta norabide berekoak beste gai batzuetan. Ikus dezagun:

Irakurketaren gaineko gabeziak, idazketarenak baino gehiago aipatzen dira. Baieztapen hau, alfabetatu gabeek, idatzi baino, euskaraz gehiago irakurtzeko duten ohiturarekin lotzen da. Behar handiagoak sentitzen dituzte, beraz, irakurketaren alorrean.

"Nik ere bai, idatzi hobeto irakurri baño. Irakurtzen det bañan, ulertzea ta, irakurri detena ulertzia zaillagoa iruitzen zait idaztea baño"
(ET1, alfabetatu gabeak, Bera)

Irakurketa eta idazketari lotuta, honako **gabeziak zehatzak** aipatu dira:



- Ortografia akatsak
- Testua ulertzeko ezintasuna
- Hitz teknikoak ulertzeko ezintasuna
- Elkarriketa edo testu batean, ikusten diren akatsak zuzentzeko ezintasuna aipatu da. Hots, akats bat dagoela konturatu, baina zuzena zer den esan eta zergatik dagoen akatsa argudiatzeko ezintasuna aipatu da ere.

Idazketa eta irakurketaz harago, **euskara erabiltzeko askatasun edo autonomia falta** sentitzea aipatu da.

Gabeziak gabezi, hainbatek aipatu dute **seme-alabekin batera euren euskara gaitasunak hobetzen** ari direla: etxeko lanak egiten laguntzen dieten bitartean ikasten dutelako, seme-alabek akatsak zuzendu eta zalantzak argitzen dizkietelako...

3.1.2 Alfabetatu gabe egoteak, hainbat kalte sortzen ditu herritarren artean.

Herritarrak jabe dira alfabetatu gabea izateak hainbat kalte ekarri dizkiela. Kalte hauek, gabeziei zuzenean lotzen zaizkie. Galdera egiterako garaian bereizi egin zirenez gabezia eta kalteak, txosten honetan ere bereizi egin dira.

Hona hemen, alfabetatu gabeek aipatu dituzten kalteen zerrenda, jasotako aipamen kopuruaren arabera ordenatuta:

- Irakurtzeko zailtasun handiak, batez ere testua ulertzeko garaian.

"nik uste egunkarian ere, pues batzuk, adibidez Ttip-Ttapa agitz errexa da leitzeko, biño adibidez Berria eee oso tekniko da niretzako, aunitztan idazten den modua ez, leitzeko eta entenditzeko gauzak eta..."
(ET3, alfabetatu gabeak, Doneztebe)

- Idazteko arazoak: modu egokian idazteko ezintasuna aipatzen da. Bestetik, oso noizean behin ikasten dutenen kasuan, jartzen direnean asko kostatzen zaiela azaltzen dute.
- Haurrei, eta zehazki seme-alabei, modu egokian eta zuzentasunez laguntzeko ezintasuna.
- Testu eta hitz teknikoak ulertzeko zailtasunak. Esate baterako, banku, udal eta hainbat enpresen (telefonikoak adibidez) faktura eta gutunak ezin ulertu.

"Euskeraz igortzen diate ta telefonicakoa erdia ez tut enteintzen! Ze ostia patzen den! Ta alabari erraten diot "ze ostia patzen det hemen!", eske erabiltzen dute, eztakit nola egiten duten itzulpen hoiek. Ta ordun klaro..."
(ET3, alfabetatu gabeak, Doneztebe)

- Euskara Batua ulertzeko zailtasunak.
- Beste eskualde eta herrialde batzuetako euskaldunekin ulertzeko ezintasuna.
- EGA ez izatea, titulurik ez izatea.
- Euskara erabili eta ulertzeko segurtasun falta (ahoz baino gehiago, idatziz eta irakurtzerako garaian ematen da segurtasun eza)

Kalteak zerrendatuta, alfabetatu gabea den herritar multzo honek, badaki, alfabetatze prozesua abiatuko balu, kalte hauek ezabatuz joango lirатеkeela. Zehazki, alfabetatzeak **honako onurak** ekarriko lizkiekeela zehazten dute:

- Autonomia
- Seme-alabei etxeko lanak egiteko laguntza hobea
- Hizkuntza ongi menperatu eta ongi erabiltzea
- Irakurri eta idazteko erraztasuna edo hobekuntza

"gabezi haundiña, igual email bat edo bialdu behar dut eta osea eztiot ematen, bidali eztiot ematen iñork aurretik rebisatu gabe. Ordun eztauket, intimidade, intimidade edo errextasunik, idatzi eta bidai (...) Autonomia hori ez?"
(ET2, alfabetatu gabeak, Lekunberri)

3.1.3 Alfabetatzea beharrezkoa al da?

Alfabetatu gabe nahiz alfabetatuei, alfabetatzearen beharraren inguruan galdetu zaie. Alfabetatu gabeen artean, iritzi desberdintasuna nabari da gai honi dagokionez, ez ordea alfabetatuen artean. Izan ere, azken hauek argi daukate alfabetatzea beharrezkoa dela.

Alfabetatu gabeen artean, alfabetatzearen beharrezkotasunari buruzko honako iritziak nabarmentzen dira:



- **Alfabetatzea beharrezkoa da.** Zertarako? Idazteko, seme-alaba edo haurrekin hizkuntza modu egokian erabili eta lagundu ahal izateko, hizkuntza osasuntsua edukitzeko eta euskara ongi erabili eta menperatzeko.
- **Ez da beharrezkoa.** Soilik mesedegarria da eta inondik inora kaltegarria.

"ba igual hemen bizitzeko ezta behar, moldatzen baldin bazara, solasterakoa momentuan. Lagunekin solasteko edo moldatzen baldin bazara eztuzu behar. Igual eztuzu agitz ongi solastuko beño bueno."
(ET4, alfabetatuak eta bidean daudenak, Bera)

- **Zoritxarrez ez da beharrezkoa.** Honek, gizarte nafarrean euskarak duen errealitatea azaltzen digu: herritarra, euskaraz alfabetatua izan gabe lasai bizi daiteke.
- **Beharrezkoa, soilik seme-alabak dauzkatenentzako da.** Hauek euskara maila altua eta idazteko nahiz irakurtzeko gaitasunak menperatu behar dituzte, seme-alabei eskolako kontuetan laguntzeko.

"nik nere kasun umerik eztut, baño nik baldin banuke umeriken ba igual alfabetatuko nintzen ba eurei laguntzeko etxeko lanak egitten edo holako guazak egitteko, igual egiñen nuke. Baño nik eztut umerikan, eztut behar hori ikusten."

(ET3, alfabetatu gabeak, Doneztebe)

Alfabetatze bidea egiten ari direnek eta burutu dutenek, berriz, honakoa adierazten dute:



- **Beharrezkoa da.** Nahitaezkoa da helduen alfabetatzea.
 - o Bestela euskara "galdua" geratzen da. Herritarrek hitz egiten duten hizkuntzaren osasunari ere begiratu behar diete.
 - o Alfabetatze prozesua, gainera, ez da titulu bat aterata amaitzen den prozesua, birziklapena behar du, jarraipena.
 - o Udaleko hainbat dokumentu ulertzeko eta irakurtzeko beharrezkoa da. Dokumentu hauetako batzuk ez daude elebitan.
- **Pertsonaren arabera da beharrezkoa:** hemen bizitzeko, batzuek ez dute behar, hitz egitea nahikoa dute.
- **Batez ere lanerako da beharrezkoa.** Esaterako, administrazio publikoan lan egiteko.
- **Alfabetatzea beharrezkoa izan beharko luke,** baina errealitatean ez da beharrezkoa.

Ikus daitekeenez, alfabetatu eta alfabetatu gabeen iritziak oso desberdinak ez diren arren, alfabetatuak alfabetatze prozesua burutzeko beharrezkotasuna gehiago azpimarratzen dute. Beraien erantzunetan, gainera, alfabetatze prozesua burututa lortu dituzten onurak islatzen dituzte: lana bilatzeko aukera, dokumentuak hobeto ulertzeko... Era berean, alfabetatu gabeen kasuan ez bezala, alfabetatze prozesua burutzea, zure hizkuntzaren errealitatea osasuntsuagoa egiteko modu bat dela adierazi dute.

Orain arte ikusi dugunarekin, alfabetatu gabeak, alfabetatzearen aldeko jarrera eta diskurtsoak dituztela baieztatu dezakegu. Izan ere guztientzat da onuragarria, are gehiago, batzuentzat beharrezkoa ere bada. Bestetik, alfabetatu gabea izateak eremu pertsonal eta egunerokotasunean hainbat kalte edo gabezia sortzen dizkiete. Hau guztia kontutan hartuta, alfabetatu gabe egoteko dituzten arrazoietan sakontzeko garaia da.

3.1.4 Zergatik ez dira alfabetatu?

Jasotako erantzunak, multzoka azaltzen dira jarraian:



- **Beharrian eza**

- o Umerik ez daukalako

"nik egie esan ez! umek ez dittutelako ingurun edo...eztauket idazteko beharrik."
(ET2, alfabetatu gabeak, Lekunberri)

- o Beharrik sentitu ez duelako
- o Beharrik sentitu ez duelako, zehazki, lanak ez diolako euskarari alfabetatua egotea eskatzen
- o Hitz egitea alfabetatzea baino beharrezkoagoa dela uste duelako
- o Emaztea alfabetatua delako, beraz bikotean badago alfabetatua den bat

"ni salbatzen nauk nola Arantxak ulertzen dun, baño ni adibidez mutikun...zerak eee bere etxeko lanak irakurtzen hasi ta asko eztut ulertzen, ez eztut ulerten. Ta klaro andria hor dago ta klaro..."
(ET3, alfabetatu gabeak, Doneztebe)

- o Beharra ez sentitzeari dagokionez, alfabetatu gabeek autokritika egiten diote beren buruari. Beharra, lanari edo momentu zehatz batean hizkuntza gaitasun bat menperatzeko nahiari lotzen zaio. Euskaldunak, euskaraz ongi aritu eta bizitzeko alfabetatu beharko liratekeela dio, behar zehatz bat izatera itxaron gabe eta alfabetatzearen truke onurarik jasotzeko asmorik gabe.

"Beharra sumatu arte eztugu egiten ezer (...) Geuk egin beharko genuke ongi egiteko ez, ez behar horrengatik."
(ET1, alfabetatu gabeak, Bera)

- **Denboraren kudeaketa**

- o Denbora falta daukatelako.

"Orain eztaukat denbora. Denbora behar da eta nik uste dut gaur egun ba eztaukagula denborik ezertarako. Baño enaiz gelditu pentsatzera e. osea enaiz planteatu nere bururi ba hasitzea ez."
(ET1, alfabetatu gabeak, Bera)

- o Ordutegi arazoengatik.
- o Denborarik ez, ezta gogorik ere.

"Nik orain egia errateko denborik eta ez gogorikan. Ni joaten naiz etxera arratsetan nagola ya, haurrak, arropak eztaikit zer... klaro eta goizeko zortzirek laurdeguttitako nago ya lanin. Eztut ez, orain momentu honetan desde luego ez. Gero eztaikit egiñen duten edo ez, baño orain ezta planteatzen (...) beharrezkoa bai. Haurrak da sobre todo, eurekin horrela, euren gauzakin eta nik nabaitzen dut falta hori, osea egia da, ni gelditzen naiz atzera arruntki. Neretzat oso zaila da gañera."
(ET1, alfabetatu gabeak, Bera)

"egun guztie pasatzen deu gora ta bera, goizetik gora ta bera...umek eztaikit zer daukela...ta lana bukatzen dut, segun zortziterdik gaueko beatziak ta..."
(ET2, alfabetatu gabeak, Lekunberri)

- **Gogo eta motibazio pertsonalak**

- o Euskararekiko kontzientziazio falta izateagatik.
- o Utzikeriagatik edo alferkeriagatik.

"Nik egia esan beharra ez dut sentitu, beharra eztut nabaritu, bueno igua ez naiz behartu ere, pues lanbidekatikan edo igual ez naiz behartu, biño...klaro leno esan duguna alperrak gera, bai denak bai, bai esaten dugu baña gero...aber talde bat egiñen dugu eta joango gara holako ordutan eta eztaikit zer...a ba... nik beharrezkoa biño..."

(ET3, alfabetatu gabeak, Doneztebe)

- o Erosotasunagatik
- o Beste lehentasun batzuk dituelako

"eske ezta gure kasue, nei behintzat gertatzen zatena, hitzein bai etxen ta, idatzi gabe ta, nola idatzi beharrare eztaukeun haundirik, eta horrekin balio diun bizitzeko ta segitzeko, ba horta seitzen deula ez. Ta gero igual ya esatzezu ba, umegatik eo beste behar batzuk sentitzen badittuzu ba igual ba, ostra ikustezula zure burue (...) orduan igual ittezu, joe igual euskaldundu beharko nuke eo ikasi beharko nuek pixkat gehio o...motibazio extra bat ez. Eztakit, nik motibazio falta gehiena esateizut ez, gusto ingo nuke baño denboagatik behintzat, ba hori denboa gutxi dauketenez nahigo dut beste gauza batzuk in ez. Nire kasua."

(ET2, alfabetatu gabeak, Lekunberri)

- o Erdaraz ikasi izanak ohitura batzuk sartu dizkie, baina atzean utzikeria dagoela onartzen da.

"Utzikeria ta gero esan dutena, gaztetasuneko erdara historio hori, eskolan ibili hori, ta hortan ohittuak irakurtzen eta histori gauza horitan...pues hori, pues zama. Ta gero hori utzikera, biak elkarrekin nik ustet."

(ET3, alfabetatu gabeak, Doneztebe)

- Beharritza, esperientzia eta aurrerapausoak

- o Aurretik euskaltegian egonda, aurrerapausoak eman eta jada nahikoa ikasi duela uste delako (nahiz eta alfabetatzera iritsi ez).
 - Honakoa hainbatek emandako erantzuna dela ikusirik, garrantzitsua da azpimarratzea, alfabetatu gabeak diren hainbat herritar euskaltegitik igaro zirela iraganen, gehiengo orain dela urte asko, "gazte garaietan".
 - Partaide batzuk saiatu izan dira alfabetatzen, baina bidean geratu dira, prozesua osorik burutu gabe. Beste batzuen helburua, soilik hizkuntza gaitasunak hobetzea zen, egunerokotasunean hobeto moldatzeko.

"asko ikasi non, baina ikusten non, ya hortik aurre maila bat ona konsegitzeko... gainea izandu naiz beti estudiante txarra. Igual ateratzen non 10 bat matematiketan baino hizkuntza eta gauza hoitan izandu naiz beti txarra. Utzi non, bueno ez non FP atera inglesangatik. Ba igual psikologikoa da baina ikusten non maila on bat konsegitzeko beste bat xx beharko nula. Zaila da. Baina bueno, nahiko mejoratu non."

(ES2, Alfabetatu gabea, 43 urte)

- o Seme alabekin dagoeneko asko ikasi eta aurreratu dute. Ondorioz, hutsune nagusiak bete dituzte, eta beraz, ez dute beharrik sentitzen.

"gaitasun pixkat gehixego idazteko eta leitzeko, total. Nik orain haurrekin ikasi dut pilla bat e. Etxeko lanakin eta horrela...paratu ditut pilak, baño ongi paratu!"

(ET1, alfabetatu gabeak, Bera)

- o Bere kasa hobetu duelako (autodidakta)

Alfabetatuek ere alfabetatu gabe dauden herritarrak, ez alfabetatzeko izan ditzaketen **arrazoien inguruan** aritu dira. Hauen aburuz, ez alfabetatzeko arrazoi nagusia, **beharrik ez ikusi edo sentitzean** datza. Bestetik, **motibazio eta gogo** falta ere pisuzko arrazoiak dira: herritar alfabetatu gabeek ikasteko gogo eza dutela adierazten da.

"agian eztutelako beharra ikusten. Esan nahi dut, hitzegiteko orduan moldatzen direnez, ba agian eztute behar hori ikusten."

(ET4, alfabetatuak eta bidean daudenak, Bera)

3.2 ALFABETATUAK ETA BIDEAN DAUDENAK

Elkarrizketatutako alfabetatu (edo bidean daudenak) guztiek, batek izan ezik, euskara dute ama hizkuntza.

Ikasketei dagokionez, guztiek (kasu honetan ere, batek izan ezik), ikasketak gazteleraz burutu dituzte. Erdaraz ikasitako hauek guztiak, euskaltegi edo hizkuntza eskolaren bidez (bakar batek) burutu dute alfabetatze prozesua. Ikasketak euskaraz burututako pertsonak, ez zuen euskaltegira joan beharrik izan alfabetatzeko, ezta EGA azterketa gainditzeko ere.

Ondorioz, ikerketan parte hartu duten alfabetatuen perfila nahiko antzerakoa da: gehiengoak, euskara dauka ama hizkuntza, gazteleraz burutu ditu ikasketa guztiak eta euskaltegiaren bitartez alfabetatu da.

3.2.1 Zergatik aukeratu zuten alfabetatzea?

Alfabetatze prozesua burutzeko arrazioen inguruan galdetuta, honako erantzunak jaso dira. Emaizak, jasotako aipamen kopuruaren arabera ordenatzen dira:

- Lanagatik.

- o EGA ateratzeko eta euskarako azterketa gainditzeko
- o Lana bilatzeko alfabetatua izateak aukerak ireki

"Pues lan aldetikan, bueno, ikasteko, lehen solasten giñan bakarrikan eta ustez ongi baño gero konturatu giñen hori ere gaizki egiteñ genuela eta idatzi berriz deus ere, ez genekin ordun bueno hasi giñen lana billatzen eta pues ya hortan sartu eta ahal baldin bazen ya atera E.G.A. eta ya."

(ET4, alfabetatuak eta bidean daudenak, Bera)

"Nire horregatik gehienbat, nik neukan euskara mailla zen nahiko, nahiz eta etxean egin, ikasketa guztiak erderaz eginda ba motz gelditzen zen edozein lan edo aukera izateko, orduan pentsatzen nuen aukera ona izango zela alfabetatzea edo."

(ET4, alfabetatuak eta bidean daudenak, Bera)

- Hizkuntza berreskuratu eta mantentzeko.

- o "Berreskuratu, mantendu eta euskara ondo erabili" zehazten du batek.

- Seme-alaba txikiei laguntzeko

"Nere kasuan umea, umeak txikiak zianean lagundu behar zenion eta klaro ikasi behar zenun (...) Hori izan zen, bultzakada hori izandu zen, gero pues nahi duzu gehio jakin edo ikasten duzu beño garrantzitsua hori izan zen, horrek markatu zun bai."

(ET4, alfabetatuak eta bidean daudenak, Bera)

- Euskaraz hobeto komunikatu ahal izateko:

- o Lan eremuan eta bizitza sozialean: Adinekoekin euskaraz hobeto hitz egiteko. Pertsona helduekin hobeto ulertu eta komunikatzeko. Adinekoen eta gazteagoen euskarak uztartu behar dira.

"Adineko jendeakin lan eiten dut eta euskera... hobetzea eraman naon bigarren aldi hau izango da hori (...) Motibazioa, motibazioa. Eta... ohartu naiz zenbat aldatu dugun hitz eiteko era... bai hitzek, bai formak. Entonazioa esanen nuke oaindikan ere ez... Beño... zerbait ein behar dena nik uste dut da uztartu, adineko jendek hitz eiten dun modu hori, eta... gaztek hitz eiteko dugun bestea (...) oso desberdine ez, beño dezberdintasunek badaude. Hemen, bada jendea... Leitzen ta beste tokian oso ongi, oso ongi menderatzen duena euskaraz. Baina badire beste toki batzuk trakets eiten dutenak euskaraz... Eta... um eztaikit Leitzeko maila zenbatakua izanen den baño aldatu da bai... Haurrak ere bai, beaien hizkuntzan aldatzen ai dire baitare e... esamoldek, joaerak, aldatzen ai da."
(ES3, Alfabetatze bidean, 45 urte)

- o Famili eremuan: Senitartekoekin hitz egiteko; haurrei, ilobei... gauzak azaltzeko...

"ttikitikan, bueno ae... gurasok euskaldunak dire, ordun betitikan adittua dut, ez? Ta... minon galdu dut pilo bat. Ordun uain ilobak ttut, ta lengusuak izan ttut ta dena ta a ez nintzen... ezin nun haiekin ongi solastu. Ordun galdu nun pila bat ta behar nuen, nahi nuen hartu... pues haiekin pues bronka emateko edo (...)izanen da pues hogeita sei urtekin edo hola... Bai, ikusten nuen galdua nuela. Baño arraso galdua, eta ordun... saiatu nintzen hasiz. Euskaltegian hasi nintzen (...) inguruan ikusten nulako lengusuak euskaratikan e... bueno, dire... ni minon hamabos urte ttikiguak. Ordu haiekin solasteko, hoiek ikastolan ibiliak dire ta dena euskaraz (...) nahi baldin banuen esplikatu zerbatt edo... lagundu, ezin nuen. Ta uain e... haurrak ere ba ikastolan dagozi ta bueno, nahi duzu segittu, ez? Edo gaizki gauz bat itten badute pues zuzendu o nola in (...) Eta erdaraz itten badiozu... eztute ulertzen haiek, ez? Ordun Euskaraz... horregatik. Eta gero gurasokin ere bai eitteko."
(ES1, Alfabetatua, 37 urte)

- Euskara hobeto ikasteko. Gainera, hizkuntza ikastea gustuko izatea aipatzen da.
- Gehiago jakiteko nahia.
- Idazten ikasteko.
- Euskararen sakontzeko.
- Euskara batua ikasteko.

"Ulertzeko irratia, edo telebista edo eztaikit zer, porque alfabetatua eztagona askotan "eta horrek ze esan nahi du? Eta hoy?" eta igual kontestuan badakizu gutxi gora behera, baño igual nolabaitt barneratu behar duzu bestea, pues hitz hoiek erabiltzen dien o."
(ET4, alfabetatuak eta bidean daudenak, Bera)

"Ta gañera baldin bazara, hemengo euskalkia solasten baduzu bakarrikan, ba paratzen duzu telebista eta igual eztuzu dena ulertzen ez, hitzak eta aditzak. Hemen ibiltzen dittugula aditzak nahi dittugun bezala! Ordun karo gero hartzenzu liburun bat edo paratzenzu telebista eta eztuzu ulertzen ez, "zer erran nahi du horrek?" (...) Bertze hitzak ibiltzeittugu ez, pues hortakore bai, batua ikasteko. Baña igual azkenen galtzen dezu zure euskalkia ere bai eta hori ezta sobera ona biño en fin... igual joaten zara Bizkaira eta, topatzen zara Lekeitioko batekin eta eztiozu deus ulertzen eta berak zuri ere ez. Ordun baldin badakizu batua, edo moldatzen baldin bazara ematen dizu aukera hori ez."
(ET4, alfabetatuak eta bidean daudenak, Bera)

- Euskara aberasteko: bertako euskalkiaz gehiago jakiteko, iraganean erabiltzen ziren hitzak ezagutzeko...
- Hizkuntza gaitasun guztiak pixka bat lantzeko (irakurri, idatzi, hitz egin...)
- Jokoz kanpo ez sentitzeko eta ingurukoen euskara gaitasun berdinak izateko (alfabetatuta dauden familiarteko batzuen artean)

Elkarrizketatuekin, beren euskaltegiko **ikaskideen arrazoi eta helburu berdinak partekatzen** zituzten galdetu diegu. Honela, elkarrizketatuez gain, gainerako alfabetatuek euskaltegira joateko izan zituzten arrazoietan sakontzeko aukera izan dugu.

Elkarrizketatuek esandakoaren arabera, **adinak** alfabetatze prozesuari norbanakoak jartzen dizkion **helburuak baldintzatzen** dituela baieztatu daiteke. Izan ere, modu laburrean esanda, gazteenek, euskara titulua ateratzea dute helburu; helduagoek, berriz, euren euskara hobetu eta idazketa eta irakurketan sakondu nahi dute.

Honela deskribatzen dira **adinaren arabera, alfabetatzeko helburuak**:

- Ikasle gazteek eta unibertsitarioek titulua atera nahi dute.

"Alfabetatzearen, nabaritzen zen hori, nire kasuan ni izanen nintzen gazteena. Gero EGAn ez, aldrebes. EGAn izaten da gehiago, ni baino gazteagoak edo nire adinakoak, nahi dutela titulua atera. Bi, bestean ez. Alfabetatzean nabaritzen zena da, helduagoak, ya badakitela baina nahi dute pixka bat gehiago edo idatzi... ikasi idazten edo horrela."
(ES1, Alfabetatua, 37 urte)

- Helduagoek euskararen gramatika hobeto ulertu nahi dute. Era berean, 40 urte ingurutik gorakoak, euskaraz erabiltzen zituzten hitz, esaldi eta aditzen jatorria eta estruktura ulertzea dute helburu.
- Helduagoak direnak (35-55 urte bitartean, gutxi gora behera), ongi idatzi eta hitz egiteko.

"Gehienbat ongi idazteko, ongi hitz egiteko. Bueno hitz egin, ondo hitz egiten dute. Gehienbat da idazteko eta irakurtzeko. Ba adibidez, gutun bat idatzi behar badute, zerbait hola, perfektionatu edo jakin nahi dute nola idazten den ongi. Klaro beraiek idazten dute hitzegiten duten moduan. Ordun, berak, irakasleak erakusten dio "ez, zuk erraten dezu hola, baño idatzi behar dezu hola". Gehienbat, beraiek E.G.A.ra eztira presentatu behar! Nahi dute ba herrian hobeki hitz egin, idatzi, irakurri, ba periodikoa hartzen badut...Gehienbat aunitz irakurtzen dugu klasean. Beraiek ere bai ohitutzea irakurtzea."
(ET4, alfabetatuak eta bidean daudenak, Bera)

- Asko dira euskara nondik etortzen den jakiteko nahiarekin gerturatzen direnak euskaltegira.

"Nik uste dut nahi zutela jakin, igual idazten edo nundikan heldu ziren gauzak, ez? Haiek, aditzak, adibidez, bazekiten (...) euskaldun zaharrak ziren. Menperatzen zuten solasean agitz ongi. Baino, klaro, egiteko... aditzak egiteko, nola, ez zekiten nundikan etorri ziren... objeto diecto edo holan... egiteko ez. Nik hori igual menperatzen nuen; ez nekien solasten baina hori menperatzen duzu, ikasi duzulako, bei eskolan ere zerbait euskara eman duzu eta ikasi duzu, hori, teoria... baina haiek falta zuten hori. Teoria hori edo nundikan ateratzen dan hitz hori. Edo deklinabidea, edo gauza horiek..."
(ES1, Alfabetatua, 37 urte)

- Haur txikiak dauzkaten gurasoek, euskara hobetu nahi dute, batez ere idazmena eta irakurketa.

"zen talde baten, eta denak emakumek ziren, denak umik zittuztenak eta nahi zuten ikasi, alfabetatu..."
(ET3, alfabetatu gabeak, Doneztebe)

Beraz, eta laburbilduz, ikerketan parte hartu dutenen erantzunak aztertuta, alfabetatze prozesua burutzeko **arrazoi eta motibazioak, bi aldagaiengatik daude baldintzatuta** batez ere: **adina eta guraso izatea edo ez izatea.**

Izan ere, adinez gazteenak direnen motibazio iturri nagusia lan esparruari eta euskara tituluei lotuta dago. Adinez helduagoak izan eta erdaraz ikasi dutenek, euskara hizkuntzan gehiago sakondu nahi dute eta hizkuntza gaitasunak landu. Bestetik, gurasoak direnek, alfabetatuak izateko behar handiagoa sentitzen dute. Elkarriketatuen euskaltegiko talde ia guztietan ematen da aipatu errealitate hau.

3.2.2 Oro har, aurreikuspen hauek bete egin dira

Alfabetatze prozesua hasi zuten lehen egunean, herritarrek zituzten aurreikuspenak, helburuen pare daude. Aurreikuspenak eta norbanako bakoitzak alfabetatze prozesuari jarritako helburuak lotu egiten dira beraz: lanerako titulua bilatzea, irakurketa eta idazketa gaitasunak hobetzea, seme-alabei modu egokian lagundu ahal izatea etxeko lanekin... Honela, orokorrean, herritarrek zituzten aurreikuspenak bete egin dira.

Aurreikuspenak bete diren arren, **“gehiago hobetzearen” beharra** azpimarratu da. Izan ere, alfabetatze prozesua ez da euskaltegitik ateratzean edo titulu bat lortzean amaitzen batzuen aburuz: landu eta mantendu beharra dago, prozesu jarrai eta amaigabea baita. Esaterako, elkarriketatu bat baino gehiagoren kasuan, bizitzako bi etapa desberdinetan egon dira euskaltegietan, arrazoi desberdinengatik.

Alfabetatzea prozesu amaigabea dela esateko, honakoa aipatzen da:

- Maila batean oraindik berde ikusten du bere burua (EGArekin alderatzen du maila hori). Egunen batean, euskaltegira bueltatzea kontenplatzen du. Orain ez dauka astirik.
- Epe laburrean bete dira aurreikuspenak. Luzera, birziklapenaren beharra aipatzen da. Zaila baita lortutako maila, nork bere kabuz mantentzea.

“Oharra eta idatzi beharrekoa normalen beti euskeraz. Osea ni azterketa bat, eta suertatu zait, egin behar azterketa bat administrari postu baterako ta nik E.G.A.-ko titulua badut bañon idazteko zenbaki edo hitz teknikoak, nahiko gaizki eta ez nun gaingiditu. Uste dut birziklapen bat beharko nukela”
(ET4, alfabetatuak eta bidean daudenak, Bera)

- Gehiago dutela hobetzeko uste dute batzuk. Alfabetatu diren arren, oraindik hainbat gabezia, interes eta helburu berri... sumatzen dituzte.

“Lendabiziko aldia haurrak nituen (...) eta euskaraz hitz egin nahi ginuela erabaki genulako, eta bigarreneko aldie, ba umek, o sea, badagolako hutsune bat hemen izugarri handie eta handiago in ditekena, zertik hemen, gure ingurun, nekazaritza desagertzeraz ikulutan hemen eztago haziendarik, eztago. Eztago e... erabiltzen zien hitz oik, denak desagertu... Zertarako? Bueno, ze noa joan behar dugu ba jakiteko e... txerrie irausten dela edo... e... zaldie eilarten... Hoik hoi... ikasi behar izan ditut orain”!
(ES3, Alfabetatze bidean, 45 urte)

Orokorrean, alfabetatzearen gainean sortutako aurreikuspenak bete egin direla esan dugu: titulua eskuratu, irakurketa eta idazketa gaitasunak garatu... Bada, ordea, bere aurreikuspenak bete ez dituenik ere. Kasu honetan, alfabetatzea lortu bai, baina mankomunitateko euskara azterketa ez zuela gaingiditu adierazi du.

"azterketan bat egin nuna euskaraz mankomunitaterako eta ez nula gaindittu."
(ET4, alfabetatuak eta bidean daudenak, Bera)

Alfabetatze prozesua amaituta, aurreikuspenak bete dituen arren, hizkuntza gaitasun ezberdinak ez dituela guztiz menperatzen aipatu izan da. Bere hitzetan, "oraindik berde" dago.

"Nik oraindikan ikusten dut berdea nagoela. Ez dakit, ba EGA azterketa egiteko, edo hizkuntza eskolan ere bai, maila batera ailegatzerakoan konturatzen naiz berde nagoela. Teorian badakit. Baina praktikan ez."
(ES1, Alfabetatua, 37 urte)

Alfabetatze bidean daudenek, hau da, euskaltegian jarraitzen dutenek, honakoa adierazi dute:

- Aurreikuspenak betetzen ari dira, ikasten ari da. Era berean, zenbat geratzen zaion aurretik, zein gutxi dakien, zenbat kostatzen zaion (gramatika batik bat)... ohartu da. Ez da bide erraza.
- Idazterako garaian ideiak ordenatzen ikasten ari da.

"Hori da gehien kostatzen zaitena... idaztea behar bada ez, baina ideak eta ordenatzea bai. Baina erakutsi digute baita ere hori ere nola egin, ordun, nago... baina hori da gehien kostatzen zaitena (...) Oinarria... erderaz ere, ikasketak erderaz, baino erderaz ere oinarri hori falta zitzaidan. Gure garaian etzian egiten... idazlanak ziren, ziren bezela... ordena eta tesiak, eta estrukturak eta gauzek oin ikasten ari naiz. Oso pozik."
(ES3, Alfabetatze bidean, 45 urte)

3.2.3 Izandako esperientzia

Esperientzia desberdinak topa daitezke, gustu guztietakoak:

- **Hasieran momentu txarrak pasatzea**: urduritasuna, beldurrak.... Denborarekin hauek gainditzen joan eta euskaltegian gustura ibili izana aipatzen da kasu hauetan.

"han ginen ginen taldean hamar persona. Eta buo, gaizki, lenbiziko (...) aditzak egiten. Eta ni, ez nekien. Irakaslea konturatzen zen, zen Mentxu, ez dakit... eta ni urdurikan. Ez nekien... eta bera pasatzen zen. Gaizki pasatzen nuen. Gero etxera eramaten banuen, ba etxean egiten duzu lasai, baina momentuan han... Gaizki bai. Apuroa. Gaizki, bai. Baina buneo, nola irakasleak ere ikusten zuen nolabait ze gaizki pasatzen nuen ba..."
(ES1, Alfabetatua, 37 urte)

- **Euskaltegian lehen esperientzia txarra**: motibaziorik ez, irakasle kaskarra... segituan utzi zuen euskaltegia.
- **Hizkuntza eskolan esperientzia aberasgarria**: klaseak dinamikoak izatea eta irakasle ona nabarmentzen dira. Hauek funtsezkoak dira esperientzia positiboa izateko.

"Guk beti oso talde polita dugu eta oso ongi pasatzen dugu, niretzat oso inportantea da irakaslea, motibatzea. Ta bueno, emakume zoragarria da eta kriston tiroia du. Oso gustura gaude eta gañera kutsatzen gaitu, gogoia eta ilusioa eta euskararen garrantzia eta..."
(ET4, alfabetatuak eta bidean daudenak, Bera)

- **Esperientzia oso positiboa**: giro ona dago taldean eta pixkanaka guztiak doaz euskararekin aurrerapausoak ematen.

"E: Bai, harremana oso oso ona delako, bai. Ongi da, oso gustora joaten naiz. Nik uste dut, hola ikasteko ere erraxagoa dela (...)

G: eta giro atsegin batean baldin bazaude eta disfrutatzen badezu, ze azkenean hizkuntza horrekin disfrutatzea ere badaka... helburu E: Bai... bada helburuetako bat." (ES3, Alfabetatze bidean, 45 urte)

- **Esperientzia taldearen arabera baldintzatua dago:** taldea txikitzen doan neurrian edo partaideen asistentziak kale egiten duenean, giro aspergarriagoa sortzen da eta klaseak astunagoak eta luzeagoak egiten dira. Talde egonkor bat izan dutenek esperientzia modu positiboagoan baloratzen dute.

"gara talde bat agitz arraroa. Alde batetik gure adiñekoak edo ingurukoak eta gero gu baño zaharragoak. Orduan beraiek guri erakusten digute, ba hitzak, beraiek nola erraten dituzten gauzak...eta irakaslea aunitz laguntzen da beraiekin ez, "hau zer erran nahi du?" eta beraiek badakite gu baño hobeto, igual ezkakite idazten edo irakurtzen, baño esaldiak, hitzak...gu baño hobeki kontrolatzen dute." (ES3, Alfabetatze bidean, 45 urte)

"Jarraipena egunero... Konstantzia. Hori da, ez non erderaz esan nahi, konstantzia bat behar dena. Nolabaite konpromiso bat joanen zala. Ezin liteke lau persona hasi eta gero hirukin gelditu, taldea desegiten delako. Ezin bait liteke hiruekin, hiru edo lau ordu segitu. Gainera, taldea eta ikasteko eta motibatze eta lana egiteko kopuruek dexente behar da. ez due balio hiru, zeatiken hiru... guri tokatu izandu zaigu behin, gaixo edo lana dela, hiru bakarrikan euskategira joan. Eta jo! Ze atsalde luzea. Osea ez. Behar da, behar da... mugimendu eta azkartasun bat. Lanak egiteko ere. Bestela oso motela, oso geldoa da. neri etzait... nire ustez, karo. Ordun, hor, ikusten dut hor falta dela, ez?" (ES3, Alfabetatze bidean, 45 urte)

Alfabetatutako herritarrek aipatutako esperientzietatik, euskaltegira joan eta **gustura egoteko, funtsezkoak diren hiru faktore** azpimarratzen dira. Partaideek garrantzia handia ematen diete honako aspektuei:



- **Irakaslea:** ikaslearen motibazioa lantzeko figura garrantzitsutzat jo da. Orotariko esperientziak aipatu dira irakaslearen gaiari lotuta:
 - o Irakasle kaxkarra: zalantzak argitzeko gaitasunik ez dauka.

"Begira, ni sakontze talde horretan egon naizenean, besteak zian oso gazteak, eta gañea unibersidadean ai zian gaztetxoak ez. Eta bueno nik eztitu hainbeste kuestionatzen baño beraiek denboa guztin, "eta hau zergatik? Eta hau nola?" eta irakaslek "a pues begiratuko du, a pues begiratuko dut!" nik esaten nun, jo! Ni nago persona horren barruan eta...begiratuko dut, begiratuko dut...nik pentsatzen nuen, ziurtasun gehiok, galdetzen badizute zeozter jakin behar dela, nik suposatzen nuen, baño askotan, a pues begiratuko dut, a pues begiratuko dut! Hartu hiztegia eta...Gazteak bueno galdetzen dute! Ta zergatik eta zergatik! Ez nun ikusi nik oso airoso irakaslea hor e! o behintzet nere inpresioa! Baña gaztetxoak bai kaña jartzen dutela ta ordun hor zorrotza beharko du hor benetan dakizula nundik jotzen dun haizeak ez! A pues galdetuko dut...eztaikit zer!" (ET4, alfabetatuak eta bidean daudenak, Bera)

- o Irakasle aspergarria: klaseko dinamika monotonoa eta aspergarria izateak, euskaltegia uztera emana du jendea.
- o Irakasle oso ona, motibatzailea: klase dinamiko eta aberasgarriak egiten saiatzen denez, giro ona sortzen du eta ikasturte osoan zehar mantentzea ahalbidetzen du.

"Gure taldean igual azkenean bukatzen dugu, eee eramaten gaitu bere baserrira eta han, txangoa egiten dugu bueno ume txikiak bezala, biño, hori kriston esfortzua da, ezta bere soldatan sartzen. Baña hori da pertsona nolakoa den ez."
(ET4, alfabetatuak eta bidean daudenak, Bera)

- **Saioen metodologia eta lan dinamikak.** Irakasleari lotuta dago eta metodologia eta jarduera dinamikoak egitea eskatzen da. Izan ere, hizkuntza bat ikastea gogorra dela uste da eta pizgarriak ezinbestekoak dira: material entretenigarriak, jarduera motibatzaileak...

"Nik adibidez duela lau edo bost urte apuntatu nintzan euskaltegian eta egon nintzen oso denbora gutxi ze pues hori ez nuen motibazio, ez nuen batere motibaziorik eta atera nintzen. Eta aurreko urtean hizkuntza eskolan izena eman nuen eta gogo, osea klaseak oso desberdiñak ziren, ze jartzen zizkigun ba wazemank-eko esketxak, gero berak sortu zuen web orri bat, jartzen zittuen irakurketak, ba bideoak (...) Dinamikoagoa zen, bai, eta jendea urte osoan mantendu zen talde, hombre bakarren bat joan zen, baño, gutxi gora behera talde osoa mantendu zen urte osoa. Eta zen oso dinamikoa. Eta aberatsa."
(ET4, alfabetatuak eta bidean daudenak, Bera)

- **Taldean osaera eta mantenua:** kexa asko jaso dira taldeak ikasturteak aurrera egin ahala desagiten direla esanaz. Taldearen dinamika oztopatzeaz gain, bizpahiru pertsonako taldeetan parte hartzea astuna eta aspergarria suertatzen dela aipatzen da. Ikasleen konpromisoa aldarrikatzen da, hots, ikasturte osoan zehar irauten saiatzeko ahalegina.

3.2.4 Nabaritutako onurak

Alfabetatze prozesua burutzearen onura nagusia, **irakurketari lotuta** aipatu du. Bigarrenik, **idazteko gaitasuna** hobetzea dugu.

"Neri idazteko maila pilla bat, sobre todo. Eta ulertzeko."
(ET4, alfabetatuak eta bidean daudenak, Bera)

Beste hainbat onura ere aipatu dira:

- **Euskara batua ikasi eta ulertu.** Honela, beste herri (herrialde) bateko euskaldun batekin ulertzea ahalbidetu.
- **Euskalkietan sakondu. Bertako hiztegia,** garai batekoa, ezagutu eta berreskuratu.
- Euskaraz komunikatzeko gaitasuna lortu.
- Euskararen ulermenean aurrerapausoak eman.
- Euskarari lotuta, une atseginak, giro ona... bizitu.

3.2.5 Alfabetatzea, gomendagarria da

Alfabetatze prozesua burutu duten herritarrek, argi daukate prozesu hau burutzea gomendatuko lieketela gainerako herritarrei. Gomendio hau emateko arrazoi kolektibo nahiz indibidualak ematen dira. Batetik, alfabetatuen aburuz, beraien eskualdeetan bizitzeko, funtsezkoa da. Bestela, euskaldunei erdara erabiltzera behartzen zaie. Maila pertsonalean ere, alfabetatzeak ekartzen dituen onurak argiak eta eguneroko bizitzan erabilgarriak dira.

Alfabetatzea gomendagarria den arren, hainbat etsipen jarrera azaleratzen dira: Herritar euskaldun alfabetatu gabeak euskaltegia gerturatzea lan zaila da. Jendearen artean, gogo eta nahi falta nagusitzen dira. Honela, alfabetatzearen kontrako diskurtsoa ohikoak ez diren arren, euskaldunek alfabetatzea beti beste momentu baterako uzten dutela nabarmentzen da. Ondorioz, kontzientziazio lana egin behar dela aipatzen dute alfabetatu batzuek.

"Bai, gomendatuko nuke. Hemen nahi baldin badute egon eta karo, zaude haurren tartean eta jendeak, eta egin behar duzu erdaraz, bertzela bestiak ez dakitela, eta igual haurrak ari dire ikasten ikastolan, pues saiatu pixko bat ere... euskaraz, ingurua segitzeko pixko bat. Igual menperatu ez agitz ongi baina bederen segitzeko hizkuntza. Ta haurrak ere konturatzen dire, helduak erdaraz ea haiek ezin dute erdaraz. Beraiek euskaraz."
(ES1, Alfabetatua, 37 urte)

ALFABETATZEAREN GAINEKO POSIZIOAK	
ALFABETATU GABEAK. Zergatik ez dute alfabetatze prozesua burutzen?	ALFABETATUAK ETA BIDEAN DAUDENAK. Zergatik hasi (eta bukatu) zuten alfabetatze prozesua
✓ Umerik ez daukalako ✓ Beharrik sentitu ez duelako ✓ Beharrik sentitu ez duelako, zehazki, lanak ez diolako euskaraz alfabetatua egotea eskatzen ✓ Hitz egitea alfabetatzea baino beharrezkoagoa dela uste duelako ✓ Emaztea alfabetatua delako, beraz bikotean badago alfabetatua den bat. ✓ Denbora falta daukatelako ✓ Ordutegi arazoengatik. ✓ Denborarik ez, ezta gogorik ere. ✓ Euskararekiko kontzientziazio falta izateagatik. ✓ Utzikeriagatik edo alferkeria ✓ Erosotasunagatik ✓ Beste lehentasun batzuk dituelako ✓ Erdaraz ikasi izanak ohitura batzuk sartu dizkio, baina atzean utzikeria dagoela onartzen du. ✓ Aurretik euskaltegia egonda, aurrerapausoak eman eta jada nahikoa ikasi duela uste duelako (nahiz eta alfabetatzera iritsi ez). ✓ Seme alabekin dagoeneko asko ikasi eta aurreratu dute. Ondorioz, hutsune nagusiak bete dituzte, eta beraz, ez dute beharrik sentitzen ✓ Bere kasa hobetu duelako.	✓ Lanagatik (euskarako titulua behar) ✓ Hizkuntza berreskuratu, mantendu eta ondo erabiltzeko ✓ Seme-alaba txikiei laguntzeko ✓ Euskaraz hobeto komunikatu ahal izateko: ✓ Euskara hobeto ikasteko. ✓ Gehiago jakiteko nahia ✓ Idazten ikasteko ✓ Euskaraz sakontzeko. ✓ Euskara batua ikasteko. ✓ Euskara aberasteko: bertako euskalkiaz gehiago jakiteko, iraganean erabiltzen ziren hitzak ezagutzeko... ✓ Hizkuntza gaitasun guztiak pixka bat lantzeko (irakurri, idatzi, hitz egin...) ✓ Jokoz kanpo ez sentitzeko

[4 KANPAINAK ETA MEZUAK]

Kanpainen gaineko ezagupen falta nabari da (ez dago alde nabarmenik alfabetatua izan edo ez). Pertsonaren araberakoa da interesa eta ezagupena. Oso azaletik hitz egiten da kanpainen inguruan, ezagutza eta iritzi sakonik gabe. Zehazki, honakoa aipatzen da alfabetatzearen inguruko kanpainei buruz:

- Mezu eta kanpainei kasu handirik ez egitea aipatu da.
- Iraganean euskaltegian ibili izanak, kanpainei atentzia jartzeko ohitura sortzea aipatu da. Hau da, nahiz eta egun euskaltegian izen emateko inolako asmorik izan ez, kanpainei kasu egiten zaie, batez ere kartelei eta egunkarietako iragarkiei (mezua, zein erakundek babesten duen...)
- Herrigunetik kanpo bizi direnek, kanpainen berri izaten ez dutela aipatzen dute.
- Soilik kanpaina zehatz batzuk ezagutzea azaldu dute batzuek.
- Kanpainei jarraipenik egiten ez dietenек, soilik etxean jasotzen dituzten gutunak aipatzen dituzte.
- Egun, kanpaina gutxi egiten direla aipatu da.
- Kanpainak, batez ere erdaldunei zuzenduta egotearen sentsazioa dago.

"Gero hortaz aparte ikastarok izateko eta urte hasieran izaten dire ez ba, apuntatzeko epeak eta ze maillak eta nun eman izena eta...baño nik uste dut, hor ere igual zuzendua dago, nik ikusten dut zuzendua dagoela erdaldunei. Eta behar bada eztago hainbeste zuzenduta euskaldunoi."

(ET1, alfabetatu gabeak, Bera)

Zeintzuk dira gogoan dituzten kanpainak?

- Ika-koak (etxera iristen den propaganda...)
- Etxera iristen diren gutunak
- Irratiko kanpainak
 - o Euskadi Irratian HABEk egindako kanpaina
- Ttipi-ttapa telebistako kanpainak
- Ttipi-ttapa aldizkarian agertu izan direnak
- AEKtik bidaltzen duten orria
- Iragarki zehatz bat aipatzen da: Gizon bat biluzik, inguruan arroparekin. Euskararik gabe biluzik zaudela adierazi nahi zutela zehazten da.
- Artzeren esaldiarekin mezua
- Lehiaketak:

- o Juan Baldez
- o **Etzetik plazara** aipatzen dute. Iritzi desberdinak topa daitezke honen inguruan:

- Euskarara gerturatzeko motibazio iturria da, saria daukalako batez ere.
- Alfabetatu gabeko jende gutxi egin dezakeela aipatzen da

"Jokatuko nuke lepoa alfabetatu gabeak jende gutxi egiten dula. Nere irudi e!"
(ET3, alfabetatu gabeak, Doneztebe)

- Etzetik Plazara egiteko interesa duenak, alfabetatzeren gainean beste herritar askok baino interes altuagoa izango duela uste da.
- Alfabetatzeko motibatua egon daitekeen jendearen perfila (segun eta nork bete eta bidaltzen duen) zehazteko balio dezake.

"klaro, zuk esaten dezu Etzetik plazara ez, jendiak eiten dula eta mas o menos, ze adiña izaten da itten duna? Gazteak edo 40 urtetik gorakoak? (...) klaro behar da ikusi aber, adiñak ikusita ez. Hortik ikus daitteke ze interesa dagon, zeñek, zein molestetzen den betetzea hori."
(ET3, alfabetatu gabeak, Doneztebe)

- Partaideek, lehen egiteko ohitura handiagoa zuten. Hasieran motibatuagoak zeuden Etzetik Plazara betetzeko.
- Etzetik Plazara egitasmoak balorazio desberdinak jaso ditu ikerketak parte hartu dutenen aldetik: batzuek gustuko dute eta bete egiten dute, beste batzuek ez diote kasu handirik egiten.

4.1 KANPAINE BALIOA

Kanpain baliagarritasunari dagokionez, inor ez da baieztatu edo ezeztatu argi bat ematera auzartzen. **Zalantza asko ageri** dira kanpain baliagarritasunaren inguruan. Elkarriketatuek ez dituzte gai honen inguruko ideia argiak azaltzen:

- Ez daki balio duten ala ez, berak begiratzen ditu.
- Mezueta irekita baldin bazaude jasotzen dira, bestela ez
- Kartelek balio dute. Klean presentzia, mezua zabaltzeko egokiak.
- Propaganda maila jaitzi da (lehen klean, orain gehiago prentsan). Lehen grafikoki gehiago zen.
- Irratikoak dira berarengan eraginkorrenak (ezagutzeko kanpaina, ez parte-hartzeko).
- Posta bidezkoa da gehien aipatzen eta ezagutzen dena

4.2 KANPAINE ERAGINA

Eraginkorrak al dira kanpainak? Deitzen al dute herritarren arreta?

Eraginkortasunaren inguruan zalantzak azaltzen dira: gaitasun eza adierazten da eraginkorrek diren edo ez esateko.

Zalantzak adierazi diren arren, alde batera edo bestera posizionatzen dira elkarriketatuak. Honela, eraginkortasunaren gaineko **iritziak banatuta** daude. Banaketa honetan, alfabetatua egoteak edo ez egoteak ez du eragiten. Ikus ditzagun eraginkortasunaren aldeko eta kontrako iritzi desberdinak eta argudio zehatzak:



- **Kanpainez ez dute eraginik**

- o Herritarrek alfabetatzea erabakitzen badute, helburu edo motibazio pertsonalengatik da, ez kanpaina baten eraginez.
- o Taldeak osatzeko arazoak daude, jendea ez delako animatzen. Berez, alfabetatu gabeko euskaldun asko dago, beraz, kanpainak ez direla eraginkorrak ondorioztatzen da.
- o Alfabetatzea burututa, batzuek, euren euskaltegia joateko erabakian kanpainez ez zutela eraginik izan zehaztu dute.
- o Alfabetatu gabeen kasuan ere, kanpaina ezberdinak ikustean "hori ez da niretzako" pentsatzen dutela aipatzen da.
- o Badira, beren ingurukoengan eraginik izan ez duela diotenak, inor ez baita animatu.

- **Kanpainez eragina daukate**

- o Taldeak osatzeko zailtasuna egoteak ez du esan nahi, kanpainez ez dutela eraginik. Jende askori zer pentsatua ematen diote. Horietako batzuk, euskaltegia gerturatuko dira gero, eta beste asko ez.
- o Kanpainez bere buruarengan eragina izan zutela baieztatu dute batzuek. Kanpaina zehatz bat ikusi eta euskaltegia apuntatu izana aipatzen da.

"Garai batean Ttipi-Ttapa telebistan bazen eta ni oroitzen naiz ikusi nula kanpaina eta gelditu nintzen horrekin. Eta deitu nun horregatik."
(ET4, alfabetatuak eta bidean daudenak, Bera)

"E2: bai hori eta beste bate gogoan neukan, ta ni pixkat pikatu nintzen eta hor bazegoen, hasten zihen, irakurtzen zenittuen bi testo, bat euskeraz eta bestea erderaz, ta irakurtzen hasten zihen euskeraz eta pasatzen zihen, ba tipikoa zen ez...Nei behiñipeñ bai, ta pentsatzen dut holakoren batengatik hasi nintzela Aek-an."

G: zuk ikusi zenun kartela eta horrek bultzatuta animatu zihen?

E2: bai pixkat bai. Eta gañea akordatzan naiz nun, tabernan hasi irakurtzen eta erori nintzen tranpan."

(ET2, alfabetatu gabeak, Lekunberri)

- o Alfabetatu gabeek hainbat kanpainez "barrena ukitzen dietela" aitortzen dute kasu batzuetan. Eragin bai, baina gero egunerokotasunaren errealitatera jaitsi eta denbora faltagatik ideia baztertzen dute.

"Barrena ukitu bai baño hoi esateuna, bizi gea hain azkar eta hain azkar dijoa dena, nik behintzat denboa faltangatik, bestela gusto ingo nuke irakurtzeko. Ta gehienbat idazteko bai. Ika-ko rebista hortan haste haiz ta azkenen pentsatugabe idazten badek, aurrenekoan baño pixka bat bueltaka hasten ba haiz, baño zein du hemen ona? Denak igualak iruitzen zaizkiak."

(ET2, alfabetatu gabeak, Lekunberri)

- o Eragina daukaten bitartekoak, norbanakoaren etxeraino iristen direnak dira (gutunak...)

- o Ttipi-ttapa aldizkaria da eraginkorrena, jende gehienarengana iristen delako. Tresna hori aprobetxatu behar da jendea alfabetatzera motibatzeko
- o Telebistarena eraginkorra da, besteak (kartelak...) ez hainbeste.

"Niri iruitzen zait papera biño, probetxu gehiago izan zula bere garain, adibidez Ttipi-Ttapa bezelako, telebista bat hemengo zonaldin. Nola hemengo berriak ematen zittun jendek ikusten zun eta han agertzen ziren horik igual ziren eraginkorragok kartelak baño."

(ET4, alfabetatuak eta bidean daudenak, Bera)

- o Kanpaina bat eraginkorra izateko, mezuak norberaren etxeraino iritsi behar du. Ezin da herritarren atentzioa bereganatzeko zain geratu, herritarren etxeraino sartu beharra dago, posta bidez edo atez ate. Modu hori da eraginkor bakarra.

"horrekin erran nahi dut si Mahoma no va a la montaña, la montaña va a Mahoma, osea jendea etortzen ezpada zu joan beharko duzu jendiangana, osea kartelan eta kanpañan bitartez jendia ezta etortzen. Eta ordun zuk nahi baduzu jendia hurbiltzea ba joan beharkozu banan banan. Oaiñ deialdi hau egin duzuen modun, pues joan ate gehigo joka."

(ET3, alfabetatu gabeak, Doneztebe)

- o Taldeak osatzen badira, herritarrengan eragitea lortu delako izango da. Batek, gainera, bere esperientzia pertsonalari egiten dio erreferentzia: 12 pertsonako taldea osatu dute eta taldekideek interesa jartzen dute. Hor mezua ongi iritsi denaren seinale dela iritzi du.

"Aurten euskaltegin... hamaba hamar... hamabi? Hamabi... hamabi personako talde bat osatu ginun nere... nere mailan. Bi pixkanaka utzi in... joanaz, haurrak ttikik, bata ta beste... ezin dute, bino talde... bueno, talde majoa da herri ttiki baterako. Izan ziteken gehio ere baño... Gero beste bi neska ere etortzen die... Basaburuatik, eta bueno talde majoa da baita ere, nik uste interesa jartzen dola jendek ere... eztatik, hasi baldin бага hor gaude ez? E... Aileatzen dela mezua, eztatik."

(ES3, Alfabetatze bidean, 45 urte)

Multzo batek, kanpainaren eraginkortasun eta sortzen duten arreta herritargoaren euskararekiko interes eta jarrerekin alderatu dituzte. Honako iritziak aipatu dira:

- Batzuek, eztabaida, eraginkortasunean baino herritarren interes eta gogoan kokatzen dute. Hots, arazoa, kanpainen eraginkortasun maila edo eraginkortasun faltan baino, herritarren interes eta gogo ezan dago.
 - o Kanpainak eraginkorrak izateko, herritarrek aldeztu aurretik prestutasuna izan behar du. Euskara ikasi edo alfabetatzeko inongo asmorik ez duen herritarrek ez du arretarik jarriko honela kanpainen.
- Euskaldunen artean, kanpaina hauek soilik EGA bezalako tituluak lortu nahi dituztenen artean eragin dezakete. Bestela, euskaraz hitz egiten dakitenen artean ez dira deigarriak.

4.3 EUSKARRIAK/BITARTEKOAK

Alfabetatzearen inguruko kanpainak aurrera eramateko erabiltzen diren euskarri edo bitartekoaren inguruan galdetu da. Erantzunetan ezin daiteke bereizketarik egin alfabetatu gabe eta alfabetatuen artean.

Hauek, **kartelen gaineko ezagutza maila eta iritzi desberdinak** plazaratu dituzte. Kartelen gaineko **ezagutza falta** nabarmentzekoa da halaber. Batzuek ez zuten kartel bat bera ere ezagutzen, beste batzuek, soilik bat edo beste ezagutzea adierazi dute.

Kartelak ez ezagutzeko arrazoi nagusi bezala, **kartelei kasurik egiten ez** dietela dela azaldu dute.

"ni ya leittu ta leittu ta leittu, han ta bertzi ta gero Lesakan badire, paratzen ditzuzte tabloiak bezala ta han bat bertzin gañin eta...eztittu leitzen. Tiendako aten paratzen baittuzte bizpahiru hoietxek baño"
(ET1, alfabetatu gabeak, Bera)

Kartel guztiak aipatu dira ezagun bezala, batzuek bat ezagutzen dute, beste batzuek bestea. Hona hemen, erakutsi zaizkien hiru kartelen inguruan aipatutakoa:

HIZKIAK	NESKA	OLAGARROAK
✓ Laboraleko kartelarekin nahasten da. ✓ Kartela ezaguna da, baina ez erakargarria.	✓ Kartel ezaguna da ✓ Oso kartel zozoa da ✓ Lehen begiratuan ez du euskaltegi bateko kartela ematen. ✓ Itxaron gela bateko "isilik egon" kartela dirudi.	✓ Hiru kartelen artean, ezagunena da. ✓ Deigarria da ✓ Idei ona ✓ Kartel erakargarri bakarra

Ezagunak diren kartelen artean, ospetsuena olagarroaren kartela dugu beraz. Ospetsuena eta balorazio onenak jaso dituen euskarria da ere. Hizkien kartela ere ezaguna zaie batzuei.

Kartelak, kanpaina komunikatiboetan bitarteko bezala erabiltzearen inguruan, denetariko iritziak bildu dira:

- **Kartelen erakargarritasunaren** inguruan **iritzi kontrajarriak** daude herritarren artean:
 - o Euskarari lotutako kartelak zozoak dira oro har.
 - o Kartel batzuk oso onak dira, deigarriak.
 - o Zaila da kartel erakargarriak egitea egun, baina posible da, badaude.
 - o Kartelek ez dute bere arreta deitzen (bere buruari autokritika)
- Eraginkortasunari lotuta, honakoa aipatu da:
 - o Kartelek balio dute. Klean presentzia lortzen da eta mezua zabaltzeko egokiak dira.
 - o Kartelak lehen gehiago ikusten ziren. Irailean nabarmentzen dira batez ere kartelak.
 - o Kartelak ez dira eraginkorrak.
 - o Kartelak ez dira erakargarriak. Bakoitzaren etxeraino iritsi behar da, gutun bidez.

"Ttipi-Ttapa aldizkaria ere bai. Nik uste dut kartelekin ezteela deus egiten, ni ere mankomunidaden nago, zabor mankomunidaden biño kartelak paratzeittugu ta eztugu deus lortzen. Edo joaten zara bakoitzan etxera, bialtzeittuzu kartak etxera edo...kartelakin...jendiak ya eztittu leitzen! Hainbertze kartel ditzuzu kanpon, ya eztuzu ikusten ere ez! Ordun guk ya erabaki genun duela bizpahiru urte ya, kartelak egiten ditzuzu e, baten bat, baño gero ta gutxigo. Billatu behar da beste moduren bat, ezta errexa, hor ibiltzen garare bai, baño, nik uste dut kartelekin ya ezteela atentziorik jartzen!"

(ET4, alfabetatuak eta bidean daudenak, Bera)

- **Beste kartel edo kanpaina batzuei erreferentzia** egin zaie ere:
 - o Jon Baldesek kanpaina. Deigarria izan zen eta euskaraz mintzatzen ez direnengana iritsi izen.

"ba eztakit zuena zen e, Jon Baldes hori, nei atentzioa deitzen zian. Eztakit zuen zen? (...)bai aurreko udan izantzen. Eta potea han dauket (...)Baño jitoak eta dena esantzun azkenean! Han errexa ikusi zuen, joe nire banik!"
(ET2, alfabetatu gabeak, Lekunberri)
 - o Erakutsi ez den kartel bati egiten zaio erreferentzia eta deigarria zela aipatu da.

"Beste bat oso tipikoa izan zan, bi lerro eta batetik bestera pasa..."
(ES2, Alfabetatu gabea, 43 urte)

4.5 KANPAINEN BIDEZ JASOTZEN DIREN MEZUAK:

Elkarrizketatuak ez dira kanpainen bitartez zabaldu diren mezuak esateko gai. **Idea solteekin geratzen dira**, atentzio gehien jartzen dutenak ere. Kanpaina deigarrien bezala definitutako iragarkietako mezuekin geratzen da herritarra. Deigarriak ez diren kanpainen mezua ez da berdin iristen: herritarrek behintzat, ez dute gogoan gordetzen.

Mezuen gainean honako aipamenak jaso dira:

- **Mezu zehatzak** aipatu dira, iragarki zehatzetatik jasoak:
 - o Irratiko anuntzio bati egiten zaio erreferentzia: bi ume hizketan azaltzen dira, gurasoen hizketaldi bat erreproduzitzen. Gurasoek oker hitz egiten dutela adierazten dute.
 - o Telebistako iragarki bat: "euskararik gabe, biluzik zaude" mezua bidaltzen da.
 - o IKASI ETA HARI leloa
- Mezua aldatzen joaten dela aipatu da
- Mezuak, ez dira oso ongi bereizten, baldin eta atentzioa jartzen ez baduzu. "Egunean egoteko" jarraipena egitea beharrezkoa dela, diote.
- Lehen kanpaina gehiago izaten ziren (kartel gehiago...). Jende gehiagok egiten zuen lan euskara eta euskaltegien alde. Mezu gehiago iristen ziren herritarrengana, egoera gordintasuna ageriago zegoen eta hori adieraztea lortzen zen.

[5 EUSKALTEGIAK]

5.1 EUSKALTEGIEN FUNTZIO GARRANTZITSUA

Euskaltegiek herri eta eskualdeetan betetzen duten funtzioaren inguruan galdetuta, honako iritziak jaso dira.

- Funtzio oso garrantzitsua bete du eta betetzen du, **nahitaezko funtzioa**.
 - o Nafarroako gobernuaren euskara politika ankerraren aurrean, ezinbestekoak dira, garantia edo berme bat eskaintzen dute euskarari dagokionez.

"Nahitaezko funtzioa! Helduen alfabetatzea nahi ta nahi ezkoa da, nahi ta nahiezkoa... Neretzako euskera... hitz eiteko, irakurtzeko, idatzeko, bizitzeko, lanerako... Lanean, euskara, euskeraz hitz eiten den, euskara eremutan euskara... Nafarroan... zona euskaldun euskal tokitan, euskara exijitu behar da lantegi baten (...) Hoi da, hoi bermatzearen... hor lanean ai dena e e... gaztelaniaz hitz eiten dunian ya... euskeraz ikasteko e... beharra edo... beteko luke osea ke... Ikasiko, erakutsiko lioke... euskalduntzen langile horrer. Eta hori nahi ta nahiezkoa da nere ustez zeatik... Euskaldunak ganak eskubidea daukegulako euskaraz e... erabiltzeko, noanahi goa goazela. Gero e... ikasketatan ere lanpostu baten eta ikasketatan ere euskaraz irakaslek eta e eon beharko luke nire ustez e... euskeraz euskera menderatzeko aukera eozein gai ematten duela"
(ES3, Alfabetatze bidean, 45 urte)

- Herritarrak (bertakoak nahiz kanpokoak) euskaldundu.
- Herritarrak alfabetatu
- Bertako hizkuntza eta kulturaren ezagutza, transmisioa eta mantenua bultzatu. Euskara kultura bati lotuta ulertzen da. gainera, euskaltegiek egiten dituzten irteerek eskualdeko ohitura eta kultura gertutik ezagutzeko balio dutela azpimarratzen da.
- Esparru publikoan euskara bermatzeko funtzioa: administrazio publikoko langileak euskaldundu edo langile berriak euskaraz alfabetatuak izatea bermatzen du.
- Jende asko pasa da euskaltegitik. Beraz, jende asko gerturatu da euskarara helburu desberdinekin. Honela, herritarrak eta euskara gerturatzeko tresna izan da eta egun ere hala da.
- Betetzen dituen funtziotik harago, hainbatek **eboluzio bat** ikusi dute euskaltegietan:

- o **Eboluzioa negatibotzat** definitzen da orokorrean, izan ere, euskaltegietan ikasten duten ikasle kopurua hartzen da eboluzio honen bilakaera baloratzeko ardatz nagusitzat. Ikasle kopuruaren beherakada, euskara eta zehaztean, euskaltegien inguruan sortzen den giroa hoztearekin lotzen da. Giroa hoztearen arrazoia ez da argi ikusten, baina gizarte mugimenduen eta militantzia edo lan boluntarioaren beherakadari lotzen zaio. Herritarren hitzak gogoratuz, "jada inork ez du dohainik lanik egiten, lehen ordea askok"

5.2 EUSKALTEGIEN ESKAINTZA: EZAGUTZA

Euskaltegien eskaintzari dagokionez, ezagutza maila desberdinak daude, baina orokorrean ezagutza falta nabarmentzen da. Euskaltegia gertutik ezagutzen dutenek noski, gehiago ezagutzen dute euskaltegiaren eskaintza. Honako iritziak jaso dira eskaintzari dagokionez:

- Egun gehiago funtzionatzen du euskaraz ikasteko (erdaldunekin)
- Talde gutxi egongo dira egun
- Eskaintza berezi bat umeei etxeko lanak egiten laguntzeko, oso egokia.
- Interneteko eskaintza.
- Euskara ikasteko talde bat eta beste bat EGArako daudela suposatzen da

5.3 BALORAZIOA, POSITIBOA

Esan bezala, euskaltegien eskaintzaren gainean ez dago ezagutza handia. Euskaltegien eskaintza baloratzera iritsi direnen artean, **eskaintza egokia dela esatean adostasun osoa** dago. Hona hemen emandako zehaztapenak:

- Batzuen aburuz, egun, gehiago dira alfabetatzera baino euskara ikastera doazenak.
- Arazo larria dago euskararen erabilerarekin. Erabilera ez da euskaltegien helburu nagusia beraz, ezin beren eskaintza kritikatu.
- Oso positibotzat jotzen du, euskara batuaz gain, bertako euskalkia ere irakastea.
- Irteerak egitea oso ondo baloratzen da: hizkuntza eta kultura uztartzen dira, euskararen erabilera ikasgelatik kanpo bideratzen da, herrira irekitzen da euskaltegia...
- Aisialdiari lotutako ekintzen garrantzia: zenbait egunetan festa modukoak antolatzen dituzte euskaltegiek, hala nola, kantu bazkariak, irteerak... Oso balorazio ona jasotzen dute. Euskara eta kultura uztartzen direla aipatzen da. Gainera, euskaltegian klaseak hartzen ez dituen jendeak parte hartzen du ekintza hauetan. Euskaltegi herrira zabaltzeko modu aproposa da.

"egin genun lehengo urten bazkari bat eta gero kantuz, eta gonbittu ziren musika dantzariak etorri ziren eta oso arratsalde politta pasatu ginun, ... antolaketa egin zuten hemengo euskaltegiak, eta joan ginen Peruharrira. Peruharri da, hemen baserri bat, Iñaki Perurenak eta bere familiak daukana, aitzineko museo bezala. Berak ematen ditu esplikazioak antzinako... ongi dago, oso... bueno, interesantea da esaten duena eta esplikatzen duena, eta hori ikustera joan ginen... eguna antolatu ginun, egun pasa. Eta ongi da baita ere, egun guztia euskaraz hitz eginez baina kultura inguruan duzula, zure inguruko gauzak ikusiz, ez? Orduan bada aukera hizkuntzatikan aparte kultura... bizitzeko, beste arlo batzuetan... lehengo asteburuan, adibidez, ardo dastaketa bat izandu zen baita ere euskaltegiak antolatuta. Niri ardoa ez zait gustatzen eta ez nintzen joan. Baina badakit, esan zitean oso ongi egondu zela, bai. Etorri zen jendea asko zekiela ardoataz eta ba bueno, erakutsi zietela ardoa dastatzen, usaintzen..."
(ES3, Alfabetatze bidean, 45 urte)

- Barnetegien formatua polita da. Giro polita sortzen da taldean eta herrian ere oihartzuna izaten du.
- Oso positibotzat jotzen da euskaltegietan bertako euskalkia irakastea.

5.4 ERREALITERA EGOKITZEN AL DA ESKAINTZA?

- Adostasun osoa dago perfil ezberdinetako partaideen artean, **eskaintza errealitera egokitzen dela** esatean. Guztiek nabarmentzen dute, **arazoa eskarian edo taldeak osatu eta mantentzeko zailtasunean** dagoela. Arazo hau, herritarren kontzientiazio eta motibazio faltarekin lotzen da.

"ematen dute nire ustez ongi. Problema izaten da taldeak osatzeko."
(ES1, Alfabetatua, 37 urte)

- **Eskarian egondako beherakada hau, herrian dagoen beharra jaitsi izanarekin** lotzen da. Hau da, orain dela 30 urte, euskarari lotutako beharrak handiagoak ziren. Egungo gazteek euskaraz ikasteko aukera daukate ikastetxeetan eta ondorioz adin tarte zabal batean euskararen ezagutza bermatua dago.

"Uste dut orain dela 32 urte ere beharra, orain badago beharra baño ordun behar haundigoa zegon ez, gaur egun ikastolak daude eta ordun ba gazte guztiek ya, ezta gu bezala ez. Orduan askoz erdaldun gehiago zegon erdaraz ohitura handigoa zegon hitzegiteko eta bizitzeko eta. Gaurko gazteak ya...ya behar deu helduxegoak ez, Erriberan bai badaukala horrek ba, beste gauza batek deitzen dio ez, euskeraz eztakien jendea ez. Baño nik uste dut hemengo zonaldean gazteak ya..."
(ET1, alfabetatu gabeak, Bera)

- Euskaltegiak **errealitate berrietara moldatzeko egiten den ahalegina azpimarratzen** da:
 - o Ordu-tegi irekiak existitzen dira (batzuek ez zekiten)
 - o Etorkinak eta euskara ikastea

Landu beharreko puntu batzuk aipatzen dituzte herritarrek:

- Euskara oso gutxi dakitenak ere, hizkuntza erabiltzeko motibatu behar dira.
- Jendearengan beharra sortu beharra dago, iraganean bezala (alfabetatzeari dagokionez...)

- Alfabetatzeko jende asko dago hemen, 40tik gorako guztiak ia.
- Jendeak ez du bere herritik mugitu nahi (baina ia ezinezkoa da herri bakoitzean talde bat sortzea)
- Herritarrek euskaltegia joateko adierazten duten denbora faltari lotuta, egun dagoen langabetu kopurua kontutan hartu eta euskaltegiek egoera honi etekina ateratzen saiatu behar dutela aipatzen da: langabetuentzako eskaintza bereziak landu.

5.5 INTERESEKO PROIEKTUA

Honako proiektuak jo dira interesgarritzat:

- Euskaltegiak antolatzen dituen irteera, bazkari, ikuskizunak...

"euskarako klaseetatik aparte, badire zenbait egun antolatzen dituztela festa moduan eta hola. Gero, euskateligin batera Korrika ere hor dago, eta ez dakit kultura aldetik ere zenbait ekintza egiten die, festa egunak egiten die. Hemengo euskaltegiak antolatzen ditu bertso afariak edo ez dakit, kantuz egindako bazkariak..."
(ES3, Alfabetatze bidean, 45 urte)

- Bertako euskalkia landu eta ikastea. Galbidean dauden hitzak (helduenek soilik mantentzen dituztenak) transmititzea.
- Eskaintza berezia hurrei etxeko lanekin laguntzeko; hots, gurasoei zuzendutako eskaintza
- Internet bidezko eskaintza aipatu du pertsona batek.
- Mintzalaguna edo mintzapraktika ideia polita bezala definitzen da.
- Barnetegiak: orain urte batzuekin alderatuz gero indarra galdu duten arren, egitasmo egoki eta polita direla uste da.
- Eskaintza oro da interesgarria.

5.6 ZER GEHITU EDO ALDATU?

Proiektu edo ideiak gehitzeari dagokionez, inork ez du proposamenik egin. **Egun dagoena nahikoa** dela uste da. Are gehiago, herritarrek kontziente dira egun euskararen inguruan dauden diru arazoez, beraz, ez da erreal aurrera aterako ez diren proiektuak proposatzea.

Euskaltegien eskaintzari lotuta, aldaketarik egin behar ote den galdegin da, eta hala bada, aldaketak proposatzea eskatu zaie partaideei.

Aldaketa guztiak alfabetatze prozesua burutzen ari direnek edo jada burutu dutenek adierazi dituzte. Beraz, alfabetatu gabeek ez dute aldaketa beharrik ikusten dagoena egokia dela deritzotelako edota ez direlako gai aldaketaren bat proposatzeko.

Proposatu diren aldaketei dagokionez, honakoak aipatu dira:

- Arazo nagusia **ordutegiei** lotzen zaio. Kontraesana sortzen du gaiak, izan ere, egungo ordutegi eskaintza ez da desagokitzat jotzen. Arazoa herritarren bizimodu eta ordutegiak, euskaltegien ordutegiekin bateragarri egiteko zailtasunean datza. Aldaketa bat behar da ordutegien gaiari dagokionez, baina ezinezkoa egiten da proposamen zehatz bat mahai gainean jartzea.
- Euskaltegiei baino, bertara joaten diren **herritarrei lotutako aldaketa** bat proposatzen da. Arestian aipatu dugu taldeak osatzeko eta ikasturte osoan zehar mantentzeko zailtasuna. Arazo honi aurre egin eta euskaltegiko **ikasleei konpromiso handiagoa izatea** eskatzen zaie. **Taldean iraunkortasun eza aldatu** behar da.
 - o Ikasturte osoan mantentzeko ahalegin eta konpromisoa, ikasleen esku dagoen arren, euskaltegiak ere asistentziaren inguruan zorrotasun gehiago izan beharko lukeela aipatzen da. Zorrotasunak, agian, ikasleen ahalegina handituko luke.

"Denetatik dago e! porque maillek ere daude mordoxka eta ordun alfabetatzen ere ibiltzen da jendea, baño. Pentsatzen deu, gaur bezela, hasiera bai, gero aiatzen zen aste santua, nire esperientziz, ya talde erdia baño gutxigo, eta udara ya aiatzen giñen bat edo bi. Eztakit zeatik. Jendea nolabaitt...gañea nola ezten oso, formala, nola ezten iñork...aber etorri zea gaur, aber lista eztakit zer...nola ezten horren zorrotza ere, jendeak..."
(ET4, alfabetatuak eta bidean daudenak, Bera)

- **Irakasleak**, ikasleen motibazio iturri garrantzitsuak dira. Euskaltegietan irakatsiko duten irakasleen aukeraketa eta prestakuntza oso kontutan egin behar dira. Gaitasun pedagogikoak landu behar dira eta irakasle onak sortu eta hautatu.

NAFARROA MENDI ALDEKO EUSKALDUNEN ALFABETATZE JARRERAK,
JOERAK ETA HAUTEMATEAK

I.ERANSKINA
(GIDOIAK)

ELKARRIZKETA SAKONAK

➤ Elkarrizketa sakona. Alfabetatuak

0. Arauak azaldu

- Gure burua aurkeztu
- Ikerketa azaldu. Faseak.
- Grabatua izango da, eragozpenik?

1. Elkarrizketatuen perfila. Aurkezpena 5'

- Izen Abizena. Non bizi zara? Norekin?
- Zertan egiten duzu lan?

2. Euskara. Hizkuntzaren gaineko diskurtsoak 15'

- Zer da zuretzako euskara?
- Zertarako da onuragarria euskara? Zertarako da onuragarria zehazki zuretzat? Zertarako erabiltzen duzu?
- Zertarako ez da beharrezkoa?
- Zure inguruko jendeak berdin ikusten duela uste duzu?

3. Euskara kontsumoa 10'

- Zein eremutan erabiltzen duzu euskara? Non hitz egiten duzu euskaraz? Zergatik?
- Norekin hitz egiten duzu euskaraz?
- Zer irakurtzen duzu euskaraz? Noiztik? Zergatik?
- Zer ikusten duzu euskaraz? Noiztik? Zergatik?
- Zer idazten duzu euskaraz? Noiztik? Zergatik?
- Zerbait sumatzen al duzu faltan euskaraz? (aldizkari, egunkari, telebista, liburu, irati...)
- Zure inguruan ere hala pentsatzen dutela uste duzu?

4. Erdara kontsumoa 10'

- Zein hizkuntza hitz egiten dituzu euskaraz gain? Noiztik? Zergatik?
- Zer irakurtzen duzu?
- Zer ikusten duzu?
- Zer idazten duzu?
- Hori bera euskaraz irakurri, ikusi edo idazteko aukera duzunean gaztelaniaz nahiago? Zergatik?
- Non hitz egiten duzu?
- Norekin hitz egiten duzu?

5. Euskara eta alfabetatzea 30'

Euskara eta erdara erabilerari erreferentzia eginaz...

Orduan euskara xxx dela aipatu duzu...

- Noiztik erabiltzen duzu euskara? Ama hizkuntza duzu?
- Ikasketak... euskaraz burutu dituzu?
- Alfabetatua zara euskaraz, ezta? Zerbait berezia egin duzu alfabetatzeko?
- Zergatik aukeratu zenuen alfabetatzea?
- Baduzu euskarari loturiko titulazio edo agiriren bat?
- Zein bide erabili dituzu alfabetatzeko? Euskaltegia, barnetegiak... besterik? Zergatik?
- Zein aurreikuspen zenituen? Bete dira?
- Zein da nabaritu duzun onura, zertarako aukerak ireki dizkizu?
- Zurekin batera alfabetatze prozesuan egondakoak, zure espektatiba berdinak zituzten? Zergatik alfabetatu ziren? Onurak ere ikusten dituztela esango zenuke? Zergatik?
- Alfabetatzea beharrezkoa dela uste duzu? Zertarako alfabetatu?
- Gomendatuko zenioke alfabetatua ez den bati? Zergatik?

6. Ikasturte hasierako kanpainak 15'

- Egiten diren kanpainak ezagutzen dituzu? Gogoan dituzu?
- Zein mezu jasotzen duzu?
- Zein bidetatik jasotzen dituzu mezuak?
- Mezuak ongi iristen dira? Garaiz iristen zaizkizu?
- Badakizu nork bidaltzen dituen mezuak?
- Badakizu nork egiten duen eskaintza bakoitza? Ezberdintzen dituzu?
- Mezu hauek eraginkorrak dira? Zure arreta deitzen dute? Bai, ez, zergatik? Eta zure ingurukoena?
- Kanpaina hauek ezertarako balio dutela uste duzu?
- Zure kasuan, eraginik izan dute zu alfabetatze bideari ekiteko?
- Kartelak erakutsi:
 - ✓ Ezaguna egiten zaizu?
 - ✓ Eraginik sortzen dutela esango zenuke?
 - ✓ ...

7. Euskaltegien eskaintza 10'

- Euskaltegiak zer dakizu?
- Zein funtzio betetzen dituzte euskaltegiek zure eskualdean?
- Zein eskaintza ezagutzen duzu? Nola baloratzen duzu?
- Euskaltegian dabil edo ibili da zure inguruko norbait? Zertan? Zergatik?
- Gaur egungo eskaintza errealitatearekin lotua dagoela uste duzu?
- Sumatzen al da ezer faltan? Zer gehituko zenuke? Zer aldatu?

➤ **ELKARRIZKETA SAKONAK. Alfabetatze bidean daudenak**

0. Arauak azaldu

- Gure burua aurkeztu
- Ikerketa azaldu. Faseak.
- Grabatua izango da, eragozpenik?

1. Elkarrizketatuen perfila. Aurkezpena 5'

- Izen Abizena. Non bizi zara? Norekin?
- Zertan egiten duzu lan?

2. Euskara. Hizkuntzaren gaineko diskurtsoak

- Zer da zuretzako euskara?
- Zertarako da onuragarria euskara? Zertarako da onuragarria zehazki zuretzat? Zertarako erabiltzen duzu?
- Zertarako ez da beharrezkoa?
- Zure inguruko jendeak berdin ikusten duela uste duzu?

3. Euskara kontsumoa 10'

- Zein eremutan erabiltzen duzu euskara? Non hitz egiten duzu euskaraz? Zergatik?
- Norekin hitz egiten duzu euskaraz?
- Zer irakurtzen duzu euskaraz? Noiztik? Zergatik?
- Zer ikusten duzu euskaraz? Noiztik? Zergatik?
- Zer idazten duzu euskaraz? Noiztik? Zergatik?
- Zerbait sumatzen al duzu faltan euskaraz? (aldizkari, egunkari, telebista, liburu, irrati...)
- Zure inguruan ere hala pentsatzen dutela uste duzu?

4. Erdara kontsumoa 10'

- Zein hizkuntza hitz egiten dituzu euskaraz gain? Noiztik? Zergatik?
- Zer irakurtzen duzu?
- Zer ikusten duzu?
- Zer idazten duzu?
- Hori bera euskaraz irakurri, ikusi edo idazteko aukera duzunean gaztelaniaz nahiago? Zergatik?
- Non hitz egiten duzu?
- Norekin hitz egiten duzu?

5. Euskara eta alfabetatzea 30'

Euskara eta erdara erabilerari erreferentzia eginaz...

Orduan euskara xxx dela aipatu duzu...

- Noiztik erabiltzen duzu euskara? Ama hizkuntza duzu?
- Ikasketak... euskaraz burutu dituzu?
- Alfabetatze bidean zaude, ezta? Zein bide ari zara erabiltzen alfabetatzeko?
- Zergatik aukeratu duzu alfabetatzea? Zerk bultzatu zaitu? Zein helbururekin ari zara alfabetatze prozesua burutzen?
- Zure ikaskideen arrazoi eta helburu berdinak partekatzen dituzu?
- Zein aurreikuspen zenituen? Betetzen ari dira?
- Zein da nabaritu duzun onura, zertarako aukerak irekiko dizkizula uste duzu?
- Alfabetatzea beharrezkoa dela uste duzu? Zertarako alfabetatu?
- Gomendatuko zenioke alfabetatua ez den bati? Zergatik?

6. Ikasturte hasierako kanpainak 15'

- Egiten diren kanpainak ezagutzen dituzu? Gogoan dituzu?
- Zein mezu jasotzen duzu?
- Zein bidetatik jasotzen dituzu mezuak?
- Mezuak ongi iristen dira? Garaiz iristen zaizkizu?
- Badakizu nork bidaltzen dituen mezuak?
- Badakizu nork egiten duen eskaintza bakoitza? Ezberdintzen dituzu?
- Mezu hauek eraginkorrak dira? Zure arreta deitzen dute? Bai, ez, zergatik? Eta zure ingurukoena?
- Kanpaina hauek ezertarako balio dutela uste duzu?
- Zure kasuan, eraginik izan dute zu alfabetatze bideari ekiteko?
- Kartelak erakutsi:
 - ✓ Ezaguna egiten zaizu?
 - ✓ Eraginik sortzen dutela esango zenuke?
 - ✓ ...

7. Euskaltegien eskaintza 10'

- Euskaltegiak zer zenekien aurretik?
- Zein funtzio betetzen dituzte euskaltegiek zure eskualdean?
- Zein eskaintza ezagutzen duzu? Nola baloratzen duzu?
- Euskaltegian dabil edo ibili da zure inguruko norbait? Zertan? Zergatik?
- Gaur egungo eskaintza errealitatearekin lotua dagoela uste duzu?
- Sumatzen al da ezer faltan? Zer gehituko zenuke? Zer aldatu?

➤ **ELKARRIZKETA SAKONA. Alfabetatu gabeak**

0. Arauak azaldu

- Gure burua aurkeztu
- Ikerketa azaldu. Faseak. (anonimotasunaren bermea gogoratu)
- Grabatua izango da, eragozpenik?

1. Elkarrizketatuen perfila. Aurkezpena 5'

- Izen Abizena. Non bizi zara? Norekin?
- Zertan egiten duzu lan?

2. Euskara. Hizkuntzaren gaineko diskurtsoak 15'

- Zer da zuretzako euskara?
- Zertarako da onuragarria euskara? Zertarako erabiltzen duzu?
- Zertarako ezinbestekoa?
- Zure inguruko jendeak berdin ikusten duzula uste duzu?

3. Euskara kontsumoa 10'

- Zein eremutan erabiltzen duzu euskara? Non hitz egiten duzu euskaraz? Norekin hitz egiten duzu euskaraz?
- Zein hizkuntza nagusitzen da honako eremuetan? Etxean, familian, lagunartean, kalean, lantokian...
- Zer irakurtzen duzu euskaraz? Noiztik? Zergatik?
- Zer ikusten duzu euskaraz? Noiztik? Zergatik?
- Zer idazten duzu euskaraz? Noiztik? Zergatik?
- Zerbait sumatzen al duzu faltan euskaraz? (aldizkari, egunkari, telebista, liburu, irati...)
- Zure inguruan ere hala pentsatzen dutela uste duzu?

4. Erdara kontsumoa 10'

- Zein hizkuntza hitz egiten dituzu euskaraz gain? Noiztik? Zergatik?
- Non hitz egiten duzu?
- Norekin hitz egiten duzu?
- Zer irakurtzen duzu?
- Zer ikusten duzu?
- Zer idazten duzu?
- Hori bera euskaraz irakurri, ikusi edo idazteko aukera duzunean gaztelaniaz nahiago? Zergatik?

5. Euskara. Alfabetatzearen gaineko diskurtsoak 30'

Euskara eta erdararen inguruan esandakoak laburtu. Euskara eta erdara erabilerari erreferentzia eginaz...

Orduan euskara xxx dela aipatu duzu...

- Euskara, ama hizkuntza duzu ala ikasi egin zenuen? Non? Nola? Noiz?
- Euskarari lotuta, gabeziarik sentitzen duzu? urrats berririk emateko beharra sentitzen duzu?

Alfabetatzearen gaia atera.

- Alfabetatzea beharrezkoa dela uste duzu? Zein onura ekarriko lizkizukeela uste duzu? Zertarako ez da beharrezkoa?
- Zein da alfabetatu ez izanaren arrazoia? Zerbaitek oztopatu zaitu?
- Ez alfabetatu izanagatik kalteren bat izan duzula sumatzen duzu?

6. Ikasturte hasierako kanpainak 15'

- Egiten diren kanpainak ezagutzen dituzu? Gogoan dituzu?
- Zein mezu jasotzen duzu?
- Zein bidetatik jasotzen dituzu mezuak?
- Mezuak ongi iristen dira? Garaiz iristen zaizkizu?
- Badakizu nork bidaltzen dituen mezuak?
- Badakizu nork egiten duen eskaintza bakoitza? Ezberdintzen dira?
- Mezu hauek eraginkorrak dira? Zure arreta deitzen dute? Bai, ez, zergatik?
- Kanpaina hauek ezertarako balio dutela uste duzu?
- Kartelak erakutsi:
 - ✓ Ezaguna egiten zaizu?
 - ✓ Eraginik sortzen dutela esango zenuke?
 - ✓ ...

7. Euskaltegien eskaintza 10'

- Euskaltegiaz zer dakizu?
- Zein funtzio betetzen dute eskualdean?
- Zein eskaintza ezagutzen duzu? Nola baloratzen duzu?
- Euskaltegian dabilen edo ibili da zure inguruko norbait? Zertan? Zergatik?
- Sumatzen al da ezer faltan? Zer gehituko zenuke? Zer aldatu?

EZTABAIDA TALDEAK

➤ EZTABAIDA TALDEA. Alfabetatuak direnekin + alfabetatzen bidean direnekin

0. Arauak azaldu

- Gure burua aurkeztu
- Ikerketa azaldu. Faseak.
- Grabatua izango da, eragozpenik?

1. Aurkezpena 5'

- Taldekideen aurkezpen erronda.
 - ✓ Izena, bizilekua, lanbidea...

2. Euskara. Hizkuntzaren gaineko diskurtsoak 15'

- Zer da zuentzako euskara?
- Zertarako da onuragarria euskara? Zertarako erabiltzen duzue?
- Zertarako ezinbestekoa?

3. Euskara eta erdara kontsumoak 20'

- Zein eremutan erabiltzen duzue euskara? Non hitz egiten duzue euskaraz? Norekin hitz egiten duzue euskaraz? Eta zein eremutan, norekin, erdaraz?
 - ✓ Etxean, familian, lagunartean, kanean, lantokian...
- Zer irakurtzen duzue euskaraz? Zer erdaraz? Zergatik?
- Zer ikusten duzue euskaraz? Zer erdaraz? Zergatik?
- Zer idazten duzue euskaraz? Zer erdaraz? Zergatik?
- Zerbait sumatzen al duzue faltan euskaraz? (aldizkari, egunkari, telebista, liburu, irrati...)

4. Euskara eta alfabetatzea 45'

Euskara eta erdara erabilerari erreferentzia eginaz...

Orduan euskara xxx dela aipatu duzue...

- Noiztik erabiltzen duzue euskara? Ama hizkuntza duzue?
- Ikasketak... euskaraz burutu dituzue?
- Zergatik aukeratu zenuten alfabetatzea?
- Zein bide erabili dituzue alfabetatzeko? Euskaltegia, barnetegiak... besterik? Zergatik?
- Zein aurreikuspen zenituzten? Bete dira?
- Zein da nabaritu duzuen onura, zertarako aukerak ireki dizkizue?
- Zuekin batera alfabetatze prozesuan egondakoak, zuen espektatiba berdina zituzten? Zergatik alfabetatu ziren? Onurak ere ikusten dituztela esango zenukete? Zergatik?
- Alfabetatzea beharrezkoa dela uste duzue? Zertarako alfabetatu?
- Gomendatuko zenioke alfabetatua ez den bati? Zergatik?

5. Ikasturte hasierako kanpainak 20'

- Egiten diren kanpainak ezagutzen dituzue? Gogoan dituzu?
- Zein mezu jasotzen dituzue?
- Zein bidetatik jasotzen dituzue mezuak?
- Mezuak ongi iristen dira? Garaiz iristen zaizkizue?
- Badakizue nork bidaltzen dituen mezuak?
- Badakizue nork egiten duen eskaintza bakoitza? Ezberdintzen dituzue?
- Mezu hauek eraginkorrak dira? Zuen arreta deitzen dute? Bai, ez, zergatik?
- Kanpaina hauek zertarako balio dutela uste duzue?
- Zuen kasuan, eraginik izan dute zuek alfabetatze bideari ekiteko?
- Kartelak erakutsi:
 - ✓ Ezaguna egiten zaizkizue?
 - ✓ Eraginik sortzen dutela esango zenukete?
 - ✓ ...

6. Euskaltegien eskaintza 20'

- Zein funtzio betetzen dituzte euskaltegiek zuen eskualdean?
- Zein eskaintza ezagutzen duzue? Nola baloratzen duzue?
- Zein proiektu duzue intereseke?
- Gaur egungo eskaintza errealitatearekin lotua dagoela uste duzue?
- Sumatzen al da ezer faltan? Zer gehituko zenukete? Zer aldatu?

➤ EZTABAIDA TALDEA. Alfabetatu gabeak direnekin

0. Arauak azaldu

- Gure burua aurkeztu
- Ikerketa azaldu. Faseak. (anonimotasunaren bermea gogoratu)
- Grabatua izango da, eragozpenik?

1. Aurkezpena. 5'

- Taldekideen aurkezpen erronda.
 - ✓ Izena, bizilekua, lanbidea...

2. Euskara. Hizkuntzaren gaineko diskurtsoak 15'

- Zer da zuentzako euskara?
- Zertarako da onuragarria euskara? Zertarako erabiltzen duzue?
- Zertarako ezinbestekoa?

3. Euskara eta erdara kontsumoak 20'

- Zein eremutan erabiltzen duzue euskara? Non hitz egiten duzue euskaraz? Norekin hitz egiten duzue euskaraz? Eta zein eremutan, norekin, erdaraz?
 - ✓ Etxean, familian, lagunartean, kalean, lantokian...
- Zer irakurtzen duzue euskaraz? Zer erdaraz? Zergatik?
- Zer ikusten duzue euskaraz? Zer erdaraz? Zergatik?
- Zer idazten duzue euskaraz? Zer erdaraz? Zergatik?
- Zerbait sumatzen al duzue faltan euskaraz? (aldizkari, egunkari, telebista, liburu, irrati...)

4. Euskara. Alfabetatzearen gaineko diskurtsoak 45'

Euskara eta erdararen inguruan esandakoak laburtu. Euskara eta erdara erabilerari erreferentzia eginaz...

Orduan euskara xxx dela aipatu duzue...

- Euskara, ama hizkuntza duzue ala ikasi egin zenuen? Non? Nola? Noiz?
- Euskarari lotuta, gabeziarik sentitzen duzu? urrats berririk emateko beharra sentitzen duzu?

Alfabetatzearen gaia atera.

- Alfabetatzea beharrezkoa dela uste duzue?
- Beharra sentitzen duzu edo sentitu izan duzue momenturen batean alfabetatzeko?
- Zein onura ekarriko lizkizuketela uste duzue? Zertarako ez da beharrezkoa?
- Zein da alfabetatu ez izanaren arrazoia? Zerbaitetik oztopatu zaituzte?
- Ez alfabetatu izanagatik kalteren bat izan duzuela sumatzen duzue?

5. Ikasturte hasierako kanpainak 20'

- Egiten diren kanpainak ezagutzen dituzue? Gogoan dituzue?
- Zein mezu jasotzen duzue?
- Zein bidetatik jasotzen dituzue mezuak?
- Mezuak ongi iristen dira? Garaiz iristen zaizkizue?
- Badakizue nork bidaltzen dituen mezuak?
- Badakizue nork egiten dituen eskaintza bakoitza? Ezberdintzen dira?
- Mezu hauek eraginkorrak dira? Zure arreta deitzen dute? Bai, ez, zergatik?
- Kanpaina hauek ezertarako balio dutela uste duzue?
- Kartelak erakutsi:
 - ✓ Ezaguna egiten zaizue?
 - ✓ Eraginik sortzen dutela esango zenukete?
 - ✓ Zuen arreta deitzen dute?
 - ✓ ...

6. Euskaltegien eskaintza 20'

- Euskaltegiak zer dakizue?
- Zein funtzio betetzen dute eskualdean?
- Zein eskaintza ezagutzen duzue? Nola baloratzen duzue?
- Zein proiektu duzue intereseko?
- Euskaltegiek dabiren edo ibili da zuen inguruko norbait? Zertan? Zergatik?
- Sumatzen al da ezer faltan? Zer gehituko zenukete? Zer aldatu?

NAFARROA MENDI ALDEKO EUSKALDUNEN ALFABETATZE JARRERAK,
JOERAK ETA HAUTEMATEAK

II.ERANSKINA (TRANSKRIBAPENAK)

Elkarrizketa Sakona: Emakume Alfabetatua (ES1)

Galdera: Pixkat lenengo... jakin nahiko nuke zure gure e... nun bizi zean, zeinekin... holako lau datu... zure pertsona ezagutzeko bai..

Erantzuna: Bueno, pues... Ni bizi naiz etxian, nere gurasuekin, atta ta ama, euskaldunak biyek...

G: Aha...

E: (...) eta... Alkaiagan, da... Lesakako auzo bat. Bera onduan dago...

G: Aha...

E: (...) baina... bueno, Lesakan dago

G: Aha, aha

E: Iten dugu bizitza Beran dena.

G: Aha

E: Baina auzoa da Lesakakoa.

G: Aha. Ta lana zeinek e zertan iten dezu lan edo?

E: Bueno, dut taller bat... josten dutenak hori... plaiako kojina, ¿? pixka bat iten duna e... kojina, bueno, kojina ez, sillak plaiakoak edo... udako... udako kojina.

G: Aha, aha. Euskeran ingurun galdetuko banizu zutzako zer den euskera... eztakit...

E: E... pues...e a ver, neretzako e pues...hizkuntza bat, ez? E... betitikan izautu dutena eta mantenttu na nahi dutena, ez?

G: Aha

E: Ta horregatik joan nintzen euskaltegia.

G: Aha.

E: ¿?

G: Aha. Zertarako esango zenuke dala onuragarriya... euskera zuretzat? Zuretzat edo orokorrean...

E: Ae...

G: (...) herriarentzat?

E: Neretzat, bueno nik e... ttikitikan, bueno ae... gurasok ou euskaldunak dire, ordun betitikan adittua dut, ez? Ta... minon galdu dut pilo bat. Ordun uain ilobak ttut, ta lengusuak izan ttut ta dena ta a ez nintzen... ezin nun haiekin ongi solastu. Ordun galdu nun pila bat ta behar nuen, nahi nuen hartu... pues haiekin pues bronka emateko edo... bueno...

G: Bai...

E: (...) haiei erakusteko pixko bat gehigo, ez?

G: Aha.

E: ¿? Ez galtzeko.

G: Ta zertarako erabiltzen duzu normalian euskera zuk, zure egunerokotasunian?

E: Etxian gehiena, ta gero bueno, lanakin iten dugu euskaldunak... izebak ta jendia ta euskalduna ta ordun...

G: Aha

E: (...) ¿? erabiltzeko

G: Aha

E: Bueno, familian, gehiena da familian.

G: Bai, herrin ere euskeraz edo... danetik?

E: Bai... kuadrilan ez, kuadrilan euskaldunak gara gehienak bat ez... ezkerro, minon... eztugu itten euskaraz. Erdaraz ein dugu ikasi denak...

G: Ya

E: (...) eta ordun erdaraz eitten dugu.

G: Aha. Ta kontrako aldian galdetuko banizu zertako ez da beharrezkoa euskera?

E: Puf... ez, hemen behar da.

G: Bai? Beharrezkoa iruitzen zaizu?

E: Bai, bai, inguruan bai, bai entteitu behar da.

G: Bai.

E: Hombre, kanpuan ez. Hor dago, hor dugu ta... hizkuntza bat ez? Frances edo ingles bazala, ez? Ta... hor izanen ta. Ta inguruan bai.

G: Hemen erdaldun bat erderaz bakarrik dakina ondo moldatuko litzateke hala ere? Nahi dizut esan edo... beharko lu sentituko luke behar hoi...

E: Eztakit, ez e.... Hemen ohitura dugu erdalduna baldin bada erdaraz egittea.

G: Aha.

E: Ez? Eh... gustora egoteko bertzia ez?... Nik battut izeba bat eztakitela euskaraz, ordun e iberatartin baldin bada eitten da erdaraz, bai.

G: Aha.

E: Ea... gurasoak sartzen dute hanka pila bat...

G: Bai?

E: Minon bueno, halere saiatzen dire...

G: Ya erderaz...

E: (...) erdaraz egittea bai, bai

G: Aha, aha

E: Berak ere... o e hemen bizi da, ez? Ordun... Hitzak badaki edo igual ulertuko zuen

G: Bai.

E: Minon... beti erdaraz. Bere aintzinin...

G: Aha.

E: (...) itteko...

G: Lanean eta euskara erabiltzen duzu normalian edo...

E: Hemen baldin banaiz bai, tallerran baldin banaiz bai.

G: Aha

E: Gero udan egitten dut Ibardinan. Da... franc e toki bat e... dagona fronteran...

G: Aha

E: (...) eta han da francesa gehiena

G: A bai, e?

E: Eta ordun e... sa da... dire bentak, ordun e... saltzen ttu bueno e... itten dut saldu gauzak. Eta ordun bai, frances han itten dut ta gero itxeuak edo taldian garenak denak dire erdaldunak edo... zarrak bai badakite euskaraz minon itten da gehiena erdaraz.

G: Aha

E: Hortan....

G: Aha

E: (...) galtzen da, bueno, nabaitzen da pila bat.

G: Aha. Normalian, zer irakurtzen dezu euskeraz?

E: E... eleberriak gehiena.

G. Bai?

E: Bai, saiatzen naiz egunkariak ta hola, nohiz behinka erosten dut minon eleberriak...

G: Gehienak...

E: (...) gehienak elebarriak

G: Ta zergatikan edo? galdetuko nizuke...

E: Buf e... ez nu e... enaiz agitz... eleberriak gustatzen zait...

G: Aha

E: (...) ordun saiatzen naiz e udan n nola euskaraz eztut solasten gehiena pues saiatzen naiz...

G: Ya...

E: (...) eleberriak behinik behin euskaraz...

G: Euskaraz...

E: (...) ittia, ordun bai... ordun itten dut hiru hilaute hoiek horretarako...

G: Ta noiztikan dakazu ohitura hori euskaraz irakurtzekoak...eleberriak.

E: Bai izanen dut euskaltegian hasi nintzenetik..

G: Ta hori zenbat denbora... izan da?

E: Buf, auniz... igual, hamar urte sobera igual?

G: A bai?

E: Mino bai, ¿? hasi nintzenean...

G: A bueno

E: (...) jun nintzen galdua...

G: Aha

E: (...) totala bai bai, bai bai...

G: Aha, aha. Telebista edo euskeraz ikusteko ohitura daukazue?

E: Itxian bai, badugu.

G: Bai?

E: Nik gutti ikusten dut, e? Bai.

G: Baina igual euskeraz dagona gustatzen etzaizulako hainbeste o... hiz hizkuntza da genio...

E: Izan du...

G: (...) da arrazoia.

E: Ez nere ustez da, izandu dugu temporada bat e... aldi honetan eztela ikusten. Problema izan zen TDTkin sartu ta... igual... izandugun... eztakit, igual sei hilaute ez genula ez analogikokin ta ez TDTkin.

G: Aha.

E: Ordu ia galtzen duzu. Ordun uain gabeko adibidez... Banun ohitura pixkat itteko ta ia hortikan aintzinera ia...

G: Galdu duzu

E: (...) galdu nuen eta ia, iasta ia...

G: Aha, aha.

E: (...) gehiena hori ta... Gurasuk bai, gurasuk ikusten dute, Goenkale o...

G: Bai, bai

E: (...) telediariok ta hola... itten dute.

G: Eta idatzi? Euskaraz? Galdetu dizut irakurri, telebista ikusi... idazteko ohitturaik edo?

E: Idazten ez... ez...

G: Gutxiago?

E: Euskaltegian itten... zigutelakoz, minon bestela ez...

G: Ia, beharrik ez... eztezulako... sentitzen euskeraz idazteko...

E: Hori da

G: Aha. Aha. Faltan somatzen duzu zerbait... Aipatu dizkizut badela prentsa, aipatuzu telebista... eleberriak, euskerazko...

E: Bai?

G: Bueno euskeraz idaz idatzi... edo... hitz egindako ezer faltan botatzen duzu?

E: Ez igual, badago orain. Nahi baldin baduzu... segittu edo badire. Igual solasteko... denborian igual bai, zetako zu...joaten naizenean e.... denda batera edo hola eitten dut erdaraz lenbiziko, ez? Igual saiatu beharko nintzen euskaraz. Erratten badute ezetz...

G: Aha.

E: Pues ya... erdaraz hasi, ez?

G: Aha.

E: Minon... eztut ohitura, dut erdarara...ohitura.

G: Bai, erdarara... Bai, Beran Lesakan ere, e?

E: Bai, badire tokiak ia... erdaraz itten duzu automatikoki, bai.

G: Ta ze leku mota esango zenuke dila hoiek igual... Ni pixkat kokatzeko...

E: Eztakit a ver e... buf... pues e... ogintegian e... lenengo pues han zena erdalduna ziren.

G: Aha

E:Uain badire euskaldunak, ez? Ta badakilako zuk ze eitten duzun, baña bada bat euskaltegian ibili dela minon harekin beti joaten zara erdarera.

G: Aha.

E: Bera saiatzen da euskaraz, ordun sartzen zara pixkot euskaraz, minon...

G: Aha.

E: (...) erdarara joaten da, ez? Badakizu nori egin... eta nori ez edo... ohitura...

G: Aha.

E: ... zer duzun, hara.

G: Nik buelta bat emango bagenu bai Lesakatik bai Beratik ze entzungo genun gehio, euskeraz igual zure ustez?

E: Eztakit e... erdaraz igual e?

G: Bai?

E: Bai ze sartua da gehigo, e?

G: Banatua dago, igual adinaren arabera edo holako zerbaiten arabera, nortzun gehiago? Igual euskaraz gehiago jende heldua edo... gaztiak o...

E: Helduak igual eitten dute gehiago euskaraz ¿? nere adinakuak, edo...

G: Aha

E: Eztakit, nere adinako... ni dittut orain hogeita... hamazazpi urte.

G: Aha

E: Pues... E...bos gotti bos betti adinekuk, hoiek nere uste... garai... erdaldu da.

G: Aha.

E: Euskara badakidugu, minon...

G: Joera...

E: (...) joera erdalduna.

G: Aha

E: Horregatik esan zattut nik, kuadrilan gara pues... igual ham hamabi... persona gara kuadrilakuk ta hortikan bat bakarrik zan erdalduna, eztakila deus

G: Ya

E: (...) eta... haleren erdaraz itten ttugu.

G: Aha

E: Bat etortzen da, ta horrek sartzen du euskaraz ta "trrras" denak euskaraz

G: Bai

E: Minon bertzenaz, denak erdarara. Ikasi dugu denak erdaraz ta ordun ohitura da...

G: Hoi izango litzake igual arrazoi nagusitako bat? Erderaz ikasi izana ta ordun igual...

E: Bai, ni nere uste bai. Nere kasuan bai, ta ikusten dutena nere inguruan... o nere inguruan dagozinak bai.

G: Aha

E: Battuzu pues... ezautzen ttuzunak erd e... euskaraz itten ttuzu ta hasten bazera hoiekin euskaraz gero segitzen duzu haiekin, minon bertzenaz...

G: Aha

E: Nere kasuan benik pein, e?

G: Aha. Eta zure ingurun ezagutuko duzulako errealitatea aipatzen zenun zuk euskeraz saiatzen zeala irakurtzen... telebista ere noiz edo noiz ikusten duzu...

E: Aha

G: Beraiek ere antzeko zerbait esango lukete?

E: Bai.

G: Antzekoa?

E: Bai, bai bai bai. Bai, menperatzen dun...

G: Aha

E: Ni minon hobekigo menperatzen dute

G: Aha

E: Nik e... galdu xamarra ibili naiz. Oain e... um... moldatzen naiz... Nere, nere dudak battut idazteko edo... haurrak nabilen... eztakit zuzentzen.

G: aha

E: Badut iloba bat uain duela zazpi urte. Eta e... sartzen du hanka pila bat eus e... joaten dire ikastolara...

G: aha

E: (...) minon da berde xamar o... solasin dago berde xamar. Minon ezin dut... nik ezin diot zuzendu.

G: Ya

E: Ta ¿? uhartzen dia!

G: Bai, ez?

E: Bai (barre)

G: Ondo eo gaizki zuzentzen ai zean...

E: Bai, bai... Ez, gelditzen naiz, bueno, eta azkenian eztakit, ez...? Ahizpa da... ni minon urte bat zarragua da...

G: Aha

E: (...) minon menperatzen du hobekigo. Ordun bai zuzentzen dio edo... euskaltegian ezta ibili, minon... bai, ta bueno.

G: Euskeraz gain, gaztelera ta frantsesa hitz egiten dittuzu esan duzu

E: Bai

G: Eta gaztelera ta frantsesa, irakurtzeko ohitura baduzu bai batian edo bestian...?

E: Francesa ez auniz

G: Ez?

E: Ez. Galduta dut horire

G: Bai?

E: Bai. E... ttikitikan ikasia dut ta... joaten naizen tokian beti hitz berak erratten dire ordun...

G: Ta. Automatikoki...(barreak)

E: ¿? ulertu bai ulertzen dut, eztut problema. Francesa ikusten dut haundiz...

G: Bai, ikusten duzu? Ohitura dakazu...?

E: Bai. Eta hemen Nola hartzen diren ongi pues iasta. Ohitura badut.

G: Aha

E: Ordun ulertu ulertzen dut. Ia hitz egiteko, ez... normalki... bai minon e... itteko hola elkarrizketa bat pixko bat... ez.

G: Eta zer dela ta daukazu igual ohitura frantsesez edo erderaz ikusteko telebista... Hombre euskera egia da kate bakarra dola, eztala...

E: bai, e... eztakit e...

G: (...) konparagarria...

E: (...) ttikitikan... e... eztakit, francesa nun e... eitten nuen, ikusten nuen marrazki bizidunak edo hola... ez?

G: Bai

E: Eta... horregatik beti segittu dut

G: Aha

E: Eta gero e... teleseriek edo...hoiek francesan dire ordu batzuek agitz onak...

G: Ya

E: (...) ordun ohitura dut, pues igual, hasten dire zortzi t'erditanek? Zortzi t'erditikan hamarrak arte. Ordun da... ordu bat agitz ona.

G: ¿?

E: Eta horregatik dut ohitura ta hola.

G: Aha

E: Gero erdaraz eztut begitu zertik ia ikusiak ditut gehienak ta...

G: Ia... ¿?

E: Hori da. Ta nola ulertzen duten eztut problemikan... bai...

G: Eta idatzi erderaz, euskeraz baino ohitura gehio dakazu?

E: Bai, bai erdaraz bai.

G: Ta zer da igual errexago erosogo iten zaizulako edo zergatikan ohitura gehiago...

E: Ikasi dutelako... bai, ikasi dutelako

G: Aha

E: Bertzenaz igual esanen nuke... nik pensatzen dut euskaraz ikasi baldin banuen, e... menperatuko nuke idatzian, minon erdaraz ez, seguraski ezetz.

G: ya...

E: Zergatik... a e... kostatzen zatt. Hizkuntzak ta... irakurtzia ta... bueno, idaztia gehio...

G: ¿?

E: ... irakurtzia, irakurtzen dut. Minon bo... faltak itten ttut pilo bat betitikan eta...

G: (barreak). Ondo...

E: Beti enaiz ongi... naiz gehigo matematikasetan ordun... ba bertzia... kosta

G: Bai... kostantzia behar da gainera, ez? Ez baduzu egunero behar hori idazteko...

E: ...ta bueno

G: Aha aha

E: Hori da, ta uain guttigo, ez? Idatzi pues itten duzu normalki ta bueno, ordenagailu bat zuzentzekua ta hola ta...

G: Claro claro...

E: ... ta aisagoa da, ez?

G: Aipatu diazu leno zuk txikitan euskaraz ikasi zenula... Erderaz gero... ikastolan edo esango genuke erderaz.

E: Bai...

G: Eta euskera noiz berreskuratu zenuen? Edo noiz esan zenuen, "bueno, euskera... berriro..."

E: Bai, hori pues... e... eztakit e... izanen da pues hogeita sei urtekin edo hola...

G: Aha

E: Bai, ikusten nuen galdua nuela

G: Aha

E: Baño arraso galdua, eta ordun... saiatu nintzen hasiz. Euskaltegian hasi nintzen.

G: Aha. Eta gal galdua, eta ordun gurasoekin eta nola ibiltzen zinen, erderaz ere edo... Hitzeiteko moldatzen zinen?

E: Bai, haiek, bai haiek dena euskaraz e... minon guk e... nik behinpen erdaraz, ahizpakin beti erdaraz

G: Ya

E: Orain ere bai, e?

G: bai, ez?

E: Hori... ohitura hori dugu ta...

G: Kosta iten da...

E: Arraro itten da... Bai, itten dugu. Ta haurrak ere erraiten digute "zuek erdaraz ari zate..." Ta ordun... Haiek ere ez nahi dute.

G: Aha.

E: Bai, eta ordun e... nik, galdu nun pila bat. Eta...

G: Aha

E: ... bueno, aditzak edo hola... buf... nintzen, minon galdua... bai, bai bai.

G: Aha

E: Berritikan mas o menos hasi nintzen. Ulertu ulertzen nuen, baño ya bertze gauza...

G: Aha

E:... solasteko... Hola, uain bezela ez...

G: Ezinezkoa...

E: ... ezin non

G: Eta ze arrazoia izan zen, euskera berreskuratu baino... Arrazoi baten batikan edo...

E: Um.. nahi nulako.

G: esfortzu hori zergatikan nahi dizut esan...

E: Pues e... inguruan ikusten nulakoz lengusuak euskaratikan e... e bueno, dire... ni minon hamabos urte ttikiguak. Ordu haiekin solasteko, hoiek ikastolan ibiliak dire ta dena euskaraz...

G: Aha, aha

E: ...ezintzun ¿? baldin banuen esplikatu zerbatt edo... lagundu, ezin nuen. Ta uain e... haurrakin ere ba ikastolan dagozi ta bueno, nahi duzu segittu, ez? Edo gaizki gauz bat itten badute pues zuzendu o nola in

G: Aha

E: Eta erdaraz itten badiozu...

G: Caro

E: ... eztute ulertzen haiek, ez? Ordun Euskaraz... horregatik. Eta gero gurasokin ere bai eitteko.

G: Aha, aha. E... esan zen e esan diazu euskaltegin hasi zinala... ez?

E: Bai

G: Nungo euskaltegira juten zinen, Lesakara?

E: Lesakakoa, bai

G: Lesakan bertan?

E: Bai

G: Aha. Hamar urtez egontzea... edo, gutxi gora bera?

E: Bai bai.

G: Egun ya etzea juten

E: Ez, oain ya ez.

G: Oain ya ez, ya alfabetatua edo... zaudelako?

E: Bai e... EGAn... azkeneko bi urtetan EGA saiatsu nintzen egitten eta bua, ez.

G: ¿? Hori nik uste dala... jende asko hor arazua euskeraz... bizi guztiya jakindare, ez? Nik behintzat nere ingurun...

E: Bai...¿? posible duzuna egin ta...

G: Saiatu zinen...

E: Saiatu nintzen eta...

G: Aha

E: Igual hemendikan bi urtera edo... hurrengo urteko...

G: Aha

E: ... gogua baldin badut, ...inen dut, ez?

G: Alfabetatzeari jarri zenion helburua euskera berreskuratzea da, baino zehazki zergatik esan zenun alfabetatu, edo ez da, ez nahikoa igual... hi hi hitzegiteko... gaitasun hori, zergatikan idatzi... irakurri... dena hori?

E: Bai, dena pixko bat nahi nuen, bai.

G: Aha aha

E: E... eta e bueno, pixko bat dena. Ez bakarra, pos posible nun solasin... minon ez, irakurtzeko edo... lasaitasuna pixkot izaitteko nahi nun pixkot dena.

G: Aha.. guztia pixka bat?

E: Bai

G: Aha. Eta e... ze aurrikuspen zenezkan, zure lenengo eguna euskaltegian, ze espero zenun, luzea izango zela prozesu hori... e gogorra, errexa, nola... ze aurreikuspen zenitun.

E: ¿? Beti oroitzen naiz e... lenbiziko egunetan gainea hasi nintzen ez e... ez e... irailatikan edo...

G: Aha

E: ... irailatikan ez, hasi nintzen... urtarrilan.

G: Ya, kurtso erdin ia...

E: Eta uo... han ginen ginen taldean hamar persona. Eta buo, gaizki, lenbiziko...

G: bai, ez?

E: (...) aditzak egiten. Eta ni, ez nekien. Irakaslea konturatzen zen, zen Mentxu, ez dakit...

G: ez dakit nor den...

E: beno, eta ni urdurikan. Ez nekien... eta bera pasatzen zen. Gaizki pasatzen nuen. Gero etxera eramaten banuen, ba etxean egiten duzu lasai, baina momentuan han...

G: Bai, ezta? Talde berri baten aurrean...

E: Gaizki bai. Apuroa. Gaizki, bai. Baina buneo, nola irakasleak ere ikusten zuen nolabait ze gaizki pasatzen nuen ba...

G: ez zizun gogorregi egiten...

E: Hori bai. Gustora orduan. Ongi, gustora.

G: normalean, zu bezala, jende bat, euskara berreskuratu edo alfabetatu nahi duenak, normalean euskaltegira joaten da hemen, edo badaude beste aukera desberdinak? Ezagutzen dituzu?

E: Hemen euskaltegira gehienak. Euskaltegira. Gero badakit, batzuk joaten dira Irungo Hizkuntza Eskolara. Irunen paratu zuten eta orduan hara joaten dira ere bai, badakit euskara egitera. Ibiltzen dire bietan. Nik nire taldean ikusi dut, euskaltegian ibiltzen ziren eta gero joaten ziren ere bai Irungo Hizkuntza Eskolara.

G: Ezberdina zein izango litzateke euskaltegia eta Hizkuntza Eskolaren artean?

E: Nik nire ustez, hemen egiten dute hemengo euskara, hemengo hitzak gehiago sartu. Han, erakusten dute gehiago azterketa egiteko edo. Hemen sartzen dute hemengo hitzak edo hemengo inguruko gauzak ere bai. Eta ongi da. Gustora egoten da.

G: Zein onura nabaritu dituzu, edo joan zara nabaritzen, 10 urte hauetan, euskara ikasi edo errekonstruatu ahala? Zertan nabaritu dezu?

E: Pues hori, solasten izebakin edo osabarekin, pues segitzen duzula. Ez zara gelditzen, ez dakizula nola eta erdarara pasatu beharra. Soltura hori. Bai.

G: Zentzu horretan bete dira, zuk zure buruari hasieran jarri zenizkion helmuga edo espektatiba horiek?

E: Bai. Nik oraindik ikusten dut berdea nagoela. Ez dakit, ba EGA azterketa egiteko, edo hizkuntza eskolan ere bai, maila batera ailegatzekoan konturatzen naiz berde nagoela. Eta haurrekin ere bai ikusten dut ezin dutela zuzendu. Hasten naizela konturatzen...

G: Gramatika edo? Zentzu horretan?

E: Teorian badakit. Baina praktikan ez.

G: segurtasuna izan daiteke azkenean? Akaso, hau da baino...

E: Ez dakit... nire ilobak... neska solasten da ongi, baina mutikoak sartzen du hanka gehiago eta ikusten dut, ez dakit, gelditzen naizela ez dakidala nola zuzendu. Badakit gaizki dela, baina ez dakit nola zuzendu. Eta gainera, igual hori, egiten duzu jan hitzak ere bai, ez? Eta gero, idaztekoan eta hori, **jana** hori ezin dut pasatu... kostatzen zait horretan.

G: Uste duzu, oraindikan, bidetxoren bat daukazula egiteko?

E: Bai.

G: Egunen batean saiatuko zinateke?

E: Bai. Baina karo, orain lana eta horra, orduan paratu egin beharko nuke eta hartu arreta ongi eta egin behar dut hau, segituan, nire duda guztiak edo hori zuzentzeko. Baina momentuan hola. Ikusi dut ikasi dudala zerbait eta posible dutela, defenditzen naizela euskaraz.

G: Ondo gainera. Lehen aipatu didazu hamar pertsona zinatela, orain dela hamar bat urte, hasi zinatenean. Zure ikaskideek zein helbururekin, zergatik zeuden euskaltegian? Aipatu didazu pixka bat zure arrazoi hoiek, baina beste jendeak, zergatikan erabakitzen du euskaltegira joatea?

E: Nik uste dut nahi zutela jakin, igual idazten edo nundikan heldu ziren gauzak, ez? Haiek, aditzak, adibidez, bazekiten...

G: euskaraz hitz egiten bazekiten, ezta?

E: Bai.

G: Etziren erdaldunak ez?

E: Keba, euskaldun zaharrak ziren. Menperatzen zuten solasean agitz ongi. Baina, klaro, egiteko... aditzak egiteko, nola, ez zekiten nundikan etorri ziren... objeto diecto edo holan... egiteko ez. Nik hori igual menperatzen nuen; ez nekien solasten baina hori menperatzen duzu, ikasi duzulako, bei eskolan ere zerbait euskara eman duzu eta ikasi duzu, hori, teoria... baina haiek falta zuten hori. Teoria hori edo nundikan ateratzen dan hitz hori. Edo deklinabidea, edo gauza horiek...

G: Zer ziren gehiago, emakumeak edo gizonak? Hau da, badago halako perfilen bat euskaltegian errepikatzen dena asko?

E: denetikan izaten da.

G: Adina?

E: Adina, bai, igual ni izanen nintzen gaztiena. Denak ziren helduagoak.

G: Esan daiteke euskaraz ikasitakoak eta besteak, bereizketa hori badagoela, ez?

E: Bai. Alfabetatzearen, nabaritzen zen hori, nire kasuan ni izanen nintzen gazteena. Gero EGAn ez, aldrebek. EGAn izaten da gehiago, ni baino gazteagoak edo nire adinakoak, nahi dutela titulua atera. Bi, bestean ez. Alfabetatzean nabaritzen zena da, helduagoak, ya badakitela baina nahi dute pixka bat gehiago edo idatzi... ikasi idazten edo horrela.

G: Titulua ez da kasu honetan, beraien helburua?

E: Ez.

G: Titulua, lotu daiteke... igual, askotan gertatzen delako, lan arloarekin? Euskarako titulua nahi det, gero leku batzuetan, administrazioan edo? Horrekin lotzen da EGA?

E: bai, nire ustez bai. Gazteak edo ikasten ari direnak, eta ateratzen dutenak; edo nahi dute prestatu ateratzeko. Edo ya lanean ari dire, baina eskatzen diotenak, edo por si akaso ere, eskatzen badute, egiteko. Baina, bueno, nire kasuan ez da hori. Apuntatu nintzen EGAn, pues, bueno, posible nuelako atera edo, ba saiatzeko. Alfabetatzen, ya teoria badakizu, orduan...

G: Saiatu beste horretan ezta?

E: Bai.

G: Eta euskaltegiko zure ikaskideak ere, errepikatzen zuten zure helburu berdin hori? Familiakoekin hitz egin? Ilobekin? Seme-alabekin? Seme-alabekin etxeko-lanak egiten laguntzeko? Arrazoi horiek... oraintxe okurritzen ari zaizkidanak...

E: Ez... nire ustez alfabetatzen zirenak ziren gehiago ya adinakoak. Orduan, nire ustez zen euskara hori nundikan etortzen zen edo jakitea pixka bat helburu hori.

G: Beharrezkoa dela esango zenuke, gaur egun, euskaraz alfabetatua egotea?

E: Bai, nire ustez bai, eta nire kasuan ere bai. Nik uste det ni bezala badagozenak egin behar zuten hori. Bestela galdua geratzen da.

G: Orduan zertarako alfabetatu?

E: Ez dakit... ez dakit... nire kasuan behintzat hori da, solasteko. Lasai ederrean eta menperatzeko pixka bat hizkuntza.

G: Inoiz inork esan dizu alfabetatzea ez dela beharrezkoa? Norbaitek horrelako jarreraren bat eduki du?

E: Ez, ez.

G: Inoiz ez...

E: Ez. Gurasoek gainera, egin didate apoyatu: zoaz, egizu... bai. Txikitikan, gainera, bronka... haiek euskaraz egiten zuten, gu erdaraz sartzen ginen, eta bengala euskaraz egin... eta horrela. Orduan, bai, beti apoyoa izandu dut. Horretan bai.

G: Gomendatuko zenuke? Hau da, bere denbora librearen zati bat euskaltegian ematea?

E: Bai. Hemen nahi baldin badute egon eta karo, zaude haurren tartean eta jendeak, eta egin behar duzu erdaraz, bertzela bestiak ez dakitela, eta igual haurrak ari dire ikasten ikastolan, pues saiatu pixko bat ere... erdaraz, ingurua segitzeko pixko bat. Igual menperatu ez agitz ongi baina bederen segitzeko hizkuntza. Ta haurrak ere konturatzen dire, helduak erdaraz ea haiek ezin dute erdaraz. Beraiek euskaraz.

G: Momentu honetan, zure inguruan, euskaltegira joaten den norbait ezagutzen duzu?

E: Euskaltegira ez, Hizkuntza Eskolara. Ibili zen euskaltegian baina aurrean uste dut, Hizkuntza Eskolara joaten dela.

G: Arrazoiaren batengatik egin du aldaketa?

E: Nire ustez da frantsesera joan dela... eta ordu...

G: karo, eta bi hizkuntzak leku berdinean ikasten ditu...

E: Bai. Hori da.

G: ezagutzen dituzu hemen egiten diren kanpainak... euskara zerbitzu, euskaltegien aldetikan?

E: Ez, ez.

G: Orduan zein mezu zabaltzen dituzten? Ideiari ez?

E: Ez. Ez dut kaso handirik egiten.

G: eta zure inguruan, mezu horiek iristen dira? Izatez egiten dira kanpaina desberdinak, euskaltegietan, ikasturte hasieran...

E: Bai. Gutuna bidaltzen digute, orduan bai, eta gero kartelak eta hori ikusten dituzu. Baina nola gauden pixka bat, auzo biek dauz pixka bat aparte. Orduan, Berara joateko, joaten zara asteburuetan edo erosketak egitera, baina ez naiz... gehiena pasatzen dugu hemen, orduan ez naiz enteratzen...

G: Igual zu auzo aparte batean bizi zeralako, baina erdigunean bizi direnak, bai Beran Bai Lesakan, uste duzu baliagarria dela horrelako kanpainak egitea.

E: Bai. Bai, ze kartelak eta hola ikusten dozu eta bai, egiten zaituzte...

G: Adibide batzuk erakutsiko dizkizut (*kanpaina ezberdinetako kartelak mahai gainean jartzen dira*)... ezagutzen dituzu?

E: Bai, hau ezaguna dut.

G: Arrakastarik izan dute? Inoiz komentatu izan dezu zure inguruan?

E: bueno, ez...

G: baten bat egiten zaizu bereziki ezaguna?

E: Hau

G: Olagarroarena?

E: Hau, bertzeak ez. Hau bai.

G: Zure ustez zein funtzio betetzen dute eskualdean, edo akaso Nafarroan, euskaltegiek?

E: Hizkuntza egiteko, ikasteko eta hemengo kultura pixko bat egiteko. Zergatikan ez da bakarria hizkuntza, sartzten dute hemengo kultura, hemengo hitzak, edo hemengo, inguruko gauzak. Bai.

G: Pixka bat euskara eta bertako...

E: Bai. Oroitzen naiz joan ginela gasna egitera ikustera, euskaraz egiten zuten. Gero ere bai, nola da... cestas edo?

G: Bai, xextoak.

E: xextoak... egitera, edo bastoiak eta hoeik. Egin ziguten eraman, eta han euskaraz egiten zuten, solastu, eta bueno...

G: Kultura pixka bat ere landu...

E: Bai.

G: Euskaltegien zein eskaintza ezagutzen duzu?

E: ematen dute nire ustez ongi. Problema izaten da taldeak osatzeko.

G: Jende gutxi?

E: Bai... ni urte batean apuntatu nintzen eta gelditu nintzen kanpoan... ze nire ordutegia ez zen egokia. Orduan, bakarria ginen bi pertsona... hiru uste dut, minon batek utzi zuen ta ordun bikin, ta bikin ezin zen taldea in.

G: Ya

E: Ta bertzia sartu zen bertze talde batian ta ni gelditu nintzen kanpuan, ordun... bai, ezpadaosatzen hori... taldia, bai, galdua gelditzen zera.

G: Jende falta ordutan.

E: ¿? Bai, bino bueno, gehienetan ongi, e?

G: Aha. Esango zenuke gaur egun beste zerbait eskaini behar dutela, pues igual ikusita zein dan ba... jendiaren errealitatea, e... jendiak dakan denbora eztaikit... interesak edo, iruitzen zaizu badagoela... igual euskaltegien eskeintzen ez den zerbait baño zure ustez interesgarria izan daitekela?

E: nire uste ongi iten dute. Gero jendian nola nahi duen edo taldia edo ordutegin edo hola, gehienak... gaude lanian ta fabrikan dire... pues, ordutegi diferentiak ta holan, nere uste problema da hori...

G: Aha

E: (...) ordutegiak... batzuk ahal dute, beste batzuk ez. Hori da...

G: Aha

E: (...) nere igual oi... gehigo... ezin dutenak ez edo.... Batzuk bai, bertzik ez, ta taldia iteko hor izanen dena problema gehiena. Bertzenaz nere uste iten dute, saiatzen dire jendiak zer nahi duen...

G: Arabera...

E: (...) horren arabera.

G: Badaude taldeak, erdaldunak dienak guztiz eta euskara hutsetik ai dianak ikasten?

E: Bai

G: Badaude ere.

E: Bai, nik ezautzen dut bat kuadrilakoa, bueno, etzekiena deus euskaraz, hasia da...

G: Bai, bai. Hasi da.

E: (...) eta... bai, han izanen ziren taldean... denak e... euskaldun berriak, ezekitenak deus.

G: Aha

E: Bueno, eskolan pixko bat, batzuk kanpokuak ziren, minon neska hori eskolan ikasia du.

G: Aha.

E: Gutti, teoria, ikasten zena, mino bueno, pixko bat bai. Ta hemen bizi denak, belarria pixko bat egina da. Ez aunitz, bino bueno. Minon bai, zerotik hasia zen. Eta ziren taldean nere uste denak hola...

G: Ta zein esango zenuke dala igual e euskeraz e... alfabetatu gabe egon ez, eta gainera euskaltegira joateko gogorik ez daukan horren... Zergatik ez da juten jende hori euskaltegira normalian?

E: Ez dulako nahi, nere ustez hizkuntza ez duela...

G: Esango zenuke igual euskera ez dula baloratzen?

E: Hori da, bai.

G: Aha. Ez da igual denbora falta o...

E: Eztula baloratzen. Nire lagun horrek e... egon da, bueno lana, pues hemen lana zen tokian, eta hasi zen hemen ze lana, fabrika batian arrautu zuela lana. Ta ordun, bueno, "nola hemen gelditu behar duten hasi behar dut euskaraz". Ta gero joan zen... erriberara. Eta han, caro, han... gelditu baldin bazen euskera... fuera. Ya eztut behar. Zertako behar dut, ez?

G: Aha. Esango zenuke presio moduko bat hemen badagola eztakit, presio soziala edo... euskeraz... igual biziago dagolako nafarroako beste...

E: Presiona nere ustez ez... eztago zertaz erraten zattut, zuk beste... baldin baduzu bertziak eztakila euskaraz, automatikoki erdaraz iten duzu.

G: Aha.

E: Bai, nire uste homen ezta... beste tokian bezala euskara sartua, ez. Hemen erdaraz sartzen da segiduan.

G: Ya.

E: Badakit... bai.

G: Geroz eta gehio esango zenuke? Edo igual... euskeraren presentzia...

E: Igual ari da pixko bat aldatzen, edo saiatzen zara pixko bat aldatzen. Pues a ber, lenbiziko euskaraz ta erdaraz, ezpadaki euskaraz saiatu erdaraz. Igual ari da pixko bat aldatzen, minon... ohitura da... sartu lenbiziko tokian ta erdaraz.

G: Aha. Esango zenuke euskara hobetu ala okertu in dala e... Lesaka Bera inguruan?

E: Igual hobetu pixko bat.

G: Hobetu pixka bat?

E: Bai... Bai, usteut ari da... gaztiak e... iten dute gehigo... euskara. Orduan nire adinekuak...

G: Aha. Ikastolekoek edo... hor ere funtzio...

G: Bale. Bale, orduan ebste bi hauek... Uste dezu e... ba eztakit zuen artean inoiz... komentatu dezuen... kartel hau iritsi danean adibidez o... Jendearengan arreta sortzen du? Eta hori iruditzen zaizu? Ze hau adibidez nahiko... kuriosoa da... (*olagarroarena*)

E: Bai... Ezteu ba attatu inoiz kartelari buruz.

G: Aha... Eztakit, normalean nahiz eta jaso ezta gauza bat igual zuen artean komentatzen dezuena edo ez? "Aizu beitu, atea da hau" edo...

E: Ez.

G: Ahoz ahoko horretan ezta... Zu leno enteatzan zea jasotzen dezulako kartela norbaitek esan dizulako baino? Edo...

E: Ez, e... etxera ta bideratuak daudenak errazten dute nada, aileatzen da ta ordun ya badakizu dana... Iristen den guzia irakurtzen dut. E... batzutan, ez honeri buruz, beste edozein gauza gertatu behar dula edo egin behar dula, hoietan esaten ai naiz, hoietan ba ai, informazioa atea dala, paperak jarrita daude, eta ni ez naiz enteratu. Hori da.

G: Bale, bale.

E: Baina hok eztet uste... attatu ditugunik hola...

G: Bale, bale. Oso ondo. Bale. Ba... bueno, bukatzeko edo, jakin nahiko nuke pixkat euskaltegien inguruko... eskaintzari dagokionez... Bueno, esan didazunez, hori, oain euskaltegian zaude ez?

E: Bai.

G: Eta zenbat denbora daramazu euskalegian?

E: Aurten hasi naiz

G: Aurten hasi zea? Baina egon zinan ez? Umeak txikiak ziela...

E: Oain dela... hamabost urte edo hola gutxinez, e?

G: Eta euskaltegi berdinean?

E: Bai. Beste irakasle batzuekin bino bai bai... euskaltegi berdinean bai.

G: Aha. Eta euskaltegiari hasi aurretik, esan nahi det, orain dela hamabost urte... hasi aurretik, zer zenekien euskaltegiak? Ezagutzen zenun? Edo... bazenekien hor zeola? Edo... nola izan zan gerturatze hori?

E: Bueno ba, han, nik uste ba esan dizudan attatu duten e... aldaketa horretan mogimentu guzi hori izandu zen, AEK, euskaltegie, Korrika... mugimentu hori. Ordun... kulturala... mogimentu, mogimentue hori. Baina hortik bai. Gau eskolak ere egoten ziren hemen, ta AEK sortu beño lehen e... euskaraz ere ematten zen, herritar batek ematten zun... gau eskola esaten zena. Ematten zun euskaraz idazteko, ikasteko, alfabetatzeko... modua. Gero etorri zen AEK.

G: Aha. Zure ustez ze funtzio betetzen dituzte euskaltegiek hemen eskualdean? Momentu honetan edo...

E: Nahitaezko funtzioa! Helduen alfabetatzea nahi ta nahi ezkoa da, nahi ta nahiezkoa...

G: Nahi ta nahiezkoa da... zertarako adibidez? Hobeto... len aipatu dituzun gaiekin lotuta...

E: Neretzako euskera... hitz eiteko, irakurtzeko, idatzeko, bizitzeko, lanerako... Lanean, euskara, euskeraz hitz eiten den, euskara eremutan euskara... Nafarroan... zona euskaldun euskal tokitan, euskara exijitu behar da lantegi baten.

G: Aha.

E: Eskubidea daukelako noa nahi dien... euskaldun bat euskaraz hitzeiteko. Esateizut, osasun etxen, eskolan... Lan publikoan behinik behin nik uste dot hori... eskatu behar dela.

G: Orduan, euskaltegian beteko luke pixka bat hori bermatzearen...

E: Hoi da, hoi bermatzearen... hor lanean ai dena e... gaztelaniaz hitz eiten dunian ya... euskeraz ikasteko e... beharra edo... beteko luke osea ke... Ikasiko, erakutsiko lioke... euskalduntzen langile horreri. Eta hori nahi ta nahiezkoa da nere ustez zeatik... Euskaldunak ganak eskubidea daukegulako euskaraz e... erabiltzeko, noanahi goa goazela. Gero e... ikasketatan ere lanpostu baten eta ikasketatan ere euskaraz irakaslek eta e eon beharko luke nire ustez e... euskeraz euskara menderatzeko aukera eozekin gai ematten duela

G: Aha.

E: Zeatikan gure u gure haurrak eskubidea dauke baiatare euskeraz ikasteko.

G: Euskeraz ikasteko, ez? Aha.

E: Eta... badakit, nafar... politika eztela hori, dirue a ber nora joaten den... Orokorki euskarak zenbat, zenbat diru gutxio jasotzen don. Bino eusk e nafarroan? Izugarrizko... euskaraz jaso do... izugarrizko jipoia... paloa.

G: Paloa, ez?

E: (...) izugarrizkoa. Diru kopurue eztaikit zenbatera aileatuko den mino... Esaten zuenez, irakurri non artikulu bat esaez oan dela zazpi urte jasotzen zun dirue eztela alleatu orain, gaur den egunen jasotzea. Uain dela zazpi urte jasotzen zun adina eztula jasotzen oain. O sea, erdie o... eztaikit zerbatte, enaiz oroitzen. Esan non, hau lotsagarria da.

G: o sea que euskaltegiak nolabait e...hori, ematen du garantia bat edo berme bat, eztaikit, hemen euskeraz bizi den jende horrek aukera eukitzeko benetan bere hizkuntzan zerbitzuak eukitzeko ta guzti hori, ez?

E: Hori da, bere hizkuntza...

G: Zein da ezagutzen duzun eskaintza euskaltegiek egiten dutena? Zu noski e... jasotzen dezun hori, ta hortaz aparte... zer da euskaltegietaz ezagutzen dezuna? Badutizte klaseak, pentsatzen det baila desberdinetan...

E: Bai...

G: Beste zerbaite ezagutzen dezu euskaltegitik, egiten duten eskaintzari buruz?

E: Beharbada, ez dakit oso ongi hau hala den ere... euskarako klaseetatik aparte, badire zenbait egun antolatzen dituztela festa moduan eta hola. Gero, euskaltegikin batera Korrika ere hor dago, eta ez dakit kultura aldetik ere zenbait ekintza egiten die, festa egunak egiten die. Hemengo euskaltegik antolatzen ditu bertso afariak edo ez dakit, kantuz egindako bazkariak, edo nola deitzen dioan...

G: Kantu egunak edo ez dakit...

E: ez dakit, bazkaria egin eta gero kantuz...

G: Horrelakoetan parte hartzen dezu?

E: Bai, egin genun lehengo urten bazkari bat eta gero kantuz, eta gonbittu ziren musika dantzatiak etorri ziren eta oso arratsalde politta pasatu ginun, baina xxx...bai antolaketa egin zuten hemengo euskaltegiak, eta joan ginen Peruharrira. Peruharri da, hemen baserri bat, Iñaki Perurenak eta bere familiak daukana, aitzineko museo bezala. Berak ematen ditu esplikazioak antzinako... ongi dago, oso... bueno, interesantea da esaten duena eta esplikatzen duena, eta hori ikustra joan ginen... eguna antolatu ginun, egun pasa. Eta ongi da baita ere, egun guztia euskaraz hitz eginez baina kultura inguruan duzul, zure inguruko gauzak ikusiz, ez? Orduan bada aukera hizkuntzatikan aparte kultura... bizitzeko, beste arlo batzuetan... lehengo asteburuan, adibidez, ardo dastaketa bat izandu zen baita ere euskaltegiak antolatuta. Niri ardoa ez zait gustatzen eta ez nintzen joan. Baina badakit, esan zitean oso ongi egondu zela, bai. Etorri zen jendea asko zekiela ardoataz eta ba bueno, erakutsi zietela ardoa dastatzen, usaintzen...

G: Hori ez dago gaizki, eh?

E: Bai. Herritar batzuekin egondu nintzen ni.

G: Oseake horrelako gauzak antolatzen dienean, ez da bakarrik euskaltegikoentzat, herrira zabaltzen da ere.

E: Ez, ez, herritarrentzat ere zabaldua zeuan. Euskategira joaten ez den jendea ere bazen... herriko bi emakumezkoak, bat lankidea, edo gizarte zerbitzuko langile bat... bueno! Oso pozik zeuan zenbat ikasi zun... ta bueno, ongi...

G: Euskaltegian zurekin batera daudenak dira zure lagunak, kuadrilla edo lagun taldeko jendea?

E: Lan taldea bai, ordezkapenak egiten ditun langile bat ere dago euskaltegian... Beno, ezagunak bai, azkenean herritarrak denak ezagutzen gea... eta ezagutu bai, denak.

G: Eta beraiek, ezagutzen dituzun hoiekin ez dakit aukera eduki dezun hitz egiteko hortaz, baina beraien motibazioa zurearen antzekoa izan da? edo zergatik daude euskaltegian?

E: Bada desberdina... bada aita gazte bat, euskaraz hitz egin nahi duna. Oinarri pixka bat dauka baina gehixe sakondu nahi du euskaraz ikasteko. Ordun, bere konpromisoa da lanak uzten dionen, alabaz ezin du... nolabaite...

G: Denbora daukanean...

E: ... eta gero badire beste batzuk, bere lanerako eskatzen ebanak titulazioa, jende gaztea, prestatua dagona bertze lanetarako EGA ateratzen nahi duna... Ordun ba, motibazio desberdinekin. Bada jendea lasai-lasai, bakarra euskara menderatu, jakin, goxatzeko... Esan nahi dut oso ongi pasatzen dutela euskaltegian, oso oso oso ongi.

G: bai, ez?

E: oso oso ongi. Bai, benetan. Oso ongi pasatzen dut. Zenbait momentutan, aber, berotzen naiz eta ah, apuratu naiz, baino ongi.

G: ondo dago, ez? Azkenean...

E: Bai, harremana oso oso ona delako, bai. Ongi da, oso gustora joaten naiz. Nik uste dut, hola ikasteko ere erraxagoa dela.

G: Hizkuntza bat ikastea ez da errex, berdin du euskara edo ze hizkuntza...

E: Ez.

G: eta giro atsegin batean baldin bazaude eta disfrutatzen badezu, ze azkenean hizkuntza horrekin disfrutatzea ere badaka... helburu

E: Bai... bada helburuetako bat.

G: Hori da, eta hobeto, ez?

E: Bai.

G: Uste dezu gaur egungo eskaintza, euskaltegiek egiten duten eskaintza, errealitatearekin lotuta dagoela? Esan nahi det, dauden beharrekin... eta ondo erantzuten die euskaltegiko eskaintzak behar horiei? Edo ez?

E: Bai. Beharbada, badago hor eremu bat atzerritikan etorritako jendeak, ikasi nahiko **genukeenak** pixka bat, beino behar izaten da baita ere kopuru bat. Kopuru bat eta esaten den bezela jarraipen bat. Jarraipena egunero...

G: konstantzia?

E: Konstantzia. Hori da, ez non erderaz esan nahi, konstantzia bat behar dena. Nolabaite konpromiso bat joanen zala. Ezin liteke lau persona hasi eta gero hirukin gelditu, taldea desegiten delako. Ezin bait liteke hiruekin, hiru edo lau ordu segitu. Gainera, taldea eta ikasteko eta motibatze eta lana egiteko kopuruek dute behar. ez due balio hiru, zeatiken hiru... guri tokatu izandu zaigu behin, gaixo edo lana dela, hiru bakarrikan euskategira joan. Eta jo! Ze atsalde luzea. Osea ez. Behar da, behar da... mugimendu eta azkartasun bat. Lanak egiteko ere. Bestela oso motela, oso geldoa da. neri etzait... nire ustez, karo. Ordun, hor, ikusten dut hor falta dela, ez?

Atzerritikan etorritako jende bada ikas nahiko lukeena, baina kopuru bat behar da, konstantzia bat behar da, eta horretan ez dago, ordun ez da ematen. Nahiko dirue baleo, ba esaten dezu, hiru? Ba hiru. Lau? Ba lau? Baina ez dago hori ere. Orduan ba... nolabaite egokitu behar da. egokitu behar da.

G: zerbait sumatzen dezu faltan? Orain esan dezun honetaz aparte, beste zerbait? Gehituko zenuke, aldatuko zenuke egiten dan eskaintza? Beste modu batera egituratu edo gauza berriak sartu?

E: guk kurtso hasieran edo ikasturte hasieran nolabaite biltzen gera, osea, egiten dugu bilera bat, eta irakaslea zein izanen den eta ze emanen den. Eta hortikan aparte egokitzen dugu ordutegie, eta egunak gehiengoan hobe beharrez edo konbenientziaz izanen dena. Ordun, hori dena emanda, ba errex egiten zaigu, nolabaite aukera ematen digulako hori egiteko, ez? Ordun, hortatikan aparte bueno, gaiek hor daude, gauzek hor eman behar die eta hori segitu behar da. Ez dago beste... Materiala eta dena, asko dago. Asko dago materiala, ama!! Bai... idazlanak...

G: Etxeko lanak eta edukitzen dituzue?

E: Bai. Beti beti. Etxerako lana eta gainera, idazlan bat ere bai.

G: Astero?

E: Astero-astero.

G: Lehen idazteko ohitura bazenuen? Euskaltegian hasi baino lehen, euskaraz?

E: Hori da gehien kostatzen zaitena... idaztea behar bada ez, baina ideak eta ordenatzea bai. Baina erakutsi digute baita ere hori ere nola egin, ordun, nago... baina hori da gehien kostatzen zaitena.

G: Agian lehen ez zenun egiten hori, ez?

E: Oinarria... erderaz ere, ikasketak erderaz, baino erderaz ere oinarri hori falta zitzaidan. Gure garaian etzian egiten... idazlanak ziren, ziren bezela... ordena eta tesiak, eta estrukturak eta gauzek oain ikasten ari naiz. Oso pozik.

G: Inoiz ez da berandu, ez?

E: Ez. Oso pozik eta bai. Esaten dizut oso guztora nago eta bueno, zerbaite...

G: Aberasten zaitu?

E: Bai.

G: Ba nik ustet, ia galdera guztiak ukitu ditugula. Ez dakit zerbait gehitu nahiko zenukeen? Zerbait azpimarratu?

E: ez dakit. Igual ya denen artean ia euskerara hurbildu danak, jatorriz eta etorri direnak ikastera, nolabaiteko harremana izandu duenak, ez dakut denak... ez dakit, indarberritu edo gogoberritu. Nik sumatu nahiko nuke gogo hori, motibazio hori. Baina hori da gizarte hontan zailena asmatzea. Karo, eske gaur den eunen dena edo gauza asko, nahiz eta saiatu hala ez izatea, globalizazio zoritxarrekoa edo zorionekoa, ez dakit zer izango dan... globalizazioa, gauza handiak txikia jan egiten du, eta hala da denatan. Denatan, Europa, bere hizkuntza, bere kultura... Europa eta mundua, osea... erbesteko gauza guztiak handiak dire, bertan ditugu, informazio guztia segituan dugu... erakargatzen gaitue, ze hori daukagu joera erabat, hori, erakarrie da... eta bueno, ordun gu ttikik geala... pentsa, merkataritza... dena ze handia, ze handia den, eta ze ttikia gelditzen den denda bat, herri bateko denda ttiki bat. Euskara berdin. Begira ze handie den mundua eta gu ze ttikik gan. Ttikik baino bizkorrak...

G: Bueno, hori behintzat badugu gure alde, ez?

E: Bai... bai. Hainbeste urtetan ez bagaittue menderatu, gaur egunen gutxio. Hori da, nortasuna da, hizkuntzak ematen digun nortasuna, ez da bakarra hizkuntza... Eta hori, ba nik nahi nuke esan dudana, handia den gauza hontatikan nolabaite esperantza eduki, motibazioa eduki, pues segituko dugula aurrera. Hori nahi nuke. Nola erakutsi edo ikusi arazi, hori da zailena neretzako. Nola ikusi arazi besteari zer ginun eta zertan gauden. Bai.

G: ba ea jakiterik badugun nola ikustarazi hori.

E: Bai.

G: Ba mila esker.

E: Zuri.

EZTABAIDA TALDEA. ALFABETATU GABEAK (ET1)

Galdetzailea (G): Ya grabatzen ai naiz, hemen erdian utziko det, nola grabaketa dan, ba hori hitzeiterako orduan banaka juten gea hitzeiten, gehienbat bestela zailla da dalako hori ez, transkribapenak egiñ ahal izatea ta. Orduan igual hasteko, ba zuen burua aurkeztu, nungoak zeaten eta adiña eta zertan lana egiten dezuen eta holako aurkezpen txiki bat. Bueno ni hasiko naiz, ze nik eztet nere burua aurkeztu. Enara naiz 32 urte dittut, Hondarribin bizi naiz gaur egun, baña Naparra naiz, gero esango dut nungoa. Eta Aztiker-en lan eiten det, ikerketa soziologikoetara edo dedikatzen den enpresa baten.

E1: xxx naiz, 40 urte dittut, Lesakan bizi naiz eta garraiolarie naiz.

E2: ni xxx naiz, Arantzekoa naiz eta 36 urte dittut eta Arantzako udalean lan egitten dut, langille bezala.

E3: ni xxx naiz 38 urte, lesakarra eta autoeskolako maixua.

E4: ni xxx naiz, 40 urte beratarra ta edari almazen baten lan egiten dut.

E5: ni xxx naiz, lesakarra 47 urte dittut eta dendaria naiz.

E6: ni xxxr naiz 49 urte dittu eta mantenimenduan egitten det lan.

G: Beran?

E6: ez Leitzan.

G: a Leitzan egiten dezu lan, Leitzakoa zea?

E6: ez, baztandarra naiz, hemen bizi naiz baña baztandarra naiz.

G: eta Leitzara joaten zea lanera?

E6: bai.

G: baduzu tarte bat ez?

E6: jun etorrian 97 km.

G: mendiz igual leno! Bale ba hasteko, galdera da nahiko zabala edo, zer da zuentzat euskera? Pixkat a lo bruto, zer dan zuentzat hizkuntza, euskera? Nola bizi dezue?

E3: Bizitzeko manera eta...betitikan ezautu degun gauz bat ez, etxetikan eta.

G: konpartitzen dezue iritzi hori?

Dena: Bai.

Europako hizkuntza zaharrena da ez?

E4: Guk ezagutu duguna eta berezko duguna.

G: zuen nortasuna edo identitatea ematen duena edo?

Denak: Bai.

G: pentsakor zaude zu? Zer da zuretzat euskera?

E2: Bueno eztakit. Ba euskalduna hori da ez, ba zerbaitek desberdintzen bagaittu besteengatikan hori da ez, gure hizkuntzagatikan ez. Azkenin niretzako euskera dena da ez, gure bizia, gure egunerokoa hor daukagu ez, nik behintzat e, hori da jaiotzatikan ezagutu edo bizi deguna ta bizitzen duguna ez. Eta igual iñoiz baño gehiago batzuk ez.

E6:Zailla iten zait ez, zer den niretako euskara. Izan nahi dut, bueno igual hasieratikan, txikitatikan jasotako hizkuntza bat da, baño galdutako hizkuntza bat izandu da nere kasuan. Eta gero gaztaron berreskuratu dudana hizkuntza da ez. Ordun ba bai, nere hizkuntza da eta munduan kokatzeko modu bat da, eta gañera ikusirik hizkuntza minorizatua denez eta galtze prozesuan kokatua dagoenez, nere bizian beti borrokarako izandu den akullua.

G: osea ama hizkuntza denok duzue euskera?

Denak:Bai.

G: eta zure kasuan bezela hori ez, igual jaiotzetik bai eta gero txikitan galdua edo?

E6:Bai, baño gero berreskuratua. Eta bueno konturatzen zara behar bada zure bizian, nere kasuan beñipeñ egunorokoa dela ez eta ez dela beñere amaitzen ez. Eta behar bada eee nik konturatu nintzen hortaz aspaldin ez, ba zailla da.

G: borroka horretan egotea? Ze pentsatzen dezue horren inguruan, ados zaudete horrekin? Horrela bizi dezue zuek ere?

E2: Bai. Nik adibidez hiru seme alaba ditut eta, bik, bueno zarrenak 8 urte ditu eta bigarrenak 5 eta horik ere ya juntatzen die ya guraso erdaldunak dittuztenekin eta segidan erdara sartzen da. Eta egun guztiya horrela ez, erdi behartuz euskeraz eta euskeraz eta...egunero da azkenen lutxa bat eta beti eztaikit zergatikan erderaz bukatzen dugu edo.

G: zuen, normalean zuen etxean adibidez, euskeraz hitzegiten dezue, senitartekoekin eta...guztiekin edo segun eta norekin?

E1:Nik igual emaztekin erderaz egitten det, nahiz eta biyek euskeraz jakin, erderaz itten deu.kin euskaraz, lengusu batekin euskaraz, bertzeekin euskaraz, eta denak euskeraz dakite.

G: eta zerbaitegatik da hori edo...?

E1: Eztakit, adibidez gaztiak dira bizilagunak, hauekin euskeraz. Igual bertze kuadrillako lagun batzuekin erderaz eta eztakit ze tendentzia den edo...igual eskolan erderaz egiten gendulakotza...adibidez kuadrillako gehienak euskaldunak gara, euskaraz badakigu eta erderaz egiten dugu, gehienak, batzuekin euskeraz egiten dugu baño bueno. Zeba? Eztakit.

G: eta lanean adibidez, lan esparruan? Zure kasuan, bezeroaren arabera?

E3: Normalin euskeraz, hemengo jendia euskalduna da, kanpoko bat etortzen baldin bazaizu, azken urtetan, kanpoko jendia pues ekuatorianok eta argentinarrak eta dexente etorri die eta hauekin erderaz egin behartzu. Baño normalen hemen Berako jendia, euskeraz egiten du. Bakarren bat bai erderaz egiten duna, baño normalean euskeraz egitten degu.

G: eta besteen kasuan?

E5: Nik denetikan du, badut erdaraz egitten dudana dena, bertzeekin euskeraz.

G: eta etxean?

E5: Etxean normalki euskaraz. Amakin badut ohitura erdaraz egitteko, bai. Gero euskaraz egitten dute ,baño bueno, egitten dut erdaraz ere. Aittakin ez, beñere.

E3: Hori gertatzen da, adiñeko emakumik erdaraz egitten dute eta gizonak euskaraz.

E5: Bai, zekatik amaigiñabarrekiñe eittenun. Erdaraz egitten nun, aunitzetan e, bestetan ez baño. Eta aittagiñarrebakin beti euskaraz. Eztakit zergatikan.

G: eta beraien artean?

E5: ez horrek denak euskaraz.

G: osea da emakume helduenganako...?

E5: Berak igual niri erdaraz, zerbait galdetu edo zerbait horrela ba igual erdaraz. Baño eztakit zergatikan, eztakit.

G: ohittura hori hartu dezu eta ya horrela ateatzen da.

E5:Eta kuadrillan eta horrela, nola dagon denetikan, denetikan egitten dugu. Gehiena erdaraz e, zeatik bada jendea eztakina.

G: euskeraz eztakiena?

E5: Bere bizi guzien Lesakan bizi direnak e, eta eztakite! Bueno hori da eztutela gogorikan paratzen ikasteko.

G: normalean baldin badago taldean pertsona bat gazteleraz hitzegiten duna, ya denak erdaraz hasten gera. Zure kasuan lanean, etxean...?

E4: Lanean eztakit, ni hasi nintzenikan lanin aritzen giñen, denak euskaldunak giñen baño airtzen giñen erderaz, eztakit zergatik eta gero aldatu genun txipa eta orain dena euskeraz, lo que pasa que bueno, sei zazpi lagun gara eta badira gauzak itten dittunak erderaz. Baño gehienbat euskeraz. Laneko hizkuntza euskera.

G: aldatu zenuten...

E4: Bai.

G: bueno askotan ezta errexia e!

E4: Hasieran zalla. Ni hasi nintzenetikan, eztakit zenbat urte egin genittun erderaz solasen eta eztakit zergatikan, bañon holan aritzen giñen, eta bueno izandu zien bi pertsona, hasi ziela, bai ez, bai kostatzen zen. Eta bueno, gero lagunekin ni hasi nintzenikan eskolan, dena euskeraz, ez nekien batere erdera, eta bueno ni ibili naiz monjetan eta bamos kristonak.

G: osea ikasi zenun...

E4:Baziren hiru mailla ordun gu baserritarrak giñenikan, ba euskeraz ezin zen solastu. Ni juten nintzen etxera eta aber ama nola erraten dau hau horrela, eta giñen pixkot...

G: baztertuak.

E4: Bai, bai, baserrikok baztertu. Gero baziren hiru, hiru zea ez, bat zen Berako jauntxon alabak, bigarrena zen Beratarrak baño etzirenak baserrikok eta hirugarrenagiñen gu baserrikok. Eta ordun ikasi genun eta gero 14 urtekin atera nintzen eskolatikan eta...euskera bakarrikan etxin, lagunekin da dena erderaz. Eta gero ya hortikan atera eta hasten zea ohartzen ba...berreskuratzen. Baña eskolako lagunekin nahiz ta jakin, oraindak segitzen dut erderaz. Heurek ere, bueno heurek igual galdu zuten ni baño gehixo. Eta bueno hola segitzen degu. Geroko lagunak euskaldunak eta hoikin segitzen dut euskeraz, baño eskolako lagunak hoiekin erderaz. Eta etxin gehienbat euskeraz bañon esaten die gauzak erderaz. Bronka denikan pasatzen gea denok erdarara.

G: a bai e, curioso!

E4: Bueno hori orokorra da ez.

Eztakit nik...

Haserretzen garenean...

E4: Hasertzean...goxotasunean euskeraz aritzen gea baño zakarkeritan nik eztakit...nik goxotasuna ikusi dut euskeraz.

G: zakarkeria euskeraz ez?

E4:Nik ez, nik eztut ezautu.

G: eta besteok?

E4: Igual mutillak, igual errexago...

E5: Nik ikusi dittut sekulako bronkak etxian euskaraz. Galdetu galdetu!

(BARREAK)

E1: Ba igual hor iskanbillan zaudenean ba, emozionatu eta igual erdarara...nere kasuan adibidez hori gertatzen da.

G: eta edozeiñekin zaudetenean bronka batekin edo...segun eta?

E5: Ez nik haurakiñe, oraiñ dittu ttikiak, 12 urte dittu zarrenak eta ordun orain nik euskaraz, hemendikan aintziñera eztakit, baña orain bai. Heurek ongi enteitzeko euskaraz erran behar diot.

G: eta bikotekideekin edo gurasoekin daukazuenetan? Eta zuek nola borrokatzen dezue?

E2: Euskeraz, dena euskeraz bai. Etxien ta dena euskeraz.

E6: Amakin euskeraz eta andriakin erderaz.

G: eta zure kasun?

E3: Nik dena orokorren euskeraz. Ni ustet suerte hori izan detela futbola maillan eta juntatu naizen jendea euskalduna izandu det, beti bizi izan naiz giro euskaldunen ez, puntualki izaten zen taldean bat edo erdalduna edo baño orokorren euskalduna. Eta etxean ba dena euskeraz, eta nik bereziki, lau urte nittunean errepikatzea in ziaten ba enekillako erderaz, ba oaiñ pixkat pasa zaio nere alabai ez, dena euskeraz egitten deu etxean ta 6-7 urtekin leku baten ba gertatu zaio ba, etzuen ulertzen euskeraz. Ikastolan ... orduan pixkat gaizki pasatu du ez, baño bueno nik eztiot sobera lagundu...

(BARREAK)

E3: Nik oaiñ ya, nabaritzen zaio e, ikastolan eta ari da pixka bat askatzen, bai galdetzen dula e, irakurtzen eta hizki pillat bat eztittu ulertzen eta galdetzen du. Baño laguntzen diozu pixkat eta...ya bederatzi urte dittu eta, baño bueno orokorrean ni etxean eta moittu naizen inguruetan eta hola giro nahiko euskaldunak. Etxean bereziki, etxean... osea iñoiz ere iñorekin ez gurasoekin, ez aitatxi eta amatxikin, osabekin...osea eztakit, igual ematen aldetikan, koñatua daukat erdalduna, baña ulertzen du euskaraz eta euskaraz aritzen gera. Osea denok baldin bagaude bost o sei, euskeraz aritzen gera eta berak ulertzen du eta igual berari zuzenki hitzegitten badiozu, hitzegiten diozu erdaraz ez, baño bueno. Bestela euskaraz.

G: uste duzue hemen bizi zeaten giroan edo Euskal Herrian bizitzeko ezinbestekoa duzue euskera? Iruitzen zaizue ezinbestekoa da?

E3: Ezin bestekoa izan beharko luke, baño normalin amoldatzen gara, erdaldune sartzen da bat eta denak aldatzen gara erdarara, nik ere familian baditut bi, bat andrin ama eta harekin ez, oaiñ sartu zaigu bertze bat eta koñadun andria ta harek berriz behartu gaittu denak erdaraz hitzegittea bera dagonean.

G: eta bera ez baldin badago?

E3: Osea bera baldin badago denok egitten degu erdaraz eta ezpadago dena euskaraz.

G: eta zerbaittarako esango zenukete ezinbestekoa dela? Nahiz eta gaur egun...

E3: Pentsatzen dut lanerako, hemen lanen ibiltzeko euskara behar dela ez, edozein...gehienbat adiñeko personakin, hoiek euskeraz egiten dute eta ordun eurekin ulertzeko, euskara pixkat naturalagoa ez. Nere ustez, medikukin eta...Lesakan pasatzen ari da ez, adiñeko jendia igual joaten zaizu medikura eta igual Iruñeko edo bueno kanpoko jendia etortzen da erdalduna eta ezta sortzen harremana hola...

G: bai konfiantza igual ez, ondo azaltzeko zer pasatzen zaien edo...

E3: Segun ze kasutan nik uste dut behar dala, beharrezkoa dela.

E5: Bai sobre todo meikukin eta horrela ez.

G: ya adin batetikan aurrera beraiek bakarrik euskeraz ondo erratuko dira ez?

E3: Eozin gauza esplikatzeke eta, beti euskaraz, nik uste dut hobekigo inteintzen dela eta.

G: Zuen kasuan edo?

E1: Ni ez, ni ez nago ados horrekin, ez dut uste ezinbestekoa denik, hala beharko luke, ados nago horrekin, baño gero eta guttigo. Ikusten dut nik, erran nahi dut, ezinbestekoa dena da gaztelera da. Orain edozein esparrutara joaten zarela eee osea erdaraz eee da hizkuntza mundu guztiak dakiena eta alrebes ez, eta berdin zait persona heldua izan edo ez izan. Osea izango da netzako billatu beharko nuke persona bat adibidez ni moitzen naizen tokian eee euskeraz bakarrik mugitzen dena edo zea...

G: etzaizu bapatean etortzen...

E1: Bai, bai, badakit jende heldua dagola, baserritarra, baserritan hainbertze amatxi eta aitatxi izango diela eta hori, baño seguru nago oraingan galdetuta ere etzaiera arrotza gaur egun erdera.

E4: Ez, arrotza igual ez.

E1: Gaixotasuna eta igual bere ohitura euskaraz izanda ere eee moldatzen dire.

E4: Bai baño adierazteko ordun, eurek moldatzen dira agitez ongigo euskaraz ez erdara baño.

E1: Baño komentatu duzue, badela ohitura adiñeko emakumeak erderara jotzea, kontra esankorra dela ez.

E5: Aber, bai, pixkat badau denetikan. Baño nere pasatzen zait tiendan, nik badittut pues larogehita piko urtekuk, hombre enteintzen dute erdaraz, baño zerbait esplikatzeke edo eeee gai batetikan edo solasteko, beti ere erraten dute eurek, galdetzen dute euskaraz eta zuk ere egiten dezu euskaraz eurek hobekigo ulertzen dutelako. Eurek horrela bizi dute, ya gaztigok ya.

G: gazteen kasuan eztezu ikusten...

E4: Ezinbestekoa eztute ezertarako.

G: gaztelera gain hitzeitezue beste hizkuntzaren bat?

E5: Ni ez.

G: zuek, hemen mugan?

E5: Bi eta bik gaizki.

G: bale orduan pixkat denetarik ez, euskeraz eta gaztelera, etxean, batzuekin...umeeekin gehienak euskeraz ez?

Denak: Bai.

G: eta gero hori aldatzen dijoa, segun eta, batzuk esaten dute e, igual txikiekin egiten dela errexo euskeraz eta gero ba helduagoak egiten diren heñean ba batzutan aldatzen doazela registroak edo, ezta horrela?

E6: Nere kasuan behintzat oso gurasoekin edo erderaz hitzegitea, osea enaiz imajinatzen.

G: arrotza egingo litzaizuke.

E6: Bai, bai, seme alabekin ere igual, nere burua etxian beti euskeraz mintzatu gara, alde hortatikan euskaldunak izan gara eta, bakoitzak ditu bere...baña erdaraz egitea puff! Zaila, zaila eta arrotza egingo litzaizake!

E2: Nik kasu hortan baita, baña elementu bat baldin bada erderaz, ez zaizu tokatu zure amarekin edo zure gurasoekin ba elkarriketa bat erderaz, pentsazu koñadu erdaldun horrekin...

E1: Nik koñadua dut emazten aldetikan.

E2: Niri gertatu zait ez, bai badaukat ohitura ez, batzukin betitik euskeraz, baño erdaldun elementu bat tartean dagonian, erderaz egiten dugu, eta zailla egiten zait erdaldunarekin noski, normala iruitzen zait, etzait arrotza egiten erderaz mintzatzea, baña euskaldunarekin ba biolento sentitzen naiz ere bai. Baña nahi ta nahi ezko arrunt horretan ere bada ez, erderaz egite hori ez.

E6: Nik egia errateko langilleren batekin, aitta erdaraz egon eta nik aittakin euskeraz, errespetu falta izango da baña, ni aittakin erderaz mintzatzea edo amakin... bertzea gaizki sentittuko da igual ez, baña eske...ez da, ez da nere...ta nik bertze hizkuntzekin dabilzan pertsonak errespetatzen dittut. Orduan ba molestutzen badut beraiei ba sentitzen dut baña ni, nere hizkuntza da ta orduan ba ohitura hoi eztut aldatu behar.

E2: Nire gertatzen zait, bueno etxean gure hizkuntza euskara da ez, familiakin, seme alabakin ere bai, eta adibidez nere andrearen amarekin euskeraz ere bai, baña biolentoagoa edo zaillagoa egiten zait erdaraz mintzatzea nere andrearen amarekin, nere andrearekin baño. Ulertzen duzu? Baña noiz bait nere andrearen amakin sortu izandu da konexioa ba erderaz, ba gauden egoeran edo gauden pertsonakin erderaz ari gara, ordun eztakit, tokatzen da ez.

E3: Niri re zail egiten zait normalin bat dagoenik, izaten dut bertze bat erraten hi...eta beti euskeraz.

G: ateatzen zaizu berez euskeraz?

E3: Nahiz ta igual berari erdaraz ingo diot baño bertzeekin euskeraz.

G: ya bai, sortuta daukazue harremana horrela, euskeraz ta...

E3: Eta aparte hori, honek erran duna, ikusten dut nere burua gaizki, espilluan begira bezala eta ze ai naiz. Ta biolento sentitzen naiz bai. Ta beti izaten da norbaitengatik baño...

G: gazteleraz egiten dizute.

E5: Normalki jende hori izattentzu herrikoa edo urbiltakoa baittula 20 urte edo 30 urte hemen bizitzen dena eta eztula ikasi eztula gogorikan asi que...ulertu behartzuten ere guk euskeraz egitten badugu pues...gu beti aldatzen? Eta beti egitten dugu e! jokaera berdiña egitten dugu! Beti aldatzen dugu guk.

E3: Ni zentzu horretan ematen diet arrazoia e, osea guk zeditzen dugu beti,

E5:Betí!

E3: Eta hori...igual errespeto falta izango da, baño eztakit zergatikan guk zeditu behar dugun edo, eta gurea, nik behintzat sentittu ta hoi nerea, eta bizittu dutena, eta nerekin daramat... Hori da nik daukaten gauzik aberatsena.

E1: Baño guk aldatzen dugu, guk erderaz badakigulakotz eta eurek euskeraz eztakite orduan.

G: bueno baña egia da beste hizkuntza batzuetan ere izan daitekeela, ta zu beste norabait joaten zarenean igual pertsona horrek badaki bi hizkuntzetan eta eztu aldatzen zurera egokitzekeo.

E6: Bueno hortako katalanak die...

G: horretan egia da bai.

E2: Hor erran duzu, kuadrillako, bueno laguna bat eta ni, Pantxo Pikabea joan giñen egun batetan Bartzelonara eta biok euskeraz badakigu, eta biek erderaz egiten genun, Bartzelonara joan giñen eta han zerbait eskatzen eta katalanez kontestatu ziguten eta ordun ikusi genun, mekauden la letxe, hemen mundu guzia katalanez. Eta hor izan genun tarte bat biek euskeraz hasi giñen solasin, ez genun behin ere egin gure tartin, nahiz ta jakin, ta ordun konturatzen zea, mekauden la letxe, hemen mundu guztia katalanez, eta guk euskeraz jakin eta biek erderaz. Eztakit kaso kuriosa da.

Han bai eztizutela barkatzen e! osea, zuk erderaz galdetu eta berak erantzuna katalanez...hak eztute aldatzen guk aldatzen dugun bezala!

G: bai gure ardura da e, gu gera aldatzen degunak, zuk jarraitu dezakezu euskeraz hitzegiten.

E5: Baitare kanpotikan baldin badazie ez, norbait etortzen baldin bada guregana eta zuk baldin badakizu eztela hemengoa, ba eztiozu euskeraz kontestutko, baño han igual, zuk galdetzen al diozu erdaraz eta igual, pues naiz eztakit nongoa, baño han takata, katalanez kontestu. Hori ya...biño hemengo jendekin, e jokaera berdiña izaten dugu, guk dena aldatu, guk dena aldatu, guk aldatzen dugu, osea ez, ez, bertzek ulertzeko guk aldatu beti.

E6: Nik nere kasuan behintzat, lenengo hitzak beti euskeraz egingo dittut, eta aunitztan ohartzen zara bera euskalduna dela, erdaraz itten baduzu, berak erdaraz egingo dizu. Orduan egitten dut beti euskaraz eta ohartzen zara eztizula ulertu eta orduan aldatzen duzu ta listo. Gertatu zait Tafallan euskeraz egin eta euskalduna izatea tabernakoa ordun ba....ordun ba beida, erdaraz egin baldin banun...berak ere erdaraz hitzegingo zidan ez. Hori egiten dugu eztakit zergatikan. Beti saiatu ez, lenbiziko hitze euskeraz. Edo hatzen duzu ohittura bezala, ba bueno beti ere ez, ez baduzu ezagutzen lendiken eta...eta itten degu alderantziz ez.

G: bai lenengo sarrera hori beti gazteleraz eta konturatzen basea bakilla euskeraz ba aldatu ez. Hori pixkat euskeraren erabillera, eta irakurtzeari buruz, badaukazue ohittura euskeraz irakurtzeko?

E5:Nik gutti, Ttipi-Ttapa eta periodikon horrela pixka bat baño oso gutti.

E6:Nik bai. Nik egunero irakurtzen dut egunkaria Berria, Berria irakurtzen dut.

E1: Nik Ttipi-Ttapa bakarrik.

G: liburuak edo...

E3: Nik sema alabakin euren erritmun ta berriak ahal bada beti saiatzen naiz egunkaria erdarazkoa hartzen, bai kostatzen zait pillla bat.

G: Irakurtzen dezu gaztelerazkoa, kostatu euskeraz.

E3: Ulertzen, ze irakurtzen dudan.

G: besteok gaztelerazkoa irakurtzen dezue zerbait edo...

E4: Nik gaztelera bai.

(oso baju entzuten diot)

G: Ttipi-Ttapa denok irakurtzen dezue?

Denak: Bai.

E1: Lenengo notizik eta.

E2: Nik etxin, bueno semek ere ekartzen dutenean erdarazkoa eztiot irakurtzen, irakurtzen dio amak, nik euskerakoa eta amak erdarako.

G: eta adibidez zure, zuk egunkarietaz aparte irakurtzen dittuzu liburuak eta hori?

E2: Bai, liburuak bai euskeraz eta bai erderaz irakurtzen dut. Ta orain Tokatzen zaitenean irakurtzea erderaz dago idatzita.

G: segun ze billatzen dezun ez?

E2: Gaian arabera, liburuak irakurtzeari ematen dionen, ezta...da gaien arabera edo idatziaren arabera ez, ordun horren arabera, eztut erabakitzen ze hizkuntza. Saiatzen naiz euskeraz ere izatea ez, gehiago da gaia edo idazle ez, edo gustoko zera ez.

G: eta ikusteari buruz, adibidez telebista, edo filmeak eta horrelakotan, ohitura zer dezue, euskeraz, gazteleraz?

E6: Nik gutxi ikusten dut telebista baño ikusten dutena euskal telebista. Berriak edo...gutxi e.

G: zuek?

E2: Berriak euskal telebistan eta gero bestela gabaz beti erdaraz, canal plus edo horrela.

G: pelikulak eta horrela beti erdaraz?

E1: Nik pelikula eta ez-titut ikusten. Normalen erdaraz igual bai, ETB bai, baño erderaz, igual euskeraz pilota edo, kirola baldin bada bai, bizikleta, kirolak botatzen ditzuzte batzutan igandetan eta horrela, estropada edo horrela bai euskeraz. Normalin erderaz ikusten dut.

G: zuen kasuan?

E4: Nik seriek eta hoiak normalena erdaraz, eta bestela deportek eta hola euskeraz.

G: ETB 1ek asko ematen ditu kirolak!

E5: Guk non diren marrazki bizidunak pues...

Hori bai!

E3: Muttikoak dattu 3terdi eta nik ez-tut besterik ikusten...

G: berak agintzen du!

Bai.

E3: Aztu zaigu Pirritx eta Porrotx klaro, hori dago orain...Nik ez-tut bertzerikan ikusten, Pirritx eta Porrotx 24 ordu, ta Bob Esponja...

E4: Nik baita, Pirritx eta Porrotx puff!

E3: Clan eta gero Euskal Telebista 3n ez-takit zein dagon...

G: ETB 3 hemen ikusten da?

Bai.

Sakanan ez. ETB 3 ez-tugu ikusten.

Ikusten dute hori, zokoko...

E5: Lesakan ez-tugu ikusten hori ez.

E6: Uste dut zuek hartzen dezuela Jaizkibetikan, uste dut e!

E4: Guk Lesakan ez-tugu ikusten.

G: zuen kasuan?

E1: Nik uste dut nere etxean ikusten dela gehienbat erderaz, baño da hori Bob Esponja dela ta eta bueno, gustokoenak programak erdarzkoak dattu.

Disney Chanel eta...

E1: Bai, bai, haurren aldetikan eta gero ya Goenkale kenduta bi egunez, hori fijo, euskeraz, ta gero berriak eta hori euskeraz. Baño hori jotzen duzu zapiñera eta...

Etxin manduk eoten dira oso okupatuk!

G: ze boterea daukan ez, etxean mandoakin eta hori!

E2: Nik uste dut digitalizazio prozesu hontan euskera ere galtzen da eta nere etxean nabaritzen dut pilla bat.

G: bai, aldaketa hori?

E2: Leno baziren lau kanal, euskal telebistakoak bi eta gaztelera, berriak ikusten ziren euskal telebistan, baño orain nola ematen dizuen aukera ba joaten zara pum, pum, pum...eta nik uste nun nere etxean zela bakarrik, baño Bob Esponjana ta hori, globalizacian total! Bai, bai, eta ematen dizu aukera ikusteko euskal telebista, ETB 3an da, marrazkiak ematen ditudute, eta ezitudute gustokoak, nere etxekoek, ttikiak dauzka bost urteko haurra bat, eta ezta ikusten, orduan ezta ikusten euskaraz.

G: Bob Esponja non ematen dute, kuriosidadea besteik ezta?

E4:Hori Clan-en.

E1:Eta orain uste dut hasi dire ematen Cuatro-n.

E4: Baita ere!

G: beste galdera izango da ez, hainbeste aukeraren aurka...

E4: Badakizu zertarako etortzen zaien hori ongi, programa hoiek ongi, eurek erdaraz ikasteko, ikasterako ordun. Horretarako etortzen zaie ongi.

E5: Pues gurea egoten da ikusten eta...

E4:Ezta ulertzen!

E5:Eztaki deus ere! Aber nik erraten dut, zuk esan duzu duzula ttikia ez?

E4:3 urte terdi.

E5:Baño aber, aber mutillak ditte 12, orain dago hemen Labeagan, eta horrek 9 urtekin edo horrela, orain ere gaizki erdaraz e, egia errateko! Neska badaki aunitz hobekigo, baño mutillak gaizki, baño ikasi zun, horrela dokumentalak eta gauzak horrela erdaraz ikusten, hori bai, horrerik sartu beharko diozu eee edo mendiko gauzak edo gauza hoiek erdaraz ikasteko. Eta halikan ere nahiko lan e!

E4:Nik ustet hori berez dela, nextatuak fazilidade haundigoa erdaraz enteintzeko, solasteko...

G: bere lagunekin eta...

E5::Ez, ez, gero euskaraz egiten dute euren artin, baño...eztakit...

G: pertsonan arabera.

E5: Horretarako etortzen zaie ongi. Eta gañera neri ikastolan erran ziaten, paratzen al diozu programaren bat edo zerbait erdaraz zekatiko...ezta enteintzen deus ere! Eta nik nabaitzen det, etzula entenditzen deus ere, eta oaiñdike kostatzen zaio, gero du bertze gauza, mozten dela aunitz.

G: lotsatu edo!

E5:Lotsatzen da, ordun ezta deus ere erraten. Enteinttu enteintzen du, nahiko, ez ongi e, baño solastu gutti.

G:eta esan duzu zureak ezetz, nahiz eta ikusi 6 hillabetez Bob Esponja...

E4: noizpaik erraten du hitz bat horrela aiasten dula eta "ama erran du..." hitz bat eta nasten du euskarazko hitz batekin eta 6 hillabete ikusten e, baño deus ere, grazia egitten dio baño ezta

enteintzen deus ere. Ikusteko dittu marrazkiak edo... lo que pasa que ETB3 aunitztan ikusten du e, aitzen duna euskeraz bai ulertzen du, baño gero aldatzen dezu erderaz eta...

G: eta idazten baduzue ohitura idazteko?

E6: Gutti eta egitten dutena euskeraz. Gutti e, agitz gutti.

G: idatzi?

E6: Erdara eztut beñere ikasi eta ...

G: zuen kasuan baduzue ohitura hola idazteko edo?

E2: Bueno, nik gutti, euskaraz tokatzen bazait lanin zerbait ere baño gutti, normalin gehiena erderaz.

G: zure kasuan?

E3: Ni saiatzen naiz, apuntek eta dena, euskeraz egitten, baño hala ere gutti eiten dut e! Egiten det pixkat bat hori...

E6: Nere kasuan ere bai, erdera eta euskeraz gutti idazten dut. Idazten dudana euskaraz, ba agenda bete behar duzula eta...euskeraz. Ohitura hartu genun eta seitzen dugu, ikusten dut lagungarria dela neretako eta...

G: zure kasuan?

E5:Nik gutti idazten dut. Oso gutti. Pedidok eta horrela...

G: eta kasu horretan euskeraz?

E5:Bai, bai.

G: eta zerbait botatzen dezue faltan, bueno eztakit hitzegin degu pixkat telebistan, eztakit zer, prentsan gehiago euskeraz edo telebistaren kasuan?

E6: Hombre, Ttipi-Ttapa izango zen gehienak ikusten genuna, Ttipi-Ttapa.

G: Ttipi-Ttapa telebista?

E5:Bai.

G: ta ya eztago, kendu dute?

E2:Eztago. Eztakit subentzio falta zela eta eztakit zer izandu zen...

G: aspaldi kendu dute?

E6:Hiru urte edo hola?

E2: Bai, hiru urte edo horrela, diru laguntzat moztu zittuzten eta geroztikan.

E6: Nik uste dut gustoko zerbait zela, ba hemengo bestak, iñauterik eta dena botatzen zuten eta bueno...

G: herriko jendek badakizue ohitura zeukan ikusteko?

E6:Nik uste dut baietz.

G: oseake hori ikusten dezue, falta dala horrelako zerbait?

E1: Nik bai, nik gehienbat bestak eta hola ikusteko faltan botatzen dut, bakillak eta hola...igual iñauteriko karrozak eta...leno igual batzutan ikusten nun telebistan, Ttipi-Ttapan.

G: zertzan?

E2: Erreportaiak!

E4: Eztakit zer fabrika edo eztakit zein leku...ta aunitzetan inguruko gauzak dire ta eztituzu ezautzen, pixkat ezautzeko.

G: ya modu bat ikusteko ere zer dagon hemen?

E4: Bai inguruko gauzak.

G: Bortzirietakoa zan ttipi ttpa edo?

E4: Bortziri eta....

E5: Baño beti ematen zuten pixkat bat ba Zugarramurdiko gauzak eta eztakit zer eta...bai hemen ingurukoak

E2: Bazuten ordutegi bat betetzeko edo, ba igual ez zuten inguruan berririk edo ba igual jotzen zuten ba Iruñera edo Doneztebera edo...ta hango udalak eta igual parte hartuko zuten igual.

G: bale oso ondo, orduan hori izango zan pixka bat telebistarena...komentatu dezue ez, irakurtzeko ohitura hori ba agian euskeraz, askotan gaztelerara jotzen dela eta, eskolan bere garaian ikasi zenuten dena gazteleraz?

E5: Dena erdaraz!

G: danok?

E3: Bai.

E5: Gure garaian deus ere etzen.

E3: Gaia bat, gaia bat euskera zeon...

G: asignatura bat zegon?

E3: Bai. Asignatura bat euskeraz.

E5: Guk ibili genun Kili-kili.

E2: Aldizkari bat, oraindikan ere existitzen dela uste dut.

G: eskolan egiten zenuten?

E2: Bai. Hori Frankismo garain sortutako aldizkari bat zen eta banatzen zen eskoletan. Eta zen irakurtzeko ba eztakit, baziren ipuñak, eee txisteak eta...

G: hori ulertzen det egiten zala klandestinoki edo hola?

E5: Aber guk aparte egiten genun e, guk ezkenun ematen klaseko ordutegin, guk larunbat goizen ematen genun, oaiñ dagon, Lesakako ikastolan, han frailek ziranikan, bueno ordun ya etziren frailek ere, eta goien ematen genun kili-kili hori.

G: oraindik ere existitzen da?

E5: Nik uste dut baietz.

E6: Ikusi izan dut.

E2: Gañera barnean orriak edo horiak ez?

E6: Horiak nik hola uste dut.

E2: Ta klandestino? Eztakit.

G: ez esan nahi det nolabait, ezkutuan eta zan?

E5:Ez, ez ezkutuan ez.

E2:Enaiz konsziente horretaz baño, ttikiak giñen eta eskolan...eztakit.

G: zuek esan dezue, ikasgai bat bai ez?

E3; Ikasgai bat euskeraz bai.

G: eta ikasgai horretan zer egiten zenuten, euskeraz idatzi...?

E3: Bai euskeraz idatzi atzizkiak, nor, nori, nor eta holako gauzak, baitare gogoratzen naiz, bertsoan eta holare ibiltzen giñela...gero hitzak, eee euskara batuaren hitzak, guk adibidez kotxia erraten genuen eta ordun berebilla, conejua partez untxia eta holako gauzak, pixkat gauzak, arraroak iruitzen zitzaizkigun guri. Pues bizikleta eta txirrindua eta igual holako gauzakin hasi giñen, eta hori guretzat arraro xamara zen.

G: sumatzen dezue edo nabaritzen dezue zuek gabeziaren bat zuek euskararekin lotuta, eztaikit ba, gustatutuko litzaizueke, eztaikit ba gehiago irakurtzeko aukera eukitzea edo gaitasun gehiago eukitzea idazteko edo...horrelako zerbait antzematen duzue?

E5:Hombre, gaitasun pixkat gehixego idazteko eta leitzeko, total. Nik orain haurrekin ikasi dut pilla bat e. Etxeko lanakin eta horrela...paratu ditut pilak, baño ongi paratu!

G: osea beraiek zuri erakutsi?

E5:Bai, bai zekatiko nik utzi nun estudiona, ba akabatu nun hemen eee, profesionalen eta nik ya utzi nittun pupitreak. Eta hori orain puff. Biderketak, kenketak...eta zer dira hoiek, neretzak...orain ya ari naiz, mutikukin ta ikasi nun pilla bat, eta hori bai e, kenketak eta biderketak eta gauza hoiek egiteko joan nintzen nere arkatza eta papela hartu eta erran nion andereño batei aber, esplikaiazu, eta hantxe jarri nintzen, bera pizarran eta beinga. Eurekin ikasi dut bai!

G: ze etzeate jun, zuetako norbait jun da euskaltegiren batea edo horrelako zerbait?

E3: Ni bai, urte baten egondu nintzen saiatzeko E.G.A. ateratzen, Lesakan Aek-an eta seitzen dut E.G.A.rik gabe.

E4: Ni joan nintzen bi urtez alfabetatzera eta ez nun azterketarik egin.

G: eta apuntatu ziñan zerbaitegatik edo?

E4:Bai, sentitzen nun behar hori, eske irakurtze hori neretzat berria zen, nik eskolan eztut deus ere egin euskeraz, eta idazte ezta ere. Nik gauzak ez nekien nola idazten ziren, hitzak eta. Eta bueno bi urtez eta bueno, arritu nintzen eta hartu nun ohitura pixkat leitzeko eta idazteko eta hori eta bueno, ez nun segittu baño bueno.

G: baño balio izan dizu?

E4: Sekulako ilusiokin hartu nun, netzat zen mundu berri bat, hori ohartzen zara behar dela ez, ni behar nun.

G: beharrezkoa iruitzen zitzaizun?

E4: Neretzat bai! Pues bueno idaztea ta hori eeee edozein gauza idazteko ta nik euskeraz idazterakon banun zerbait berezia, beti erraiten nun ba noizpaitt, osea idatzi nahi dut zerbaitt eta ez erderaz, erderaz eta euskeraz. Biñon gero...utzi nun pixkat eta ya gero utzi nun dena. Eta orañi eztut astirikan...ordun bueno, pentsatzen dut noizpait librego nagonikan pues zerbaitt egittea.

G: oseake beharrezkoa bai ikustezu nahiz eta orain momentu hontan ba igual ez euki aukera...eta besteok nola ikusten dezue alfabetatzearena? Ikusten dezue beharrezkoa dela?

E6:Hombre nik uste dut, gauzak ongi egitteko behintzat bai.

G: eta noizpait egin dezue, bueno zure kasun esan dezu ez E.G.A. ateratzeko...?

E1: Nere kasun ez, beharra beharra, ba oaiñ dela gutxi arte enaiz ohartu ez, euskeraz beti mintzatzen naizenez ta enun behar hori ikusten ez. Baña horrekin eta bai ikusten dut kosta egiten zaidala ez, irakurri ta idatzi itten dut, moldatzen naiz baña eztaukat trebezi hori ez. Eta neska bederatzi urte dauka ez, idazteko ta, bereziki irakurtzeko ez, ta oaiñ ohartzen zara ez. Leno ez nun egin edo eztigute aukera hori eman ez.

G: eta iñoiz pentsatu duzu, eztakit eee...

E1: Oraiñ eztaukat denbora.

G: denbora.

E1: Denbora behar da eta nik uste dut gaur egun ba eztaukagula denborik ezertarako. Baño enaiz geldittu pentsatzera e. osea enaiz planteatu nere bururi ba hasitzea ez.

G: bestean kasuan, nola ikusten dezue?

E5: Nik orain egia errateko denborik eta ez gogorikan. Ni joaten naiz etxera arratsetan nagola ya, haurrak, arropak eztakit zer... klaro eta goizeko zortzirek laurdeguttitako nago ya lanin. Eztut ez, orain momentu honetan desde luego ez. Gero eztakit egiñen duten edo ez, baño oraiñ ezta planteatzen.

G: baño beharrezkoa ikusten dezu?

E5: Bai, bai, beharrezkoa bai. Haurra da sobre todo, eurekin horrela, euren gauzakin eta nik nabaitzen dut falta hori, osea egia da, ni gelditzen naiz atzera arruntki. Neretzat oso zailla da gañera.

G: jarraitzea ez, edo?

E5: Moldatzen naiz hobeki idazterakoan, leitzerakoan baño. Aunitzez hobeki idazteko. Bai, eztakit!

E6: Bai, idazten igual mantxogo aritzen zara. Irakurtzen igual...

E5: Eztakit, idatzi idazten dut, baño leitzerakon.

E6: Nik ere bai, idatzi hobeto irakurri baño. Irakurtzen det bañan, ulertzea ta, irakurri detena ulertzia zaillagoa iruitzen zait idaztea baño.

G: zure kasun?

E2: Ez interesgarria egitten zait ba, ongi etorriko litzaidake reziklatzeko berriz ez. Egia esan denbora luze egonda idatzi gabe eta zera, ba galdu egiten da ez. Trebezia eta irakurtzeko gauza bera. Ta noizpaiten nik uste dut ba egingo nukela.

G: osea ke denbora behar da ez? Ikusten da ongi etorri daitekela baño.

E2: Denbora baño gehio nik uste dut gogoa dela. Denbora gauzetarako ateratzen duzu eta hortarako ere pues, gehien bat da gogoa ez. Oso interesgarria da, batez ere idazterakoan, ba guttien erabiltzen dudana idazketa da eta tokatzen zaidanean nabaritzen dut kostatzen zaitela ez. Irakurtzen eztaukat problemarik, egunero irakurtzen dut eta baño idazterakoan ba, eta hor bai nik uste dut behar dudala reziklatze prozesu bat.

G: osea onura zure kasuan hortik etorriko zan ez?

E2: Bai.

G: bale. Eta bueno euskaltegitaz hitzegin deu pixkat, komentatu dezue egontzeatela. Ikasturte hasierako kanpaiñen inguruan edo sartuta, ezagutzen dittuzue egiten dian kanpaiñak eta? Iristen die zuengana?

E5: Bai. Ika-kok eta horrela aiatzen die, bai.

G: besteok?

E1: Ikusi bai, bañon nere kasoan interesa ezta aiatzen, hortan paratzea interesa behintzat. Nire ustez eztela ongi aiatzen jendi hori, kurso horik eitteko eta horrela ez, mezu hori.

G: mezua bera?

E1: Normalin ikustezu ta, aurretik pasatzen da baño bazterrera.

G: nola jasotzen dezue, eztakit etxera iristen zaizkizue gauzak edo?

E5: Korreoz.

E2: Nik uste dut eee Ika-koa normalen Ttipi-Ttapakin bialtzen dutela.

E4: Euskera batzordetikan ere nik uste bialtzen dutela e.

E3: Baño Ttip-Ttapa tarteko ezta izaten...eztakit, izaten da ariketa bat zuk egiteko bezala ez, izaten da hori hori ez.

E6: Tarteko hori hori?

E2: Bai, aldizkari bat hillabetero etortzen dena ez?

E3: Bai, gero zuk bialtzen duzu eta zozketatzen da premioreen bat ez.

E1: Gero hortaz aparte ikastarok izateko eta urte hasieran izaten dire ez ba, apuntatzeko epeak eta ze maillak eta nun eman izena eta...baño nik uste dut, hor ere igual zuzendua dago, nik ikusten dut zuzendua dagoela erdaldunei. Eta behar bada eztago hainbeste zuzenduta euskaldunoi.

G: mezua esan nahi dezu?

E1: Pasatzen da gure entzutean pasatzen da. Ezdagokigu guri.

G: ez zaretela sentitzen hartzaille bezela edo?

E1: Bai, ezpazara E.G.A. titulurik atera behar edo zera, ba eztago zuzenduta zure kasuan, nik ikusten dut hori. Eta behar bada, propaganda maillan ere jeitsi egin da intentsitatea. Garai baten, genitula hogeita piko urte, izugarria zen ez, propaganda mailla igartzen zena kanpoan ez. Orain gehiago da prentsa maillan ba, iragarkiak, laukitxo bat eta kitto ez. Garai batean kanpaiñak zian potenteak.

G: eta iristen zan gehiago?

E6: Ieno Iristen zan grafikoki gehiago.

G: nola jasotzeituzue? Zuk esan dezu korreoz, aldizkaritan eta... beste bideren bat?

E5: Dendetan eta paperak paratuz. Eta irratiz ere bai e. nik Euskadi irratia aitzen det eta hori pues kurson hasieran iraillan eta hor erraten dute, aber pues Bortzirietako Ika... Izaten da biño...nik nola eztuten egin behar momentuz pues, egiya ya eztiotela kasik kasoik ere egiten.

G: ya eztuzu arreta jartzen horretan ez?

E6: Uste dut orain dela 32 urte ere beharra, orain badago beharra baño ordun behar haundigoa zegon ez, gaur egun ikastolak daude eta ordun ba gazte guztiek ya, ezta gu bezala ez. Orduan askoz erdaldun gehiago zegon erdaraz ohitura handigoa zegon hitzegiteko eta bizitzeko eta. Gaurko gazteak ya...ya behar deu helduxegoak ez, Erriberan bai badaukala horrek ba, beste gauza batek deitzen dio ez, euskeraz eztakien jendea ez. Baño nik uste dut hemengo zonaldean gazteak ya...

G: helduagoak diren hoiei zuzendu beharko...

E6: Nik uste dut baietz, gaur egun Bortziri maillan behitzet gazte guztiak euskeraz ikasten ari dira.

G: eta egiten ari diren kanpaiñak iruitzen zaizu eztaudela helduei zuzenduta, esan nahi det helduek ezittuztela...

E6: Eztakit erakartzekotan hoiek erakarri beharko dittuzte ezta, eztakit gazteak nik uste dut gaur egun nahiko mailla ona daukatela ez. Orduan gaztek eztira joango Ikara edo Aeka-ra ez, gaur egun ya ikastetxetikan zuzenean joaten dira E.G.A.n examiña ateratzea. Oaiñ ustet gazte gutxi ibiltzen diela ez, oraiñ dela 30 urte Aek-ak gauzez ematen zittun ordu pillo bat ez.

G: gau eskolak!

E6: Orduan gau eskolak, baño beste denboraldi batzuk bizittu dire ez.

G: mezuak iristen dianean, argi dakizue nork bialtzen dittun eta...? Bakizue, esan nahi det, argi dago ba, eztakit, ba igual udaletxeak iten dun eskaintza bat dan edo Ika-k egindako eskeintza bat dan edo, nondik datorren, gauza hoiek argi jasotzen dia?

E5: Bai.

G: iruitzen zaizue orduan, jaso detenagatik, oso, oso eraginkorrak eztiela ez? Eee osea batetikan zuen igual arreta...

E3: Agian gure interes falta gehio e!

G: interes falta, baño komentatu dezu zuk ere ez, agian eztagola eztagola zuzendua ere...

E6: Nik ikusten dut hori, beti izandu da Aek ta Ika, beti helduentzako izandu da, eta hemen ikusten dugu eta nabaritzen dugu euskeran ez, idazteko prozesuan adibidez, eta Aekak eta Ikak badaukate alfabetatze mailla, eta eztut nik ikusten hori, joera hori.

G: publizidadean eta eskeintza hori?

E6: Igual da aber, ez dudalakoz interesik momentu honetan edo ikusten dut ba ezta neretako, nik badaukat beti burutan ez, nozibait ere gustatuko litzaidakela ez.

G: eta zuk zuretzat eraginkorra izateko, pentsatu dezu nolako izan beharko luken edo irudikatzen dezu moduren batean edo?

E6: Ba azken batean da garai batean erabiltzen zen zera ez, ba da sortzea berrik beharra, jendearengan ez, behar bada personalki ikusten dugu beharra baña ez kolektiboki eta hori da bultzatu beharko litzatekeena. Bai, ez bakarrik kasu honetan Ikatikan edo Aekatikan baizik eta instituzioetatikan, eta hori Nafarron falta somatzen dela ez. Eta gehiago errango nuke, kontrari daudenez hori estali egiten dute eta behar bada ba bai, pixka bat hezkuntzan ikastola dago zenbat urte?

E2: 40.

E6: 40 urte, nik 49 urte dauzkat eta ez naiz ikastolara joan, nere seme alabak eta hori bai ez, eta eskola, lehen eskola nacional, orain eskola publikoa delakoan baita dago, baño nik ikusten dut euskera gaur egunen eta urte hauetan gero eta beharrezkoa dela. Eta galdu dugula, duela 20-25 euskarak zuen zera...beste.....zen kanpoan eta hori galdu in da, sozialki galdu in da. Leno prestigioa zeukana galdu egin do eta hori berreskuratu behar do.

G: eta hori nola, nondikan berreskuratu behar da...instituzio aldetik edo?

E6: Instituzio aldetik...

G: bai, bai, oraingoz eztute egin behar!

E6: Baña, bertze...berreskuratu eztakit nondikan. Baña berreskuratu egin behar da, nere irudikoz prestigio hori galdu egin da ez, pixka bat zabarkeriz edo...galdu da kontua ez, eta horri pixka bat buelta eman behar zaio. Osea ni ez nago optimista, pesimista naiz ez. Badaukagu ikastola bat,

eskola publikoa, Ika hor dago, Aek hor dago...baña kanpoan ere duela 25 urte hemen Beran edo Lesakan ikusiko duzue aldaketa izandu da izugarria, nik ikusten dut estankatu egin dela. Estankatu nolabait eta hor gaude.

E2: Nik ikusten dut pixka bat estankatu edo ia ia badugula egiñe bezala ez. Bueno ya egitten da leno baño gehixego eta ikastetxetan ere euskeraz ikasten ari da eta ya normalizatua bezala ez, eta nik uste dut hor dagola gure akatsa ez. Gai gehienetan bezala ez...

E5: Eske hori da, ezta euskara bakarrikan euskerakin. Eske geldittu gara horrela gauza aunitztan.

E2: Nahi det erran bueno ez, ikastolan Beran ez, ni ez nahiz ikastolara joan baño nire anaiak ikastolan ibili dire, ta orduan zegon ba gurason eta inplikazioa ere ez, orain ere badago, baño diferentea da. Ematen du ba bueno, ze gertatu behar da ba, ikastola itxi edo bertan bera geldittu? Ezta posible. Gertatzen al da eta etsaia hor dago lan egiten. Eta uste dut gure akatsa dela ez, eman dugula ya egiña bezala dena ez.

G: lortu izan bazan dena bezela eta listo!

E2: Euskerakin eta bertze gauzakin ere e, eta bueno orain euskeraz ari garenez eta gure hizkuntza eta gure...denez ba bai. Nik uste det hori, pixkat gertatu dela edo aunitz gertatu dela.

E6: Eztakit nere kasuan nik badaukat 17 urteko, bueno 18 urteko semea eta bueno bere hezkuntza prozesua euskaraz eman da ikastolan hasita, baño oraiñ ya eskolatikan atera behar dunean eta modulo edo unibersitatara joan behar den momentuan, berak egin nahi zittuen ikasketak erderaz, ezin izan du jende kopuruangatikan.

G: euskeraz egin?

E6: Eta orduan erderaz ari da. Ta hor ikusten da ez.

E2: Bai, bai.

E6: Eta beste komunitateetan...bueno Nafarroan eziñekoa da ez, baño...baikasten ari da. Hortan ere bai, gurekiko daramaten mailla altuagoa denez eta gaur egun ezta posible. Bueno unibersitate maillan ezagutzen dittudanagatik, beti arazoak daude.

G: gazteleraz ikasi behar da.

E6: Gazteleraz edo bi hizkuntzatan...asignatura... Agerikoa dela!

G: argi dagona da badagola oraindik, zuk esatezuna ez, asko egin da eta gaudela pixka bat estankatuta ez, eta behar hori edo sortu beharko zan euskaltegitatik? Hori ere xixatu beharko luketela horretan ere?

E6: Hor instituzioak egin beharko lukete lan ez.

E2: Nik uste dut desbiatu dela ez, bertze gaietara edo, bai udalak eta beste gauzak ez.

G: euskerari etzaio hainbeste garrantzia eman edo utzi da igual pixka bat alde batera ez?

E2: Eman delako ba bueno, ya nahiko egin dela edo ya bideratuta egongo balitz bezala ez, eta nik uste dut ba ateak itxita dittugula oraindikan ez. Ba horren semea kasuan, gurei tokatzen bazaio, zeozer ikasi behar izatea eta ordun ohartuko gara gabeziak badauzkagula. Eta orduan pues uste dut denena dela ez, udalak eta hemen Nafarroan eta denak ez. Eztakit zer egitten ahal den baño...eztakit, pixka bat stand by-n gaude edo eztakit.

E3: Bueno oaiñ guk adibidez, nere lanan asuntukin orain dela gutti lortu da teorikoa, gidatzeko baimena atetzeko euskeraz egitea. Eta bueno behintzat hori lortu da eta gaude orain praktikiko examiñekiko.

G: hori azterketa Donostian eginda?

E3: Azterketa teorikoa orain euskeraz egiten da orain dela urte bat, urte bat eta piko lortu da, Deba Goieneko mankomunidadeak itzulpena egintzun eta egiten ahal da oaiñ.

G: eta jendeak egiten du? Erabiltzen du euskera?

E3: Euskeraz bai. Poliki poliki ai gea egiten eta orain praktikoko examiñekin gaude hor.

G: bueno praktikoan asko asko ezta hitzeiten ez?

E3: Baño hor baite nabaritzen da e, hor e izan, ba da Oiartzungo examinadore bat, orain eztagola, sindikatuan sartuta dago eta orain eztu examinatzeko, biño hor zegonikan euskeraz galdetzen zenun edo euskeraz examiñe egiteko eta...lenago solastu deguna helduekin medikuan asuntu horrekin eta, gaztiak nabaritzen du bertze gauza bat, examinadoreak erraten badizu hurrengo bide gurutzean eskubira...

G: egia da! Ni ai nintzan pentsatzen zu zoazela gidatzen besteigabe, baño egia da berak zaitula.

E3: "El próximo cruce vaya a la izquierda" ta ostras.

E6: Hasteko modu hori ez. Bai errespetu hiru ez. Eta erraten zionean euskeraz ba "jo ze ongi ez".

G: gertugo, edo gertukoagoa ez!

E3: Ta oaiñ hortan gaude Gipuzkoako trafikokin ea euskeraz egin ahal ditun praktikoak eta. Hor beren arazoak dittuzte funtzionarioak behar dittuzte reziklatu eta ordun beraiek erraten dute atsaldez eztutela ikasiko, lan orduko ordutegi hortan ba kurtsok emateko eta...baño nik usteet poliki poliki teoriko examiña bezala azkenean ailegatuko dela. Bai porque hori, eztakit, Espaiñiari, estatuko administrazioa da, ez da Eusko Jaurlaritza bat. Baña uste dut poliki poliki egingo dela, pausuk ari gara ematen eta, siñadurak eta, gero baita ere Gipuzkoako asoziazio hor dago eta...

G: bai, bai, egia da orain dela oso gutxi...

E3: Bai orain dela pare bat, baña bakarrikan kotxekoa e, motokoa eta kamioikoa ez. Eztakit ze ba e. Gero baita argialetxeak eztira sartzen, erraten dute tirada ttikia dela, etzaiela interesatzen eta bueno...

G: ya eztutela onura haunidirik jasotzen.

E3: Ordun hor dago...

G: ekonomiko dela...

E3: Nik uste dut denetik pixka bat.

G: kanpaiñetara pixkat bueltatuta jarrikoizkizuet hemen kartel batzuk, ia ezagunak egitten zaizkizuen, hauetakoren bat ezagutzezue edo? Ez! Batere!

E1: Nik baterez!

E5: Igual hura!

E2: Neska hori da telebistan agertzen dena ez?

G: ba enago oso seguro, badakit karteletan atera izan dela baño eztakit telebistan ateatzen dan. Agian bai. Baliteke. Hau bere postal bat edo bezelakoa da. Zuei etzaizkizue ezagunak egiten?

E2: Hori igual nunbait ikusita.

G: neskarena?

E2: Bai.

E5: Nik hori egunkari baten edo.

E3: Igual Nafar gobernuan ez, Nafar gobernukoa da ez, igual Lesakan edo kartelen bat? Eztakit!

G: uste dezue kartelak erakargarriak direla, esan nahi det arreta deitzen dutenak diala?

E5: Egia errateko kartelak ezittut beitzen!

G: ezta bat ere?

E5: Ez!

G: kartelen sistema ya ezta oso...

E5: Bueno neretzat e! ni ya leittu ta leittu ta leittu, han ta bertzi ta gero Lesakan badire, paratzen dittuzte tabloiak bezala ta han bat bertzin gañin eta...eztittu leitzen. Tiendako aten paratzen baittuzte bizpahiru hoietxek baño.

E4: pentsatzen baduzu zerbait egitea ta argi baduzu, kartelak pues bueno! Erran nahi dut gure kasun e, ya alfabetatzeko baldin bada, pentsatua badezu egin behar dezula, kartelak bueno! Euskaldun berria baldin bada eztakit!

E6: Nik adibidez goatzen det bat edo bestea ikustea.

G: baño ezta kartela motibatzen zaittuna edo deitzeizuna ez, berez baldin badezu kartelak emango dizu pistaren bate edo nora jun edo...

E6: Ni oraindik kartelak erakartzen nau, osea igandetan egondu naiz Hendaian eta txosna batean zen eta jo ta zenbat kartel, eta etziren... bazen lortzen zuna erakartzea ez, edo joate piztea ez, gañerakoak ziren sinpleak baño joan nintzen irakurtzera.

E1: Nik kasu hauetan, neretako ez direla erakargarriak.

E3: Erakargarriak baño gehio eztute garbi erraten zer den.

E1: Geldittuko nintzateke hauekin baña,hoiek...

G: ya honekin agian, pentsatzen det koloretan...egia esan guk inprimatuta hola genun e, baño zea koloretan izango da ez, baña bai marrazki bat da, desberdiña da ez. Besteak ez, ez dira erakargarriak.

E4: Neretako, beste edozein gauzatarako kartela inportantea da baño hontarako ez.

G: honetarako ez.

E4: Pentsatu baldin baduzu jua behar zarela edo geldittu bazara norbaittekin joateko eta egitteko eta hori, igual bai.

G: eta zuk esan dezu kartelaren mezua eztala argia edo, hori ulertu dizut behintzat.

E3: Bai hala iruitzen zait behintzat. Eztala garbi ikusten ...

G: zer dan eskeintzen dana.

E3: Eee inportantiena falta dela ez, ikusi kartela eta badakizula zertara doien. In behar duzu irakurri lenengo eta gero...urrutia ikusteakon kartela ya jakin zer den!

G: ya agian, hau jartzen baldin badezu eztakit non ba, eztakit danburuzko zerbait edo...

E4: Ematen du Laboraleko anuntzio bat.

G: mmm, ados. Eta pixkat euskaltegikin lotuta igual, zuek etzarete euskaltegira joaten momentu hontan, dakazue norbait gertuan euskaltegia joaten dana? Zer dakizue euskaltegiat? Ezagutzen duzue zuen herriko euskaltegia?

E1: Ez. Deus ere ez!

E6: Ni lenago Lesakan ibili nintzen, hor Kattun, lenago zena Gasteizeko jendia, Caja Vitalekuk eta hola...

E5: Oraiñ ere etortzen dire e, bankukok eta horrela.

E2: Nabaritzen da uda aldian.

G: Lesakan?

E5: Bai.

E2: Ekaiña, uztailla, abuztua.

E5: Bai etortzen dira barnetegira.

G: eta Lesakan barnetegi bat dago?

Bai.

G: Arantzan badakit baietz.

Lesakan ere aspaldian.

G: Aek-koa dela uste dut.

E5: Arantzen badagoeta Lesakan baita.

E2: Ordun bai uda aldean bai nabaritzen dela, etortzen dira 30 edo eztaikit zenbat.

G: ezagutzen dezu non dauden?

E1: Fisikoki ta bai.

G: eta egiten duten eskeintza badakizue zein den, esan nahi det, igual eskeintzen dute, eztaikit ze ikasturtearte E.G.A. ateatzeko aukera, bueno zure kasuan igual...?

E3: Urte aunitz dira e, orain dela ia 15 urte. Ordun zen E.G.A., eskolan ere egon giñen, banatuta maillaka, batzuk bagenekiñunak, beste batzuk gutxi eta beste batzuk deus. Ta batzuk bideratu ziguten E.G.A. ikasteko, batzuk aprobatu zuten, beste batzuk ez eta ordun izandu zen hurrengo pausua euskaltegi batera joan.

G: atera nahi zenun E.G.A. zerbaitengatik?

E3: Ez, ez.

G: eukitzeko. Uste zenun igual aukerak zabaldu ahal zizkizula edo?

E3: Bai, ordun izandu zen, bueno gaztiekin ordun denak saiatzen giñen ateatzeko eskolatik.

E6: Hor ikusten det ez, gaur egun denek euskeraz ikasten dute, eta orduan erdera ikasten genun eta izantzen hor urte mordo bat, joera ba, E.G.A. ateratzia ta hola ez. Edozein lekutara aurkeztu eta.

E2: Niri igual bai tokatu zait, oposaketak, bueno atea dittut oposaketak, eta denetan pues E.G.A. eskatzen dute edo bestela egiten digute azterketa bat. Egin nittun bost azterketa, persona berak egin diate ta...

G: bost azterketa...

E2: Urkok.

G: a bai, Urkokin egin dittuzu?

E2: Bostak desberdiñak biño bost azterketa euskeranak, eskatzen zuten edo E.G.A. edo azterketa bat ez.

E6: Beharra sumatu arte eztugu egiten ezer.

G: hori horrela izate da sarritan. Leno esaten zenutena ez, azkenean norberarengan sortu behar den zerbait.

E2: Egunen batian tokatzen bazaizu oposaketak edo holako zerbait, ordun hasten da ez. Eluke hala izan beharko baña.

G: bueno beharra somatzen baldin bada, señaile ona ez.

E2: Bai, bai, bai.

E6: Geuk egin beharko genuke ongi egiteko ez, ez behar horrengatik.

G: beste mota batzutako beharrengatik ez, ez bakarrik behar eztaikit, administrazioak eskatzeizulako edo holako zerbait. Orduan euskaltegietara bueltatuta e, etzenukete jakingo esaten ba beitu Lesakako euskaltegian eskeintza ona daukate edo...

E1: Nik ez.

E6: Ez. Oaiñ dela urte mordoxka bat pixkat gehixego banekiela baño orain momentu hontan eztaikit ezer.

G: ba hurrengo bi galderak ezin ditut egin, ze baloratzeko eskatu behar nizuen eskeintza...bale, bale...gehiago zan jakiteko ba, dagon eskeintza ezberdiñetatik ba zein, edo nola baloratzen dezuen edo iruitzen zaizuen falta dela zerbait edo...ezer sumatzen duzuen faltan euskaltegietan edo...baño ezpaldinba dakizue ba, hortik hasi beharra dau ez, eta hori izango zan lenengo falta ez. Eztagola, eztezuela ezagutzen. Ba bueno nere aldetik uste det gutxi gora behera ba, gain begirada bat emanda nahiko puntu desberdiñak ikutzen dittugula, eztaikit zerbait gehio gehitu nahiko zenukete...edo azpimarratu edo eztaikit...esateko gogoakin ez gelditu e! bota! Badaukazue denbora, nahi dezuena! Zerbait esateko!

E6: Eztaikit, bueno nik interesgarria iruitzen zait orain dagona ba eztaikit noizikan baña da zabalgunean zera ez, hori da ba eztaikitenen partetik sortu den hori. Ba interesgarria iruitzen zait eta erabilgarria ere bai.

G: jendea elkartu eta bata besteari lagundu.

E6: Beharbada pentsatzen...herri hauetan uste duguna euskaldunak direnak eta hori beharbada ezta horrenizango baña, nik ezagutu duten inguru batean inguru batian interesgarria da ez. Osea ikusi ba aukera ezberdin bezala herrian, netzako nahiko berria da,bazen baña bueno ez horrelako formatoan ez.

G: Beran bada talde bat ez?

E2: Bai bada talde bat.

E5: Bai Modesto ta hoiek ibiltzen dia.

G: osea ke hori ezagutzen dezue dena, ezagutzen dezue eskeintza hori. Eta iñoiz parte hartu dezue edo norbait ezagutzen dezue parte hartu duena.

E5: Nik ikusten dittu hori joaten direla paseatzira batzutan eta solasten eta hori, eta poza ematen dit ez, ikusten dittu hiru edo lau neska, eztiela bertakoak baña bueno denborak erabaki duela ekartzera hemen ingurura eta bueno saiatzen direla solasten sobre todo. Ikastera joatea eta esfortzu bat in behartzu baña ya solastia ta hori...eta itteute ta bueno. Nik ezittu behin ere aittu hoiek euskeraz e, baño bueno. Hortikan hasten da ez.

E6: Nik uste dut lagundu in behar dela eta ez...guk izan genun taldean bat, ulertu dena ulertzen zuena euskeraz, baña etzen ausartzen euskeraz, pixkat ari gertatzen zitzaion ba bere herrian hitzegitten eta hasten zenean irri egitten zioten, ba bere akatsengatik eta, ta bere bururi ordun...

G: ya mugak jarri zion.

E6: Bai, eta hoi ba etzen ausartzen eta beti animatzen genun eta gurekin eta...baña, harek sortu zun bere nolabaitteko...itxi zen eta ordun ba bueno jendea, jende asko dago ulertzen duena eta baña eztena ausartzen ez.

G: eztia ausartzen bildur horrekin edo.

E3: Besteak irri eitten beldurragatio. Eta hori nik uste dut gure akats haundia dela ez.

G: eta mintza lagunak uste dezue horretan laguntzen dula? Esan nahi det askatzen dielako pertsona hoiek biñaka edo?

E2: Ezta errexa, behar du bere giroa eta baño bai lagundu behar zaiola jendeari ba hori, ba izango da jendea hitzegiñ nahi duena eta pauso hori eman nahi duena ez.

E6: Hor saihesten da irriarena ez, ba ez duzu konprometitu laguna eta badakizu helburua zein ein bien partetik ez, kontua da ez baduzu pertsona ezagutzen, zeri buruz edo...ezagutu behar duzu pertsona ez, gero solas ahal izatek ez. Baño bueno printzipioz joe nik uste dut positiboa dela.

E4: ideia ona ez, ideia bezela ona.

E5: Baittut bi koñata, Goierri bizi direnak, betitikan han bizittu dire, bizitza guztia euskaltein, osea eramango dittuzte igual hogeita piko urte euskaltein. Ezta hitzik ere...osea deus ere! "Si ya he quedau para ir al euskaltein", eta, elkartzen dira astean hirutan hartzeute kafia, eta urte bat eta bertze ta, beti igual. Eztute solas ietten, eurekin ez naiz behin ere euskeraz solastu.

G: ulertzen dute? Ulertu bai...

E4: Zerbait ulertuko dute, nik euren gizonekin beti ari naiz euskeraz, batzutan errateite zerbait baño bueno erran. Baño nik eiñe bai.

G: baño ingurun eurek baldin ba dire?

E4: Igualtzat nik euskeraz. Izan dute astia eta eztute solastu. Joaten dire joaten dire baño gero eztira kapazak deus errateko.

E3:bezala ez teorikoa egiten da ta gero praktikoa.....

G: ze esango du ez, autoeskolako gidaria? Teorikoa bai eta gero praktikoa ikusi behar da...

E1: Nik uste dut praktikoa errexago jendeak ez?

E3: Bueno nik uste dut igual teorikoan errexago ez.

E1: Bai, praktikan baño e?

E3: Bai.

E2: Ikasten duzun gauza da.

E6: Gu joaten giñen ya kotxean jakin da ta.

E3: Gañera agitz errexago orain e. Orain informatikakin eta galdera modua aldatu da eta leno galderak ziren liosuak eztakit zer, oaiñ aunitzez zuzena ta garbiyagoa da. Nik uste dut oraiñ teoriko nahiko errexa dagola.

E2: Nik uste dut oraiñ igual aldatu dela, osea praktika, lehen herri ttipi hauetan azkarrago ibiltzen zen, teorikoa kostatzen zitzaigun gehio, ta gaur egun nik uste gehio gogortu dutela, hori bizitzen dugu telebistan ere hortan daude ez.

E6: Igual eurek estutu eztute egin, igual gu leno ibiltzen giñen kotxean auzo ingurun eta...orain zaillagoa da, orain gazteak kotxen ibiltzen direnak, badire, baña lenago guk kotxen banejo bagenun agitze gehio. Herritik ibiltzen giñen errexago.

E1: Ibiltzen giñen karnetik gabe, oseba kotxea ebatxi, anaiak arremana, kotxea hartu eta Baztan barna eta, gaur egun hori ezin duzu egin.

G: bueno eztaikit beste zerbaite gehitu nahi baduzue, hemen bat falta izantzaigu, badu silla e, ausente bat. Nere aldetik egia esan...zerbaite badago gehitzeko edo...ia afaltzeko ordun zaudete...

EZTABAIDA TALDEA. ALFABETATU GABEAK (ET2)

Galdere (G): Bueno ya grabatzen jarriko det ta, eee bueno berak pixkat azaldu du zein dan asmoa orduan grabatzen degunez saioa, bai hitzeiterako orduan saiatu batea ez hitzeiten gero entzuteko eztalako hain eroso. Eta hoixe ba hasieran nahiko nuke zuen burua aurkeztea, ba nundik zatozten adiña eta. Zuk nahi badezu hasi.

E1: xxx Leitzatik. Egie esan ez nekin hainbesteko eztabaida egon behar zanik baño.

G: Eztabaida saioa baño gehio da taldea edo...

E2: ni xxx naiz eta Baraibartik etorri naiz.

G: ze edade daukazue zuek, zenbat urte dittuzue?

E1: 47.

E2: nik 43.

E3: ni xxx Leitzatik eta 40 urte dittut.

E4: ba ni xxx 47, Zeamarra naiz eta Uitzin bizi naiz.

G: ni Enara esan dudana bezala, 33 laister eta Hondarribin bizi naiz. Bueno hasteko nahiko genuke jakin zer den zuentzako euskera? Zer dan, zer esateizuen norbaitek hola galdera eginda?

E4: ni jaiokeratik euskeraz, oaiñ pixka bat Uitzin alden erdera asko sartzen ai da ta pixka bat kezka dauka alderdi hortatik. Dago, badaude bi pertsona eztuenak eitten euskeraz eta ordun ordaille borroka.

G: baña zuretzat euskera bera zer da?

E4: Ba nere bizi osoa euskeraz egin dut, bueno erderaz ikasi nun etzeolako garai hartan beste ezer, baña bai nere bizia da pixkat euskera dana.

E3: Eta hizkuntza ba, gure hizkuntza, nik ere erderaz ikasia naiz, baña gurasoekin eta etxeko hizkuntza, gehien erabiltzen dugun hizkuntza euskera da. Horixe gutxi gora bera.

E2: nire hizkuntza da, ta gehiena erabiltzen duten hizkuntza, komunikatzeko, osea nire hizkuntza printzipala.

E1: niretzat nere etxeko emadako altxorra ez, eta bueno kalen seitutakoa, eskolan ba zoritxarrez ezkenun izan holako aukerarik edo. Hor garai hartan etzelako izaten, beño egie esan oaiñ badauzkeu aukerak alfabetatzeko edo ikasteko eta eztira aprobetxatzen ez baño bueno.

G: gero hasiko gea horrekin. Zertarako da zuentzat onuragarria euskera? Edo zertarako erabiltzen dezue?

E3: denetako! Egie esan nere bizie hustu ezkeo, bueno gaur egun egiten deun bizi guztie euskerari, euskeraren inguruan ez, mugitzen da. Eztakit, ezta behartzen Leitza baten, oaiñ kanpora joaten bada ordun bai. Ordun ba behartu edo bueno eztakit, behartzen gaitue ez.

Beste...

E3: Bai, bateze tramitatzekeo eozein gauz edo.

G: zuen kasuan? Zuk bigarrenaz. Bai frogatzeko da benetan aber jendeak esaten duna, bitan aber berdiña esaten deuen!

E1: nola zen galdera?

G: edo zertako erabiltzen dezue?

E2: ba komunikatzeko, ibiltzen det, nola nere hizkuntza den, ba errexago komunikatzen naiz, normalen euskaldun batekin, eztaikit erderaz ta euskeraz berdin, eztut oso ondo dominatzen ez bat ez beste baño, nahigo det euskeraz, errexago iten zait, rekursu gehio dauzketela iruitze zait. Nahiago det euskeraz.

G: osea komunikatzeko tresna.

E2: Bai, bai.

E1: Ba bai, nik gehiena hitzeiteko, komunikatzeko, etxen beti eusker erabili deu komunikatzeko elkarrekin, igual kalen ez, anai tarten e igual zenbaitekin, mutillekin behintzat erderaz itedeu, errexago atatzan zaigulako, maniangatik. Amakin etzaigu okurriture iten baño! Anai tartean bai ibiltzen deula erdera bai.

G: eta zerbaitetarako kontsideratzen dezue ezinbestekoa euskera?

E4: nik familikin behintzet bai. Bai nere alabakin eta nere senarrakin. Ta familin. Eta lagunekin ere beharrezkoa ikusten dut baño eziñen nabil. Eztakit.

E1: baño nahigabe ateratzen zaigu ez. Neri behiñipeiñ. Beno bestaldeko kasuke badittut e, igual betidandik erderaz mintzatu naizelako berakin, nahigabe erdaraz ateatzen zaidala persona horrekin e. Beño bestekin eta etxeoakin eta herriko gaztekin ta gehienakin euskeraz mintzatzen ga.

G: Normalean zuek bizi zeaten herritan, Leitzan eta Utzin eta hola, euskeraz mintzatzea beharrezkoa da herri bizitzarako edo iruitze zaizue gazteleraz jakinda bakarrik ere...?

E2: Beharrezko, beharrezkoa, igual ezta herritan baño...bai!

E4: nei iruitzen zait pixka bat, hortik sartzen baldin bazara eee, ba galdu egingo dela ohitura hori, ba euskera hitzeiteko ohitura hori. Ordun bildurra diot, zeatik nik len euskeraz egitten non jendeakin oaiñ erderaz aritzen naiz.

G: aldatu duzu joeraz?

E4: bai! Ba hori sartu delako erderazko zea hori ta ordun pena ematen dit.

G: norekin hitzegiten dezue normalean euskeraz, edo norekin euskeraz eta norekin gazteleraz?

E1: nik etxen, etxeoakin beti euskeraz, amakin beti ez. Igual anaiekin eta gaztegoakin erderaz asko ez. Guk behintzat asko hitzein degu erderaz egie esan. Etxen ez, etxen inposible da, eske amakin automatiko atatzan zat.

G: seme alabe...eztaikit sema alabarik duzun?

E1: ez, ez!

G: eta lankideekin?

E1: bueno, normalean behintzat, orokorren euskeraz erabiltzen da. Ta gero mani txar bat, erdaldun bat baldin bada tarten gu pasatzen gera erderara, bera euskerara pasa beharren. Eitten dugu katalanan kontrakoa esan dezaun ez. Beti izan deu lagun bat extremeñoa gañea, bueno bere gurasoak extremeñoak zianak, eta Leitzan bizi izandu da beti bera, eta berak esaten ziun, ez ez beagatik ez erderaz egiteko, "nik ulertu iten det, hitzein ez baña ulertu iten det" ta alare igual da, 10 bagiñen euskaldunak, hura zen erdalduna eta erderara pasatzen giñen ez. Joera hori bai daukela

E3: ni konturatzen naiz, gehienak, bueno herri euskaldune delako Leitze ez, biño euskaldunek eztienak ba nolabait geto gixan edo ez? Beren artan juntatzen diela, taldetxoak edo iten dituztela. Eta bueno ni oaiñ eskola inguru hoitan da, askotan konturatzen naiz ba hori, eztaikiten hoik ba juntatzen diela ba elkarrekin, igual pixkat beren burue baztartuta ikusten dutelako edo eztaikit, ez? Nei iruitzen zaitena e!

E2: asko ez Lekunberrin ez, biño pixkat bai, zenbait billaratan da ikusten bazu etortzen die erdaldunek ta sumatzeittuzu eztaudela oso...

G: ulertzen ez tutelako edo nahiz eta ulertu...

E1: igual ulertu bai, baño hitzeittekori hori.

E2: billeretan gelditzen dia parte hartu gabe igual horregatik ez.

G: zuen kasuan billera guztiak euskeraz iten die?

E2: nere ingurun bai.

G: normalean bizitza, esan nahi det euskeraz.

E2: bai, bai, bai. Asko igual, gai politikoengatik eta, edo esan nahi dut militantziagatik euskeraz ittentzu ez, eta bai gañea eztakit, nik len, nere bizin fase baten erdera askoz gehio erabiltzen nun, eske etxetik kanpo ez nun ia ia euskera erabiltzen, kasi ez nun ibiltzen. Ta gero igual pixkat militantziz o bueno, batzukin militantziz ez, baño igual zu pixkat saiatzen basea lortzen dezu jendeak zuri euskeraz zuzentzea. Eta gero beste kasu batzutan ere era natural baten ez, bueltatu gara euskeraz hitzeitea. Baño zenbait kasutan seitzen deu, nik nere arreba batekin beti erderaz hitzeiten deu. Beste arrebakin fase baten erderaz hitzegiten giñun, bueno 10 urterarte euskeraz hitzeitegiñun, eskolan erderaz ta gero ya erderaz. Ta gero berriz lau arreba dittut eta hirukin bueltatu gea berriz.

G: berriro lortu dezue euskeraz hitzegittea?

E2: bai, bai, pixkat hola ia ia de acuerdo jarrita. "Hemendik aurea euskeraz hitzeigin behar deu". Kasi pakto bat inda, "bueno euskeraz hitzeigin behar deu".

G: pasa zaizue noizbait, kurioa da, hemendik kanpoa jun, beste herrialde batera, edo atzerrira jun, hemen gazteleraz hitzegiten dezuen norbaitekin eta kanpoan euskeraz egin?

Denak: bai, bai.

G: kurioa da!

E2: nik lagun batekin nere edadekoa da ta ibili gea alkarrekin da, joan giñen elkarrekin Londresean, eta ya handik aurea euskeraz, arrekin ez giñan de acuerdo geldittu e! baño hasi giñen da ausi genun hoi ta!

E3: neri alderantziz, berak egine beti erderaz, kanpora joan da bera euskeraz nerekin da, aiba! Ta nik ezin beakin euskeraz hitzeigin, ya beti ohittura.

E1: bai dala e, nik nere neska launekin euskeraz ta erdaraz hitzeiteu, ta kanpoa juaten geanean, igual da rolloa zuk eztuzula ulertzen ta besteak ez ulertzeko, edo eztakit zergatik baño automatikoki euskeraz. Eta esaten diote "ohartzen zea, etxen ezteu hainbeste hitzeitten da kanpora atera ta!", bai hala dela bai.

G: eta zure kasuan, esan duzu seme alabak, bueno esan duzu alaba bat...

E4: bai bi alaba bai.

G: eta hoiekin euskeraz?

E4: bai bai dena euskeraz.

G: lantokian eta dena?

E4: bai lantokian e bai, koñatak erderaz itten dit, baño saiatzen naiz, eta bai euskeraz.

E3: eta gero fase bat, berak esan dunare nik uste, fase baten igual erderaz gehio hitzeingo zula ta umek baldin baittuzu nik ustet berriz bueltatzen zeala euskera. Zeati esan dizuet lehen, nere lagun horrek sekulan etzula hitzeitten, oaiñ bere umekin etorri zaio ta nahi ta nahi ez hitzeigin behar, ta leitzen ikastola bakarrik dau euskeraz, oseake nahi ta nahi ez umek ikasten due euskeraz, etxea joaten die ta euskeraz hitzeitten due, ordun berare oaiñ hasi da hitzeitten.

E1: bai baño fase hoi nik usteot eztokela bukatzen.

E3: hasi behintzak umekin eitten diela ustet.

E1: Leitza askotan ohartzen nak eta emakumek e, jubilatuk, 60 urtetik gorakoak, beti danik euskera besteik hitzein eztenak eta beren harten "¿que chica que vienes de misa?" ta hola ez, beren arten.

G: erderaz, adiñeko emakumeak?

E1: bai. Euskaldun peto petoak, betidanik euskeraz aittu dianak eta erderaz eztakienak. Eta iñ aletan erderaz ai da. Osea nik uste eboluzio hoi dela, aurrena euskeraz ta erdaraz, gero euskaldundu berriz eta gero berriz ume bihurtu esaten den bezela ez.

E4: umekin bai eukitzen due fase bat e, adibidez nere alabak 14 urte in behar dittu eta nahiko gela euskaldune zen hori, eta oaiñ hasi da asko sartzen erderaz urte batetik hona. Eukitzen due epoka bat, garai bat hor zean...eta hori nere alabak erderaz kriston hanka sartzeak itten dittula. Eta berai, gehienak berai iten die euskeraz, bere gela. Eta oaiñ aber beize Leitza juten dien, aber. Ze ohitura hoiek...

E3: inguruk asko influitzen die umeri bai.

E4: hemen Lekunberrin ohitura haundie dago e, galtzen da euskera edade horitan oso...16-17 urte...

E1: ni bi iloba dittu eta bat, joe zortzi urtekin oindik etzekin erderaz eta Leitzen bizi izandu zen ta gero joan zien Iruñera bizitzea, jendeak bai ikastola eamaten dittu umek, baño gurasoak erdaldunek die, ta bigarren illobak ya bost urtekin hitzeitten zun espezial erderaz eta beste 8-9kin botatzen zittun kristonak. Klaro ba Leitza etzulako behar erdera. Etzittun ingurukoak erdaldunek, baño Iruñera joan zenean ya puff! Ya ttikie, berehala bazekien erderaz oso ondo txikitatik, oso txikitatik! Klaro bere klasekoak...etortzen zen illoba eta esatezun "nere gelakoak esaten due vamos a comer" etzekin zer esan nahi zun, klaro. Grazia itten zin horrek ez, ta denak erderaz, ta esaten zun bere aittek ba puff...gelakoak euskeraz desastre hitzeitten zuela klaro, gurasoak etxen, etzuelako praktikatzen, eta hori sumatzen dela. Gurasoak erdaldunek euki ta...

E3: guk erdaraz hitzegiten genun bezala, kanpora joan lanea ta..."haber el casero de Leitza". Gure doiñungatik ya nabaritzen zen.

G: euskera ta gazteleraz hitzetea, pixkat sartuta, adibidez irakurtzeari buruz ez, irakurtzeko ohitura baduzue euskeraz?

E3: nik gutxi, kostatzen zat gañea.

E4: oaiñ pixkat gehixeo. Lehen gehio kostatzen zitzaidan, batez ere erderaz pentsatzen nulako. Ohitura erderaz ikasita ta, baño ya mejoratu de pixkat. Kostatzen zait gehixeo e.

G: eta zuen kasuan?

E2: beti izandu naiz baldarra irakurtzeko eta alperra irakurtzeko ta eztakit, oso militantea naiz ta saiatzen naiz beti euskeraz eta beño, erreztasunik eztauket.

G: eta gazteleraz adibidez?

E2: eztauket haundirik ere ezta. Beño halare erderaz igual errexago.

G: errexago!

E2: nik euskeraz irakurtzen badut, askotan atzea in behar izaten dut. Nolabait irakurtzen nekatzen naiz edo esfortzu haundiago egin behar dut ta gainea ulertzeko atzea in behar det.

G: denoi pasatzen zaizue hori?

E1: neri bai. Askotan irakurri bai, baña jakin gabe, bueno burue beste nonbait dauketelako edo. Ta gero euskalkik ere nik ustet iten dula.

E2: bai hori esan behar nun, gerore asko iten du re bai, guk hitzeiten duguna eta irakurtzen deguna ezta berdiñe ta askotan atzea in behar izaten dut nik, askotan bi aldiz irakurri behar hartzeko.

G: zure kasuan igual ez dezulako identifikatzen hain errex edo.

E3: ta oaiño batua gañea teknikoa edo da beñipein. Ta bateze egunkaritan ez, ia aurreneko zea botatzen dun hori...

G: bai titularra.

E3: bai titular hori ta honek ezti zeintzuk edo...nere burun pentsatzen dut askotan, hau gaizki dao. Aurreneko pentsamentua hoi izaten da, seguro ongi daula baño nei ezti deus esaten horrek. Gero irakurtzen hasten zea ta aaa hortaz ai die ta! Ba ohiturik ez edo, erderaz askoz erreztasun gehiago.

G: errexago. Normalean eztaikit prentsa irakurtzeko ohitura dezuen edo ez baño...

Denak: bai.

G: eta euskeraz edo...?

E2: nik bita, biño saiatzen naizelako e. Klaro gehienare egie esan, badaukagu aukera euskeraz irakurtzeko baño, nik erderaz gehio irakurtzen det prensa.

E1: artikulua motxak baldin baditu nik bai.

E2: bai ni beti irakurtzen dittut euskeraz luzek e, baño gehio erderaz.

G: eta liburuak eta hola?

E4: bitatik pixkoat, bueno astie dauketenen. Oaiñ ez asko ta. Baño uda aldean irakurtzen det gehienbat, lasaiago nautelako, baño bai. Baño gehio erderaldea e baita ere. Nabaritu detena da, eskolatik zea ekartzen duenen, oaiñ gehio euskera irakurtzetela, lehen eitten nun automatiko erdera.

G: oseake badu erlazioa umeak...?

E4: bai, nik ustet baietz. Bai zeatik gero zenbait hitz e...matematika imposible, Jesus!

G: klaro, gañea zuek ikasi bazue gazteleraz e!

E4: hitz batzuk, matematikatan behintzet!

G: eta ikusteari buruz, esan nahi dut telebista, filmeak, horrelako gauzak euskeraz ikusten ditzuzue?

E2: nik bai, denetatik. Erderaz e bai baño euskeraz ikusire bai. Hortako adibidez Euskal Telebistan da erreztasune badao.

E3: bai baño programazioa...

E4: guk daukagu ETB1 eta 2.

E1: guk hemen e bai, Leitzane bai, 3. ezta ikusten.

E4: batzutan ezta ondo ikusten, nola eztaukagun TDT.

G: zuek zeate populazioan %1 hori eztaukana.

E3: bai ni goatzen naiz ume ttikitan, gure umek dittu 3 urte 3urte terdi eta ba marrazki bizidunak erdaraz ikusteittu, ta ya erdaraz esaten duen hori berak erdaraz errepikatzen du eta euskaraz...klaro beti telebistan, eztau beste aukeraik.

G: komentatu zuten ETB3ra pasa zutela, baño hemen nola eztan hartzen ez.

E3: gu hortaz ohartu gea oaiñ, ba botatzeitula ba hizketan ai danen, lau hitz baño haik erderaz botatzeitula.

E2: ETB1 en eztau ia ia, igual goizen ratotxo bat, baño besteik eztau. Gaur egun baño.

E4: besteik eztau.

E2: gaur egun jartzen deu baño, bestela ezteu jartzen.

G: eta gazteleraz bai, esan nahi det, telebista ikusten dezue?

E2: ikusi eztaikit baño martxan egoten da behintzat.

G: hori de fondo ezta.

E2: ta ikusire bai, baño bueno, gure umek beiñipeiñ txoratuta daude Clan eta gauza hoiekin sei urtekoa, ta Clan ta saiatzen naiz ni sartzen naizen guztitan...

G: Bob esponja ez.

E2: badago aukera ingeles jartzeko ta saiatzen naiz ingelesez jartzea. Bueno erderaz, eztue oraindik ikasi sei urtekin baño, osea pentsatzen dut ikasiko duela. Ya hitzek eta hasi die pixkat erderaz, eta nik ingelesez jartzen diet. Pixkat belarrie itteko.

G: hitzegitten dezue beste hizkuntzaren bat, euskera eta gaztelera gain?

Denak: ez.

G: eta zuen etxeetan seme alabek edo, ohitura badute filmeak edo jartzeko ingelesez eta hola edo?

E4: ez oaindio ez!

G: batzutan egoten da.

E4: ez, ezta hasi oaindio.

E3: nik koñadoa daukat inglesa baño, berak euskal indioak bezal hitzegiten do ta nik inglesa indioak baño okerrago.

G: bueno behintzat hola euskeraz ingo dezue ez?

E3: euskeraz gaizki daki, erdaraz bate ez, eta ingeleseze azten.

BARREAK

G: idazteari dagokionez badezue ohitura idazteko euskeraz edo gaztelera edo?

E1: nik bai, baño gutxi idazten det, eguneroko agenda eta holako gauza batzuk eta, hori saiatzen naiz euskeraz idazten.

E3: nik gehiena somatzen detena hori da, idaztea kostatzen zaitela, irakurtzea pixka bat e bai, baño idaztea pillo bat. Ortografie ta hori pufff! Irakurrire hortako saiatzen naiz, ba irakurrite ikasteko.

G: osea esfortzu bat egiten dezu?

E3: bai nik bai, pixkat agenda ta hori, behintzat eguneroko apuntek eta euskeraz.

E1: nik euskeraz egiten det baño pixkat autodidakta.

E3: bai nire bai!

E1: seguro kriston akats pilla eukitzen dittutela baño bueno nola iñork dun irakurtzen, neretzako dan ez.

E2: ni saiatzen naiz dena euskeraz idazten, beno nere notak denak ez, baño gero ni autonomia naiz eta egiten dittuten fakturak eta dena euskeraz. Ta saiatzen naiz gero, Aloña andrei esaten diot eta harrek errepasatzen dittu, baño dena euskeraz iten det nik. Ta kostatzen zait e.

G: ta gazteleraz errexago ingo zenuke seguru?

E2: kostatzen zait baita ere e, eztaukat iñungo erreztasunik hortako. Baño bai gehio. Errexago.

E1: neri gertatu zait hori, aztu zaitela erdaraz idaztea...

E2: bai neire bai!

E1: ya ez v-k eta h-k eta...

E2: nirire, lehen g ta, len hoixe bakarri somatzen nun ongi, g ta j ta, oaiñ eztitut asmatzen hoik!

E3: Guri kriston kaña sartzen ziguen eskolan eta!

E1: bai nerire bai beño galdu itten dok, oaiñ dena b-kin da. Ta zalantza sartzen zak!

E3: ba nere neskak alderantzi, emateizki erderazkoak neri zuzentzeko, "haber zuzentzazkiak" eta ekarri ta, joe, esaten diot, zuk nun ikasi ziñun. Klaro berak euskeraz ikasi zun ta ordun bakoitzak bere...

G: ta zure kasuan?

E4: bai ni saiatzen naiz baita euneroko zean bai...

G: euskeraz idazten?

E4: bai, bai eta gero bistakin, umekin da asko geatzen zaizu. Aunque alabak "ama hori h-kin da!". Hola idatzi kartak eta ba, lehen idazten nittun euskeraz, baño oaiñ erderaz lenago pasatzen zaiola ta erderaz egiten diot. Baño bai, bestela bizitza eunerokoan.

G: lanean eta horrela, zuen lanak eskatzen dizue idaztea?

E4: bai.

G: zuk komentatu duzu?

E2: bai, baño gutxi.

G: eta eskatzen dizuen gutxi hori, euskeraz edo gazteleraz?

E4: bueno da partek itea gehienbat nerea, gaztak eiteitut eta partek eitea.

E2: hortan ezto iñor eskatzen euskeraz ez, sobera gutxi. Zuk izan behar duzu pixkat hor sartzen duzuna. Nik eaman nion batei aurre kontu bat eta presentatu behartzun Nafarroako gobernun eta berare pixkat nere antzekoa da eta nion euskeraz, eta esan nion "sentitzeiat esatea baño nahi baldin badek erderaze jarrikoiat e, subentzioa errexago lortzeko". Baña esan nahi dut, behartu in behar da.

E3: Hombre egie esan administrazion da, nik somatu, nik, neska batek launtzen dit eta itten dizikit sekretariko lanak eta berak euskeraz ikasi du beño esateit "joe oso txarra naiz idazten" ta nik "nola ba beti euskeraz idatzi zu ta!" ta ordun klaro, ni asto ustel hutse naiz, ta berare bai, ta ordun erderaz itten dittu. Komodidadez, esaten diot "joe zu euskeraz in behar ditteu" eta berak esateit "joe nei kostatzen zait", ta nik esaten det "jo ba ni zure esperantzan nebillen, zuk ikasi dezulako

euskeraz ta", erderaz eitten dittu egie esan gehien gehienak bai, batzuk saiatzen gea euskeraz hola errexak eta, segun norentzat re bai.

G: zertan lan egiten dezue, ze hasieran?

E3: ni iturgiña naiz.

E4: nik gazta iteet.

E2: ni autonomo forestala.

E1: ni udaletxeko langillea.

G: eske hasieran pentsatzen nun galdetzea, baño gero aztu zait, ta oaiñ pues. Eta zerbait somatzen dezue faltan euskeraz? Ba eztakit aldizkariak edo, ba eztakit, telebista, liburuak?

E4: bateze telebista.

E3: nike bai, gehiena telebista, oaiñ beñipeiñ, umengatik gehienbat eta gero ere illuntzetan ezpaitao ezer.

G: telebistako eskeintza esan nahi duzue. Esan nahi det eskeintza bariatuago den zerbait edo?

E2: irratie ia ia bakarra dau ez, gero lokalak ere badaude baño, bat dau eta beti aspertu egiten du beti berdiñak ez.

G: hemen entzuten dia Euskadi Irratia, Euskadi Gaztea..., hoiek danak bai ez?

E2: nik gehiena uste det Euskadi Irratia aitzen dela.

E1: entzun bai baño nik uste zea, Ave Maria edo zein da beste hoy? Radio Maria ta hoik, Aralarko zuloik haundiñetane entzungo litzeke hoi!

E4: egitan?

E1: igual kotxez, eman ta, Iruñeko biden ta eman ta...

E2: egie da Iruñeko biden normalen galtzen da Euskadi Irratia.

G: bai, autobian behintzat, normalean etortzen naiz Donosti aldetik ba Euskadi Gaztea, Euskadi Irratia edo hotakoren batekin eta ya...

E3: osea nahi izanagatike eztiutela uzten.

E2: Ta gañea bat da ta beti, bueno igual momentu baten eztaula zure gustokoa, edo igual ...

E1: bai nik albistek bai euskeraz aitzen dittudala.

E2: nike bai.

G: orduan esango zenukete, telebista batetik faltan botatzen denari buruz, telebista eta irratia ere? Komentatzen dezue igual eskeintza igual zabalagoa edo?

E1: ta gero telediararioak ere azken bolada hontan Euskal Telebistan ere, eztakit ematen do Espaiñiko telebista edo eztakit. Baño asko aldatu da. Leno notizi urbillekoak edo ez? Oaiñ dena parlamentukoa, Espaiñiko eztakit zer...

G: hombre eguraldin mapa ere aldatu da eta...Eta hemen eztaukazue telebista lokalen bat edo zerbait?

E2: irrati lokala.

E4: ai da gazte bat hor internetetik ai da.

G: Baña eztago, ba leku batzutan egonten da ez

E3: Ttipi-Ttapa ta hori dago Don Eztebe inguruan.

G: eta hori ya uste de kendu zutela gañera, aurrekoan komentatzen zuten hori.

E4: irratia bai Aralar irratia dago. Baño eoten da, 12:30tan hasten da ez, 12:30tatik 14:30 edo holako zerbait.

G: pare bat ordu egunean.

E2: gero herri txiki die ta zaille da re bai emisora bat ordaintzea ez.

G: eta ze izaten dia, herriko berriak eta holakok?

Denak batera: bai ingurukoak eta.

E2: da jende konkreto batentzat.

E4: bai beti berdiña. Ta gero haber zeñekin paseatu don edo pelukeria jun dan o zer dauken bazkaltzeko... Edo zoriontzeko edo...

E1: Leitzen adibidez alkateak edo idazten do hamabostetik behin, edo zinegotzin bat edo bueno ordun.

E2: geo hor lotzen die beste irrati batzuekin.

E4: Sakana aldekoekin.

G: eta aldizkari...?

E4: bai badago, Bai Ote.

E1: ta Leitzen Ttipi-Ttapa sartzen da zonaldean.

E3: gero Hitzare dau.

E1: a bai Hitzare bai, Hitza da Tolosaldekoa eta hartzen du pixka bat.

E3: baño ya oaiñ notizi gero ta gutxigo ekartzen dittu ya Leitzatik. Leno, Leitzeko, nik uste, bertako neskak batek ittentzula, bueno Jaione hasi zen garaian eta ordun ba bueno beti inguruko zerbaitte sartzen zun, eta oaiñ ya Tolosaldekoak gehio sartzen dittue ta .

E1: bueno baño hori gehio aldizkari ingurukoak edo badiela.

E2: bai ta gañea hoiek Mailope behinipeiñ

E4: bai, Mailope ongi dago.

E2: jende askok irakurtzen du. Nahiz ta jendeak, euskeraz eztakiena, edo irakurtzen gu baño gutxigo dakiña. Esaten duna, enteratzen dala, Mailopen azaltzen bada zerbait.

E4: bai, bai.

E3: baño gero Diario de Noticias ta hoike, ze aukeran daukean e, Leitzeko igual notizik botatzekoan euskeraz bota besterik ez, ez. Eta dena erdaraz botatzeue. Tirada haundi hoiek aukera daukeanakin, ezpadue aprobetxatzen ba.

G: len komentatu dezue, denak ama hizkuntza dezue euskera? Txikitatik ikasi dezue etxean, gurasoekin...eskolan ez?

Denak: ez!

G: oseake oaiñ tokatzen da faltazen. Ez pixkat galdetu nahi nizuen hori ba alfabetatuak etzareten heñean edo, ikusten dezue gabeziarik sentitzen dezue euskarekiko?

E3: nik bai idazteko.

E2: neri idaztea kostatzen zait eta da alfabetatu ez gealako edo.

E1: edo honek esan duna bi edo hiru aldiz irakurri behar testu bera, bueno zentzu bat hartzeko ez. Bueno gutxi gora bera bakizu zertaz doan ez, gutxi gora ez bakizu zertan doan, ya hitz tekniko hoik ez.

E2: gabezi haundiña, igual email bat edo bialdu behar dut eta osea eztiot ematen, bidali eztiot ematen iñork aurretik rebisatu gabe. Ordun eztauket, intimidade, intimidade edo errextasunik, idatzi eta bidai.

G: autonomia hori ez? Euskea erabiltzeko...

E2: ni bi urtez ibilli nintzen, hemen oaiñ gauden gela hontan, alfabetatzen. Bai ni Aek-an ibili nintzen bi urtez. Eta asko meioratu nun, baño eztauket iñungo...Bueno erdera ere txarra nintzen e! Bai FP laugarren saiatu nintzen eta utzi in behar izan nun horregatik, lengua eta inglesangatik.

G: hizkuntzak etzaizkizu...eztira zure fuertea orduan!

E2: ez, eztaukat iñungo errextasunik literatura edo holako gauzak irakurtzeko, nahiz eta gustatu, historia gustatzen zait eta geografia gustatzen zait biño...osea umetane sistema oso txarra zen, gogoratzen naiz, eztaikit nola ikasi nun edo ez nun ondo ikasi, eztaukat errextasunik nik irakurtzeko. Ni beti irakurri hau, eta nik beti azkena, han edo hemen irakurri beharra baldin bazeon, ni beti seguro azkena irakurriko nula.

E1: ni ez naukelako ezautzen!

E2: alfabetatzen oso gustoa ibili nintzen eta asko meioratu nun baño ez nun ikasi...

E1: nire behin joan nintzen alfabetatzea, negu baten aittu nintzen eta nik uste leno baño okerrago geldittu nintzela.

G: ta hori?

E1: sekula baño duda gehio sortu. Bai egie e! igual gure aditzek gure modun esan da, emango didazu, eztaikit, emango al diek o ematen al diek, guk moztu itteittu eta joe, gero ya aditz hoiekin da...sekulan baño okerro geldittu nintzen.

E2: ba ni juxtu kontrakoa.

G: eta zuri baliogarria egin zitzaizun irakurtzeko eta?

E2: bai bai, asko, asko.

G: eta zuri ez?

E1: nik oain dela 25 urteko kontutaz ari naiz eta ordun nahiko, eztaikit oaiñ ya ohitugo gaude o ez. Telebistan ere, nik indion bat euskaraz o beltza bat eukaraz, nik kriston barreak egitten nittun hasiera baten, oaiñ ya ohitu gea ez. Baño hasiera hartan. Ta baitare euskera, nik irakurtzen, nik ez nun pentsatuko sekulane aiatuko giñene hontara ez.

E2: nik uste det e bai, asko ikasi dugula, bueno, nik behiñipeiñ, Barrankara joaten banaiz euskera oso diferente hitzegin ez. Saiatzen gara euskera ez batuera baño, euskera internacionalxegoa eitten ez, holako, ya ohitugo gaude ba euskalki...

E1: geureganatu egin dittugu hitz asko e!

E2: ba, bai. Ni hemen naun konbersazioa, eee launen arten, eo batzarre baten aldiz diferente ittenun. Baño geo saiitzen gea beste euskera bat hitzegitten...

G: ala ere nahiz eta gaur egun ohitura gehiago egon littekeen irakurtzeko edo eztaikit edo esan dezuna ez, ba hitzeiteko eta geureganatu dittugun hitzak eta hori dana, jarraitzen dezue pentsatzen edo pentsatzezue alfabetatzea beharrezkoa dela, edo eztaikit hobeto irakurri ahal izateko?

E3: hombre mesedegarri seguro dela. Nik adibidez ortografin ta hori somatuko nuke, seguro somatuko nukela. Nik sekula eztet eman, ordun hoi ya gabezi bat da ez.

E1: bai nik zerutik etorriko balitz seguro, baño berriz hor estudiatzen hasteko ta...ba ez!

G: zure kasuan?

E4: nik momentu hontan eztet planteatzen desde luego!

G: baño beharrezkoa ikustezu? Esan nahi det onurak ekarriko lizkizuke?

E4: nik hori bai, esan dana, idaztetenen seguridade falta hori bai somatzen dut, hori asko meioratu dutenik baño. Nekasa e, irakurtzen eta ya gelditzen zaizu hitze, ta hola. Bañonere kasuan behintzet.

E1: hasi beharko duzu umekin.

E4: bai hori da, asko ikasten da umekin. Bai 14 urte dauzke nere zarrenak eta asko nabaritzen det e. Hasi zenetik, hura hasi zenetik oingoa asko bai. Zeatik berakin irakurri eta eztaikit zer eta...bakit zer eta...

G: eta behar hori sumatu dezue?

E1: nik egie esan ez!

BARREAK

E1: umek ez dittutelako ingurun edo...eztauket idazteko beharrik.

E2: Nik beharra bai.

G: zuk bai?

E2: ni oaiñ aztuko nuke erdera dakiten pixke idazten, euskeraz meioratzeko, bai, bai, nik beharra.

E1: nike kanbio ingo nuke ahal balitz, baño asunto da ikasi in behar dela ta..

E4: errextasuna eukitzea bai, bai.

E2: etorri nintzen gela honta bi urtez eta eztaikit zenbat, fallatu nun zazpi aldiz? Beti etortzen nintzen, kriston esfortzua e, egualdi honekin, atsaldeko 6etan etortzen nintzen beti. Eta ba konplejo pixkat badauketa eztaikitela idazten.

E4: errestasun hori eukitzea desde luego bai.

E2: seguridade hori! Seguridadea ez naiz ni, nik ez nuke jarriko kartel bat, " bihar atsaldeko seietan honea etorri denak ba...", eztaukat segurantzarik ongi egingo dudana

G: ya norbait beharko zenukela, norbaitek ikustea...

E2: bai eta hori eztut ongi eamaten.

E1: bai baño oaiñ ni konturatzen naiz, askotan e, naiz profesionalak irratin edo telebistan, edo maixuk edo guk baño okerrago hitzegitten dute euskeraz, askok! Atzizkik eta hoik denak! Eta beti lau aditzak erabiltzen dittuzte.

E2: ba zuek Leitza alden eta...

E1: joango naiz, joanen naiz leno. Joanen naiz ez, eta orain joango naiz, neretzako ta ya denak, borobildu dittugu denak eta denak zaku berean.

E3: eta asko itten da re bai traduzittu. Somatzen da zein dan euskaldun euskaldune edo zeñek erdaldun izan eta euskera ikasi dun.

E2: eta onartzen die gauza batzuk...gauz raro batzuk onartzen die e.

E3: bai, bai.

E2: eguraldi gizonak esaten du, lañoak etorri dira eta hodaiek die, ta hoi kriston akatsa da. Ta igual ...

E1: ta ba bai, bera ere, bai ba esaten zen Leitzan ez beti. Ba bai oaiñ irrati, telebistan eta...eta etxen esaten zen bai ba, alderantziz, pues si edo traduzio bat.

G: banaka hitzein zeatik gero...

E1: ba bai horrek kriston miña egiten zian leno ta oaiñ irrati, telebista...Anek esan duna, izan liteke kriston entendidoa botatzen dula ba bai, ostra ta nei beti iñ izan dit...alderantziz aittu dugulako beti ez, bai ba esaten zen. Baño ta hola pilla bat e. Ta Euskadi Irratin ere, oso ederki, oso ederki, eta oso ederki zer da? Edo oso ongi edo ederki. Eta oso ederki, aiba, erderakadak die ez. Hori erderakada bat da.

G: zuek ere berez igual, hori berezkoak dituzuen gauza asko eta ikasi dutenak agian...

E1: eta igual ongi esanda dau e! len etzen holakorik esaten!

E2: ez, ez batzuk...zenbait gauz hiztegiko...

E1: Baño oaiñ zaparrada, zaparrada eun guztin, euri jasa bat eztue sekula esaten. Kriston euri jasak len egiten zittun, oaiñ denak zaparradak die.

E2: eguraldi gizon, Euskal Telebistako kate publiko bateko eguraldi gizonak ez desberdiñtzea hodei eta laño...eta ez zaintzea hoi grabea iruitzen zait hoi.

E1: erderakada pillo bat sartzen dittuzte.

E2: eta gauza askotan ordena.

.....

G: eta alfabetatu ez izanaren arrazoia ulertzen det, esan duzunagatik batez ere lana, denbora falta edo hortan sartzeko gogo falta edo zein, zein da?

E4: Nik behintzet denbora falta.

E1: nik ustet gaur egun baietz baño leno nik ustet komodokatik e bai e! guk erderaz ikasi giñun, ba bai gure garaietan, guri intziguen gañera euskeratik gurasoak atera erderara pasatzeko, osea gu hasi giñen...baño klaro oaindikan etzeuden gorago ikasketak euskaldunek eta eztakit zer eta...eta nik egia esan hori, E.G.B. bukatuta komodidadez segittu nun erderaz, zeatik nere anaiek eta jende gehio saiatsu zien euskerara sartzen, hor batzuk etzuen bukatu, etzuen segi, beste batzuk bai. Baño nere arreba zaharrenak adibidez, euskerara pasa zen eta dena egin du euskeraz. Ta klaro euskera teknikarie da gaur. Bueno nik ustet gehio sentitzen zulako edo...ni ba 14 urtekin ba, zaude bueno pusss! Erdera ba bueno errexagoa ez! Zuk esatezuna matematikana, nik entzuten nion nere arrebai ta nik esaten nun bua! Ni horrea aiau eta berriro hutsetik hastea? Ni alperkeriz. Eta gaur egune denbora falta pixkate baita egie esan.

E3: prioridadek eo ordutegik eo ezta hain errexu.

E4: egun guztie pasatzen deu gora ta bera, goizetik gora ta bera...umek eztakit zer daukela...ta lana bukatzen dut, segun zortziterdik gaueko beatziak ta...

G: denbora gutxi edozertarako ta ya hoi planteatzeko...

E4: bai, bai.

G: bale galdetu behar nizuen ez alfabetatu izanagatik kalteren bat atzeman duzuen, bueno aipatu dittuzue batzuk baietz adibidez.

E2: bai nik bai, nik irakurtze hori...oaiñ irakurtzen det eta leno baño dexentez hobeki baño hala ere kostatzen zait erdera baño dexente gehio. Erderaz oaindiken askoz errexago irakurtzen det.

E1: gaur egun edozein lanpostutako re ba beharrezkoa da ez, nahiz, bueno idatzie ezpadue eskatzenen, gutxienez ongi mintzatzea ez.

G: uste duzue hori adibidez galera bat izan dala?

E1: bai, bere neurrin bai, baño bueno, ezta ez naiz opositore on hoitakoare izan e! ez pentsa! Bai bere neurri baten baño bueno, ya nik uste dut hortatik pasa giñala ya aspaldi.

E4: nere kasun behintzet ez. Honutza etorri eta gazta eitten hasi nintzen hasi que...

G: ba ikasturteko...ikasturte hasierako kanpañen inguruan ere jaso nahi genun pixka bat informazioa eta bueno, batez ere kanpañak ezagutzen dian, eraginkorrak dian, horren inguruan bai. Eztakit bazuen kanpañaren bat etortzen zaizuen orain burura edo ezagutzen duzuen urte hasieran egitten dian, ikasturte hasieran egitten diran kanpaña hoiek? Ezagutzeittuzue?

E1: eztakit,.....euskaratik edo holako zerbait bazen ez?

E3: nik ustez irratiz zeoze aitzen badut edo hola, baño nik gauza haundik ez egie esan!

G: eztaukazue buruan ezer?

E2: bai fijatzen naiz beti, hor ibili nintzen Aek-an eta fijatzen nahiz beti. Gañea beti egondu da pikea, Aek, Ika, Habe...bai!

E1: Juan Baldez edo bazen...

E2: Euskal Irratian Habek egin zun aurtan ez? Ze fijatzen naiz ibilli nintzelako ta...

G: iristen zaizue mezuren bat etxera edo eztakit jasotzen dezue informazioa horren inguruan?

E1: bai paperan bat aiatzen du bai.

E4: bai euskera, hoi udan hartzeko euskera ikasteko, bueno norbait hartzeko...

E1: Ika-tik e bialtzen due. Ta gero Ttipi-Ttapan e...

E4: ta gero euskera horri hori bat etortzen da.

E2: hori Ika-tik. Eta Aek-atik etortzen da re bai, oaiñ en naiz gogoratzen urtero etortzen da baño.

E1: aldiero betetzen dugu guk lehiaketarako baño behiñe ezteu bialtzen.

E4: baño behintzet betetzeu ta ezta gutxi!

E1: akats gehiegi.

G: orduan ulertu dudanagatikan jasotzen dezue informazioa batez ere hori ba, horri...

E1: posta bidez.

G: posta bidez edo Ttipi-Ttapan edo beste... irratin ere esan dezue ez?

E2: bai irratiz entzuten dugu.

G: argi azaltzen dira mezuak? Argi daukazue zer dan eskeintzen dana? Nork eskeintzen dun? Edo

E1: normalen bai!

G: bale.

E3: gehienetan pentsatzen dut, ba hoi ezta neretzat!

G: eztezue sentitzen zuentzako eskeintza bat bezala?

E3: ez, ez. Nik hoi ikusten det dena oso ongi, bale! Len bezin lasai gelditzen naiz, ez pentsa!

G: baño ze eskeintza bera etzaizulako erakargarrie eitten?

E3: ez e, ba bueno alfabetatzea, eztakit zer, bi ordu astean, eztakit zer... nahiago de batzara joan bi ordu asten edo... eztakit umeakin paseora edo...

G: etzaittu motibatzen, baño ez mezua ikusten dezulako ezin dala zuretzako modukoa izan?

E3: ez, ez ,ez! Bete gauza batzuk dauzkeulako lehentasun modun, edo eztakit.

E2: ba nei barrena ikutzen dit e!

G: ze jasotzen dituzun...

E2: bai, bai, gañea zure lagun...

G: Elik.

E2: Elik bai, erakutsi zin eta

G: bai erakutsiko zizuen zuei.

E2: bai hori eta beste bate gogoan neuken, ta ni pixkat pikatu nintzen eta hor bazegoen, hasten ziñen, irakurtzen zenittuen bi testo, bat euskeraz eta bestea erderaz, ta irakurtzen hasten ziñen euskeraz eta pasatzen ziñen, ba tipikoa zen ez...Nei behiñipeiñ bai, ta pentsatzen dut holakoren batengatik hasi nintzela Aek-an.

G: zuk ikusi zenun kartela eta horrek bultzatuta animatu ziñan?

E2: bai pixkat bai. Eta gañea akordatzan naiz nun, tabernan hasi irakurtzen eta erori nintzen tranpan.

G: osea ke zure kasuan eraginkorra izantzan?

E2: bai, bai. Ta eztakit justu horregatik apuntatu nintzen baño bai bai..

E1: pentsarazi zizun.

E2: bueno ibilliko nun bueltan ez! Gero 18 urtekiñe Iruña jun nintzen euskaltegi batea eta ezin taldeik atea, bueno han, denboa baneuken ordun da han apuntat nintzen eta etzegoan, bueno enintzen gehiegi saiatu baño, bueno izena emanun eta etzun kasuk ein eta...Baño gero ein nun oaiñ dela boste sei urte.

G: zuek ustezue zuen kasuan eraginkorrak diala mezu hoiek, edo iristen zaizkizue edo...esan dezue...

E1: iritsi bai ta denboakin...

G: iritsi esan nahi det...

E1: bai ukitu! Ukitu esan nahi dezu!

G: bai!

E1: ukitu bai baño hoi esateuna, bizi gea hain azkar eta hain azkar dioa dena, nik behintzat denboa faltangaitan, bestela gusto ingo nuke irakurtzeko. Ta gehienbat idaztekore bai. Ika-ko rebista hortan haste haiz ta azkenen pentsatugabe idazten badek, aurrenekoan baño pixka bat bueltaka hasten ba haiz, baño zein du hemen ona? Denak igualak iruitzen zaizkiak.

G: autoeskolako azterketa bezala?

E1: bai, bai! Baño pentsagabe egiten baduzu igual zuzenen joaten zea baño, eta gero baita ere alderantziz ez, aukeratu zurea ta, haiba ta!

G: eta kanpaiña hoiek, eztaikit zuengan agian, bueno zure kasuan bai ez, eragiña euki zun, zuengan agian ez hainbeste, zuen ingurunean ustezue, ezagutzen duzue jendea, zuen inguruan holako zerbaiz jaso ondoren animatu dana...zerbaitera edo?

E4: nik ez!

E3: ez, nere burun zaille da, orduan...

G: azkenean da ikusteko ere, agian zuen kasuan ez, baño eraginkorrak dian edo ez?

E1: nik koñata bat badauket zaragozarra dena eta bueno, hemengo mutillekin hasi zenen eta hona bizitzea etorri zanen, euskaltegin segittuan apuntatu zan eta... eztaikit pixkoat ya que ta hemen bizi behar naizen, saiatu ingo naiz, pixkat ikasten...oaiñ ya ume bat dauke ta hola baño.

G: oaiñ ikasiko du orduan ez?

E1: igual umek eakutsiko dio baño, eztaikit. Hutsetik hastea nik uste oso zaille izan behar dula e! baño esfuertzo asko eskatzen dula ez!

E3: nik usteet motibaziogatik dela e! nik ustet hemen asko aipatzen duguna nik ustet motibazio fuente bat ez, esan detena leno nere launek sekula etzunak hitzein, oaiñ hitzeitten do oseake. Ulertu beti ittentzun baño harreke ba esatentzun, "ulertzekin balio dit, bueno ba tira ez" baño oaiñ klaro umekin behartu due, beharrezkoa dauke hitzeitte ta ordun. Baitare apuntatu zen e euskaltegi batea egie esan aspaldi.

E1: nik kriston meritue hartzeiot.

E3: hombre eske ezta gure kasue, nei behintzat gertatzen zatena, hitzein bai etxen ta, idatzi gabe ta, nola idatzi beharrare eztaukeun haundirik, eta horrekin balio diun bizitzeko ta segitzeko, ba horta seitzen deula ez. Ta gero igual ya esatezu ba, umegatik eo beste behar batzuk sentitzen badittuzu ba igual ba, ostra ikustezula zure burue...

E4: mugatuago edo, eta orduan animatzen zea.

E3: orduan igual ittezu, joe igual euskaldundu beharko nuke eo ikasi beharko nuek pixkat gehio o...motibazio extra bat ez. Eztaikit, nik motibazio falta gehiena esateizut ez, gusto ingo nuke baño denboagatik behintzat, ba hori denboa gutxi dauzketenez nahigo dut beste gauza batzuk in ez. Nire kasua.

G: ezagutzen duzue eskeintzak zenbat ordu eskatzen dittun, esan nahi det, badakizue euskaltegira jun nahiko banu, dira astean lau ordu bi egunetan edo...hori badakizue?

Denak: bai!

G: aterako dizikizuet kartel batzuk, zuk ya ezagutzen dittuzu, orduan...

E2: lengon faltan bota nun bat, eta esan nion.

G: a bai! Eztaikit ezagunak egitten zaizkizuen, ezagutzen baldin badittuzue zeintzuk...?

E1: ezta bate!

G: baterez! Zuen kasuan?

E3: nik usteet hau ikusi nula baño bestek.

G: ez?kartel bezela nahiz eta zuek ez ezagutu...

E1: nik hau bai, baño nik uste Laboraleko propagandan ez? Nik uste dut ez? Eta haure?

G: eztakit Laboralekoa, baño bai koloreak nahiko, Laboralekon kolore berdiña dutela, eta etzea lenengoa esaten duna e! hoi hemen behian dago, oaintxe ikusi det.

E4: oaiñ ikusi detelako e, sarreran.

G: nahiz eta ez ezagutu, iruitzen zaizue kartelak berak erakargarriak diala? Ez bazaittuzte zuek erakarri agian ez hainbeste ezta? Ze iruitzen zaizkizue kartela bezela?

E1: xoxo xamarrek ez!

E2: nei hau oso ona! Ta beste bat ere, hau oso ona! Ta beste bat ere oso onak zien!

E4: bai hori, zera gehio ematen do, o koloregatik o eztakit zergatik baña...

E2: bai ta geo sistematika eta hor eta... hau eta bestea ere bai!

G: zuk esatentzenun hori zu tranpan erori ziñen hori?

E2: bai, bai, bai, hue oso ona zan ta haure bai! Hori ezta ikusten, hau ikusi eta esatezu puff!

E4: ematen du sala de espera baten...ixilik egoteko edo.

G: agian eztezu ondo identifikatzen benetan euskaltegi baterako eskeintza danik edo holako zerbait ez?

Denak: bai.

G: eta bestearen kasuan? Arreta deitzen du, nahiz eta ez jakin zeren inguruan dan?

E1: bai, arreta bai deitzen du egie esan, marrazkit eta...

E2: tentazioa ematen do!

E3: ba eztakit zuena zen e, Jon Baldes hori, nei atentzioa deitzen zian. Eztakit zuen zen?

G: ni ez naiz euskera teknikaria e!

E3: ba zen tipo bat, Ekuador-koa edo eztakit nungo hola azaltzen zan asto baten gañen eta bueno kafe pote baten logoa eta gañea, kasualidadea joan nintzala Puente la Reinara, Gares-ea eta han haber haber vengán vengán, erdaraz hasi zen ta haber bi hitz euskeraz eastegatik kafe potea zuretzat! Joe ta mudu guztia "e m a n g o d i d a z u k a f e p o t e b a t", eta denak han egiñ ahaletan, emango ta, emango bestek eta didazu ta didazu ta lau hitz hoiek esan eta "tori kafe potea!" eta gero zea nuen eee Venezuelatik edo etorri zela, bueno eztakit Colonbiatik edo eztakit nundi, eta klaro eta bere semea euskaltegin edo bueno eskolan sartu behartzula, ta bere pentasmentu izandu omentzen, bueno semek euskeraz ikasi behar baldin badit, nik zekatik ez? Ya que lurrealde hontan bizi behar deten eta hain ongi hartu nauten ez? Hoi zen ez, hola antzerki gisako bat zen ta bueno.

G: hori izantzan ere, ikasturte...esan nahi det eskeintza...

E3: bai, bai aurreko udan izantzen. Eta potea han dauket.

G: zuk ze esantzenun?

E3: nik ez emaztea joan zan. O semetxoa edo...ba hori zeon esan beharra "emango didazu kafe pote bat mesedez?"

G: guztiok berdiña esaten zenuten?

E3: bai, bai! Baño ijitoak eta dena esantzun azkenean! Han errexa ikusi zuen, joe nire banik!

G: euskalteen komentatu duzue, zuk komentatu duzu ez, norbaitte baduzuela ezaguna edo?

E1: arreba izan da euskalteen irakasle.

G: baño berak ematen dittu klaseak edo?

E1: bai, bai!

G: bestela, lagunak...hartzaillea dan norbait joaten dana euskera ikastera?

E1: oaiñ ez, baño lehen bai. Hiru edo lau lagun bai.

G: zure kasuan?

E3: bai nike koñata eta..

G: eta ze funtzio betetzen ditzutela uste duzue euskaltegiek zuen eskualdean edo?

E1: bueno pixkat euskalduntzea jende bat ez. Nik ezagutzen ditudenak behintzat denak joan die erdaldunek dienak, beren bikotena euskaldune delako edo Leitzen bizi dielako eta ordun ba, jokoz kanpo zeolako edo bueno, bere borondatez joan die baño euskera ikastea etzekielako behintzat, erdaldunek izan da.

E2: edo E.G.A. ateratzeagatik ere, nik ditud bi arreba, nere bi arrebak hasi zien E.G.A. ateratzeagatik.

G: eta atera zuten?

E2: bai!

E1: bai E.G.A.n gatik e bai juten da jendea.

E4: bai nik ezagutzen ditudenak e bai.

G: tituluak ateratzeagatik.

E2: ni Lekunberrin, jende asko dau ba hola ezaunek erdaldunek dienak eta umek eskola ta pixkat jakitteagatik eta oaiñ badau hemen eee gurasoantzat,

G: erakusteko umeei nola lagundu. Osea dago eskeintza berezi bat gurasoei zuzendua umeei etxeko lanetan laguntzeko?

E3: bai.

G: oseake ondo baloratzen dezue aukera hori?

E2: bai bai, hori oso ongi daula iruitzen zait nei.

G: eta beste eskeintzaren bat ezagutzen dezu? Bueno, hori gau eskolak, tituluak ateratzeko ta besta zerbait?

E1: igual alfabetatzeagatik bai, pixkat ikasteagatik, pues igual ez tituloan helburu horrekin baño.

G: ez baño esan nahi det beste eskeintza bereziren bat badago ba oaiñ esan dezun hau bezela eta ohikoak dian klaseetaz aparte ba beste, ezagutzen deuen beste eskeintzan bat?

E2: bai geo internetez e badau...

E1: bai ta gero Leitzen euskal teknikarik eta bazeuden iragarkik, eta zuk esan duzun hori, fakturak edo bezeroei zuzentzeko aukerak nahi baziñun, bazeon zerbitzu bat.

G: hori euskaltegitik edo aparte?

E1: nik uste dut aparte zela. Euskal teknikaritik eta tipo horta. Ta baita zure negozioan logoak edo euskeraz jarri nahi baziñuzten laguntzak eta bai holako gauzak badaudela.

G: ekintza interesgarriak iruitzen zaizkizue?

Denak: bai.

G: zuek erabili dittuzue horrelako...

E4: ni ez! Baño bueno uste dut

E3: ni ez egia esan!

E1: eta elebitan jartzeko bai ez.

E3: bai hori da elebitan jartzeko edo...

G: ezagutzen dittuzue zuen euskaltegi...esan nahi det, ezagutzen dittuzue normalen euskaltegiak eta hori dana bai ez? Ze eztizuek galdetu, baño igual eman det suposatutzat baietz baño...

Denak: bai, bai.

G: zerbait nabaritzen dezue faltan, euskaltegietatik eskaintzaren bat in behako litzateke iten eztana? Edo aldatu beharko zerbait? Egokitu beharko zan agian?

Denak: ez.

E1: ordutegik daudenak die ez eta, lanetik aterata edo...

E4: bai moldatzen die ze beharra daun.

E2: batzuk irekiak ez, ordutegi irekia ez, joaten die behar duenen eta...

E4: hori ez nuen ezagutzen.

E2: ihaz beñipeñ.

E1: leno mintza praktika eta taberna zuloetan eiten zittuen, gure garaietan behintzat, oaiñ eztakit baño.

E4:lengo urten eskeñi ziaten. Baño hori denborakatio ezetz esan nien.

E1: hoieztaukanantzat oso erakargarria da.

E2: eta gutxiñez badaukezu pertsona bat euskaraz eitteko.

E1: eta gañea lotxa hoi austeko ta...

E4: eta normalean euskeraz ikasten dutenen artean, inguruan erderazko giroa daukate. Ta eztaukate aukera bat praktikatzeko ta...

E2: ta pauso hori eman egin behar da.

E4: eta pauso hori emateko eskatzen zuen bai.

G: ba nere aldetik egia esan ...etxoin e , repaso bat egingo det hola...Nik uste gehiengat hitzein dugula hola, puntu guztiak ikutuitugu, eztakit zerbait esateko gogo geldittu zeaten, gehittu zerbaitt edo azpimarratu zerbaitt nahi badezue...

Denak: ez!

E1: eguraldi gizonakin nahikoa sartu gea!

G: laino ta hodeiak, gaur gauen entzuten badet, hor egongo naiz fijatzen.

E1: zaparrada ta...

G: zu zemuz sentitzen zea bitan prozesu berdina pasatu ta gero?

E2: arraroa.

G: Elik esango du ahots hori ezaguna iten zait.

E2: gustora hola taldeen. Bueno leno gustoa eon nintzen baño taldeen politte da.

E1: a leno bakarrik?

E2: bai, gauza berdiñe baño bakar bakarri.

E1: gu salserogik gaittutelako ta moztu iten diulako e...

G: desberdiña da ez? Batzutan banaka ba gauza batzuk igual atateia ba taldean ezinak atetzen eta alderantziz ez.

E1: bai arira joaten zarea.

E2: bai gañea ikusten dut denak antzeko gauzak...

E4: bai edademuntxukoak eta garai berdiñtsuak bizitakoak. Gutxi gora bera.

E2: falta da hemen igual hemezortzi urtekoren bat ez. Ta hiruroge...

G: lo que pasa que alfabetatu gabe 18 urteko normalen...

E2: klaro, klaro!

G: horrek badauka zentzu bat, esan nahi det adin batetik gorako pertsonak ere ba eztezelako aukera eduki txikitari eta ya 35-36 urte dituztenak ya...

E3: ya euskeraz ikasi due.

E1: bai baño arrigarrigok Leitzan bederen, ekuatoriar edo rumanoak edo ume ttikik euskeraz nola hitzeitte duen. Gañea eske beharko, osea eskola ezta erderaz.

E2: epañola ezta, gaztelera ezta...

E1: gero Iruñan gertatzen dana e, gero etxea junda etzeok han euskeraz aitzeik e, baño... beida.

E4: badago, gure alaban gelan bat, Stefani o, ba hori etorri zen gañea, ai zan Irurtzunen erdera, bai eta etorri zen orain dela lau urte edo gelara, eta oso ondo ikasi do ta oaiñ omen dauke zailtasune erderakin.

G: eiteko?

E4: eiteko ez, idazteko garaian, ez eiteko zoritxarrez eiten due garbi.

G: hitzeiteko arazorik ez ezta?

E4: ez. Baño ikasi zula nahiko aguro eta nahiko ongi. Hor badaude hola...

E2: bai gure umekin ere daude rumanoak.

E4: rumanoak eta...

E2: ez bulgaroak, bulgaroak eta ordun...haik euskeraz, eztakit gazteleraz zenbateko...eztakit, zenbateko abildadea daukuen.

G: ikasiko dute, ezpada oaiñ aurreaxego.

E2: gurasoak eak bulgaroz eta umekin eta nik sumatzeittut, umekin euskeraz aitzen die. Igual hoik gañea momentuz igual eztue gazteleraz ikasteko behar hoi sentittu. Igual aurreago sobran ikasiko due e.

E1: hor arazoa sortzen da etxea joaten dienen.

E2: Lekunberrin sobera ...

E3: nik ezagutzen det andre bat ekuatoriana eta bere alaba euskera joaten da ta, etxera joaten da ta nahigaben umea hasten zaio euskeraz ta esateio "ez, ez, neri euskeraz ez" "ai, ai, barkatu amatxo eske nahasi egitten naiz", klaro esaten due umek 5 urterarte edo, eztuela bereizten ze idiomatan hitzeitten duen ez, hitzeitten duela, badaki zurekin euskera egin behar duela horrekin erderaz eta atera eitten zaie, baño berezi berezi eztue itten.

E2: ze aberastasune e!

E3: baitare beste aldeare, aurten eskolara, ba 5. mailen ba euskeraz eztakin bat ez, eta joe Irurtzunen baukezu aukera, baño "ez,ez, hemen nahi dut", jo 5. maila baten euskera eztakiena sartu, eta hasi ari han.

E4: ez baño laguntzak eta izateittue e!

G: bueno halar txikiak, esan nahi det, umeak txikiak direnean ere, arrapatzeituzte gauzak ...

E1: bueno ta oaiñ ya hasten zea alfabetatze baten ta kostatzen zaizu ta ume batek hartuko luke!

E4: seittun!

G: Hombre ta hoi da gidatzen ikasten ari zeanean bezela, aurretik gidatzen baldin badakizu zure erara ba batzutan gero gauza batzuk...ba zaila da ez, pixka bat antzekoa ez.

E2: gure umek oaiñ daude, justo e, eun hotan, aste hontan, erderaz irakurtzen, bixkik sei urtekoak eta eztakit nun eman dien eta ai die irakurtzen liburue...eztue ulertzen e, baño, ta eztakit nundi eman dien ta ya aitzen die...

E4: irakurtzeko...

E2: irakurri bai, ta zer esan nahi dun ideaik ez, baño erderaz aitzen die berdiñ berdiñ.

E1: nik ustet hori galtzen ari gealare bai e, guk gutxi irakurtzen deu baño oaingoak heldu dienak gu baño askoz gutxio.

E4: obligatzen die pixkat.

G: euskeraz ala erderaz?

E3: bita bita, ya ordenadoreen zeara aittu gara ta...

E2: bai e! nik uste det nekin konparatuta oaingok askoz gehio irakurtzen dutela.

E1: nik 18-20 urtekin nik afizioa neukan irakurtzeko.

E2: bai e?

E1: liburuxkak e, ez egunkarik eta hola. Eta geroztik joe nere plazerrik haundiñetako bat, iganden gaupasa egin baño gero ordubitako liburutegia, bueno zea denda itxi baño len egunkaria erostea, gero atsalde pasa irakurtzen eotea ez. Oaiñ ya gaur egun eztakit.

E2: internetez ez.

E4: Twenti-n da.

E1: hoy esaten due! Mezukin da, hainbeste mozten duela idatzita...

E4: bai desastre bat da! Nik ikusten diot alabai idazten erderaz ta dito "Olatz hor zer jartzen duzu!"

E3: ta irakurtzen dare bai.

E4: bai kriston faltak e! nere alaba erderaz!

G: hor pasatzen dana da, mezua idazten dienean moztu iten dezu, orduan gazteleraz eta jakinda e, que jarri beharrean kartzen dute que k-kin eta holako gauzak egiten hasten da eta gero klaro jendea nahastu. Baño bueno, badago beste hizkuntza bat e, nahi det esan...

E2: Kike Amunarriz...

G: hoi esan behar nun mihiluze.

E2: esaten du horrek! Hoi ba bai problema bat dela, baño Tolosan beren edadean dena erderaz hitzeiten zela eta gutxienez, euskeraz gaizki baño euskera entzuten dala.

E1: aldatzen ai da.

G: ba garapenar ere, ba eboluzioa bat eukitzen du hizkuntzak eta...

E1: globalizazioa ere aitu zaigu guri. Ya laisterka ezta iñor ibiltzen, denak korrika.

E2: bai korrika erabiltzen da bai.

E1: ta horrek nei ya...

G: horrek min eitten dizu ala? Bai?

E1: kriston miña!

E2: neire bai, korrika.

E1: laisterka, hain hitz politte, gurea, euskeraz ibiltzen giñuna eta denak korrika. Ezta erderakada baño...

E2: da correr ez!

E1: halare aukeratu zun, zentzu gutxiña zun hitze batuan.

E4: ni oaiñ ohittu naiz laisterka, nike korrika, beti korrika, Zegaman bai.

E2: a bai e!

E4: Zegaman bai, ta oaiñ ohittu naiz laisterka.

E2: Uitzin!

E4: bai, bai.

E2: igual bihar pasa behar dena Korrika, euskeran zea ta jartzea erderakadakin...netzat e!

G: erdarakada da korrika?

E2: correr o!

E1: euskerak diela, lehen globalizazioa esan deuna ba, oaiñ nahasten dela gehio.

E3: Gipuzkoa alden ezta ibiltzen laisterka ia ia ez.

G: baño adibidez lasterketa esaten da.

E1: baño Gizpuarrei edo Bizkaitarrei edo etzoat nik kulpaik botatzen, hoi aukeratu dunak ez.

E3: batuak zer esan nahi do, denak batzea ez.

E2: baño erderakin lotura daukena aukeratzea.

E1: ez ta gero gertatzen dena da hitz berri asko ateatzen dela ezutena izenik eta orduan izena eman behartzaio, nola edo hala, igual korrikan kasue ezta.

G: bazuelako ez.

E2: nei beti pena ematen dit, izatea correr edo ...eztakit.

E1: laisterka igual politagoa da. Ta Leitzen errille bat.

G: zer?

E1: errille da, errueda edo gupill bat, erreille bat, Leitzen ta galdu da, nik eta beste lauek esaten due.

G: eukiko dezu zuk Leitzako hiztegi hori ez? Ba badago hiztegi bat Leitzako euskeraren ingurukoa edo?

E1: gure etxen seguro komedoreko mueblen hor egongo dela, autsarten e!

E4: hitz asko ai die galtzen e!

E1: ta Mikelek ateazuna? Mikelek?

G: agian bai!

E1: Mikel Olanok.

G: ba agian bai. Bai, bai hori da.

E1: ez, eztauket. Aiton amonanak bai, Perurenatarrenak bai. Gure gurasoen etxen dau, baño han dau.

E3: baño hori ezta hiztegi bat! Nik hori irakurri nun...

E2: Perurenarena ere hori galdu da, gorrie ta urdiñe ta euskerazko kolorek. Lengo zarrak erabiltzen due ba, zakur urdiñe.

E1: a bai?

E2: bai, Perurenak idatzi zun horri buruz.

E4: urtarrille bezela. Urtarrille da, eztakit nola esaten zan?

E3: hilbeltza.

E2: bai hori esaten dut nik. Baño kolore gorrie da ba, marrona, naranja, arroxak, horik denak die gorrik. Urdiñek, grisek...Ta nik hori esaten det eta bueno, "nola ba!", baño zarrak ba bai, behi bat urdiñe ta igual grise da.

E3: ta behi gorrie.

E2: ta behi gorrie da horitik hasi ta...

G: gama oso bat ez.

E2: gama oso bat. Bai ta grise da erderazko hitze, grise dau sartuta urdiñetan. Eta hori dena galdu da, baño bueno. Oaiñ irazi du, daula eskola euskeraz eta andereñoak euskeraz hitzeitten dula, hori irazi du!

E3: hori bai aldatu dela, gure garaien, gu erderaz igual giñenen, seigarrenen, A, B ta C, ta euskerazko bat zen. Ta oaiñ euskera bakarrik ematen da.

E4: nere garaien erderaz zan bakarrik. Eta oaiñ euskera dau bakarrik.

E1: zuen garaieñ ikastola izango zan.

E3: hori aparte. Ikastola zen ya pribatue, baño publikoan zeuden hiru gela erderaz eta bat euskeraz.

E1: eta material aldetike hasiera hartan nola arittuko zen? Erderakada pillo batekin eta...klaro batu horrek errextasuna eman dulako ikasteko. Ta guk bezala indioak bezala nola idazten deun, libre.

E2: asko meioratu da dana ta!

G: oso ondo. Bueno ba eskertzeizuet, zuen denbora eskeiñi izana hontarako.

E1: esanen diu etxen!

G: bueno ba eskerrikasko. Badaukagu gauzatxo bat, zuk badakizu zer dan!

EZTABAIDA TALDEA. ALFABETATU GABEAK (ET3)

Galdere (G): Bueno hasteko igual elkar aurkeztuko dugu gure burua, jakituko pixkat nondik zatozten ta hola. Ni neu hasiko naiz ez, berak esan duen bezala nere izena Xxx da 27 urte dauzkat eta urnietarra naiz, gipuzkoarra, eta egiten det lan Aztiker izena txiki batian, pixka bat gea lantaldetxo bat dedikatzen geana ikerketa desberdiñak egittea, ikerketa soziologikoak ba holako eztabaida taldeak eta abar egiten dittugu batzutan, inkesten mundune ibiltzen gea ta bueno holako kontutan bai eta.

E2: Nola esantzu izena?

G: Aztiker.

E2: Aztiker.

G: eztut uste ezagutukoizunik, batez ere gañea gispukoa maillan ibiltzen gea gehio ordun. Eta hoixe nere kasuan. Ba bueno nei izenak esan ba bueno gero igual zuetakon bati, zu bea izenez deitu zaitzaket.

E1: Xxx.

E2: ni Xxx Zubietakoa.

E3: Ni berriz Xxx *Donamarikua*

(tartean neskak bere izena esaten du baña bestea hizketan ari denez ez zaio entzuten)

Nere izena etzenuten jakinen zuek ezta?

E1: bai, nik bai.

Neri sonatzen zin izena, baño klaro

G: hasiko gea pixkat alfabetatzea aipatu degu baña hasiko gea pixkat mailla orokorrago baten hitzeiten euskeran ingurun, ta galdera potolo bat botakoizuet hasieran, zuentzako zer da euskera? O mailla pertsonalean zer da hizkuntza hau euskera?

E1: Ba nere bizimodua, euskera. Nik normalen bizie euskeraz egitten dut. Nik normalin hemen mugitzen naiz ingurun edo herrian gehienbat eta nere bizitza euskaraz da, bizitza guztia. Eta eitten dittuten gauzak, gehienak ikusteko dute gehienak, euskarakin ikusteko dute gehienak.

E4: Pues neritzate oso garrantzi haundia dauke. Leno igual ez hainbeste. Eztakit ni txikia nintzenen eta gaztea nintzenen igual erderaz gehigo, bañan gero eztakit, bai etxean umeakin, herrin eta oaiñ lan itten dut herri hotan, eske dena euskeraz eta igual beñe baño gehiago euskeraz hitzeitten du oaiñe. Bai.

G: besteek zer esango zenuten, antzeko zerbait?

E2: Nik berdin, ama hizkuntza da neretako ere eta egitten dittugun gauza guztiyek euskeraz eitten dittugula. Ni sartua nagon gauzetan, pues adibidez leno Ttipi-Ttapa komentatu dugu, Ttipi-Ttapako berri ematen, Xorroxinñen ere bai zezen, udal maillan, udalan ere UEMAN eta sartuak egondu giñen Zubietan ere, gero ateriak gara azkenian baño, han ere dena euskeraz funtzionatzen dugu. Etxian ere bai, umekin ere bai, eta ba hizkuntza orokorra, pues ama hizkuntza hori dugu ta hori erabiltzen dugu, orokorren.

E4: Eta nik han katekesia ematen ere badamazki 23 urte edo hola euskeraz e, eta gero klaro elizan ere pixkat sartu nago, dena euskeraz, bai irakurgaiak, kantuak, dena, dena, bai.

E3:Bo nik nere lagunak baño erdaraz gehio eitten dut e, lenago enun.....egitten, ne herrian eta inguruan ikusten dut gero ta gehiago egiten dela erdaraz ere.

E4: pues herrietaneske denak euskeraz e.

E1: Baña bada jendia kanpotikan etortzen dena eta gehienbat erdalduna da.

E4: baño nik.....oaindik gehigo herrietan, eske den dena da euskeraz, gaztek ere bai,igual gehigo sartzen da, gazte tarten e.

E1: Igual gazten arten igual aitzen da gehigo e, biño nik igartzen dot kanpotik etortzen den jendia, hori izaten da erdalduna edo, eta klaro hoiekin hasi behar duzu erdaraz egiten. Ta azkenin, denak erdaraz egiten dugu, denak. Igual kuadrilla bat zaude, denak euskeraz egiten dutenak, etortzen eztaikien bat eta ya aldatzen duzu denak erdarara. Eta nik leno baño gehiago egiten det erdaraz e. Normalen egiten dut gehiena euskaraz baño egiten dut gero ta gehio.

G: esango zenuke zerbaitetarako dela bereziki onuragarria euskera, bizi dezue bereziki zerbait...

E3: Nola?

G: onuragria edo?

E3: Ze zentzutan?

G: eeee

E3: Beneficioso erderaz.

G: edo eztaikit nola esan, erabilpena, edo zertarako erabiltzen dezue batez ere, bereizketarik egitten dezue euskera noiz, noiz ez, erabilpen aldetik edo?

E3: Bueno, ez, nik ustet euskerea erabiltzen dugunok, erabiltzen da pues zure hizkuntza delako eta ez harremanak gehigo edo guttiko sortu behar duzulako horren biltartuz. Osea eztaikit, eeee billatzea probetxua euskeraz egiteagatik, osea nik uste dut ezteela hori planteamentua euskera erabiltzeko momentuan. Osea zuk erabiltzen duzu euskera, zure hizkuntza delako, ta punto. Ta aiatzen zara, aiatzen zaren lekura ta punto. Eske bestela denok egiñen giñuke inglesa.

Hori nahi dute ez?

E3: Bai, bai, klaro eske, askotan aitzen da ta euskaldun tartean ere, euskera zertako in behatzu, nora goaz gu euskerakin? Gañera ezin gera iñokin paratu, ta ordun...zertarako euskera? Erantzuna horreri, ze erantzuna billatu behartzaio, zure hizkuntza baldin bada, zuk zertako jaio zara, eske badiere zenbait galdera eztirenak...klaro, zu zertako solasten duzu? Solasten duzu komunikatzeko, eta komunikatzeko erabiltzen duzun hizkuntza da pues...

E1: Tokatu zaizuna. Euskal Herrin jaio zarelako eta Euskal Herriko hizkuntza euskera delako, ta punto.

E2: Halere nik uste dut badagola harrotasun puntu hori, eutsi behar diogula ere, pues, jende gutxi egiten dun hizkuntza duk ez, eta toki ttikian dago ta, pues beti, pues xxxk esan duna, beti daude beste hizkuntzak ere hor bultzaka ta, ta Estatu Españolan aldetikan ere eztute ezer haundirikan ez, apoyo haundirikan eta ematen. Eta nik uste det, bai guk normaltasunez egitten dugu, pues gure ama hizkuntza da eta pues normaltasunez itten dugu, pues mintzatzen ger normal. Baña nik uste punttu bat ere badagola hor bueno, ez zehazki hemen igual momentu hontan, baño badagola harrotasun puntu hori de eutsi behar diogula ere.

E3: Edo eutsi edo lortu behar dena, edo beharrezko dugun...

E2: Eske askotan justu kontrakoa duk hor.

E1: Klaro euskaldunak, euskaldunan tartin, normala denez, eukaraz egiten dute, baña honek, Xxxk erran dun bezala, erdaldun bat sartzen bada, eztaikit zergatikan, bueno eztaikit zergatikan, sospetxa...zortzi euskaldun bat erdalduna eta zortziek bihurtzen dire erdaldunak. Normalena izanentzen, berak ikusten ez badu, berari erratea, aizu majo...

E3: Ya, ya...

E1: Aizu majo!, baño etzaio hori erraten. Ordun zergatik etzaio erraten?

E2: Erraten duk e!

E1: Guttitan! Eta Xxxk badu adibideak Artzen, Artze guztia euskalduna, bat etorri erdalduna bizitzera eta maiz aitzen duzu erderaz.

E2: Ba guk adibidez, Zubietan izandu dugu orain kasu bat, Xxx zara zu ez?

E1: Bai.

E2: Zuk igual e...gazte guneari buruz eta Inesekin eta hor aukeraketa bat izandu zen, eta bazen eee Madrilleko neska bat, ta da Maria, pues ta balio du haur ttikiakin da ta lan hortarako ta bali du ta gustatzen...nahi zun ta gustatzen zaio ta dena ez. Biño bueno gu gare hor, ze puntutaiño gu arittu giñen pentsatzen, haber ze puntutaiño ezten, eztugun baztertzen ez. Klaro guk kondizio bat jartzen giñun, gaztegunean sartzeko, euskeraz jattitia, degorrigorreko zatia, euskeraz jakittia. Baño klaro, ta pentsatzen duzu pixkat bestea baztertu egitten duzula ere, baño bera saiatu da, hor eztabaida batzuk izandu dire, klaro bera ere ume ttikiak baittu ta gustatzen zaio ta umekin ondo moldatzenda eta, zergatikan bere ezta euskaratzen?

E3: Nola?

E1: Maria, bera Zubietara etorri da?

E2: Bizitzera etorri da.

E3: Zubietara batekin elkartu delako edo?

E2: Ez, ez, kanpotarrak dira biek, senar ematek, gustora daude ta...

E3: Erdaldunak?

E2: Erdaldunak. Frantsesa o hola da berez, baño erderaz ongi itten do.

E4: ya bañoigual enpeñoa ikasi nahi dula euskeraz edo.

E2: Hori da, hori esan nion nik honeri.

E4: ordun igual etzaio hainbeste inporta euskeraz aitzea berer aurrean ez? Klaro molestutzen baldin badio euskeraz aitea eztulako deus ulertzen ordun erderaz eiten da. Porque nik ere kasu bat baduk Ezkurren, pues orain dela 40 urte hor bizi dira, eta horrek eztu deus ikasi nahi euskera eta molestutzen dio pillla bat bestiak aitzia euskeraz bere aurren eta, berak gañea uste du dela politika, eta nik esaten diot no, no, has venido aquí entonces es nuestro idioma...ta ordun klaro notatzen da zeñek nahi dun ikasi eta esfuerzo bat itten do eta inporta euskeraz, ondokoak euskeraz aitzen danen.

E1: Eta kasualidadea da, integratu nahi eztunak, erabiltzea hori politika dela.

E4: bai, bai, politika bezala berak euskera hartzen du.

E1: Aitzakia gixa. Klaro zuk inposatu nahi didazu niri euskera.

E4: Eta da oso laguna nirea e!

E1: Bai, bai, baña...

E4: Bañan eztu izandu ezta...eta hasten igual hizketan, igual hasten da ba martxatzen, eta "oye espera", eta "no,no, si estais todos en vuestro...si estais en el extranjero...", incluso berak Frantzian bizittu, "que siempre unas palabras en castellano si estaban ellos", baño oraiñ hemen Ezkurun, que no entienden nada y si empezamos, las canciones un poco esto... ya dicen "jo es que, empezais y no callais" baño bueno...

(Denak batera)

E2: Ez adibidez, Maria hau ai da saiatzen, hartu du lagun bat eta pues "atsaldeon" edo garu mobillera deittu dit eta "kaixo Xxx, atsaldeon", nahi do, nahi do...

E1: Hori oso desberdiña eta hori nabaritzen da. Eta nahi dunari egin behar zaiona da lagundu.

E2: Horixe esan nahi nun.

E1: Eta ari eztiozu beti euskeraz egingo, in behar duzu erderaz bañan...

E2: Hori esan nahi nien, guk ere, guk ere holakotan saiatu behar dugula ez.

E1: Bi kasu oso desberdiñak dira.

G: jarrera kontua da azkenean ez, nork daukan euskeraren aurkako diskurtsoa eta nork nahiz ez jakin ba...

E1: Adibidez zure lagun hori, Xexili, eskeñiko bazenioke hitz batzuk erakustera igual, zu lagun ona zarenez?

E4: que va, que va, bera da de unas ideas...imposible!

E1: Pasatzen dana da, euskera berez nahiko zailla dela ikasteko eta zuk gogua ezpaduzu pues...

E4: incluso etxetik plazara ere banatzen....., pues igual ez nun eramaten, pues egun baten desprezio bezala pues esan nun pues, hau kosta itten da eta eztet eamaten eta punto. Klaro, desprezio bezala esto no se que, esto no se que...pues ez, esan nion esto cuesta un dinero.

E1: Eske benetan...

E4: ez hola da e!

E1: Zu kanpotik heldu zarelako nahi duzu herri guztia kanbiatzea. Hori normala ezta! Eztakit hori normala etzait iruitzen iñun.

E2: Hori da azkenen, nere ustez errespetu falta haundi bat, zuk ikusten bazu begiakin edo buruakin, saiatu beharko duzu ahalegiñak egitten ez. Honek erran duna zu Alemaniara joaten baldin bazara eztute aldatuko...

E1: Zu kanpotik heldu zealako!

E2: Zu hasi beharko zara alemana ikasten, eztakit e!

E1: Hombre egiten ahal duzu hori, zure mentalidadea baldin bada el del invasor, osea zu heldu zara kanpotikan eta pues, hemendikan Amerikara joan ziran, Incan garai batean bezala, bai, bai, pues, nola erraten da, a evangelizarlos! Klaro haieri erakustea zer zen bizia! Ta ordun klaro ezpazea zentzu hortan etortzen, ordun klaro, errespetuz behintzat ez, hori ezin da. Holako jendek eztute iñoiz ikasten hizkuntzak!

E4: bueno eta zerbaitt ulertutare, sekulan eztiozu hitz bat aittukore, inkluso Goiko kale, goiko kalea ez, eta "¿haber que es eso?", aber Goiko kale, hori aste hontan bertan e, igual korreoa partitzen dut nik eta, "si voy a Goiko kale", "¿Qué es eso, Goiko kale?". Pues bai, bai.

G: pixka bat bueltatuz zuen eremutara edo, osea zuen bizitzetara edo, euskera eta erdera erabillerak ez, zein eremutan erabiltzen dezue euskera eta zeñetan erdera, nahi dut esan familian, lagun artean, lanean...zein hizkuntza erabiltzen dezute kasu bakoitzean edo? Familian nola egiten dezue?

E3: Nik familian, euskaraz egiten dut normalian.

E4: ni lantokin asko erderaz, leno lagun bat zen oso oso euskalduna, ordun badakizu nor den, Txema Auzmendi, ordun euskeraz euskeraz, baño oaiñ gehienak, eske hor Ramona kendu eta...bai.

E3: Baña euskeraz dakite.

E4: ya beñen...

E3: Erdaldun bakarra dago ez?

G: euskaraz jakinda ere igual gazteleraz...

E4: bai, bai.

E3: Nik erdera egie esan...

Lusekin euskeraz?

E4: Lusekin bai, baña Nabarteko horrekin, horrek erderaz. Gehienak erderaz, bai.

E1: Zure kasua nahiko berezia da klaro, nahiz euskaldun izan joera, erder...nahikoa da bat edo bi izatea erderara joteko, eta len Txema zagonikan, berak, klaro hori zelako eee, igual zen, berak bazekien nahiz zu euskaldun izan eta erderarako joera balin baziñun segin euskerakin, segi ta segi, ta ordun azkenin berak bazekien erreferentzia gisa nerekin solastu nahi baduzu badakizu zein hizkuntza erabili behar duzun. Zuk dakizulako euskeraz eta nik ere dakidalako euskeraz, ta ordun hori, denborakin iten da eta ez duzu gañera hola sartu behar presionatuta, bizia normala inda, baña klaro zuk egin behar duzu horretarako konstante izan.

E4: baña zuk esaten duzu egunon, eta denak kontestatuko dizue, "buenos dias".

E1: Bale, bale, segi, segi!

G: famili artean, ez igual leno galdetu det, familian ere, askotan batzuk aipatzen diatelako, gurasoein euskeraz, anai arrebein gazteleraz, bereizketa hoietakoak ere zuen kasuan egiten ditzuzue? Familia igual bere zentzu zabalean, batzuekin euskeraz, besteekin gazteleraz edo?

E3: Nik ez. Nik ikusten dut, nere semian artean, gehienak ezkonduak daude eta bion artin aunitz egiten dute erdaraz. Nahiz eta biek euskaldunak izan, eta gero umekin iten dute euskaraz. Eta hor izan dittut nik mobidak eurekin ez, ba saiatzen euskaraz egiten, baña oso zailla da.

E2: Nik holako gauaz rarok baittut. Gure etxean, guk adibidez euskera erabiltzen dugu bet, kontinuo, baño andrian ama adibidez irundarra da baño haiek ohitura dute erdarara, eztakit zergaitikan, aitta erdalduna zuten, Otxagabi aldekoa o hola zuten haiek, eta eztakit zergatik, eta bera arrunt euskalduna da, Arantxa oso euskalduna da, eta pues badittue EGA eta gañerako...eta ba hori, bere amakin ba erderaz igual, igande atsaldetan egitten diogu bixita eta...ta ni askotan ze Puri ta pues bere hizkuntzan, oaiñ solasa gutxi itten du baña, "laganazu, laganazu pakean ta eztakit zer eta..." eta zirikan aitzen gara. Baña eurek ohitura dute, ttikitatikan erdaraz dute ohitura. Eztakit hoiek ohiturak bezala hartzen diren edo...igual aittak eta amak egiñen zuten erdaraz, seguro, eta Arantxa oso euskalduna da eta...eztakit.

E4: segun zeñekin bai.

E1: Nere kasuan ere, nahiko kurioso da ez, nire gurasok euskaldunak dire eta bere gurasok ere denak dire. Ni nere jenerazioa aiatu arte eta klaro niri tokatu zait, e adiñengatikan pues hemen eskolan dena erderaz egiten zen, ordun, nere gurasok dena euskaraz egiten ziaten eta nik aiatu zen momentu bat, ee gurasoei erderaz egiten nion.

E3: A bai e?

E1: Bai, bai, eske, guk ezin giñun euskerarik erabili eskolako garaian...

Ya,ya nik hori ezautu dit!

E1: E Zubietan eztakit?

E2: Zubietan plazan gehigo zen , hemen gure tartin karrikan karo, pues igual bost, gu arrunt gutti giñen kintok, bost sei, eta bost seitikan, hiru giñan euskaldunak besteak erdaldunak eta ordun berehala jabetu zen erdera gure tartin. Gañera ezintzen euskeraz solastu. Eta ordun klaro, eta hori hemen Donezteben, ta gero Doneztebetikan Mugaiere, Mugairetikan Berara, eta Beratik Irunera, hori dena, bide guzti hori erderaz egiña, ordun klaro, eta kurioso zen, nik nere aittakin, eta ya hasi

zen aitta erderaz ere kriston ostikok sartzen zizkion hizkuntzari baña...ta ordun klaro, amak errantzun "baña zer ai zea zu neri erderaz egiten?" ta ordun klaro hor izandu zen pues...Eta neri bezala nere adiñeko pillla bati e!

E3: Guri gertatu zitzaigun, herritik jeisten giñenian, ya Zubietan eskola, ordun cuarto de E.G.B. noski zen, ta quinto de E.G.B. egittera jeisten giñene, hasitzen giñen Donezteben. Joe guri "Caxeros" esaten ziguten, Doneztebearrek "caxeros" esaten ziguten.

E1: Zubietarrek eta hoiek egiten zuten erderaz.

E3: Eta oraiñ, oraiñ hori euskera Donezteben beiñe baño gehio somatzen da.

E4: guk lagunaren artean ere, gure denboran beti erderaz e! bai nik eztakit igual sema alabakin euskeraz, gizonare da oso euskaldune, ta igual horregatik gehigo sartua daukat euskera e. Baña han herrin ez pentsa gehiegi hitzaiten denik euskeraz eskolan e.

E3: Eta nahiko euskara egiten da portzierto hemen.

E2: Guk urte oso nabaitzen genun, Zubietan euskara,euskaraz, Itturenen ya, ze kurioso e neskak, neska gaztiak, "oye no se que, no se cuantos...", mutillak euskaraz eta gero Elgorrin, hemen ere bazen beste neska kuadrilla bat, ba horre neskak erdaraz. Ta mutillak igual pixkat gehixego nasten zuten, biño...

E4: nik kriston diferentzia sumatzen dot, Oiz eta Urroz, eta Ezkurra bera e. Oiz eta Urroz, eske hitz bat bera ere ezta aitzen...

E1: Bai, alderdi hortan aitzen da gehigo euskaraz.

E4: jende dena, adin guztietakoa, bai, bai, hitz guztik euskaraz. Baña Ezkurren sartzen da...

E1: Urrozen...

E4: Urrozen euskeraz. Bai mutillek, bai neskak, bai emakumek...

E1: Oaiñ?

E4: Oaiñ. Urroz eztuzu...

E1: Nik enuke ba erranen... Urroz eta Labaiñe...

E4: Labaiñe eztizut esaten, baña Urroz.

E1: Nahikoa...

E3: Labaiñe erdalduna? Orain? Ez, no jodas! Bai?

E4: Labaiñe eztakit, baña Urroz.

E1: Baña orain, euskaraz egiten dutenak baña beren haurrak A eredura igortzen dutenak Urruzunotarrak, gehiengok bezala, gehiengok, A eredura igortzen dute. Eta bi herri hoietan gañera, gero nabaritzen da hauteskundetan eta hori.

E4: bueno hori igual Urrozen.

E1: Hori ezta kasualidadea! Osea UPN jaun ta jabe izatea...

E2: Labaiñen bai.

E1: Bai, bai, ta Urrozen e bai! Ta horrek bere eragiña du bizimodun ere!

E4: eske normalena, neri behintzet, ta elkarren artean ere bai, bai, bai attonek, E4k, gazteak... elkarren artean bai.

E2: Eta adibidez, Xxxek esan duna, eskolako istori hori, ordun Frankismo garaian, ordun dena erderaz ematen genun ta akordatzten naiz, Donezteben apezak, euskera hola zatitxo bat euskara, orduerdixka bat edo apezak ematen zuten euskara, ta ordun maixuk ere...

E3: Apeza zeintzan?

E2: Nik egon naiz Don Tiburtzio honekin euskera ematen.

E3: Donezteben?

E2: Doneztebeko eskolan e! asignatura bezala.

E3: Eske apezan tarten ere justo bi muturreko...euskera errateko moduan, eurek izan dira berreskuratu dutenak eta beste zenbait lekutan eurek izan dira lurperatu dutenak.

A bai e!

E1: Eta hemen...

E2: Hemengo apeza, Labaiñengoa zen, Don Frantzisko.

E1: Bai, bai.

E2: Zoaz berakin euskeraz solastea! Ta Tiburtzio egiten zuen kontrakoa, Tiburtzio saiatu egiten zen.

E1: Bai, bai Tiburtziorekin beti euskeraz!

E4: eske Tiburtzio hasten zen euskeraz hizketan eta nola eztun deus entzuten, erdaraz egin behar zitzaion.

E3: Zeiñi?

E2: Tiburtzio.

E1: A bai, bai.

E2: Honek errandu mezana zerbait ez, justo kontrakoa pasatu da, jendek eskatu erdaraz egitteko eta berak eztu nahi. Etorri behar izan du kanpoko.

E4: berexia delako.

E2: Eta hemen Don Frantzisko zen justo kontrakoa, euskaraz aitzen bazun...

E3: Osea hori Labaiñdarra hun e?

E2: Bai, Bertizkoa, autobus...ba horren anaia.

E3: Alkate izandako hori.

E2: Alkatia bere semia ta aittare bai.

E3: Apaizan semia?

E2: Ez, ez.

E2: Apaizan semia hor nonbait ibiliko da! Bai, bai.

G: bueno igual pixkat aurreatuko deu bai. Aipatu dezue hitzegiteko ohiturak edo, irakurri? Euskeraz ezer irakurtzeko ohituraik badaukezu?

E2: Nik zerbait bai.

G: eta hala bada zer? Zehaztu pixka bat.

E2: Egunkaria adibidez. Eta bueno liburun bat tartekan.

E4: nik irakurgaiak, elizetan euskaraz iten dittu denak. Baña hartzen dittutenak irakurtzeko normalean liburutegitik normalean erdaraz.

E3: Nei egie esan euskeraz kosta iten zait. Irakurtzen dut euskeraz baña aittortu behar dut kosta egitten zaidala.

E4: pare bat aldiz igual irakurri behar, nik behintzat e, Ttipi-Ttapa etorri...

E3: Segun e! hemengo hizkuntzan ta hola, adibidez Ttipi-Ttapa ta hola, hoiek aixa.

G: zer da batez ere euskeraz irakurtzen duzuen, zuk aipatu ditzuzu irakurgai hoiek?

E4: Ttipi-Ttapa, bai hori.

E1: Nik Berria, Ttipi-Ttapa tan liburuxkan bat igual bai, baña egia esan gutxi.

G: liburuak edo egunkaria bera, arrazoi konkreturen batengatik irakurtzen ditzuzue euskeraz?

E3: Zer?

G: arrazoi zehatzen batengatik irakurtzen ditzuzue euskeraz, bai, bueno Ttipi-Ttapa bertako aldizkaria delako pentsatzen det, baño zer bait bereziangatik aukeratzen dezue Berria...edo liburu hau euskeraz irakurriko det? Badago horren atzean arrazoi berezirik? Edo ez?

E1: Bueno eztakit, eztut aukera haundirik ere hemen. Diario de Noticias edo Diario de Navarra, edo Berria edo Gara, bitakon bat, eta gehitzen zaizu bat edo bestia ez.

G: bai egunkariaren edukiagatik edo. Nobelak?

E1: Bai, edo kontatzeko modua edo bai. Nobelak, pues bueno edozein eztakit!

G: len zuk aipatu didazu euskeraz noizean behin irakurtzen duzula e?

E2: Bai, bai.

G: ba igual berdiña eukita, berdiña edo antzekoa, euskeraz edo erderaz?

E2: Nik maizago irakurtzen dut erdaraz e.

E3: Nik ohitura du betitikan erdaraz egiteko, baño bai saiatzen naiz euskeraz ere, baña aunitz gehiago kostatzen zait e.

E2: bai batez ere eskolan ta hola erdaraz ohittu garelako, igual da horregatik, oingo umiak euskaraz errazago egiten dute. Igual da horregatik.

E3: Igual ohitturarik eztugulakotz, igual horregatik.

E1: Eta gero nikuste egunkarian ere, pues batzuk, adibidez Ttipi-Ttapa agitz errega da leitzeko, biño adibidez Berria eee oso tekniko da niretzako, aunitztan idazten den modua ez, leitzeko eta entenditzeko gauzak eta...

E2: Halare nik uste hortan alperkeriere badugula e! zergatikan ai gira hitzegiten, hori, hitzeitako eta ze garrantzia ematen diogun eta hori, lantzen dugun bezala, pues irakurtze hori ere lantzen da. Biño klaro nik uste dut alperkeria ere badugula.

E4: igual irakurtzeko euskeraz oso mantxo, nere kasuan behintzat e, in behar duzu, erderaz en kanbio konturatugabe...

E3: Ohitura eztaukat ez!

E1: Eske hola ikasten da.

E4: naturalagoa edo.

E1: Leno erdaldun hoiei esan diegun bezala erdara mantxo ikasten dela, pues...

E3: Nik ezautzen dut, irakurtzeko asuntu hortan nere burua e.

E4: porque kapritxoa dugunean zerbait irakurtzeko, euskeraz irakurtzen dugu, eta ulertu ez.

G: eta idatzi? Baduzue ohitturarik?

E4: erdaraz.

E1: Nik idatzi gutxi baña hola etxian edozein nota edo mezuak mobilletikan eta hola pues euskeraz.

E2: Nik ere bai mobillez eta hola.

E4: nik mobille segun zeñientzat bai. Umeantzat eta horrela, beti euskeraz.

G: igual mezuak eta laburrak dian gauzak euskeraz, e ohar bat etxean uzten dezula...

E1: Baño nik idazten dut eee nik erraten deten modun e. Uste dut euskaldun berri batek eztula ulertuko.

G: ya zure modura.

E1: Nola nik idazten duten zarra.

G: eta zerbait luzeagoa ya eztanean igual, mugikorraren mezu bat edo holako nota, ohar labur bat, orduan ya erderaz idatziko zenukete? Gutun bat edo.

E1: Eske nere kasun, nik ez erderaz eta ez euskeraz, nik eztut mezurik, eztakit gañera, mobillean idazten... ni, ni hortan...eta irakurri bai, karo titi somatzen dudanean, igual alabak edo, alabak egiten dit euskeraz beti, eta ordun leitzen dut hori, bañan eztiot erantzun beiñere alabari mezurik. Eta egon behar badut berarekin egiten diot deittu. Suposatzen dena da hori, hok ezagutzen dute nere bizia, klaro nik kontatu dut nere jenerazioarte, bañan gero nik, aiatu zan momentu bat erran nula bale, nora noa, orduan alaba zarrena izandu nularikan, orain dela hogeitahamar urte...ostra! Eta ordun erran nun, onaiño aiatu naiz erderakin eta klaro, eta erranun nere alabakin ez dut ezta hitz bat ere egin behar erderaz, eta ordun klaro, kosta iten da la ostia! Eta ordun hasi nintzen polliki polliki eta...

E4: bai, baña zure emaztea oso euskalduna da?

E1: Bai, bai, baña gu ezagutu giñanian erabiltzen genun hizkuntza, gure harreman erderaz izandu zen.

E4: zuregatik igual?

E1: Ez, ez, pues Bordatxoko garaian...

E4: nik behintzet somatu dut beti oso oso euskaldune.

E1: Klaro eske bai, klaro berak hartu zun beste bidia, rekupeaketa hortan beste bidea hartu du, eta Erreteritikan hasi zan ya alfabetatzen .

E4: zu baño len igual.

E1: Ni ez naiz alfabetatu.

E4: ez baño esaten dut...

E1: Bueno euskaltegian orain dela hogeitahamar urte hasi zen euskaltegian. Alaba izan giñunetikan, pues klaro nik alabari euskeraz egin nahi badiozu, bi modu dittuzu, zuk mailla egin nahi baduzu, klaro

hasieran hiru lau urtekin eztuzu arazorik baña hasten direnikan galderakin, ordun klaro ez duzu bakarrik euskeraz solastu nahi, nahi duzu ahalik eta zuzenena egin, esaldiak osatu eta...

E4: beste alde beraiek korrejitzen.

E1: Klaro, klaro. Eta ordun Lourdesek egintzun euskaratzeko bidia hartu. Eta ordun Lourdesek badu kriston ohittura idazteko eta irakurtzeko .

E4: a bai?

E1: Justu nik eztutena. Eta ordun geldittu naiz kolgau etxin! Eta alaba, bi alaba eta gure semia, denak idatzi eta irakurri euskeraz egiten dute eta...

E4: irakurrir e bai e?

E1: Bai, bai. Lourdesek irakurtzen du alaba bezala eta Maddalen pues euskal filologia egiten ari da pues.

E2: Nik uste dut inportantea dela, zuk esan duzun hori, nola ohittu garen hortan, nik Arantxa ikusten dut, harek bi aldetara elegante egiten du. Nahiz erdara, nahiz euskera, ohitu zen hortara. Baña nola guk eskola denboran erdaraz egin degun, ohittu gera hortara...buru eskax igual.

E4: baña ttikitatik eman bagenun dena euskaraz pues aixigo izanentzen guretzat.

E1: Baño oaiñ alderantziz, nik mutikun kasun ikusten dut, gure mutiko zarrena 14 urte ta da erdara gutxina dakiña eskolan, eztaki erdaraz, hori alderantziz gertatzen da. Neri etzait hori oso...eztakit, ni ez naiz, euskera babestu ta in behar da biño...

E2: Erdaraz ikasiko du e!

E1: Bai, bai, ikasiko du baño da alderantziz e! Bai baña klaro, zure hizkuntza euskera izateak eztu erran nahi hortan geldittu behartzeanik gaurko egunin. Hemendikan ateatzeko intentzioa ezpadu bueno pues bale. Erderako mailla ezin zaille ukatu, eta ez bakarrik hori, frantsesa ere bai, inglesa baño lehen. Hori pasatu zitzaigun hori alaba zarrenarekin ta kosta intzaio alaba zarrenari, erdaraz behar den bezala leitzea eta idaztea, eta hori noski eztela ona. Zuk erabiltzen duzun hizkuntza bat da, zuk erabiltzen duzuna, baño noski gero ikasten duzuna egin behar duzula alden eta hobekigo.

E4: neri por ejemplo igual pena ematentzin ez, nik dut ahizpa bat Beran bizi dena, eta lengoan aitte ingresatuta ta hola ibili da dexente, eta euskeraz hitzeitten hasi eta aztu bezala...

G: ez erabiltzeagatik.

E4: hori...Beran bizi da. Beti erderaz erderaz ta nere umeak esaten dute "jo tia Lourdes hasten da hizketan eta eztaki nola hitzegin". Jo eske pena ematentzin eta esan nion "joe Lourdes mesedez e!", eske da pena bat galtzea. Igual ezker konturatzen, konturatu gabe ikasi dugulako e, eta igual ezker konturatzen zer dugun ez.

E3: Seguru berak nahita eztula itten ez, baño sartzen zea dinamika baten ez, ohittura batzutan sartzen zea....

E4: eske da gizona erdalduna baño umeak euskeraz badakite. Eta ttiki esaten du "hablame en castellano" " ta esaten diot ni pues ez!"

E1: Ba gure mutikok adibidez, oaiñ klaro telebista hoiekin, orain eztakit zenbat kate berri ta eztakit zenbat marrazkin eta, pues araberan sei urteko, bost urteko neskak daki puskat gehio erderaz, mutikok euskal telebistan marrazkit eta ikusten zitun dena euskeraz dena euskaraz eta ...eta ttikiak araberan, ta doiñua eta erabiltzeko manera bost urtekin, daki erdara hobekigo zer baño...

E4: zure emaztea ezta izango Arantxa, klasea ematen duna.

E3: Bai.

E4:egongu naiz eta ez nekin zenutela bost urtekoa. Uste nun bi...

E1: Hirugarrena. Eta horrek telebista eta ikusten du ba oraiñ Bob Esponja, eztakit zer...horrenbeste aukera badago, eta gelditu iten zaie. Euskara erabiltzen dugu etxean baña beraiek euren txorradak botatzen dittuzte "me gusta esto", naturaltasunez erabiltzen dute eta ikasten dittuzte biek.

E4: eta elkarren arten?

E1: Beti euskaraz. Ta haurrak eztire tontuk e. Eta etxian badakite ze hizkuntza den erabili behar dutena. Ta ordun...Beñat dago orain ya adin baten, 15 urte ittera e, eta klaro zerbait egittera ateratzen baldin bazara, bueno pues, bere bizimodua euskaraz, lagunekin eta dena euskaraz du, baña adibidez bateria ikastera etortzen da eta maixua da erdalduna, eta nabaritzen da. Moztu itten da, eztu ohitturik erdara ibiltzeko eta pues kontestatzen dio biñon...hain euskaldundua dago, ongi ikusten dut hori, baño gero moztu egitten die hola...

E2: Beste hori ere nahi gabe ikasiko dute.

E1: Bai, bai ikasiko do, baño esan nahi zut, guri, esan nahi zut landu beharko dula baitare. Arlo hori landu behako dula.

E4: gero azentuan ere, nik 26 urteko ...

E1: Eztut esaten txarra dela hori e!

E3: 26 urtekoa?

E4: 26 urtekoa eta alaba dut 22 urtekoa. Alabak izaten da hemen haurreskolan, lan itten do. Eta ordun mutikoari erderaz hastean nabaritzen zaio eske hori ez...

E2:Kostatzen zaiola?

E4:Kostatzen zaiola gehigo, bai, bai.

E3: Seguro, seguro, bizi guztie euskeraz egin bado.

G: zuen kasuan euskerari dagokionez gabezirik sentitzen dezue? Igual hitzegiteko garaian, igual idatzi aipatu duzue...ba nik idazten det nere moduan baño segun nork eztit ulertuko... irakurri kosta...ze gabezi nabaritzen dittuzue zuen egunerkotasunean?

E2: Ze gabezi?

G: bai, edo zertan dakazue igual, aipatzen zenuten ez, inguruan...?

E1: Gure inguruan esan nahi zu

G: bai.

E1: Nik hori, irakurtzeko hori.

G: irakurri batez ere.

E1: Irakurtzeko zera hori, gaitasun hori, zaille egiten zait, gogorra itten zait egie esan, eta hori landu egin beharko nuek. Pues adibidez Ttipi-Ttapa ta artikulu motxat eta gauza hoiek aixa ez. Hori bai aixa. Baña ya liburu bat leitzea euskeraz, según ze euskaraz...

E4: gero igua Ttipi-Ttapa ere nola izaten den interes haundikoa ez, porque ikusten dittuzu herrik eta nahi dezu aber ze jartzen dun ez, eta hasten zea. Jendek hartzen du igual liburu bat euskeraz eta igual itten zaizu zaillegoa edo jo un poco pesau, baña Ttipi-Ttapa, rebista hoiek dire gureak bezala ez, aber...

E3: Gero artikulu motxat dire ere...

E4: bai motxak.

E1: Nik gehienbat hortan, pues irakurtzeko.

G: besteok ere hortan lantzeko beharra sentitzen dezu...

E1: Nik faltan botatzen dut, faltan bota edo...gustatuko litzaidake eee nere ametsak euskaraz izatea.

E2: Eta erdaraz izaten dia?

E1: Bai, bai. El subconsciente, nerea da erdalduna. Ta hori eztut lortu, buelta ematea horrerri. Eztut lortu eta eztakit lortuko dudan ya. Hemendik aintziña ya...

E2: Pues nik uste dut ametsak euskeraz itten dittudala.

E1: Karo no te joda! Zure adiña desberdiña delako.

E2: Bai baño, eskola eta XXXXke du gure aditxu bera eta eskola denbora ere...adibidez Uitzin

E1: Nei erdera sartu zian, odolarte sartu zian neri! Eta ez nun atera.

E4: Doneztebe, oaiñ ere dexente da erderaz e.

E2: Halare oaiñ euskera gehio, leno ikusita e. Ez xx?

E3: Bai, bai. Doneztebe, la ostia.

E2: Nere garaieko jendek ezta euskaraz e! gero ya ikasi dute eurek ba euskaltegin ibili direlako edo...

E1:Guttik dakite.

E4: e?

E1: Eztakitela euskeraz nere garaikuk.

Euskeraz ez? Bai!

E1: Nere garikuk dire Javier Sanz, Rafael Romero Martin...

E3: Osea baño hoiek die...

E1: Horrek erderaz iten do eta harro! Bere andrie da euskalduna, beratarra eta hola sumatzen dunen euskeraz...

E2: Donezteben bada jende dexente euskeraz dakina baño eztuna itten.

E1: Eta bestia Antton, farmazikua eta bestea Juanito Apeztegia ferreterikua.

E3: Eztaki euskeraz harrek?

E1: Ulertzen do. Bere gurasok euskaldunak, ba hori da beste kasu bat ni bezala pues klaro galdu edo bueno pues eskola...

E3: Hori badakizu non ikusten den asko, frantzesetan ere, orain zuk esan duzuna, hik esan duan Txeman...

E2: Bai, jarrera hori...

E1: Jarrera hori ez, euskaldunei euskaraz. Eta frantsezak ere asko gugana ta lanian ta mugan, esan dugulanian aitzen nintzela ta, ta handik etortzen zian asko ta frantzesak jende dexentek daki euskeraz, baño beraiek frantsesera ohittuak daude ta...zuk itten badiezu...Txemak hortan bai arrazoia zuela nere irudin. Zuk jarraitzen baduzu euskeraz, azkeneko soltatzen dira beraiek ere euskeraz, nere ustez da ohittura. Eta pasatzen da haurrak pasatzen den bezala, haurrak ere gurasun referentziaz badakite gurasok beti euskeraz egiten badiote, badakit euskeraz egin behar duela, nahiz ta gero ondokukin erderaz egin. Pues ordun zuk Txema bezelako beste norbait baldin baduzu ta badakizu ze hizkuntzakin aittu behar duzun berakin...eta klaro..

E2: Ya, ya

G: esango zenukete alfabetatzea beharrezkoa dela?

E2: Bai. Hombre, beharrezkoa

E3: Beharrezkoa zertako?

G: E?

E3: Zertako?

E2: Beharrezkoa igual gurasutan ez...

E1: Len erran dudanagatikan

E4: irakurtzeko ta hola.

E2: Hizuntza, solasterakun in behar da edo saiatsu in behar da ongi egiten ta hortako...

E3: Biño ongi nola?

E2: Pues alfabetatuta, erderakin pasatzen den bezala. Zu joaten zara Murtziara eta solasten dute arrunt gaizki.

E3: Bai, bai.

E2: Arrunt gaizki erderaz solasten dute. Solasten dute erderaz baño arrunt gaizki, eta hori ez, eztut nahi nere herrirako, euskeraz solastea baño ongi, ez nik bezala...indion gixa.

E3: Zuk ze galdera egin dezu ea beharrezkoa den?

G: bai ea zuen ustez beharrezkoa den alfabetatzea?

E4: hori zeñek euskeraz dakigunak.

E2: Bai, danok danok. Bai, bai, bai euskaldunak.

E4: eztakit.

E3: Hombre kaltegarria ezta izanen, baño oaiñ beharrezko beharrezkoa...

G: galdera egingo dizuet igual modu pertsonalago batian, beharra sentitu dezue iñoiz zuek alfabetatzeko?

E3: Ba nik ez.

E4: ni ez.

E1: Nik bai, eztut egin baño

E2: Nik egia esan beharra ez dut sentittu, beharra eztut nabarittu, bueno igua ez naiz behartu ere, pues lanbidekatikan edo igual ez naiz behartu, biño...klaro leno esan duguna alperrak gera, bai denak bai, bai esaten dugu baña gero...aber talde bat egiñen dugu eta joango gara holako ordutan eta eztakit zer...a ba... nik beharrezkoa biño...

E3: Ordun erdaldun alfabetatugabeik eztago ez, hemen dakite leitzen ta idazten erderaz, erdaldunak diot, baño euskaldunon kasuan...

E1: Gu denak adibidez, guk eztakigu idazten euskaraz.

E3: Beida ze aldea dagon ez.

E2: Eta nik nere kasun umerik eztut, baño nik baldin banuke umeriken ba igual alfabetatuko nintzen ba eurei laguntzeko etxeko lanak egitten edo holako guazak egitteko, igual egiñen nuke. Baño nik eztut umerikan, eztut behar hori ikusten.

E3: Zeñek somatu do?

E2: Nere bizi modua beti...

E1: Nik beharrik beharrik eztut sentittu biño, igual ez nahi ohartu horretaz, igual beste lanbide bat izango banuke, baño politte izango litzekela bai.

G: zuk lanian baietz aipatzen zenun leno ez, behar hori sentitu dezula igual?

Bai.

G: zein momentutan, deskribitu behar horren sensazioa?

E1: Buenoooo, eeeeeee pues hori hasi nintzenikan alaba Haizea hazitzen, ordun bueno, garai hortan, ordun Erreterin bizi nintzen eta klaro pues, eta ordun hasi nintzen ni euskera rekuperatzen eta klaro rekuperazio hortan pues klaro, hor etzen nahiko solastia, eta solastu behar zen ongi eta ongi solasteko ikasi in behartzun. Eta ez nik, nere ingurukoke bai. Eske gu, ni oroitzen naiz, gu erdera jabetu zenikan gure hizkuntzan, erdera jabetu zenikan baño hala ere, zenbaitzuk segitzen genun euskera erreibindikatzeko, baña erderatikan. Eta ordun klaro pausu hori ematea, zenbaitzuk gelditu ziran hortan. Ta ni oroitzen naiz klaro hemen euskaraz ezin zirelarik solastu ba, euskararen alde, baña erderatikan. "el euskera tenemos que...", tenemos que...ordun behar dugu...zenbaitzuk hasi ziren, gelditu ziren atzen gelditu ziren, hortan gelditu ziren, euskera...eta oraiñe zenbaitzuk segitzen dute euskera ikasten erderatikan...eta ordun klaro hori txoke bat iten du zure buruan, hori eziñezkoa da. Ordun klaro euskera...euskera erreibindikatzeko bazu zure hizkuntza dela, pues hasi behar duzu...ordun klaro hortan ezta nahikoa solastia, ta ordun klaro alfabetatzia beharrezkoa da.

E4: gauza inportantea izanen da alfabetatzea baño elkarrekin euskeraz aitzea, jo eske nik hori ikusten dut

G: lehentasunezkoa.

E4: bai, bai, elkarrekin aitzea. Bai, porque igual alfabetatu eta igual ateatzen zea kanpora eta kostumbrea baldin baduzu batzuekin erderaz aitzeko pues erderaz. Pues hori ez.

E1: A bai, harremanak. A eske nik bereiztu du nahiko argi zer den. Klaro zuk harremana...edo ingelesa nahi baldin baduzu solastu bale, pues... zu pertsona aberatsa baldin bazara eta menperatzen baldin badittuzu la hizkuntza ba askoz hobekigo zuretzako. Bañan bereiztuz , beti bereiztuz zein den zure hizkuntza. Ordun klaro zure hizkuntza ezta euskera zu euskalduna zarela...baña zu zara euskaldun bat lau hizkuntza menperatzen duna eta nola oso irekia zarenez, pues eee badittuzu harremanak erdaldunakin, frantsesak eta inglesakin. Eta erdaldunakin...klaro, erdaldunak baldin badire e, ez euskaldunak erderaz egiten dutenak, erdaldunekin pues bueno klaro bere hizkuntzan.

E4: ya, baña nik hori igual ez, dakiña euskeraz erderaz, hori igual erranene nizun.

E1: A! euskaldunen arten erderaz egitea,

E4: pues euskaldunen artean pues erderaz ittea. Ta jakinda igual euskeraz ba erderaz. Nik igual leno, gehigo e, pasatzen nintzen erderara.

E3: Halare nik hortan ikusten dut, faltsu xamarrek gurela gauza hortan, porque bai euskera, ta eztakit zer eta nik esan dutena, ta pues bai lau hizkuntza ta erderaz ta hori dominatzen ditudula, ta total gero geurea eztugu, eztugu hori, jo hitzegitea bai, hitzegiten duzu ta ez, ez, alfabetu hori ez dominatze hori, ez, zañatikan ez erabiltzea ongi. Pues hortan eztakit, hortan fallatzen dugula.

E1: Hor badugu...

E3: Akats haundia dela hori, eta behar hori.

G: eta akats horren atzean zer egon daitteke?

E3: Zer?

G: akats horren atzean zer egon daiteke, zergatik...?

E2: Utzikeria!

G: utzikeria besterik gabe?

E2: Utzikeria ta gero esan dutena, gaztetasuneko erdara istorio hori, eskolan ibili hori, ta hortan ohittuak irakurtzen eta histori gauza horitan...pues hori, pues zama. Ta gero hori utzikera, biak elkarrekin nik ustet.

G: gero igual aukera eukita, hemen eskeintzen da ez aukera alfabetatzeko eta...pentsatu izan dezue inoiz alfabetatze...?

E1: Nik uste alperrak garela horretarako.

E2: Ni urte bat ibili nintzen alfabetatzen, ba lagun batek erran ziten eta ordun apuntatu nintzen.

G: a...eta?

E2: Baño bai ongi!

G: eta zergatik utzi zenun?

E3: Buenon gero desegin zen, bost edo sei lagun giñen, ba jendea uzten joan zen eta azkenin ba desegin zen taldie eta utzi giñun.

G: ta zein izan zen igual motiboa, zerk motibatu zintun esatea bueno saiatuko naiz?

E3: Ez zen talde baten, eta denak emakumek ziren, denak umik zittuztenak eta nahi zuten ikasi, alfabetatu...

G: umeei...

E2: Hori da umeei etxeko lanak egiten laguntzeko eta holako gauzak. Ta lagunak ziren eta apuntatu nintzen bai.

E1: Hori izan leike puntu ba, klaro hik esan duken hori, zeren ni salbatzen nauk nola Arantxak ulertzen dun, baño ni adibidez mutikun...zerak eee bere etxeko lanak irakurtzen hasi ta asko eztut ulertzen, ez eztut ulerten. Ta klaro andria hor dago ta klaro...

G: beregan delegatzen dezu?

E2: Klaro, klaro! Bai, baño beharra sentittu banon, esatentzula pues ume bat baldin banuke ta benetan lagundu beharko banio eee etxeko lanak eitten ostra, pues ordun ostra! Honek ze esan nahi dik! Pues ordun...

E2: Semea edo alabari, bai eta klaro zure gauzetan ere, niri eosten diate eeee Telefonika ta Caja de Ahorrosko eeeee

E1: Baittare, baittare!

E3: Euskeraz igortzen diate ta telefonicakoa erdia eztut enteintzen! Ze ostia patzen den! Ta alabari erraten diot "ze ostia patzen det hemen!", eske erabiltzen dute, eztaikit nola egiten duten hitzulpen hoiek. Ta ordun klaro...

E2: Adibidez heorrek espres eskatua ez! Ya, ya...

E3: Ta caja de ahorrosen ere egiten dute euskeraz eta bueno kajeroa erabiltzeko, hori bai ulertzen duzu, bañan gero informazioa, igortzen dute informazioa...karta baldin bada, hori bai, ulertzen duzu, baña baldin bada Iruñetikan igortzen dutena...nik eztaikit ze klasetako serbizioa duten...pues...

E1: Euskera batua izanen da ez?

E2: Bai

E1: Euskera batua erabiltzen da normalin!

E2: Bai zeatik hor sartzen da ya hitz teknikoak...

E3: Gaur ayatu zait karta bat eta klaro Jabiartxon izenen eta Jabiartxok eztaki euskeraz, deklarazioa errenta edo hori orain hasi behar dula eta hori, eta serbizio hori badagola kaja de ahorrosen eta hori euskeraz igorri diate. Eta eztaikit hori nok in dun? Nik ustet hori hemendikan norbaittek. Zuenaz ez tute jotzen?

E4:..... idatzi diote pertsona hoiei aber euskera hutsa nahi duzun edo euskeraz eta erderaz, Caja de Ahorrostik, orain berriz e.

Aaaa!

E4: bai zuk aukeratu zuk erabaki, proiektuak daukena zerbait euskerako, pues oiañ in dute kartak idatzi e.

E1: Euskeraz ta erderaz, o euskera hutsez.

E4: nahi baduzu euskeraz. Eta ez badezu kontestatzen bietara bidaliko dizute. Da horrengatik proiektu hori egiñe dagolako euskeratik...oiañ bidali ditu...

G: ikusten duzue zuen burua euskeraz alfabetatzen?

E1: Ba nik igual bai, egingo nuke.

G: ta arrazoa zer bultzatuko zinttuzke?

E1: Bueno pues hori, irakurtzeko momentun arazok izaten dittut.

G: oztopo hoiek gairatzea igua pixkat?

E1. Bai, eta bueno idaztekon ere bai e, idazteko ohiturarik ez tut e, ez tut iñola idazten normalen. Biño bueno...

E2: Erderaz ere ez?

E1: Ez gutxi! Eta bueno bai.

E3: Beharko genuke.

E1: Bai, adibidez nik egunkaria hartzen dut edo Gara edo Berria hartzen dut normalin eta, Berria egiten zait aunitz zaille irakurtzeko e. Hitzak oso teknikoak izaten dire eta ez tut enteintzen. Ta gero erreztasune izateko ba hori ez irakurtzeko eta bueno eta sortutzen bada idazteko.

G: eta azken urteetan edo, bere garaian bai egontziñan zure kasuan urtebetez...

E2: Bai orain dela urte pilla bat.

G: eta gero utzi zenun taldea desegin zelako eta aztu zenun gaia?

E2: Bai.

G: besteok, ikusten duzue zuen burua egunen batian euskaltegiren batian?

E1: Beharko genuke e.

E4: ni momentuz ez.

G: arrazoen batengatikan, denbora falta, gogo falta?

E4: denbora falta eta ez tut halako premia somatzen. Eztakit, denbora ere ez tut oaiñ.

G: ezagutzen dezue zuen ingururan iñor, ba zure emaztean kasua edo aipatzen zenun bere garaian alfabetate prozesu hori...

Egin zun, eztakit...segi, segi...

G: gaur egun euskaltegian dabillen iñor ezagutzen dezue?

E1: Alfabetatzeko mailla bat beharko da ez?

E2: Euskaldun izatea.

E1: Baña euskaraz hitzegittea.

E2: Solastia.

E1: Normalian izaten dia euskaldun zaharrak ez.

E2: A bai, bai.

E1: Nik uste dut hemen alfabetatzeko jende asko dagola, gehiengoa esango nuke

E2: 40 urtetik goitik guztik.

E1: Bai.

E2: Bueno guztik ere, baño gehienak.

E1: Hemen jende asko dago alfabetatu gabe.

G: ezagutzen duzue Txomin alfabetatu...

E4: ba Txomiñek erderaz dexente itten du e!

E1: Bai, bai.

E4: eta?

E3: Eta Txomiñek izanen du orain hori bezala...beti erderaz.

E2: Baño idazten du nahiko ongi.

E4: baño hitzeitten diozu euskeraz eta igual erderaz kontestatzen du e.

E3: Txomiñek bai?

E4: Txomiñek bai!

E3: Ke ba?

E4: bai, bai!

E1: Batzutan bai! Pentsatzen dut ingurun ere irakaslek eta izango dittula erdaldunak eta hola?

E4: erderaz dexente.

E3: Nik hitzik ere ez tut egiñ Txomiñekin erderaz. Ezta hitzik ere.

E2: Horregatik, aixtian aipatu dugun horregatik, referentziana, jendiana.

E4: bueno...

E2: Zuri ikusita, badaki zurekin erabili behar duen hizkuntza...

E1: Ta nirire bai? Nirire ze?

E3: Ta Txomiñek dauka abilidadia euskeraz, erderaz ta inglesez.

E1: Inglesez ikasten ai a, eztaikit akittu dun edo ez.

E2: Eta ordun ya, badire zenbait gauza automoatikoki egitten direnak!

E1: Zu ikusita euskeraz eta niri lehen...

E2: Txomiñen jarrera non dago ba hortan ez?

E3: Bere kason?

E1: Bai.

E2: Txema Txema zan ta Txomiñ Txomiñ da. Ez baño zuk erran duzu dagola jende aunitz...

E3: Asko, asko!

G: ezagutzen duzue hemen, Txomiñ delako horren izena atera da baño, aipatzen dezue jende mordo bat daula, gehiengo nagusia bat 40 urtetik gora alfabetatu gabea dena eta, oso gutxi ezagutzen dittuzue...

Alfabetatuk?

G: ba edo beste ez?

Alfabetatuk?

G: bai, alfabetatzen saiatu direnak edo?

E1: Bai, bai, nik badittut lagun batzuk alfabetatuk dienak.

G: ta arrazoi?

E1: Aunitz lanangatik adibidez.

G: lana?

E1: Bai.

G: titulo bat ateratzeko?

E1: Bai. Bat da adibidez, idazkarie da, ta idazkari ateratzeko, bueno idazkarian laguntzaillea da, eta hori egitteko ba egin behar izan du alfabetatu eta EGA atera. Eta bertze bat euskaltegiko irakaslea izandu da eta bueno...baño gehienak lanangatik.

G: gehienak dia lanangatik edo seme alaba izatea...bi arrazoi nagusi hoiek aipatuko zenittuzteke?

E2: Eztaikit, bolada bat izandu zen euskaltegik ere puri purin aittu ziren, euskera jeisten ari zela eta eztaikit e, igual ezta hala baño, joe, hor bolada bat izandu zen euskaltegin eta jende pillo bat eta, Zubietan ere izandu zen eta, orain ematen du gauza jeisten bezala edo moteltzen ari dela, eztaikit zergatikan.

G: hor ze izan zan arrazoaia, alarma moduko bat piztu zela euskeran gaiakin da...

E1: Eztaikit! Edo batzuen...jende kopurua hor lana itentzuna.

E2: Bai, hoi da.

E1: Ta lan iten denikan...

G: lana ze zentzutan?

E3: Euskaran alde! Hori bultatzen, oaiñ iten ari zeaten gixa.

G: bai kanpaiña gehiago izaten zian eta.

E3: Klaro kanpaiña gehiago ta, eta bueno beste modun. Igual hartu bizkarretik eta pa dentro.

E1: Ba barnetegik eta.

E4: Zubietan e bai ez.

E2: Ke ba, Zubietan egon izandu da bi uda, bi 15 aldi edo hola lortu zan, baño gero etzegon jenderik eta...

E3: Eta euskaldun berrik eta joaten dira edo.

E1: Oso gutxi. Aurten bi zeuden eta lehen igual 10 eta 15 ere izandu dire. Eztakit gehio den jendin eskaera gutxi dagola edo etxeak ere ja eztute, igual kondizio batzuk bete behar dittuzte ta, etxeare igual eztute hainbeste nahi...gauza guztien arten asko jetxi da.

E2: Euskaldun berrik eta euskeraz ikastera etortzen zirenak, Zubietan izanduittugu 15 lagun! Eta orain, joan zen urtean 2!

G: eta barnetegian boom hori pixka bat...

E2: Jeitsi ote den nago ni!

E1: Bai, bai!

G: igual arrazoia zein da, igual eskari gutxiago dagola jende aldetikan edo kanpaiña gutxiago egitten diala edo?

E2: Gerore, hemengo euskaltegin geldittu ziren tokirik gabe. Tokirik gabe geldittu ziren eta bueno ba hor ere ba beuno...

E3: Klaro hor hombre...

E2: Hor lanare in behar da nik uste e!

E1: Arantxare ezautu du nik lanin hor eta lana latz in behara da ta diru gutxi eta...hor Txemak ere ze ordu pilla sartzen zittun eta ze...hor ez erakutsi bakarrik, egin behartzenun mantenu prestatu eta egin behartzenun denetarik...

E3: Garai hoiek pasatu dire ya, orain ezta iñor mugitzen, ordaintzen ezpada.

G: bai boluntariorik edo bai.

E2: Aldatu da, pixkat ez erabat.

E1: Nik Arantxa ezautu dut erakasle eta gero etortzen giñen gauin platerak altxatzera eta fregatzera eta...hor egiñ behartzenun denetatikan e!

G: gaur egun egiten dian kanpaiñak ezagutzen dittuzue, euskaltegietatik eta, bai alfabetatzeari begira, bai euskera ikasteari begira egitten diren kanpaiñak, ezagutzen dittuzue?

E3: Telebistan agertzen dira tarteka.

G: hemen eskualde maillan?

E3: Nik gutxi, apenas!

E1: Tarteka...

E2: Nik badakit pues Zubietako hori, pues eskaera bazela taldea osatzen bazen egitteko eta baño etzela lortu adibidez joan den uda hontan ez.

E1: Eeee eske nik uste dut hori ere bajatu egin dela, lehen kartela gehiago ikusten ziren, kursoa hasten zenean..

E4: bai, bai.

E2: Irail aldera kartela gehigo.

E1: Kartelek gutxigo okupatzen dute orain, kanpaiña gutxigo egiten dute...

G: ze mezu etortzen zaizkizue burura, osea ze kartel goatzen...ze nolako mezuak dira, alfabetatzeko edo euskera ikasteko edo ze, zerekin lotzen dittuzue kanpaiña hoiek edo iñoiz ikusi dittuzuen hoiek?

E2: Hemen gehio Ika-k egin izan duna.

E2: Bat bazen ikasi eta ari, bazen lelo bat ez. Aspaldi urte pilla batez egongu zen, Ika-ko hori, ikasi eta ari zen lelo bat.

E1: Bueno gero erabili dute eslogan desberdiñak, eta erdera sartu ere bai. Slogan aldetikan ere aldatu in da bastante, mezua. Nik hor gero...

E2: Baño denak denak helburu batekin.

E3: Hor hombre nik eztakit bajatu...arrazoia baldin bada gero eta euskaldun gehigo dagola, pues ongi dago ez. Esan nahi dut eee...

E1: Behar gutxigo dagola?

E2: Behar gutxigo, hala bada.

E1: Los cojones!

E3: Ordun gaizki goaz.

G: erakutsiko dizkizuet, eztakit ezagutzen dittuzuen, ezaguna egitten zaizue hemen, gehiago egongo dia noski ta igual akaso beste...baten bat, hola berez haundian izango lirateke...kartelen bat?

E3: Etxeina utzi ditudala antiejuk!

E1: Ba nik ez!

G: eztittuzue gogoan ez?

E1: Haure ez. Ke ba! Oraingok dire edo aspaldiko...

G: nahiko berriak ez?

E2: Ba ez! Bueno Aekarik ezta hemen, hemen da Ika da e.

G: bai hori da, igual denak eztira bertakoak, adibidez hemen bat badago.

E2: Hok guttigo oaindiken!

E1: Hola gixa hontan izandu zen Artzeko talde famatu hori. Hola formato hontan zan!

G: esango zenukete, len aipatu dezue momentu batian ez, ze mezu jasotzen ditzuzuen, geroz eta, berakada bat ikusi dezuela kanpaiñetan edo len ikasturte hasieratan eta gehiago, osea zurrumbillo gehiago zeudela igual euskaltegin aldetik edo. Zerbaitetan fallatzen dela esango zenukete kanpaiña hauek egiteko garaian? Edo ideia brillanteren bat baukazue nola egin beharko litzatekeen edo?

E3: Zuk ze nahi dezue hola...!

E4: hori izan litteke, orain eusekaraz ikasten dute umeak ez ta ordun nik uste dut ez, kontua dagola umeetan ez, umeak zer ari diren ikasten, esaten dot beraiek ya euskera baldin badizke, pues igual ezta horrengatik hoinbesteko ...

G: ya, ezagutza haundiago dagola esan nahi duzu?

E4: Klaro! Bai hori. Ta leno erderaz zen eta alfabetatzeko, ikasteko euskeraz, baño oaiñ gehiena euskeraz dela esango nuek, hola nik aitzen dutena e, erderakok badaude baño kontatu kontatuk, oso gutxi bai.

E1: Baliteke e, baliteke ta inguru hotan, hiri handitan eztakit baña inguru hotan, baliteke klaro! Zuk beitzen baldin badezu prespektibakin, heldu zara egoera bat, debekatua zegola euskeraz egitia eta ordun klaro, horren ondorioz denak egiten zuten erderaz, bañan euskera, bazen, euskera hor zagon. Ta ordun klaro hori desagertzen denikan, debeku hori desagertzen denikan, ordun pues klaro, hor kezka...zutenak hor, hasten dire, ateatzen die euskeraren alde eta ordun hasten die lanen, ta klaro hoiek beraien lana, beraien bidia egiten dute ya eta zenbaitzuk ya nik uste bidian bukaeran daudela edo gaudela. Eta klaro jende berria kezka berriak, tarteka ateatzen da baño oso zailla da...eeeeee beti, erderaz egin dutenak edo behar hori ikusi eztutenak orain eeee 30 urte pasata bapatian kezka hori sortzia. Erran nahi dut, kezka zutenok landu in duteal, modu batian edo bestian. Ordun klaro, hasi beharko giñeke pentsatzen, buruan repaso eman ta ze jende diren hoiek, kezka zutenak euskarakin, ta banan, honek ikasi zun, honek ez, honek ze indu...eske gañea jotzekotan jo behar duzu jende hoiengana berrize, eta oraiñarte euskeraz ikasi eztutenok, nahi etzutelako, orain ze motibazio behar izan dute izan euskera ikasteko hoiek. Lehen izandu zen garai bat, euskera kriston borroka izan zena, eskolan euskera eta erdera, euskera jabetu zenikan, ordun euskeran kontra zeudenok hasi ziren euskera ikasten bañan bildurrangatikan, ez beraeien hizkuntza zela uste zutelako, bildurra zuten lanpostugabe geldittuko zirela, "hemen eozin lanpostu atako da ta euskera beharrezkoa izango da ta ordun nik ezpadut ikasten nere semeak behintzat", ta bueno kaso kuriosok ikusi dira hemen. Jendia kriston kanpaiña egin dutenak erderan alde egin dutenak, beren semeak euskerara igorri dutenak eskolara. Erderaz erran duten bezala "como el saber no ocupa lugar...", "por lo menos que sepa tambien euskera". Eta ziklo hau behintzat, Doneztebekoa, gero hemendikan ateatzen direnean, gero zerbait serioa ikasi behar dunikan hori erderaz eginen du, baña ya euskera base bat badu nere semiak. Hori Donezteben, jode, zu oroittuko zea eta zu ere...eskola berrian hor...jesus maria, apeztegian, Rosa ta konpaiña, ta hor Mariñe ta hok, kriston bronka botatzen zuna erderaz...

E2: Bueno Mariñek badaki.

E1: Bai baño beren semeak euskaraz.

E3: Baña Diegok ez.

E1: Baña Diegoren garaian etzuten euskara...

E3: Semek ere ez?

E1: Semek bai.

E3: Badaki euskaraz horrek?

E2: Ez,ez.

E1:Gure adiñekoak behintzat ez.

E2:Nik ustet kasu horretan, hoiek gorrotatzen dute hizkuntza hau, ta nik uste gorrotatzen duzun hizkuntza bat eztuzu iñoiz ikasten. Pues ta klaro, nik panorama hemen alfabetatzeko jendia, nundikan atea behar dugu...

E1: Baña behar dugu, 40tik goitiko jendia alfabetatu gabekoa da. berez jendea badago

E2: Bai, bai, alfabetatu gabeak gehienok garela.

E1: Etxetik plazara zenbat urte die hasiak?

E3: Ba bastante, 10 baño gehigo?

E2: Gehio gehio. Pues hortan barrenian zagok Zubietako udala, ta hori bultzatzaille bat behar da. Etxeti plazara da aldizkari bat. Ezagutzen duzu Etxetik plazara? Ttipi-Ttapakin etortzen da lantxo bat euskaraz. Eta hori horri buruz atera zen.

E1: Ezta alperrik e?

E2: Baña zergatik ezta alperrik? Etxera bidaltzen digutelakotz. Jende askok itten ote do?

E3: Bai, batez ere saria dagolako!

E1: Bai baño jende alfabetatuk ikusi nahi nuke zenbat...bueno hobe hobe!

E3: Denek egiten dugu, saria dalako edo...

E4: bañan hori berdin du ongi edo gaizki egin ez? Igual igual sartzen da zozketan.

E2: Hori horregatik atera zen e, zergatik etxetik plazara atera zen? Ba hori...

E1: Euskaldun zahar alfabetatu gabiak eee minimo bat behintzat ikasteko.

E2: Ez giñelako bilduko, nola garen hain alperrak gauza horietako, ba ez giñela bilduko ikastaro bat egitten eta gutxienez ikastaro bat. Hori horrela atera zen! Eta bueno zerbaittetako balio baldin bado ba...

E4: nik egitten det, baño korreoz ere ikusten dut...afari bat tokatu zitzaidan behin gañera.

E3: Ta lana zeuk eginda serguro?

E4: bai.

E3: Ez alabak egin ote zion edo?

E4: ez.

E3: Ongi, ongi, baña nere intuizioz da, hori alfabetatugabeko jende gutxik in ahal dezakela hori.

E4: Beste batzutan kopiatzen dut e!

G: eta hainbeste pertsona izanik alfabetatu gabe daudenak, zaudetenak eta euskaltegietan eskaintza hori edo bueno, euskaltegietan badagola jakiñik, zer egin daitteke edo nola motibatu daitteke, aipatu dugu, onuragarria izan daitteke alfabetatzea ez, "el saber no ocupa lugar" ere aipatu duzue, ordun nola motibatu daitteke jende hori, edo zuek. Badago moduren bat edo arrazoien bat ez joateko eta gerturatzeko euskaltegietara edo?

E3: Galdera... zailla. Aitzakik...

Ex: Nik jakin nahi nuke zenbat egun pasatzen duzuen galdera horri erantzuna billatzen zuek, eta nahi duzue bost miñutun, tapa mahi gañen bota ta...hola argia piztu eta como con un corto circuito...ez dugu barita majikarik!

E1:botilla ardotox batzuk, egon beharko lirateke tartin edo...

E3: Ordun bai inspiratuko giñen e.

E1: Ez zuengatik. Eske hortarako berezik gera egia esan, aski da batek esatia egin behar duzu hau, ostras.

E4: eta klaro, zuk esaten dezu Etxetik plazara ez, jendiak eitten dula eta mas o menos, ze adiña izaten da itten duna? Gazteak edo 40 urtetik gorakoak?

Eztakit.

E4: klaro behar da ikusi aber, adiñak ikusita ez. Hortik ikus daitteke ze interesa dagon, zeñek, zein molestatzen den betetzea hori.

E1: Ze adiñetakoak molestatzen diren hori egiten?

E3: Nik egia esan oso gutxi in det, lehen bizian eta gero baten bat bai,

E2: Baten bat bai, baño aspaldi.

E3: Hasiera hartan, baño orain egia esan ez. Eta hobe egitten bada e!

E2: Jokatuko nuke lepoa alfabetatu gabeak jende gutxik egiten dula. Nere irudi e!

E1: Galdetuko diot Margariri.

E4: senarrari ere gustatzen zaio baño tardatzen du ordubete.

E3: Ezta errex e.

E1: Horregatik atera zen, alfabetatzeko historia horregatik atera zen. Gutxiñeko etxera bidali eta ea jendia mugitzen zen pixkot. Pentsa e ya urtiak direla!

E2: Bakoitzak bere...

E1: Hor eztut galdetu, ez naiz galdezka ibili ta ordun eztakit besteen etxetan zer pasatzen den...

E4: zuk in duzu Etxetik Plazara noizbaitin?

E1: Lehen bai, lehen iten giñun aldiro.

E4: baña zuk, zuk?

E1: Baña... nik egiten nun, baña klaro garai batean hori hasi zenian ta Maddalenek gustokoa zulako eta Ttip-Ttapa hartuta, lenbiziko gauza hartzentzun ta ordun galderak segun ze galdera zen, itten zun berak edo itten genun biok. Niri galdetuta, baña iten zuk berak. Nik eztut behin ere egin. Bera bersok ere egiten hasi zen aldizkari hortan, baña gero ya....

E4: eta zu aspaldin etzera hasi egiten ezta?

E1: Ez, ez, falta zaitena da alaba. Argi ta garbi.

E4: ta meritu gehigo do ta fallatzen baldin bazure, hurrengoan beitu zertan fallatzen dezun ta...

E1: Eztet segimentua egiten, ez. Ordun ba e! Ordun lenbiziko gauza Ttipi-Ttapa hartuta suplementoa hartzen genun, ta hori betetzen genun, baño hasierakoz.

G: euskaltein eskeintza gaur egun egokia iruitzen zaizue edo falta zaio zerbait edo sobran dauka zerbait ezagutzen dezuenetik?

E3: Euskaltea...

G: bai hemengo euskaltegiak eskeintzen dutena eta egokia iruitzen zaizue, zerbait berria eskaiñi behar dute...zerbait kendu behar dute?

E3: Nik eztakit ze eskeintza dagoen ere egia erraiteko.

E1: Hombre klaro, nik faltan botatzen dut lengo giroa.

E2: Leno diferentia zen, barnetegian ingurun beti sortzen delako...

E3: Ordun demandare haundigua igual ez.

G: baño eskaera zer dala ta jeitsi da? aipatzen dezue gaur egun umeak euskeraz jakin behintzat badakitela, ordun euskeraren ezagutza haundiagoa dela, baño hasiera hasieran ere aipatu dezu kanpoko jendea etortzen dena zuen herrietara bizitzea, askotan erdalduna izaten dela eta igual eusker ikasteko premia ere baduela ordun?

(Denak batera hitzegiten dute)

E2: Nik eztakit ze eskeintza dagon, bat, e ingles bat badau Zubietan bizitzea etorria eta hori Berara joaten dela uste dut.

E3: Euskara ikastera?

E2: Bai.

E1: Eske hemen talde aunitz ezta izango.

E3: Igual bere mailla eztulakotza igual.

E1: Hemen, euskaldun berrik, hemen...

E2: Guraso talde bat,

E3: Guraso talde bat da bai?

E2: Bai eta bertze talde bat.

E1: Ta gero igual zen beste talde bat EGA prestatzeko?

E2: Bai.

E3: Ta guraso taldea hemenguk?

E2: Bai, bai hemenguk.

E3: Ta ze ai dia hoiek alfabetatzen edo?

E2: Ez, ez, alfabetatzen ez, igual euskera mailla hobetzen edo igaul ez bereiziki alfabetatzen baño...

E1: Bai, badie, nik badakit, irakasle bat laguna dut eta badakit, berak ditu hasi berriak. Ba kanpotikan etorriak.

E3: Marga?

E1: Bai Marga, baiño Marga ezhoi da, kanpotik etorritako jendia pues hori, hasi berriak dire. Bakarrik erraten du berak gero ta guttigo eta igual hasten badire 8, ba akitzen dute 3-2 justu justu, jendia joaten dela utziz.

E3: Gogorra baita?

E1: Gogorra edo gehienak lanangatik edo bueno beste arrazoi batzungatik uzten dute.

E3: Alfabetatzen zer daude maillak ere?

E1: Aspaldin ezta talderik sortu hemen.

E3: Baña nola funtzionatzen du?

E1: Uste eztaola maillarik, baño klaro nik hemen eztut talderik ezagutu. Hamara urte daramatzat hemen eta eztut talderik ezagutu.

E3: Jo hik baittuk urtek hemen e?

E1: 10 kasi.

.....orain dela zenbat urte utzi zun!

E1: Bai horregatik esaten nian, Arantxa ta... baña horik zian...nola egiten zuten lana!

(Denak batera hitzegiten dute)

E3: Lesakan?

E2k: Hor badira taldeak, Bortzirietan bai.

E3: Ongi?

E1: Bai.

E3: Handiagoa da eta.

E1: Nik norbaitti entzun nion pues taberna aparte utzi zutela edo...

E2: Hori eztatit. Baño Etxalarren eta Arantzan ere badago alfabetatzea.

G: esango zenuten hemen eskualdean edo bueno, eee egingo balitz kanpaiña bat alfabetatzearen, aukerak, beharrak...pixka bat azaltzen duna, funtzionatuko lukeela?

E3: Eztatit funtzionatuko lukeen..

G: kontuan eukita jendea zuek bezelakoa dela azkenean alfabetatu gabea...

E1: Baño lortzen baduzu funtzionatzea nikordaindu dizut.

G: baño hortarako zu animatu behartzea tartean e bai e?

E3: Hemen berezik gea, berezik.

E1: Ez igual bueno, guk ordun egintzen talde hori, herrin bertan in giñun eta denak herritarrek giñen e.

E3: A herrian bertan iñtziñuten.

E1: Bai, bai, eta denak animatu giñen.

E3: Kotxea hartu gabe eta...

E1: Eta gañera, nere adiñeko jendia, gehienak daude hezkonduta edo umek dauzkatena, eta horik ikasi zuen denak erdaraz eta igual proposatu ezker, igual animatuko ziren hori.

E2: Zubietan ere badau talde bat egiteko aixa jende.

E3: Bat eta bi igual.

E2: Baiño eztatit.

G: jendea bai, baño iñoiz eztezute komentatu iñorrekin ezta ez, alfabetatzearen gaia?

E1: Komentatu izan deu baño, umeei etxeko lanak egiten laguntzerakoan eztutela entenditzen eta eztatitela nola lagundu eta holako komentarioak egin dittuzte tarteka.

E2: A bai e?

E1: Bai. Klaro hortikan ya talde bat egitera ya...

E2: Herri ttikia da. Arantza ttikiña izandare, honekin konparatuta haundia da ez.

E3: Koskorra duk bai!

G: nik nere galderak bukatu dittut, zuek...

E3: Oaiñ jendia paron dagola ta suposatzen da astia badula ez, o zer? Oaiñ da garaie igual e, probestu behar da e.

E1: Iruñan ala erran dute matrikula gora egin dutela. Bai hikuntza eskolan eee euskaltegian ere zerbait sumatu da eta...denbora gehigo igual ikasteko.

E4: akaso igual ahal daitteke aprobetxatu igual aldizkaria ere Etxetik plazara ta hor pues hori nola joaten den etxe gehieneta pues, rebista hori...

E1: Ttipi-Ttapa guztiekin heldu da hori, beti.

E4: bai, bai, eta igual hori aprobetxatu aldizkari hori pixka bat jakittek, eztakit...galdera hori ez, pues aber...

G: bai motibatzeke jendia edo.

E4: hori ikusteko pixkat ze behar dagon edo jendeak nola...interesa badun edo eztakit, mailla hortan esaten dut ez, etxe gehieneta aiatzen da hori?

E1: Bai hori bai!

E3: Nik uste dut, herrin bertan gehiago animatuko litzakeela, ya Doneztebera etorri behar hori...

G: oztopo bat izan daitteke ez?

E2: Oztopoa edo... etortzen gea igual eunen hiru aldiz baño...

G: euskaltegira joateko herriz mugitu behar izatea ere igual izan daittekela... eskusa bat gehio edo arrazoi bat gehio...

E2: Eztakit, eztakit e, igual jendik...

E1: Hombre oso desberdiñe da bat eitea edo herri bakoitxa, nor berak egitea.

E4: eske herri bakoitxan egitekore jendea asko behar da.

E3: Talde batin zenbat, zenbat da egokia.

E1: Minimo 10.

E2: Gutxieneko 10.

E3: Ta matrikula?

E1: Kosta egiten da noski.

E3: Hori da eta zenbat kostatzen da?

E1: Eztakit zehazki, baño koste bat badu noski.

E4: matrikula eta kurtsoa ere bai.

EX: Baño kursoa...

E1: Pagatzen da puxkatan edo, baño matrikula kurtso guztirako, ezta hillabetero pagatzen.

E2: Ba lengo baten stopen herritar bat hartu nun eta...

E1: Stopen?

E2: Bai, edo bueno...

E1: Ezta erabiltzen kasi ez?

E2: Gutxi gutxi, baño herriko ezagunak eta hola pues...ba neska bat azterketa zun EGAna, azterketa eta... eta hor ikusten da oraindik gazteak ere badutela kezka hori ba...

E1: Bai titulua... eske hombre dagolako kriston titulitis, titulo gabe etzara deu ere.

E2: Ez baño edozein lanpostutarako hori eskatzen dizute.

E3: Ze ordu da, 18:30k...

G:k bakoitzantzat.

E1: Zuek hartukozue?

E3: A bai nik bai!

E2: Hola bai, hola bai!

E4:nahi dugu?

E1: Bai noski.

E3: Eskerrikasko!

E2: Eskerrikasko zuei!

E4: Fernandok esan dit izan behartzela.....

(Denak batera hitzegiten dute)

E3: Gazta hau Leitzakoa da.

E1: Hau Idaziabalen sartzen da?

E4: Leitzekoa da gorrizkoa ez.

E2: Eztakit Legasakoa edo Sunbillakoa, Idiazabalen sartu dago.

E4: Legasakoak du beste ardi klase bat, ezin da Idiazabal izan.

E2: Esne gehigo ematen dute bai.

E1: Bueno eskerrikasko e!

E2: Zueri!

E1: Eta zer nahi dezue egin orain? Kanpaiña bat egin behar dezue edo?

E2: Urtero egiten dugu kanpaiña, emaitzarik gabe, eta horregatik esan dugu jendea juntatu honen inguruan buelta batzuk eman, ez genekin zer egin ya egia erran...alfabetatze ta...

E3: Zuek pentsa hor bueltak ematen zer egin zer ez...

E2: Horregatik nahi genun jendeari galdetu.

E1: Eta aber hortikan sortzen diren erantzunak.

G: ideia majikoak!

E3: Ideia majikoak eztira existitzen!

G: bueno!

E2: Eske, eske eztut beste biderik ikusten, egitten bada Ttipi-Ttapan bitartez hola kartelak paratu edo aldizkarian etxean igorri eta esperon egon ea jendea etortzen den, jai dugu.

G: zuk jun behar dezu jendearengana!

E3: Makillakin o ze?

E1: Makillakin ez baño ia ia! Eeee zenbait kasutan egiten den modun, hauteskundak diela ta, zerrenda hartu, zensoa, burua ezpaduzu behintzat eta hasi banan banan los susceptibles, eta haiengana joan.

E2: Baña hori errexa da erraten baña egitea? Hartu Zubietako zensoa eta banan banan deittu?

E1: Bana banan ez...horrekin erran nahi dut si Mahoma no va a la montaña, la montaña va a Mahoma, osea jendea etortzen ezpada zu joan beharko duzu jendianga, osea kartelan eta kanpañan bitartez jendia ezta etortzen. Eta ordun zuk nahi baduzu jendia urbiltzea ba joan beharkozu banan banan. Oaiñ deialdi hau egin duzuen modun, pues joan ate gehigo joka. Nik erran dut ezetz bañan igual xxxk esan du igual hasiko dela, pues bueno. Animatu!

E3: Hasi behar genuke.

E1: Ni anulatua nago hortako!

E3: Alperkeria duk!

E1: Alperkeria ez!

E3: Eztago beharra hoi da kontua, beharrezko balitz edozertarako, ordun...

E1: Bai, baño beharrezkoa... ordenadoriare beharrezkoa al duk? Ta jendea apuntatzen da.

E2: Hombre igual euskarak eztu behar dun prestigio gaiña, falta zaio.

E1: Baño garatu da euskararen prestigio ez, aunitz.

E2: Bai, bai, hori ezin da ukatu. Hori aitortu egin behar da, orain dela 15 urte...

E3: Edo gehigo.

E1: Euskera defendatzea Doneztebe batian, edo orain defendatzea ezta gauza bera edo euskera, edo zu denda batera joatia eee eta euskaraz erraten badiozu "zergatik eztuzu euskaraz egiten" oaiñ erratia edo orain dela 15 urte erratia...atea isten zizuten.

E2: Etorri zareten guztik euskeran aldekoak zarete, ordun beste batzuk igual ekartzen ahal nun Labaiño alkatea, solastera, honen ingurun, igual bertze ikuspuntu bat emango zuen agian. Baño nik errexena egin dut, euskararen alde dagon jendeari, askotan beharrezkoa da, baño eztakit noraiño den beharrezkoa, igual norberak dittun argumentu hoiek indartzeko.

EZTABAIDA TALDEA. ALFABETATUAK ETA BIDEAN DAUDENAK (ET4)

Galdera (G): Hasiko giñake bakoitza bere burua aurkezten nola...ni neu hasiko naiz igual, Urkok esan don bezela nere izena XX da, 27 urte dauzkat eta lan eitten det Andoañen Aztiker izena don enpresa txiki batian, e bueno soziologiaren mundun edo holako ikerketak egiten ditugu, bai formato hontako ikerketa kualitatibok deitzen dianak, bai inkesta bidezkoak ere, eta bueno pixkat, oaingo hontan hemen Nafarroan galbiltza lanian.

E1: Ni xxx naiz, 31 urte dittut, soziologia ikasi dut etabatean nabil.

E2: ni xxx naiz, 32 urte dauzkat, psikologia ikasi nun eta nago orain Berria egunkarian lana egitten.

E3: ni xxx naiz, 28 urte dittut Berakoa naiz eta hemengo zabor mankomunidadean aritzen naiz lanean.

E4: nik xxx izena dut, 36 urte dittut eta momentu honetan langabezin nago.

E5: ni xxx naiz Aresokoa, 49 urte dittut, gizarte zebitzuetan egitten det lana eta langille familiarra naiz.

E6: ni xxx eee 46 urte dittut eta Lesakan bizi naiz, ee sukaldaria naiz.

E7: ni xxx naiz 42 urte dittut eta bueno Lesakan bizi naiz eta hemen, Beran herriko etxean egiten dut lana.

G: badeu denetik pixkat ordun. Hasiko gea lenengo modu zabal batetik edo, hasteko euskeran ingurun galdetuko dizuet galdera pixkat potoloa. Zuentzako zer da euskera? Nola bizi dezue...Eztitu nahi erantzun perfektuak edota...edozein gauzak balio du, edozein...gañea sentipenak dia ordun bueno...Euskera.

E5: Neretzako hizkuntz bat da, behar bada momentu honetan izan daiteke nere edo nik aukera egin dudana baño, hizkuntz bat.

E3: Bai hizkuntza, baño badu kultura ere aldi beren ez, kultura eta ohiturak eta...bertze bizimodu bat izateko modua ere bai.

G: osea hizkuntza bati lotuta azkenena bizitzeko modu bat eraikitzen dala ikusten dezu zuk. Besteak ados gutxi gora behera horrekin?

E7:Bai. Neretzako aitek eta amak erakutsi zigutena, eta nik ikasketak eta dena erderaz egin nittun baña beti etxian ta euki deu horixe euskara.

E1:Eta gure herriaren hizkuntza da. Euskal Herriaren hizkuntza.

G: Zuk zerbait esan behartzenun igual?

E2: Ba hori, nik dena erderaz ikasi det eta orain nago, lanen euskeraz egitten deu dena, ordun klaro, da kanbio hori, etxin dena euskaraz, gurasoekin dena, baño gero ikasketak eta lana ta beti erderaz. Baña orain aldatu naiz eta dena euskaraz, ordun klaro neretzako izugarrizko aldaketa izan da.

G: azkenen hizkuntzak aldatu dizu, hitzegiteko zea baño gehiago ezta?

E2:Hitzegiteko, idazteko, pentsatzeko, osea dena euskeraz egin behar det.

G: zertarako erabiltzen dezue euskara? Batzuk aipatu dezue etxean familin erabiltzen dezuen hizkuntza dela, kasu hontan zuk orain lanean...

E6: Hombre lagunekin ere aunitzekin bai, beste batzuekin nahiz eta jakin, pues eztaikit bere garaian hartu genun erdaraz aritzeko ohitura eta igual oaindik eztegu aldatzen. Eta guk geure lanen pues bitara, idatzizko zea bitara eta ahozkoa ere pues bitara ere, tokatzen zaigu.

E1: Guk ere lanian euskara erabiltzen dugu. Gure udala Ueman sartuta dago orduan euskaraz hitz eta idatzi behar dugu gehienbat eta gero ba lanetik kanpo, nik gurasoekin beti euskaraz hitzegin dugu, eta berak aipatzen duen bezala ba, hori kuadrillakoekin edo lagunekin ba batzuekin badago ohitura hori beti euskeraz aritzeko eta beste batzuekin ez. Nahiz eta jakin, eztaikit dira betiko ohiturak. Eta nere mutillarekin adibidez, nahiz eta berak jakin, beti erdaraz egiten dugu. Eta ezin, ezin...batzutan jartzen gara, beinga euskeraz hitzegingo dugu, baña azkenean beti...

G: artifiziala suertatzen zaizue?

E1: Bai! Oso artifiziala!

E7: Bueno nik, funtzionatzen dugu beti euskeraz. Osea lanean beti euskeraz, Ueman sartuta dago udala baita ere bueno eta bueno lan postura aurkezteko ba euskeraz jakin behar da eta. Idazten dut pixka bat eta baita ere euskeraz, aldizkari txiki batean, irratin ere pixkat hitzaiten dut eta baita ere euskeraz, etxean dena euskeraz baita ere, baño bueno orain nere umeak euskeraz ikasi dutelako eta nolabait hola bizi dugulako ez. Bano nik nere gurasoen etxean asko hitzegin dut erderaz, nahiz euskaldunak beraiek izan, ba erderaz ikasten genuelako, pues euskera zegoen zegoen bezela eta bueno ...fase desberdiñak bizitzen ditudu eta egoerak eta...momentuak eta hoi. Herri ttiki ttiki bat da euskaldune, oso euskaldune, bueno gauza askok gonbidatzen zaittue euskeraz funtzionatzea, baño bueno segun nun zauden ze momentutan, ze egoera, eztaikit...

G: esango zenukete zerbaitetarako dela euskera ezin bestekoa zuen bizitzetan, zuen herrietan? Ezin bestekoa da euskera, beharrezkoa?

E7: Hori ez badago ezin dela funtzionatu esan nahi duzu, osea derrigorrezkoa da...nolabaitteko mugatzen zaittu...hori? Ez alde hortatik erantzuna behartzun edo...

G: bai.

E3: nere kasuan laneko, ez badakizu euskeraz ezin zara sartu administrazioan, ordun.

E1: Ba nere kasuan ere berdin, horregatik apuntatu nintzen gehienbat eta titulua atera, euskera maila frogatzeko ba eskatzen dizute frogatzen bat edo titulua.

G: bestela zuen herrietan, igual lan esparruetan aipatzen dezute administrazioan zabilatzatenak aipatzen dezue behar dezutela hori ziurtagiri bat azkenean beharrezkoa bai. Bestela hortikan kanpo beharrezkoa ikusten dezute euskeraz bizitzea, euskera jakitea hemen ingurun? Zuen herrietan?

E5: Nik uste dut baietz, horrela ikasi bizitzen ez eta niri raroa ingo zitzaidan oiañ... nik lanerako eztut bihar izan bañon...

E6: Nik ezta, eztut behar izan, baño bueno bai gogoia ez, gure hori...ni euskaldun berria naiz eta nere etxian ere.....berez Irundarra naiz eta hona etorri nintzanean ikusi nun ze...ze giro polita zen ez eta urbildu nintzen horra. Nere seme alabengandik eta orduan oso polita iruditzen zait ez, ze hemendikan eee Irunera edo Donostira edo edozein tokitara joaten bagera ba gauzak aldatzen diraeta orduan hori apreziatu behar dugu eta konzienteak izan behar dugu ez.

G: aipatzen zenuten momentu batean zuetako askok ez, ba eremuaren arabera hizkuntza bat edo bestea erabiltzen dezuela, igual familian euskeraz, bikoteekin edo lagunekin erderaz, badaude banaketa gehiago horrelakoak? Igual galdera laburtzearen, zein eremutan erabiltzen dezue erdera? Gaztelera?

E3: Nik nere kasuan, ikusi dezuen bezela nere kasua desberdiña da ez, nere aittak eztaki euskeraz, oiañ ikasten ari da. Nere arreba ezkondu zen eta bueno ematen du, izan dittu seme alabak eta horrekin bueno, illoekin hasiko naiz euskeraz eta oraiñ hasi da ikasten, baño oñarte etzekin deus ere. Ordun etxin beti egiten dugu erderaz, nik ere beti ikasi dut erderaz, unibertsitatean ere bai...beti erderaz. Ikasi nun gero euskera ez eta bueno nere amak badaki eta txikitan erakutsi zigun euskera, baño nere aittak etzekin ordun etxin beti beti erderaz. Eta gero lagunekin, gehienak klasekok dire eta klaro nik ikasi dut erderaz eta haiek ere, eta ordun beraiekin ere, denak badakitu euskeraz e, eta batzutan nahasten ditudu biyek ez baño gehiena erderaz eiten dugu. Gero berdin zaigu e etortzen baldin bada bertze bat hasten gara euskeraz eta eztugu problemik. Edo gure artin batzutan igual esaldi bat euskeraz, bertzia erderaz, baño bai igual erderaz gehio.

G: demagun denda batia juten zeanian, ze hizkuntza erabiltzen dezu igual, pixkat kale maillan, betiko lagunetaz gain edo, euskera gaztelera?

E4: Nik euskara, baño igual ateatzen naiz hemendikan Irun aldera edo Donostira, edo medikutara edo, igual ateatzen zait gehigo hasieran erdara, sarrerako.

E2: Nik igual agurrak, egunon eta, ikusten baduzu eztizutela erantzuten edo, eztakit zer erderara.

G: froga modun ez?

E2: ai! Igual automatiko ateratzen da ez, ordun berak ezpadu erantzuten bueno ba ematen du ya eztakila ez, ordun hurrengo galdera edo eztakit zer ya, noski erderaz. Baño hori bai.

E6: Osea eremu ezezagun batean ez, ni Leitzara joaten naiz asko eta hor mundu guztik daki euskeraz, ordun eztuzu planteatzen ere, baño Iruña batean. Adibidez ez ikastaro bat egitean edo "Hola, egunon!" "¿Cuanto es?" holakoak ez.

E2: Hemen inguruan euskeraz, hemendik ateatzen zeanean Donostira edo han igual tanteatzen dezu pixkat nun zabiltza eta...pues igual ikusten duzure bai non eskatzen al duzun euskeraz eta nun erdaraz. Batzutan euskaraz eta eztizute...segun! Baña normalen euskaraz!

G: euskera eta erderaz gain beste hizkuntzaren bat edo hitzegin edo erabiltzen dezue? Irakurtzeko edo...?

E3: Inglesa baño gutxi. Gero ta gutxiago.

G: ya aztuta!

E3: Ieno bai e! banituen liburuak eta pelikuak eta ikusten nittun, egon nintzen Irlandan ikasten ordun bueno...

G: mantentzen saiatzeko ez?

E3: bai baño azkenean nazkatu nintzen. Hori zen nun bakarra ez, pelikulak eta liburuak, ordun azkenin utzi in nun. Eta ya ez. Bueno frantsesa batzutan ez, joaten zarenean bertze aldera, baño. Baño gutxi ere bai.

G: badaukazue euskeraz irakurtzeko ohitura? Dena delakoa e, horri bat edo liburu bat, egunkaria euskeraz?

E7: Guk bai, Berria, harpidedun gera eta ordun derrigortuta zaude, irakurri behar baduzu, naiz gutxi. Ttipi ttapa, bueno gauz nahiko...udaleko ohar ttikik edo, edo hillobak etortzen badie eskolatik "begira zer eman dien eskolan!" bueno pues panfleto txiki hoik edo. Edo herrin jartzen dien ohar txiki batzuk ez, berdin du gazteak "gaur afaria eztakit non" edo holako gauzak.

E2: Nik ere holako gauzak, egunkaria Berria, nik liburu bat irakurtzeko eztut ohitura haundirikan euskeraz irakurtzeko. Egia erran ez.

E1: Neri asko gustatzen zait irakurtzea baño kostatzen zait pilla bat euskeraz irakurtzea.

G: liburuak?

E1: Bai, liburuak bai. Gero pues aldizkaria, edo Ttipi Ttapa edo hoiek bai, baña liburuak kostatzen zait pilla bat. Nahi ta agian, liburu berdiña erderaz izan osea irakurtzerakoan bueno zertaz doan eta, irakurtzen duzu agian erderaz eta esatezu "jo ze ongi dagoen ez!" ta gero murgiltzen zara historian eta, eta iruitzen zait, bueno niri iruitze zait oso zailla irakurtzea.

G: bestei ere gertatzen zaizue nobela eta horrelakoetan?

E1: Ohitura kontua izango da baño.

E6: Nik erderaz dena irakurtzen dut, liburuak pilla bat eta euskeraz ezin dut irakurri liburu bat, zuk erraten dezuna ez. Eta gero pasatzen zait lanean irakurri behar informeak edo zerbait teknikoak, hori lenbizikotan pilla bat kontatzen zian, irakurtzea eta ulertzea zer erran nahi zuen horrekin ez,

gero nahiz erderaz, erderaz jartzen badiazu bost minututan irakurriko det, baño euskeraz jartzen dezunian gehiago, esfortzu handiagoa, zergatik igual hitza batzuk eztittuzu ulertzen edo sentidua, eztakizu nola, pixkanaka pixkanaka hasi naiz ohitutzen, edo periodikoak edo Berria, Ttipi Ttapa, pixkanaka pixkanaka ohitutzen ez.

G: Berria zailla egiten zaizue, igual egunkaria euskaraz irakurtzea?

E5: Segun ze gaiak bai.

E2: Gu etxeakoak geala, kostatzen zaigu irakurtzea. Askok esan izan diate "irakurri bati, baño batzutan..."

E5: Oso astuna, eta segun ze gaiak...nere senarrak dena irakurtzen du baño nik ez, neri nekatzen nau. Ordun kriston interesa ez baldin bada, betire paso, ariñago.

E2: Han Gipuzkoan dago Hitza. Eta Hitza pentsatuta dago herriko jendiak irakurtzen dunian ulertzea ez, dago idatzita Ttipi Ttapa bezala. Klaro hori errexago da irakurtzeko baño jartzen zea berriakin eta...ekonomia testuak, eo politika, eo segun ze gaiak...uff! Bai gu etxeakoak gara, eta guk erraten dugu...

E4: Bai guk ere Hitza hartzen dugu eta ariñagoa da. Bueno gaiek ere motxagoak die...eztakit, beste modu batera, eztakit.

G: irakurri aipatu dizuet, telebista, zinea, euskeraz ohiturarik badaukazue ikusteko?

E7: Bueno telebista beti ikusten degu etxian, beti. Gehiena ETB.

G: arrazoi batengatik ikusten dezue gehiago euskaraz telebista?

E7: Etxen beti ohitura izan da.

E1: Nere gurasoen etxean adibidez, nola da? Teleberria, ikusten da euskaraz, osea ezta ikusten gaztelaniaz, beti...orduan pues ya... 14:30ak iristen dira eta jartzen duzu hori, eta badaude beste programa edo...betidanik ikusi izan ditugunak, pues, hoiek bai.

G: zinea? Bueno aukera ere badakit murrizta dala e!

E7: Ba baño hola ezaguna denean edo... eta euskeraz baldin badago ni joan izan naiz. Eztakit aukera haundik daun ere? Baño.

E1: Ni igual antzerkia, tokatu zait hemen inguruan edo, antzerkia euskeraz bai, zinea igual guttigo.

G: eta idatzi? Euskeraz, erderaz...idazten duzuenean nola izaten da gehiago batean, bestean...?

E2: Euskaraz, baño maiz sobera teknikoak. (*Barreak*)

G: ze laneko kontuk edo bestela, ohar bat idatzi behar dezula edo...

E4: Oharra eta idatzi beharrekoa normalen beti euskeraz. Osea ni azterketa bat, eta suertatu zait, egin behar azterketa bat administrari postu baterako ta nik EGA.-ko titulua badut bañon idazteko zerbaki edo hitz teknikoak, nahiko gaizki eta ez nun gaingaitu. Uste dut birziklapen bat beharko nukela.

E7: Nik etxian beti notatxoak euskeraz, baño bakarren bat erdaldune bada beti erderaz. Etxean etortzen zait lanak egitea emakume bat edo lagun bat, erderaz, eta ordun harrerari erderaz. Pues bai "Egunon, xxx naiz..." baño gero ondorengoak erderaz. Baño nik senarrari beti euskeraz, segun nori.

G: baña aukera daukazunean, kasu hontan beti euskeraz idatzen dezu?

E7: Bai beti euskeraz, bueno eta gañea klaro euskeraz funtzionatzen dugu.

G: lanean ere euskeraz daukazue ohitura idazteko?

E7: Bai, email bat ez, gaur gizarte lanei "kaixo egunon, hau nahi dut..." bueno baña ya da ohitura bat edo nola duzun harreman hori, euskeraz baldin bada euskeraz.

G: aipatu dittugu egunkariak, aldizkariak... irratiak ez, baña telebista etabar, zerbait sumatzen dezue faltzan euskeraz?

E2: Gazteentzako liburuak edo umeentzako. Anitz mugatua dago. Aber nik ez daukat haurrak baño nik lanean dauzkat jendea haurrak dauzkana eta hori erraten diate, gazteleraz badagola millaka aukera, baña euskeraz anitz mugatuta dagola. Pirritx eta Porrotx, badirela klase batzuk baña mugatuta dagola, beraiek erraten dutena ez, haurren kasuan eta gazteentzako hor ikusten dutela. Eta bidioak, haurrentzako bidioak eta...gazteleraz badirela pilla bat baña gero eztirela euskaratzen edo. Ordun bukatzen dute igual haurrei bideoak erderaz edo, hori nahi badute ikusi erderaz jartzen edo erderaz irakurtzen.

E7: Aber momentu hontan nik eztauzket ez, baño illobak ez eta han ezta ikusten, marrazkit ez tie ikusten euskeraz.

G: ETB3 Nafarroan eztela ikusten...

E7: Hori da! Ordun denak ikusten dittuzte erderaz ez, eta nabaritzen zaie asko, pues hori zenbat gauz sartzen zaizkien, porque ya asko esaldik eta eztakit zer, esatezu nola kutsatzen dien! Marrazkik adibidez hoi, ya ez liburuk! Baita marrazkik ere eta umeak telebistan... marrazkiak ikusten eta...

E4: Gu gazteak giñenen baziren marraki bizidunak...

E3: gehienak euskeraz ikusten genittun!

E4:Gehienak euskeraz ikusten genittun!

E3: bai, Songoku eta guzti hoiek, euskeraz, denak euskeraz.

E4: Oaiñ igual guttigo daude bai, egia.

E7: Bueno eztakit ikusten diren baño...

G: bai beste eztabaida talderen baten esan izan dute, beida Lekunberrin egin zen eta guraso bat hiru ume txiki, eta erderaz aipatzen zun, "Bob Esponja ikusten dute beti...ETB3 ezin degu ikusi, lehen ETB 1an zian Dragoi Bola, eztakit zer eta bestea, eta orain pasa dittuzte", ordun, ostra edo oso ondo pentsatu dago nahita edo, ze kalte ez, esaten zun, "umeak erderaz ez jakittetik orain noizean behin erderaz entzuten diot! Beldurtzen naiz". Zuk aipatzen zenun hori ez kutsatzeko... Besterik? Haurren zeak aipatu dittuzue ez, faltan somatzen direla haurrentzako euskerazko tresnak, zuentzat beste...? Bale, aurea ingo deu. Batzuk erantzun dezu baña zuen ama hizkuntza da euskera? Eta ikasketak danok burutu dittuzue erderaz?

Denek: Bai.

E4: Ez nik euskeraz.

G: zuk euskeraz burutu dittuzu?

E4: Bai.

G: eta horrek eragiña izango du noski, gero alfabetatzearen arrazoieta eta euskeraren erabillera lagun artean edo aipatzen zenuten, etxean batzutan horrek eragin zula ere gurasoek nahiz eta euskeraz jakin ez, osea gauza klabea da igual ikasketak ze hizkuntzetan burutu dittuzuen kasu hontan. Baña pixka bat sartuz alfabetatzean munduan edo denok euskaltegien bitartez alfabetatu zeatu edo zein bide erabili zenuten alfabetatzeko?

E7: Euskaltegia.

E6: Hizkuntza Eskola.

E5: Euskaltegia.

E4: Nik ikasketak euskeraz egin nittun.

G: euskeraz egin dezu eta EGA. atera zenun euskaltegia joan gabe?

E4: Bai.

G: zure kabuz?

E4: MMM!

G: zergatik alfabetatu ziñeten, zein izan zen arrazoi nagusia esateko alfabetatu egingo naiz? Bueno zurea igual EGA. atera izango litzateke baño, zein izan zen alfabetatze prozesua burutzeko arrazoi nagusia?

E5: Nere kasuan umea, umeak txikiak zianean lagundu behar zenion eta klaro ikasi behar zenun.

G: etxeko lanak eta?

E5: Hori da! Hori izan zen, bultzakada hori izandu zen, gero pues nahi duzu gehio jakin edo ikasten duzu beño garrantzitsua hori izan zen, horrek markatu zun bai.

G: besteon kasuan?

E7: Pues lan aldetikan, bueno, ikasteko, lehen solasten giñan bakarrikan eta ustez ongi baño gero konturatu giñen hori ere gaizki egiteñ genuela eta idatzi berriz deus ere, ez genekin ordun bueno hasi giñen lana billatzen eta pues ya hortan sartu eta ahal baldin bazen ya atera EGA. eta ya.

G: besteok ere lan kontuengatik edo? Lanerako beharrezkoa zenutelako edo atea irekiko zizkizuelako?

E1: Nire horregatik gehienbat, nik neukan euskara mailla zen nahiko, nahiz eta etxean egin, ikasketa guztiak erderaz eginda ba motz gelditzen zen edozein lan edo aukera izateko, orduan pentsatzen nuen aukera ona izango zela alfabetatzea edo.

G: alfabetatzen hasi ziñatenian ze aurre ikuspen zeneuzkaten, ze espero zenuten zuen alfabetatze prozesuaz, nola irudikatzen zenuten hasi baño leno? Gogoratzen duzue?

E2: Gehienbat nere kasun, nik pentsatzen dudana eta nik erraten dudana, ez dut idatzi behar erraten dudana bezala ez, nik neukan akats hori. Nik pentsatzen dut, nik uste dut horrela idatzi behar dela eta ez, kontrakoa, idatzi behar da hola eta egon behar da hola. Etare bai lanangatikan EGA atera nahi dudalako eta nik uste dut paso hori eman behar dudala, EGA atera baño lehen. Uste dut hor neukala punto bat, ezin nula EGAr pasa, eta horregatikan, aurtan.

G: besteek ere antzeko prozesua izan dezute?

E3: Nik ere EGA atera nahi nun eta hortako ez, beti euskeraz eee erderaz itten nun etxin ta eskolen ta denin, bai solasteko moldatzen nintzen nire lagunekin solasteko ta bai, baña banekin behar nula zerbait gehio ez, eta idazteko momentun pues ikusten nun ez, behar nula gehio! Gañera hizkuntzak ere gustatzen zaizkit ordun erran nun nahi dut, euskera ongi ikasi nahi dut! Eta hortako joan nintzen batez ere ez.

G: beti direla esango zenukete zeneuzkaten aurre ikuspen hoiek edo? Lortu dezute EGA. ateratzea, pozik zaudete, pentsatzen zenutena bete da?

E5: Nik ez dut EGA atera e!

G: baño kasu hontan zuk etzenun EGA nahi ezta ere, zuk nahi zenun gehiago ba seme alabekin ba lagundu...?

E5: Eta pixkat sakondu eta...baño ez EGA atera, ez. Ez dut iñoiz proposatu hori.

G: Baña hori bakoitzak zitun helburuak bete dittu kasu honetan?

E3: bai. EGA atera egin nun, mankomunidaden sartu nintzen, horko azterketak direla EGA. baño zaillagok, eta EGAKin eztu balio.

E4: Horregatik erran dut nik hasieran ere bai, azterketan bat egin nuna euskaraz mankomunitaterako eta ez nula gaindittu.

E3: EGA izateak eztu balio horrekin, egin behar duzu beraien azterketa, eta klaro sartu nintzen mankomunidaden ordun bai! Ikusten dut oraindik behar dutela ez, gehio itten dut erderaz eta orain ere erdera mailla hitzez altuagoa da ez.

G: zenbat denbora behar izan zenuten edo zenbat ikasturte pasa zenituzten euskaltegian hizkuntz eskolan?

E3: nik urte bakarra.

G: urte bakarra...

E5: Nik urte bat.

G: azkar egintzenuten!

E2: Nik batxillergoa bukatu eta gero.

E5: Lengo urtian motxagoa zen, baño baita ere euskaltegian ibili nintzen. Ez naiz gogoratzen, lau hillabetekoa edo, sakontze esaten zioten ez, giñan talde txiki bat. Igual lau edo bost aldiz.

E6: Ni ari naiz.

G: oraindik ari zea. Eta nola edo gogoratzen dezute, bizi dituzue momentu hoiek, osea alfabetatze prozesua nola bizi izan dezute, gustora, zailtasunekin, gomendioren bat egingo zenukete ba zerbait beste modu batetara egiteko...?

E5: Begira, ni sakontze talde horretan egon naizenean, besteak zian oso gazteak, eta gañea unibersidadean ai zian gaztetxoak ez. Eta bueno nik eztitu hainbeste kuestionatzen baño beraiek denboa guztin, "eta hau zergatik? Eta hau nola?" eta irakaslek "a pues begiratuko du, a pues begiratuko dut!" nik esaten nun, jo! Ni nago persona horren barruan eta...begiratuko dut, begiratuko dut...nik pentsatzen nuen, bueno pentsatzen nuen, ziurtasun gehiokin, galdetzen badizute zeozter jakin behar dela, nik suposatzen nuen, baño askotan, a pues begiratuko dut, a pues begiratuko dut! Hartu hiztegia eta...Gateak bueno galdetzen dute! Ta zergatik eta zergatik! Ez nun ikusi nik oso airoso irakaslea hor e! o behintzet nere inpresioa! Baña gaztetxoak bai kaña jartzen dutela ta ordun hor zorrotza beharko du hor benetan dakizula nundik jotzen dun haizeak ez! A pues galdetuko dut... eztatkit zer!

E6: Guri pasatzen zaigu, ni orain... nago hemen bean. Ta gara talde bat agitz arraroa. Alde batetik gure adiñekoak edo ingurukoak eta gero gu baño zaharragoak. Orduan beraiek guri erakusten digute, ba hitzak, beraiek nola erraten dituzten gauzak...eta irakaslea aunitz laguntzen da beraiekin ez, "hau zer erran nahi du?" eta beraiek badakite gu baño hobeto, igual eztatkit idazten edo irakurtzen, baño esaldiak, hitzak... gu baño hobeki kontrolatzen dute.

G: euskalkia igual...

E6: Bai, hemengoa, bueno gañea gara, Hoñarbiko bat, Iruñeko bat...azkenean nahasketa bat eta...ondo dago!

G: bestean kasuan ere, taldeak pixkat heterogeneoak dira zentzu horretan, adiña, badago gazteak eta nagusiagoak edo...nola, osea, ze talde mota izan dezue bakoitzak?

E3: ba ni joan nintzanean denok gaztek giñen, EGA. atea nahi giñun eta hortara joan giñen, ordun denak gazteak. Bost o sei giñen bakarrikan e, baño denak gaztiak. EGA. ateatzeko asmokin.

E1: Ba nere kasuan ere bai, denak adiñ berdintsukoak giñen, eta bat zegoen, bere taldean gertatzen den bezala, Baztango mutil bat eta berari ere beti galdetzen zion, "tal, nola esaten dezue zuek hau, hitz hau?" "zuek esango duzue hau eztatkit nola!" eta "bai" eta hola, eta hitz asko hartzen genittuen edo gelditzen zitzaizkigun...bai.

G: zentzu horretan aberatsa iruitze zaizu konpartitzeko aukera hori?

E1: Bai, ze beste guztiak bueno..... jende asko zegoen hizkuntza eskolan eta orduan pues alde hortatik bera egotea oso aberatsa izan zen.

G: gazteen artean EGA ateratzeko arrazoia, lana, normalean?

E3: bai!

G: denona edo esango zenuten? Zuen taldekide gazteak, EGA. atera lanpostu bat edo administrazioan aukera gehiago izateko, ez dago beste inor beste arrazoiengatik joan zena edo?

E2: Nere garaian nik gogoratzen dut hori, batxillergoa bukatu ta joan giñela. Osesa egin behar da eta egin behar da. Batxillergoa bukatu eta uda horretan, oraindik oroitzen ari naiz igandin ordu batzuk eman genittula, ta giñen pues denak adiñ berako lau edo bost neska, ta mutilen bat. Pues hori ya uda hortan egiteko ez, baño bueno egin behar zalako.

G: ta zure kasuan adibidez, helduagoak diren hoiek, ze arrazoiengatik joaten dia alfabetatze...?

E7: Gehienbat ongi idazteko, ongi hitzegiteko. Bueno hitzezin, ondo hitzegiten dute. Gehienbat da idazteko eta irakurtzeko. Ba adibidez, gutun bat idatzi behar badute, zerbait hola, perfekzionatu edo jakin nahi dute nola idazten den ongi. Klaro beraiek idazten dute hitzegiten duten moduan. Ordun, berak, irakasleak erakusten dio "ez, zuk erraten dezu hola, baño idatzi behar dezu hola". Gehienbat, beraiek EGA.ra eztira presentatu behar! Nahi dute ba herrian hobeki hitzezin, idatzi, irakurri, ba periodikoa hartzen badut...Gehienbat aunitz irakurtzen dugu klasean. Beraiek ere bai ohitutzea irakurtzea.

G: zuen kasuan ere errepikatzen dia holako arrazoiak alfabetatzeko arrazoiak edo?

E6: Mmmm

G: esango zenukete alfabetatzea beharrezkoa dela?

E6: Bai.

E4: Ta segittu alfabetatzen. Ez nik ere EGA. bere egunin atera egin non...

G: Gero mantendu ez!

E6: Gure, pues oain berriki sartu da udala UEMAN ta igual bialtzen dizkigute noiz behinka pues euskarari buruzko arauak eta hola eta uff!

G: kosta egiten da ez?

E6: Bai, bai! Batzutan gaizki daudenak irakurri eta ba ustez ongi daudela, ta gero zuzenketa ikusi eta puff! Bai, bai segittu behar da, bai titulua hor duzu, papera ez, beño gero...

E3: ezpaduzu ibiltzen gero! Gañera aldatzen ari da, bi urtetikan hona ere, lehen egin behartzenun esaldia eztakit nola, oaiñ alderantziz hasi behar duzu, aldatzen da hainbeste ya eztakizula nola idatzi! Solasterako momentun pues bueno al duzun bezela ez, baño gero idazterakon administrazioan saiatzen zarela gauzak ondo idazten ez, bai segittu behar duzu ikasten.

G: orduan alfabetatu zertarako?

E3: ba igual hemen bizitzeko ezta behar, moldatzen baldin bazara, solasterakoa momentuan. Lagunekin solasteko edo moldatzen baldin bazara eztuzu behar. Igual eztuzu agitz ongi solastuko beño bueno.

G: ulertuko dizute?

E3: bai. Baño gero lanerako eta, ba bai. Edo batzutan pues, erran dizuten bezela zerbait leitzekore bai.

E7: Ni pentsatzen ari naiz, nere gurasoena ez, esaten dezu irikia da ez, alfabetatzea, ba seguraski ez, hitzegin oso ondo hitzegiten dute, baña oaiñ udaletik dena euskeraz, hombre zaborra jartzen baldin badu, badakite zer dan zaborra baño, edozein errezibo edo edozein eztakit zer, horrekin ya zailtasunak daude, beraiek, galdetuko dizute eta argittuko diozu baño...

G: euskera Hutsean bialtzen dia?

E7: Bai.

E1: Guk adibidez segun ta nor den ba elebiz. Baño hasera baten dena euskeraz, eta gero ba kontatzen badizute edo esaten badizute zerbait, ba "eztut ulertzen edo".

E6: Segun eta udalean nor dagoen, hori aldatu zen azkeneko legislaturan, ikusiko degu hurrengoan. Atzera egitea pauso bat.

E3: batzutan Iruñera bidaltzen dugunean, batzutan bakarrikan erderaz ere bai e, bidali izan degu, badakigulako eztutela leitu behar eta zuretzat lan pilla bat, biyetara idaztea. Edo Madrillera por supuesto ez, baño Iruñera batzutan ere bai, baño normalin bietara.

E1: Eta segun eta nora bildaltzen duzun, batzutan euskeraz bidaltzeak partikularrari edo sustatzailleari ba, bueno zaillagoa, zailtzen dizkiozu gauzak, ze agian aste pare batean, proiektu bat ikusteko garaian euskeraz bidaltzen baduzu ba agian hillabete bat kostatzen zaie informea egitea orduan pues, batzutan...

G: pratikoak izateagatik.

E1:Guk askotan pues bai, bidali behar ditugula gauzak euskeraz baño askotan pentsatzen duzu eta jartzen zara bestearen tokian eta esaten duzu, bidaltzen badugu euskeraz eskariak, ez diote erantzungo, porque itzultzaile bat behar dute hori guztia itzultzeko eta horrek denbora behar du. Eta segun eta ze espediente den oztopoak jarri al dituzu.

G: gomendatuko zenioke alfabetatu ez den bati euskaltegira joatea eta alfabetatzea?

E7: Nik bai. (*Barreak*)

G: zuk zalantzak azaltzeituzu?

E7: Ez, ez, nik animatuko nuke, baña batzutan zaila da ez hortan sartzea ere.

G: ze zailtasun ikusten dittuzue hor? Jendea ez animatzeko, ze seguraski daola jende pilla bat ez, euskeraz dakina baño eztena moldatzen idazteko, irakurtzeko... jende hori zergatikan uste dezu ez dela animatzen alfabetatzera?

E3: gogo falta. Ikasteko...

G: gogoa esango zenukete?

E3: ikasteko gogoa behar duzu.

E5: Gogoa baño gehio nik uste du motibazio bat. Bueno gogoa...motibatua baldin bazaude, berdin du zergatik ez, ikasteko edo euskara jakin nahi duzulako edo eztakit zergatik ez, baño nolabaitteko motiboa behar du. Zerek bultzatzen zaittun ezta. O igual gogoa eztaukazu baño motibaturik baldin bazaude ez, X arrazoiengatik, atera beharko duzu gogoa egiteko, eztakit. Bueno nik desberdintzen dittut ez, gogoa eta zerk bultzatzen zaittun.

G: eske arazo bat da ez, hemen taldeak sortzea alfabetatzeko, badaude eskualde berri batzuk eskaria eztagola ez, eskeintza bai baño, euskaltegiek eskeintzen dute, baño ez direla taldeak osatzen, baña eraberean dago jende pilla bat alfabetatze...alfabetatugabea. Zergatikan ez da jende hori, eztu pausu hori ematen eta saiatu?

E1: Ba agian eztutelako beharra ikusten. Esan nahi dut, hitzegiteko orduan moldatzen direnez, ba agian eztute behar hori ikusten.

E5: Bai erakusterako ordun herri maillan udaleko gauzak eta osea bi hizkuntzetan jasotzen ditzuten bitartean eske eztute iñolako problemaik izan behar. Klaro, bakarrikan euskeraz, ordun nik uste dut beharra nik uste dut haundiagoa izango zela, ulertu nahi badute. Klaro bitara jartzen baduzu.

G: ezagutzen ditzuzue egiten dian kanpaiña ezberdiñak, urtetan zehar egin izan dian kanpaiñak, euskaltegietan alfabetatzeko, etortzen zaizue zerbait gogora horrekin?

E6: Garai batean Ttipi-Ttapa telebistan bazen eta ni oroitzen naiz ikusi nula kanpaiña eta geldittu nintzen horrekin. Eta deittu nun horregatik.

G: osea kasun hortan kanpaiña eraginkorra izantzan!

E6: Bai!

E3: bai, Ttipi-Ttapa aldizkarian ere izaten dire. Eta gero, ere bai plazatik edo...

E5: Etxetik plazara!

E3: Etxetik plazara! Hori ere bai.

G: eta nola baloratzen dezue Etxetik plazara, gehiagotan ere aipatu izan diate, bueno eztakit tresna bat da, gustoko dezue, erabilgarria...?

E6: Bai.

G: balio dezake zerbait egiteko euskera eta alfabetatzean ingurun, badu holako funtziorik? Zalantza agertzen dezu zuk!

E4: Bai.

G: nik eztut ezagutzen e! badakit Ttipi-Ttapan eskaria zein den baño...

E7: Uste dut hori egiteko interesa dun pertsona horrek, alfabetatzeko interesa ere eukiko dula, eztakit.

G: kanpaiña ezberdiñak aipatu dittugu, zein mezu jaso izan ditzuzue, kanpaiña hoiak zein mezu helarazten ditzuzte?

E5: Egun hotan irratin ai nintzen aditzen bat e, bi haurrena, gaizki erabiltzen dugula euskera, euskera eta erdera nahasten dittugula...eztakit gurasoen elkarriketa bat egiten dute, eztakit Euribor eta que esta en el congelador eta...

E4: A bai!

E5: Guri hori gertatzen zaigu, erabillera txarra, erdarakin hasi eta...eztakit.

E3: bertze bat ere bazen ez, enaiz agitz ongi oroitzen e, erropa eta gero, gizon bat billuzik, eta paratzezun, ia billuzik sentitzen zela euskararikan gabe edo holako zerbait ere. Eztezue oroitzen! Zerbait falta zaizula euskararik gabe. Etzen beste kanpaña bat hola, enaiz agitz ongi oroitzen e!

G: esango zenuke, lortzen dutela mezuek ongi iristea? Gaizki?

E6: Irikitara baldin bazaude horretara, mezua hartzen duzu, eske...

E3: zuk ere izan behartzu interesa!

E6: Segun nola zauden mezua hartzen duzu eta, gauza guzikin ba horrela da.

G: eta badakizue nork bidaltzen dituen, osea ezagutzen duzue arropa dela, ez dela, badela, bi ume hizketan...nork, osea nor den mezu hoiak atzean dagoena? Euskaltegia den, mankomunitatea den...

E7: Euskara mankomunitatea ez? normalian?

E5: Edo Ika.

E3: Ika askotan.

E2: Panfletuak eta askotan bai.

G: baña hori argi gelditzen zaizue ez?

Batzuk: Bai!

G: esango zenuten eraginkorrak diala, kanpaiña hauek mezu hauek, balorazio bat egitteko garaian edo?

E6: Eztie izango, esaten baldin baduzu jendea eztela animatzen!

G: zuen kasun eragin zun zuekin? Edo bestela, berak aipatzen du baietz, baño besteok izantzen, eskola amaitu, EGA. atera behar det?

E7: Bai!

G: nik hemen dittut kartel batzuk, ia ezagunak egitten zaizkizuen, akaso baten bat ezta ba zuen herri ingurutan edo...izan dia erabili dian kartel ezberdiñak, ba hori kanpaiñen barruan? Baten bat egitten zaizue ezaguna?

E4: Hori!

G: hizkiena?

E3: hau bai ez!

G: hori koloretan da e!

E3: pentsatzen dut bai! Nik uste dut baietz ikusi dutela nunaitten! Eztakit nun e! bai hau bai!

G: eta olagarroana ezaguna, eraginkorra esango zenuke dela, asmatu dutela, marrazkia eta edukietan? Badakit hemen ezkeala publizista adituak e baño bueno!

E7: Jendeak gehiago ikusiko zuten, hau, hori baño!

G: olagarroana igual bai ez, hizki gutxi, orlegia, irakurtzeko, zailtasunakin...

E3: Hau hartzezu eta fuera ez...

G: letra gehiegi...

E3: bai.

E5: Niri iruitzen zait papera biño, probetxu gehiago izan zula bere garain, adibidez Ttipi-Ttapa bezelako, telebista bat hemengo zonaldin. Nola hemengo berriak ematen zittun jendek ikusten zun eta han agertzen ziren horik igual ziren eraginkorragok kartelak baño.

E7: Aunitz ikusten zen eta hori pues.

G: eta gaur egun zein erabili litteke, eztago ya Ttipi-Ttapa telebista, badago zerbait hori ordezkatzeko duna?

E4: Leitzan beti ere, beti daude holako...

E3: eta Ttipi-Ttapa aldizkaria ere bai. Nik uste dut kartelekin eztela deus egiten, ni ere mankomunidaden nago, zabor mankomunidaden biño kartelak paratzeittugu ta eztugu deus lortzen. Edo joaten zara bakoitzan etxera, bialtzeittuzu kartak etxera edo...kartelakin...jendiak ya eztittu leitzen! Hainbertze kartel dittuzu kanpon, ya eztuzu ikusten ere ez! Ordun guk ya erabaki genun duela bizpauru urte ya, kartelak egitten dittuzu e, baten bat, baño gero ta gutxigo. Billatu

behar da beste moduren bat, ezta errex, hor ibiltzen garare bai, baño, nik uste dut karteekin ya eztela atentziorik jartzen!

G: zein funtzio betetzen dute euskaltegiek zuen eskualdeetan, zuen herrietan?

E1: Adibidez nik lan egiten duten udal-herrian, badago bueno pues herri berri bat edo, eta kanpoko jende asko joan da hara bizitzera eta kanpoko jende asko euskaraz dakiena, eta adibidez hor sortu dia talde, bueno talde asko, badaude pare bat talde euskaraz ikasten dutenak, ba beraiek ere ikusten dutelako behar hori, han bizitzen direnez ba, euskeraz hitzegiteko eta ikasteko, modu hori.

G: zentzu horretan esango zenukete igual gehiago euskaltegien funtzioa gehiago dela, euskera ezta kitenei euskera erakustea, euskera dakitenak alfabetatzea baño, pixka bat oreka...?

E5: Denetatik dago e! porque maillek ere daude mordoxka eta ordun alfabetatzen ere ibiltzen da jendea, baño. Pentsatzen deu, gaur bezela, hasiera bai, gero aiatzen zen aste santua, nire esperientzi, ya talde erdia baño gutxigo, eta udara ya aiatzen giñen bat edo bi. Eztakit zeatik. Jendea nolabait...gañea nola ezten oso, formala, nola ezten iñork...aber etorri zea gaur, aber lista eztakit zer...nola ezten horren zorrotza ere, jendeak...

E6: Hori irakaslean arabera!

Ex: Eztakit, ni ibili naizenean beti ere...

E6: Guk beti oso talde polita dugu eta oso ongi pasatzen dugu, niretzat oso inportantea da irakaslea, motibatzea. Ta bueno, emakume zoragarria da eta kriston tiroia du. Oso gustura gaude eta gañera kutsatzen gaittu, gogoa eta ilusioa eta euskararen garrantzia eta...

G: zure taldea, zer dago ere EGA ateratzea bideratua edo, hoietako talde bat?

E6: Ez, printzipioz ez, desberdiñak gara eta.

G: eta ze arrazoiengatik dago jendea?

E6: Elkartu giñen orain dala hiru urte eta bueno, beste batzuk ya...

G: aurretik zetozen.

E6: Bai eta eztakit dan, elkartzen gera eta...bai denak hobetzera goaz e, bueno nere adiñekoak eta desberdiñak, baña hain gustura gaude eta...ez da bakarrik ikastea edo, baizik eta...

G: ze helbururekin joaten zeate?

E6: Baaa, eske eztugu, pues testuak eta irakurtzen dittugu, albisteak eta, edo horrekin batera hitzegiten dugu, ba aitzaki horrekin ba, ba denbora polita pasatzen dugu. Biña bai, nik uste oso inportantea dela irakaslea. Edozein gauzatan e!

G: irakasleaz gaiz esango zenuten dagoen eskaintza pixka bat berritu edo egokitu beharko litzatekeela, jo ba aipatzen dezu ez ba kosta egiten dela kurtso oso bat, ba askotan bidean galtzen dela jendea, ez dela erakargarria edo, berritu beharko litzateke eskeintza eta holako formula marabiloso bat asmatu edo, betikoakin gaude ez? Bai, baño zer? Edo uste dezue buelta batzuk eman behar zaizkiola euskaltegien eskeintzeri gaur egun? Edo dagoena egokia da? Arazoa dago motibazioan?

E1: Nik adibidez duela lau edo bost urte apuntatu nintzan euskaltegian eta egon nintzen oso denbora gutxi ze pues hori ez nuen motibazio, ez nuen batere motibaziorik eta atera nintzen. Eta aurreko urtean hizkuntza eskolan izena eman nuen eta gogo, osea klaseak oso desberdiñak ziren, ze jartzen zizkigun ba wazemank-eko esketxak, gero berak sortu zuen web orri bat, jartzen zittuen irakurketak, ba bideoak eta osea...

G: dinamikoagoa?

E1: Dinamikoagoa zen, bai, eta jendea urte osoan mantendu zen talde, hombre bakarren bat joan zen, baño, gutxi gora behera talde osoa mantendu zen urte osoa. Eta zen oso dinamikoa. Eta aberatsa.

G: kasu horretan da igual irakaslearen...

E6: Gure taldean igual azkenean bukatzen dugu, eee eramaten gaitu bere baserrira eta han, txangoa egiten dugu bueno ume txikiak bezala, biño, hori kriston esfortzua da, ezta bere soldatan sartzen. Baña hori da pertsona nolakoa den ez.

G: sumatzen dezue ezer faltan euskaltegiei dagokionez? Igual esperientzi hoiek biak konparatuta faltan botako zenukena, saioen egitura hori ez?

E1: Bai ze han testua, zuzendu, irakurri hau, eztaikit zer...eta hizkuntza eskolan ba irakasle honekin zen askoz dinamikoagoa, eta orduan egiten zenuen lan asko etxean, baliabideak zenittuelako, ba internet, lehen etzegoen hain garatua eta orduan ba, klaseak emateko beste era bat izan da.

G: modu horretara uste dezue jende gehiagok iraungo lukeela edo, alfabetatze eta euskera ikasteko ikastaroetan?

E3: Bai, erakargarria egitten badezu eta lortzen bazu ba gogo hoiek mantentzea.

E1: Nik uste dut gehienbat, pues azkenean guztiok daukagu lana, gero eztaikit zer ikastea, eztaukagula denborarik, orduan ematen baldin badizkizute beste baliabide batzuk, zuk zure kabuz daukazun denbora hortan ematea, ba erabilgarriagoa dela.

G: zein mezu iruitzen zaizkizue bidali zaizkiola jendeari alfabetatzera animatzeko, euskera ikastera animatzeko, batez ere alfabetatzera, okurritzen zaizue moduren bat? Beharrezkoa ikus dezaten igual, alfabetatzeak zer onura ekarri ditzakeen edo, zuei ze onura ekarri dizkizue alfabetatu izanak? Zuen kasuan.

E1: Neri idazteko mailla pillat bat, sobre todo. Eta ulertzeko.

G: bestean kasuan?

E5: Bai, neri ere bai, idazteko eta ulertzeko. Ulertzeko irratia, edo telebista edo eztaikit zer, porque alfabetatua eztagona askotan "eta horrek ze esan nahi du? Eta hoy?" eta igual kontestuan badakizu gutxi gora behera, baño igual nolabaitt barneratu behar duzu bestea, pues hitz hoiek erabiltzen dien o.

E3: Ta gañera baldin bazara, hemengo euskalkia solasten baduzu bakarrikan, ba paratzen duzu telebista eta igual eztuzu dena ulertzen ez, hitzak eta aditzak. Hemen ibiltzen dittugula aditzak nahi dittugun bezala! Ordun karo gero hartenzu liburun bat edo paratzenzu telebista eta eztuzu ulertzen ez, "zer erran nahi du horrek?".

E5: Edo zail egiten zaizu ulertzea.

E3: Bertze hitzak ibiltzeittugu ez, pues hortako ere bai, batua ikasteko. Baña igual azkenen galtzen dezu zure euskalkia ere bai eta hori ezta sobera ona biño en fin... igual joaten zara Bizkaira eta, topatzen zara Lekeitioko batekin eta eztiozu deus ulertzen eta berak zuri ere ez. Ordun baldin badakizu batua, edo moldatzen baldin bazara ematen dizu aukera hori ez.

E2: Ni lanin pasa zian, lenbiziko urtin, ba ni hemengo naiz, eta denak Gipuzkoakoak eta nik erraten nun hemengo hitz bat eta "hori zer da?" beraientzako... Eta orain hasi die, nere euskalkia beraien euskalkiakin nahasten. Bai eta ya telefonoa eta "erran?".Eta nik ere bai hartzen dittu hango, nik eztut nabaritzen baño nere kuadrillakok erraten diate jo.

E5: Ni neu bost urtez egon naiz Oiartzunen eta bertan dago, baño... eta nik ere hartu nun kutsa.

E6: Guardasola eta holako hitzak.

E2: Bai igual telefonoz Urkokin eta eztaikit ze hitz esan eta... (*Barreak*) Nei behin pasatu zian telefonoz, ba eztaikit norekin hitzegin behar zun eta erran nion "espetu e! orain pasako dizut!" ta, pasatu nion deia ta, hitzegiten, bertzea irrika ikuste nun, eta gero kontatu zian, bere ama beratarra zela ta zeramala urte pillat bat entzun gabe espetu, eta ordun berarentzat izan zen ooo, "hori beratarra da! Beratarra, lesakarra edo...espetu entzun dudandin neretzako izan da!" , bere amak espetu esate zun, bera ya adindua zen.

G: Bueno ba nik nire galderak bukatu dittu, eztaikit badaukazuen zer bait gehitzeko euskera alfabetatzen inguruan? Usteet aipatu dittuzuela ez denoke nahiko antzeko, bakoitzak bere errealitatetik baño arrazoi antzekok eman dittuzue. Ba oso ondo!



Jendarte-ikerketak aplikatuak

Martin Ugalde Kultur Parkea, Gudarien Etorbidea z/g

20140 ANDOAIN [GIPUZKOA]

943 59 30 06 / 608 018 512

idazkaritza@aztiker.com